

C525 - 40 f

HAZPARNEKO KALBARIOA

ETA KANTIKA ESKUARAK

Imprimatur :

DIHARCE, vic. gen.



H- 65559
F- 69480
AV
28249

HAZPARNEKO
KALBARIOA

ETA

KANTIKA ESKUARAK

BEREN AIREEKIN

BAYONAN

L. LASSERRE BAITHAN IMPRIMATUA

—

1892

BI HITZ

Juan den urthean (1890) buruilaren hamaseyan, Hazparnetik bidali zioten *Eskualdun* gazetari :

« Agindu duzunean, duela bi aste, Hazparnen besta eder bat izanen zela ilhabete hunen hamalauean, ez ginuen uste ikhusiko ginituela gerthatu diren bezain gauza eder eta handiak. Besta hortara preparatzeko, emana izan da erretreta bat zointan aditu baititugu, ene arabera, Eskual-Herriko predikari ederrenetarik bortz : Morde Zanzinena, Morde Choribit, Morde Belzaguy, eta Morde Abadie, seminario ttipiko superiora. Esperantza dugu, Kalbarioaren eginarazleak, Aita Arbelbide, misionesten aitzindariak, imprimaraziko dituela prediku miresgarri horiek. »

Bai, argitarazi ditut, eta huna non diren

hitzez-hitz, guziek Hazparneko elizan entzun ginituen bezala.

Eta orai ohart huni : Prediku horiek ez dire nolazbait eta itsumandokan eginak, bainan bai arrimu gurbil eta hoberenean. Ezen, aitzinetik, neronek igorri derayet predikarieri hitzaldi edo prediku guzien gaya, laburzki. Halako moldez non Jesu-Kristoren Pasione saindua burutik-buru baiteramate bere chehetasun hunkigarri guziekin, den gutieneko nahasmendurik edo desarrimurik gabe.

Zinez, choragarri zen Hazparneko Kalbarioaren besta hori. Ez daiteke erran zer lehiarekin jandeak zortzi egunez jarraiki zekizkion Jainkoaren hitzari ; eta gero zer oste handitan sakramenduetarat hurbildu diren ; eta azkenik nola Buruilaren hamalaua izan den, Eskual-Herriak egundaino ikhusi duen bestarik ederrena.

Hemen nahi dut errepikatu, *Erlisionea* deritzon ene liburu batean berriki erran dutana : Erospeneko misterio baitezpadakoaz baliatu nahi zaren ber, bohar diozu

Jesus kurutzefikatuari maiz eta luzaz behatu, izpirituz baino ere gehiago bihotzez eta amodioz.

Hortarakotz deusek ez zaitu hala lagunduko nola Liburu hunen arthoski irakurtzeak.

Diot *maiz eta luzaz* behar zayola Jesus kurutzefikatuari behatu, ezen haren oinazeak, bihotzminak, herstura ikharagarriak, agonia eta heriotze guziz borthitzak, ai! ez daizke ikhus begi kolpe batez. So egin behar zayo Jesus Kurutzefikatuari, iraupenekin, arthoski, eta aldikal buruan ibili zombat eta zombat jasan duen, eta norentzat, eta zertako. Hola dute egiten arima on eta Jainkotiarrek. Emeki emeki behatuz, emeki emeki jastatuz, emeki emeki othoitz eta nigar eginez, bethi eta barnago sarthuren gare Jesusen Pasioneko eta Zaurietako misterioetan.

Eta berriz ere diot, Eskualdun maitea, deusek ez zaituela hala lagunduko lan hortan nola Liburu hunen arthoski irakurtzeak. Gertha bedi!

Prediku horietaz bestalde, asko kantika, zahar ala berri, ederrenetarik, hautarazi ditut eta liburu huntan oro bildurik ezarri.

Bestalde oraino, ene herritareri emaiteagatik elizan kantatzeko errechtasun guziak, aireak ere hitzekin moldarazi ditut hemen. Nor-nahik ikhasiko ahal ditu.

Eta orai, liburu eta kantika maiteak, Eskualdun guzieri igortzen zerauzkiotet : eder bezain maitagarri zakizkiote, irakur eta errepika bezaitzazten non-nahi, etchetan ala kampoetan, eta guziz elizan !

AITA ARBELBIDE MISIONESTAK

eman chehetasunak :

Toki ederra dela Hazparneko Kalbarioa.

Nola eta zertako pairatu duen Jesu-Kristok

Gizon eta Jainko dela Jesu-Kristo.

KALBARIOAK

Hazparnen, goiz batez, Arroltze-mendiko Kalbarioari gora bazoazin Jaun Aphez gazte bat eta haren arreba. Hunek eskutik zabilan muttiko ttiki bat bere haurra.

Haur horrek zituzken gorenaz hamarbat urthe. Jite onekoa, izan ahala ongi altchatua, egiazko aingeru baten begitarte garbi eta maitagarria zuen, eta jadanik zion nahi zela aphez egin.

Haur horren ama, Eskual-Herriko etcheko-andere hoberenetarik bat zen, osoki Jainkotiarra, bai-eta buru onekoa, zentzu oso zuzenekoa, bere harat-hunat guzietan bethi hazkar eta erne zabilana.

Haren anaya apheza, berriki atheratua zen oraino seminariotik. Zinez eta finki ibili zituen bethi eskoletako bere lanak; bainan, aphurbat akhituchea izanagatik,

laborari seme baten gorphutz lerdena zuen, osagarri zail eta garbia, Eskual-Herriko arthalde hedatu eta menditarrentzat arimen artzain batek behar duen bezalakoa.

Kurutzearen bidea egin zuten hirurek elgarrekin.

Kalbario gainerat heldu eta, kurutzearen oinetan jartzen dire eta mutthiko ttipia bien artean emanik, anaya arrebak solasean abiatzen.

Solas egiteko eta deskantsu puchka baten hartzeko, ez dut uste baditeken toki hobeagorik. Zure begien aintzinean agertzen dire Hazparneko herrialde eta eremu zabalak : Labiri, Elizaberri, Hazketa, Peña; ikhus-ahala phentze, aldapa, ordoki, oihan, mahasti, bazterrik ederrenak alde orotarat hedatzen direla.

Eta non-nahi etcheak, beren hegastegi eta leiho gorriekin, paretak gisaz churiturik, irriz daudela iguzkiari. Eta urrunago Beskoitze eta Ahurti, eta hekien gibelean Landesetako bazterrak.

Eskuinera behatzen baduzu, agertzen zaitzu Ayherre, Ichturitze eta Gerezieta, hedatzen dituztela beren etchalde eta ontasun gizenak ala zelhay eder batean, ala

mendiska batzueri gora. Ezkerrerat aldiz ikhusten duzu Urtsuko mendia eta haren oinetan Hazparneko eskualderik ederrena, Zelaiko herrialdea.

Eta leihorraz harat, itsasoa ageri da bere zabaltasun ederrean. Beha dezazun Donibane Ziburuko aldera, ala Bokaletik gaindi Kabretoneko hegietara, Kalbario-gainetik ikhusiren ditutzu itsasoko ur handiak, mugarik gabe urrun hedatzen direla.

Bai, Kalbario-mendiko bichta osoki choragarria da, handik dire begiak ausarki gozatzen eta asetzen.

Huna beraz zer solasetan abiatu ziren Anaya-Arrebak. Jesus Kurutzefikatuaren alde-aldean jarriak eta haren orhoitzapenaz oro betheak, hartaz ziren mintzo. Elhetik elhera, huna Etcheko-Andreak zer galde egin zion bere Anaya Jaun Aphezari :

Othoi, behar zaizkit Jesusez aphurbat mintzatu ; bihotza oro hunkitua dut estazione hok eginik eta zerbait entzun nahia naiz Salbatzaile maite horren gainean.

Eta huna nola ihardetsi zion Aphez gazte khartsuak :

Dakizun bezala, Jesu-Kristo Jainkoa-

ren seme gizon-egina da; eta horrek erran nahi du, guk ditugun bezalako gorphutz bat eta arima bat hartu dituela. Halako moldez non, gu ganik Jesu-Kristo ganat, ez baita ariman ez-eta gorphutzean desberdingoarik funtsez eta izaitez, bainan bai, eta hainitz, moldean eta gisatasunean.

Diot *moldean eta gisatasunean*, ezen gure arima bekhatuak kutsutzen eta lizuntzen du ; eta aldiz Jesu-Kristo baithan ez da izan ethorkizko bekhaturik, ez-eta bere nahikorik ; eta ezin zaiteken gertha ere.

Gure arimetan bada gaizkirako asko jaidura, hala-nola hampadura, jauzkortasuna, atsegin-gura, eta bertze hainitz bethi borrokatzen gaituztenak; Jesu-Kristo baithan ez da izan behinere bekhaturako deus jaidurarik.

Gu jakitate-eskas oso batean sortzen gare, eta nekearen bortchaz beizik ez gaitezke zerbaiten ikhasterat hel ; eta aldiz Apostoluak dio : Jesu-Kristoren baithan bilduak direla zuhurtziaren eta jakintasunaren aberatasun guziak : *In quo sunt omnes thesauri sapientiæ et scientiæ absconditi* (Ad Colos. 2, 3.) Eta hori gerthatu zen Jesusen arima ezdeusetik atheratu bezain laster.

Orobat izan zen arima saindu hura Jaunaren graziaz eta zeruko dohain baliosenez gaindizka eta kasik neurri-gabe bethea eta aberastua.

Ikhas zazu hortik, gure arimak Jesu-Kristoren arimatik zoin urrun diren dohainetan eta osogunetan.

Alabainan, ez da miresteko Jainkoak bere osogunerik baliosenez aberastu balin bazuen gizontasun hori, zuenaz geroz beretzat hartu Presunaren batasunean.

Eta zer erran behar dugu Jesu-Kristoren gorphutzaz ?

Gorphutz sakratu hura ere gurea bezalako zen funtsez ; gurea bezala haragiz, hezurrez eta odolez egina.

Desberdingua haren eta gurearen artean, huntan datza : Harek ez zuen jaidura gaichtorik batere, guk jasaiten ditugun bezala. Hil ondoan ere gorphutz sakratu hura ez zen usteldu, nola egiten baitire gureak.

Gainerakoan, Jesu-Kristo gu bezala bizi zen eta zabilan. Gosea eta egarria, hotza eta beroa, nekhea eta unhadura jasaiten zituen. Eta badakigu zer oinazeak pairatu dituen azkenekotz bere heriotze ikharagarrian !

Zuk menturaz erranen duzu : Ai handi zait eta gaitz Jainko bat horrelako aphalgunetarat jautstea.

Bai eta niri ! Bainan horrek behar gaitu guziak maitagunez Jainko gizon eginarentzat sustatu. Go emazu bizkitartean : Ez duzu uste izan behar Jainkotasunak bere baithan deus holakorik jasaiten zuela. Horiek guziak Jesu-Kristoren gizontasunean, haren arimaneta haren gorphutzean, iragaiten ziren. Nolaz ordean eta zertako izan dire Jesu-Kristoren aphaltze, pairatze eta hiltze espantagarri horiek ?

Eliza katolikoak ihardesten derauku bere *Credoan* edo Sinestean : Gu gatik eta gu salbatzea gatik : *Propter nos homines et propter nostram salutem.* Orobat Jesu-Kristok berak Ebanjelioan ihardesten derauku : Jainkoaren semea gizon egin da eta mundurat ethorri, galdu zenaren bilhatzera eta salbatzera : *Venit quærere et salvum facere quod perierat.* (Luc. 19, 10.)

Alabainan gure lehenbiziko Aita Adamen bekhatuaz lizunduak ginen. Jainkoaren etsai ginen, ifernuko bidean sartuak ginen. Eta gu geroni ez ginitezken ondikozko erortze hortarik altcha. Ez da ezen

gizonik, ez eta aingerurik, bekhatu mortal bakhar batentzat Jainkoari zor dagokon erospena eskeint dezakenik.

Jainko Semea beraz urrikaldu da, gizon egin, kurutze batean hil ; eta hola gaitu bekhatutik eta ifernutik erosi. Hola dio bere Aita hasarretuari erospen bat eskeini izarigabea, haren osoguneari zor zitzayon bezalakoa.

Hori deitzen da gure Erospeneko misterioa. Eta bestalde horrela da Jesu-Kristo mundurat ethorri gure buruzagi bezala, gure nausi, gure lege emaile, gure molde eta saindutzaile.

Misterioen espantagarriak ! Jainko batek horren bertze egin eta paira dezala gizon bekhatorentzat ! Non da gure sinestea, holako ederresgarriez hain guti baikare orhoitzen ?

Hortan gelditu zen Anaya-Arreba hekien solasa. Bainan Kalbario-mendiko kurutzetik urrundu gabe, eta belhauniko emanik, ama khartsu harek bere haur maiteari erran ziozkan neurthitz eder hok :

Aingeruen Erregea
Erori duk tronutik;
Herrestan dik bizitzea
Ereman hiregatik.

Zerutik jautsi legeaz
Mundua dik argitu,
Zerua heriotzeaz
Hiretzat merezitu.
Nork du entzun egundaino
Holako pairamenik?
Eurutik oinetaraino
Dena zauri eginik!
Jesus, oi zu eztitasuna bera,
Zeruko dohainen ithurburua,
Othoi gathez dezazu esteka
Zuri bethikotz eue bihotza!

Azkenik huna zer egin zuen Jaun Aphezak. Bere sakelatik hartu zuen Testament berria, eta behatuz aldizka Kalbarioko kurutzefikari eta bere liburuari, hitz hok goraki irakurtu zituen :

« Aingeruak erran zion Mariari : Amatzera zoazi eta erdiko zare seme batez, eta emanen diozu izena Jesus. — Hura izanen da handi eta deithuko da Guziz-Goraren Semea, eta Jainko-Jaunak emanen dio bere aita Dabiden alkhia, eta bethikotz erreginaturen du (1). »

« Nola Joanesek, burdinetan zagoela,

(1) Et ait angelus ei : Ecce concipies in utero, et paries filium, et vocabis nomen ejus Jesum. Hic erit magnus, et Filius Altissimi vocabitur; et dabit illi Dominus Deus sedem David patris ejus; et regnabit in æternum. (Luc, 1, 31.)

ikhasi baitzituen Jesu-Kristoren egintzak, igorri ziozkan bere dizipuluetarik biga. — Berari galda zezoten : Zu zare ethortzekoa dena, ala bertzerik behar dugu iguriki?

« Eta Jesusek ihardetsi zioten : Zoazte eta erran Joanesi zer entzun eta ikhusi duzuen. — Itsuek ikhusten dute, mainguak badabiltza, legentsuak garbitzen dire, gorrek entzuten dute, hilak phizten dire, beharreri Ebanjelioa irakhasten zayote. — Eta dohatsu nigatik gaitzbidetan lerratzen ez dena (1)!

« Jesusek erran zioten Judueri : Abraham, zuen aita, lehiatu izan da, ene eguna ikhusi nahiz, eta ikhusi izan du, eta bozkariatu da. — Juduek orduan : Zer, ez ditutzu oraino berrogoi eta hamar urthe, eta zuk ikhusi duzula Abraham? — Eta Jesusek : Egiaz, egiaz diotzuet, banaiz

(1) Joannes autem cùm audisset in vinculis opera Christi, mittens duos de discipulis suis, ait illi : Tu es qui venturus es, an alium expectamus? Et respondens Jesus, ait illis : Euntes renuntiate Joanni quæ audistis et vidistis. Cœci vident, claudi ambulant, leprosi mundantur, surdi audiunt, mortui resurgunt, pauperes evangelizantur. Et beatus qui non fuerit scandalizatus in me. (Matth. 11, 2.)

Abraham baino lehenagodanik, bethidanik, ezen Jainko naiz ni (1).

« Joanes-Batistak Jesus bathayatzen zuelarik, zerua zabaldu zen, eta Jesusen gainera jautsi zen Izpiritu-Saindua urtzo baten itchuran; eta mintzo bat egin zen zeru-gainetik : Zu zare ene Seme maitea, zu-baithan gozatzen dut nik ene zoriona (2).

« Jesusek berekin hartu zituen Piarres, Jakes eta Joanes, eta mendi gora batetarat ereman. — Eta hedoi batek inguratu zituen, eta hedoi hartaric mintzo bat ilkhi zen, zioela : Hau da ene Seme maitea, hunen baithan derauzkat ene atsegin guziak : hau entzun zazue (3).

« Bai, bai, badakigu ethorri dela Jain-

(1) Abraham pater vester exsultavit ut videret diem meum : vidit et gavisus est. Dixerunt ergo Judæi ad eum : « Quinquaginta annos nondùm habes, et Abraham vidisti? » Dixit eis Jesus : « Amen, amen dico vobis, antequàm Abraham fieret, ego sum. » (Joan 8, 56.)

(2) Jesu baptizato et orante, apertum est cœlum, et descendit Spiritus Sanctus corporali specie sicut columba in ipsum; et vox de cœlo facta est : « Tu es Filius meus dilectus : in te complacui mihi. » (Luc. 3, 22.)

(3) Ecce nubes lucida obumbravit eos; et ecce vox de nube, dicens : « Hic est Filius meus dilectus, in quo mihi benè complacui : ipsum audite. » (Math. 17, 5.)

koaren Semea; eta harek argitu izan gaitu, ezagut dezaguntzat egiazko Jainkoa, eta bizi gaitezen haren egiazko Semearen baithan. Jesus da egiazko Jainkoa eta bethiereko gure bizitzea (1). »

( ) Scimus quoniam Filius Dei venit, et dedit nobis sensum, ut cognoscamus verum Deum, et simus in vero Filio ejus. Hic est verus Deus et vita æterna. (1 Ep. 5, 20.)

JAUN LAPEYRE

Kalonje eta Kanteprazeko omonierak

egin lehen predikua

JESUS OLIBETAKO BARATZEAN

Et ego si exaltatus fuero à terrâ omnia traham ad me ipsum. (JOAN. XII, 32.)

Lurretik altchatua izanen naizenean, guziak ene oinetarat ethoraraziko ditut.

Zoin ederra, Giristino maiteak, eta zombat egiazkoa agertzen zaitan, Liburu sainduetako hitz hori, ikhustearekin, orai, Eliza huntan bildua den jende oste handia !

Bai, hemen zareten guziek komprenitu duzue ongi, Kurutzearen gainetik jautsia dela Jesusen oinetan biltzen gaituen amodio handia. Ebanjelio guzia Kurutzean da, edo bederen hari buruz doha. Aldara Kurutzea ; eta, ez da deus gehiago gure Erlisionetik gelditzen, edo bederen, haren erakaspen guziak mendratuak eta ttipituak dire. Huna zer dion Jaun doni Paulo Apostoluak :

« Ez dakit deus zueri irakuts dezakedanik, baizen Jesu-Kristo eta Jesu-Kristo kurutzefikatua. » Eta bizkitartean, Jaun doni Paulo gizon argitua eta

izpiritu hainitz handikoa zen. Erroman, Grezian, lekhu argituenetan haren hitza entzuna izan zen. Eta hargatik, bere jakitate eta erakaspen guziak ezartzen ditu Jesu-Kristo kurutzefikatuaren ezagutzan.

Ez zaitela espanti, Giristinoa, gisa hortan mintzo bada Apostolu handi bat.

Zer da Kurutzea? Arbola bat zeruaren eta lurraren artean landatua. Bainan arbola horrek bere besoetan dakarzke Jainkotasuna eta gizontasuna, Jesu-Kristoren presuna sakratuan. Jainkotasuna! bere justiziarekin, bainan ere bere urrikalmendu eta amodioarekin; gizontasuna, bere dolore eta esperantzekin. Jainkoaren justizia eta amodioa, gizonaren dolore eta esperantzak, bai horiek guziak Kurutzean izkiribatuak dire Jesusen odolarekin.

Munduaren kreazioneaz geroztik, Kurutzeko sakrifizioa izan da. lurraren gainean agertu den gertakaririk handiena. Adametik hasirik, Abrahame, Moysa, Dabide bidean hartzen ditugularik, Patriarken eta Profeten gutizia eta esperantza guziak Jesus Kurutzefikatuari buruz dohazi. Entzun izan zen azkenean, Kalbariako menditik, Kurutzearen gainetik jausten Jesusen hitz hau: *Consummatum est*;

guziak komplituak dire ; komplituak Profeten agintzak, aphazegatua Jainkoaren justizia. Ordu beretik, Kurutzeaz mundua salbatua zen.

Oi ! agur egizue Kurutzeari ! Jesu-Kristoren amodioaren tronua da, giristinoen seinalea, bekhatoreen esperantza, justuen indarra eta kontsolazionea.

Zorionezkoak beraz populuak, zoinen gainerat hedatzen baitire Kurutzearen beso salbagarriak ! Zorionezkoak beraz zuek, Hazparne herriko giristino onak ! Zombait egunen buruan, mendichka eder eta arrai batean ikhusiko ditutzue Kurutzeak zuen herri ederraren benedikatzeko paratuak.

Zer pentsamendu on, eder eta salbagarria izan duen Aita Misionesten lehen Nausiak edo superiorak, bere komentua Kurutzearen laguntzaren azpian eman nahi izan duenean ! Zer pentsamendu ona ere, zuen Erretor argitu eta khartsuak, sentimendu beretan hambat lehiarekin sarthu denean, Kurutzearen benedizioneak bere populuaren gainerat jauts-arazteko !

Bai, Giristinoak, oraino zombait egun, eta besta handi baten ikhuszaile, eta hartan partalier izanen zarete. Diozesako lehen Artzainak, Jaun Aphezpikuak berak,

benedikatuko du zuen Kalbario berria.

Ez othe zaitzue zuzen eta justu iduritzen, gure arimak prepara detzagun besta handi hortarat, meditatuz, aste huntan, Jesusen pasioneko gerthakari printzipalen gainean, eta ere, gure arimak garbituz egiazko penitentzia baten sentimenduetan ?

Goiz huntan, jarraikiko gare Jesusi Olibetako baratzean. Han, ikhusiko dugu Salbatzailea, gure bekhatuen kargaren azpian aphaldua, lehertua : *Attritus est propter sceleranostra; posuit in eo iniquitatem omnium nostrum.* Ochala, ikhuste doloragarri hortan aurkhitzen bagindu, gure bekhatuen egiazko herra bizi bat! Orai beretik, eman gaitezen Kurutze adoragarriaren oinetan. Izan dadiela gure argia, gure esperantza eta gure salbamendua: *O Crux, ave !...*

I

Urgulua izan zen gure lehen burasuen bekhatuaren printzipioa : *Eritis sicut dii;* Jainko batzuen pareko izanen zarete, zioten erran izpiritu tentatzaileak. Sinhetsi zuten, hartu zuten eta jan frutu debekatua.

Bekhatu guzietan aurkhitzen da lehen bekhatuaren malezia hori. Ezen bekhatua obedientzia eskas bat da, eta Jainko gure Nausi soberanoaren kontrako errebolta edo altchatze bat. Bada, ethorri da Salbatzailea bekhatuaren kaltearen erreparatzerat, eta hori eginen du aphaltze eta umiliazione ikharagarrienez. Olibetako baratzeko aphaltasunaz aski gora mintzatuko zaizkigu.

Bere Apostoluekin egin ondoan azken aphairua, establitu sakramendu adoragarria, hirur dizipulu maiteenak berekin hartzen zituelarik, sartu zen Jesus Olibetako baratzean. Laket zitzayon, baratze hartan ardura othoitz egitea. Bainan huna non bet-betan haren arima saindua trichteziazko itsaso beltz batean bezala pulumpatua aurkhitzen den. Ene arima, dio, trichte da hil arteraino : *Tristis est anima mea usque ad mortem.* Beldurrez joa da, deskustu eta trichtezia handi batean sartzen da : *Cœpit pavere, tædere, et mœstus esse.* Ez othe da bada Jesus hura bera, doi-doya erraiten zuena : Khartsuki gutiziatu izan dut Bazko hau zuekin jatea : *Desiderio desideravi hoc Pascha manducare vobiscum.* Zertako bada orai sentimendu ilhun

hauk? Bekhatuaren borratzeko eta ere, egiazko penitentzia guri erakusteko.

Eta lehenik, beldurrezko sentimendua : *Cœpit pavere.* Zertako jarraiki izan da bekhatorea, pasionen jaidura tzarreri, zertako bentzutua izan da tentazioneaz? Zeren khendu izan baitu bere bihotzetik, haur batek bere aitarentzat izan behar duen beldur saindua, zoina baita, dio Izpiritu Sainduak, zuhurtziaren eta phrestutasunaren hastapena : *Initium sapientiæ timor Domini.* Adamek eta Ebak izan balute bihotzean, Jainkoaren beldur hori, ez zuten bekhatu eginen. Jesu-Kristo lurrerat ethorri artean, iragan diren lau mila urtheetan, bizi izan balitz Jainkoaren beldur hori, ez zen mundua krima guzien lohi zikhinetan hondatuko. Bekhatoreaz errana da, bere jujearen aintzinean agertzearekin, ikharaz eihartuko dela. Jesusek, gure bekhatuen karga bere gain hartu duelakotz, sentitu du beldur eta ikhara hori : *Cœpit pavere.*

Cœpit tædere : Deskustu handi batez bethea da. Bere pasioneen asetzeko, bekhatoreak jastatu izan ditu, arima zikhintzen dituzten atsegin tzar eta lizunak; eta huna non, Jesusen arimak, sekulan izan

den, eta izan daiteken sainduenak bere baithan dituen sentitzen, bizio tzar eta lizun hoikien ahalgea eta deskustua.

Cœpit mœstus esse. Jesu-Kristoren ariman ikhusten dudan hirurgarren sentimendua, gure bekhatueri buruz, da trichtezia, berak jadan Apostolueri erran zioten bezala. Bekhatu mortalak urruntzen du gizona Jainkoa ganik. Hori da zorigaitz guzietan handiena, trichtezia guzietan saminena, baginaki gauzen prezatzen behar duten bezala. Jesusek, egia bera eta saindutasuna bera zenak nola ez zezaken bere baithan aurkhi, bekhatuak eman behar duen trichtezia hori : *Cœpit mœstus esse.*

Trichteziazko, ahalgezko eta beldurrezko sentimendu min hoikiekin, Jesus erortzen da arphegiz lurrerat. Ez da ausartatzen bere begien zerurat altchatzerat. Nigarretan, suspiretan dago, oi, Jainko handia ! Gauza hori izan othe daiteke? Zeruko bozkarioa, nigarretan; aingeruen zoriona, trichtezian hondatua; berthute eta indar soberanoa, ikharetan emana; biziaren ithurria eta emailea, agonian eroria !

Norat nahi ere itzul dadien Jesus, nihon

ere ez kontsolazionerik. Ez dezala bilha bere ariman. Ikhusten du gizonen krima guziez zikhindua, zeren guzien laidoa bere gain nahi izan baitu hartu, guzien borratzeko, guziez penitentzia egiteko. Haren arima osoki saindu eta osoki garbia, zeruko gortheko izpiritu hutsak baino mila aldiz sainduagoa eta garbiagoa, aurkhitzen da beltztua güre bekhatu itsusienez, Massillonek dioen bezala : « Jainkozko garbitasunaren begiekin, ikhusten ditu bere baitan, gizonen lohikeria guziak; miserikordiaren eta urrikalmenduaren begiekin, aurkhitzen du bere burua, gizonen herra, jazarkunde eta mendeku guziez hobendun; Erlisione bizienarekin, ikusten du bere baithan, impietatea eta blasfemioa. Hitz batez, berthutea eta saindutasuna bera da, eta iduri du haren arima bizio guzien egoitza bilhakatua dela. »

Aurkhituko othe du bederen zerbait soleimendu, berekin hartu dituen hain 'dizipulu maiteetan? Badoha hekien ganat eta lokhartuak aurkhitzen ditu. Doi-doya zuen, bizkitartean, Jaun Doni Petrik erran zioela, harekin hil behar bazen ere ez zuela utziko; eta orai, Jesusen pasionea hasia da bai, lo dago, eta harekin haren lagu-

nak. « Eta, dio San Krisostomok, Jesusekin iduriz, hiltzerat paratuak zirenek ez dute aski indar eta animo, harekin atzarriak eta othoitzean egoiteko : *Qui mori simul cum Christo elegerant, neque cum eo vigilare potuerunt. (Homil. in Matth.)* » Zer ilhumbea Jesusen bihotzarentzat, molde hortan bere Apostoluez ahantzia izaitea ! Dorphe bazayo hoztasun hori, ez da hargatik errenkuratzen, eta eztitasun handienarekin erraiten diote : « Lo zagozte ? Ez duzue ahal izan, oren bat enekin atzarriak egoitea, ni zuentzat othoitzean nagoen demboran ? *Sic non potuistis unâ horâ vigilare mecum. (Matth.)* Guziek baino gorago, hitz eman zion Jaun Doni Petrik, heriotzeraino harekin egonen zela, eta hari bereziki erraiten dio : *Simon, dormis?* Zer, zu ere lo zaude ? Hortan da beraz enetzat duzun amodioa ? Enetzat eta enekin hil nahi zinduen, eta ez duzu ahal izan, oren bat, enekin atzarria egoitea : *Sic non potuistis unâ horâ vigilare mecum ?*

Apostoluen baithan ez du beraz Jesusek deus kontzolazionerik aurkhitzen. Sahetserat utzia dute ; trichtezian den demboran, sahetserat utzia dute ; lo dagozi, ez dire bere Nausiaz orhoitzen. Eta beraz, ez

duenaz geroz Jesusek bere baithan, pena, trichtezia eta ilhumberik baizen ikhusten, bere Apostoluetan epheltasuna, amodio eskasa, norat bada itzul detzazke begiak? Nori, zerbait kontzolazione galdeginen dio? Bere Aitari othe? Iduri luke. Bainan, bere Aitari othoitz egiten dio, behin, bietan, hiruetan, eta ez da entzuna.

Jainkoa bere justiziaren zuzenetan dago; bekhatuak behar du izan borratua, Jainkoaren handitasunari eta justiziari egina izan zayon laidoaren izari berean. Hortarakotz, Jainko Aitak utziko du bere Seme maitearen pasionea osoki komplitzerat: eta haren othoitz, nigar eta marraskeri gogor egonen da.

Eta orduan, gero eta gehiago gure bekhatuen kargaren azpian lehertua eta ahalkatua, apostoluez ahantzia, bere Aitaz utzia, oihuz dago Jesus: *Abba Pater!* Oi ene Aita! Orhoit zaite bada ni izan naizela lehena izen ezti hori eman dautzuna. Oi ene Aita! orai naizen estatu deithoragarrian, ez dautzut galdetzen maita nezazun, eternitate guzitik, enetzat izan duzun amodio izari gabeko hartaz; bainan, ikhus zazu zertarat eroria naizen eta urrikal zakizkit. Jainko Aitak ez du entzuten oihu samin

hori, eta bere semean, nahi bezin saindua den bere baithan, ez du nahi gure bekhatua baizen ikhusi : *Posuit in eo iniquitatem omnium nostrum.*

Zerua eta bere Aitaren bihotza hetsiak ikhustearekin, beherago oraino izan badaiteke, Jesus aphaltzen da; bere kopeta sakratuaz lurra joiten du; odolezko izerdi bat ilkitzen da haren gorphutzetik, eta adi-arazten du hitz hau, aintzineko guziak baino saminagoa : Oi ene Aita! ene Aita! izan badaiteke urrun dadiela ni ganik, sofrikariozko kalitz hau, edari khirets hau : *Transeat à me calix iste.*

O Giristinoak! zer othoitza, zer hitzak Jainko gizon baten ezpainetan! Ez da hemen seme maite harren boza hambat konfientziarekin bere Aitari erraiten ziona : *Volo, Pater :* Ene Aita, hola nahi dut. Bertze orduz, gisa hortan mintza zaiteken Jesus; bainan orai, hobendun bat da, gure bekhatuez eta krimez hobendun.

Zer! hori da, orai duela zombait egun doi-doya, bere erakaspen espantagarriez, jende osteak espantitzen zituen Jesus hura bera? Hori, eriak, gorrak, itsuak sendatzen, eta hitz batez hilak phizten zituena? Hori, Lazaro lau egun hetan tumban ze-

nari erran zioena : *Lazare, exi foràs!* Lazaro, ilkhi zaite tumbatik! Eta Lazaro phiztu zen haren hitzaren berthuteaz eta indarraz. Bai, bai hori bera da. Oi! zertaratu duen gure bekhatuak, biziari eta herioari manatzen zuen Jainko-Gizona. Ez othe daiteke egia handirekin erran hartaz Jerusalemeko hiriaz Profetak errai-ten zuena?-Zer bilhakatu da Jerusalem, hain aberatsa eta botheretsua zena, Jerusalem zeruko eta lurreko ongi guzien egoitza? Etsayek orai aphaltzen eta mespre-zatzen dute, diotelarik : *Hæccine urbs perfecti decoris, gaudium universæ terræ?* Gau bakhar bat aski izan da hiri eder hortarik desertu bat egiteko : *Inter civitatem maximam et nullam una nox interfuit.* Bekhatua, horra hire obra; biluzi duk bere edertasunetik, aingeruen bozkarioa egiten zuen Jainko semea. Ez duk deus gehiago Jainkozko botheretik ageri, eta hire beltz-tasunaz ahalkatua, oraitik erraiten ahal dik : *Ego sum vermis et non homo ;* ez naiz gizon bat, bainan bai oinen pean le-hertzen den har bat.

Mirets dezagun hargatik, Jesu-Kristo-ren sumisione eta obedientzia osoa. Gizon naturalezaren mina handia balimbada, ez

da Jesusen arima sainduan erreboltazko sentimendurik sartzen, eta berehala dio : Egina izan dadiela, ez ene nahia, bainan bai zurea : *Verumtamen non sicut ego volo, sed sicut tu.*

Hemen, adora dezagun, esker onezko sentimendu bizienekin. Gudu luze eta doloragarri hortan, Jesusek guretzat duen amodioak du garaya eremaiten. Jesusęk edanen du azken chortaraino sofrikariozko kalitz khiretsa, eta mundua salbatua izanen da.

II

Bainan behar dugu, Giristinoak, oraino barnago sarthu, Jesusen agoniako michterio hortan, eta entseyatu komprenitzerat, zerk bada Jesus haimbertzetarañokoan sofriarazten duen, non haren ahotik ilkitzen baita hitz espantagarri hau : Ene Aita, izan baditeke, dolorezko edari hau urrun dadiela ni ganik. Ez da dudarik; baitezpada hala nahi izan balu, pasione hori haren ganik urrundua izanen zen, Jainko Aitaren bethiereko osoki maitatua zen. Gu utziz gure zorte deithoragarriari, ez zuen izanen pairatzeko; Jainkoaren justizia zuzenak bere bidea segituko zuen. Bai,

bainan galduak izanen ginen eta Jesusek salbatu nahi gintuen. Gehiago diot; den gutieneko aphaltze bat aski izanen zuen gizonen erosteko. Bainan nahi dauku ongi erakusterat eman guretzat duen amodio handia, eta ere bekhatuaren izigarritasuna.

Zoin dire arrazoinak edo kausak ezin erranezko deboilamendu hortan Jesus aurthikitzen dutenak? Horra zer behar dugun ikhusi.

Lehena, gorago adiarazterat eman dugun bezala, hau da : Bere gain hartu ditu Jesusek gu guzien bekhatuak. Hetaz guziez hobendun dagoka bere burua : *Attritus est propter scelera nostra... Posuit in eo iniquitatem omnium nostrum.* Ikhusten ditu bere ariman impietateak, Erlisione eskasak, blasfemioak, Jaunaren egunaren profanazioneak, herrak, injustiziak, ohoingoak, medisentzia eta kalumniak, Erlisionearen eta Elizaren kontrako gerlak, haurren arimen phozoindatzea, hitz batez bekhatu eta krima guziak, hasirik Adamen lehen bekhatutik, mundua akhabatzean azken bekhatoreak eginen duen bekhaturaino. Bitartean, uholde jenerala, Sodomeko eta Gomorreko suzko uria merezitu zute-

nak, eta bertze guziak. Horiek oro, mare handian, itsasoko ura altchatzen den bezala, Jesusen ariman altchatzen dire, eta trichteziazko ibayetan arima saindu hori hondatzen dute.

Orhoit naiz hemen, Lege Zaharreko Akamen ichtorioaz. Krima batez Moysen legea kolpatu zuen. Harrikatua izaiterat kondenatua izan zen. Eman zuten Israelgo populuaren erdian, heriotzeko suplizioaren jasaiteko. Hedatzen ditu begiak bere inguruetarat eta zer ikhusten duen! Ehun mila beso, harri pisu batzuez harmatuak haren lehertzeko. O Salbatzaile Adoragarria, horra zer zinduen ikhusten, Olibetako baratzean ahuspez emana zinelarik. Ai! ez choilki ehun mila beso altchatuak, bainan lekhu eta mende guzietako gizonen bekhatuak zure kontra harmatuak. Oi! ikhuste dorphe eta ahalgegarria zure arima osoki sainduarentzat!

Uste balu bederen, Jesusek, bekhatore guziak salba bere pasioneaz, bozkario handirekin edan lezake dolorezko kalitza. Bainan ez; badaki oraitik, hainitz eta hainitzentzat alfer eta debalde izanen direla, haren pairatze, kurutze eta heriotzea, eta dio: Zer balio izanen du ene odolak ham-

bat bekhatore galduko direnentzat : *Quæ utilitas in sanguine meo. (Ps. XXIX).* Sentimendu hori izan zen, dio San Ambrosiok, Jesusen agoniaren kausarik handiena. Gizon guziak nahi zituen salbatu, eta ikhusten zuen hainitzek haren odola mesprezatuko eta Kurutzea arbuyatuko zutela ; ikhusten zuen, haren jasan gogor guzien gatik, hainitzentzat guziak galduak izanen zirela eta horrek zuen trichtezian ezartzen : *Tristabatur quia nec malos perire volebat. (In Luc.)*

Bertze orduz, jasan izan zuen Dabide erregeak, Jesusen sup'izio horren itchura bat bezala. Absalon haren semea, bere eskuez hil ondoan Ammon bere anaya, altchatu zen harmekin, Dabide bere aitaren beraren kontra. Dabiden errege botherea, khoroa, eta menturaz bizia bera hirriskutan ziren. Ahanzten du errege dela, orhoitzeko choilki Absalonen aita dela. Eta bere harmaden aintzindari buruzagiari, hitz hau dio, guzien gainetik erraiten : Oi salba zazue ene seme Absalon ; utz diozozue bizia : *Servate mihi puerum Absalon. (Reg. II, XVII.)* Guduan hila da Absalon. Lege Sainduko liburuek erran dauzkigute Dabiden oihu minak bere semearen

hiltze berria entzun zuenean : Non haiz, non haiz Absalon ene semea ? *Fili mi Absalon, Absalon fili mi ; quis mihi tribuatur ego morior pro te? (Ibid.)* Bainan Dabiden dolorea ez da Jesusen dolorearen itzal eta itchura flako baizen. Dabidek nigar egiten zuen, Absalonen lur huntako bizi pasakor baten gainean; Jesusek sofritzen eta nigar egiten du, bethiereko heriotzetik salbatuko ez dituenen gainean, ez dutelakotz berek haren odolaz baliatu nahiko : *Quæ utilitas in sanguine meo ?* Nahi du hil; ez da urrundua Kurutzearen jasaitetik : *Quis mihi tribuat ut ego moriar pro te ?* Bainan haren arima trichtezian aurthikitzen duena da, hilen dela egiazki, eta ez direla nahiko hainitzak haren heriotzeaz baliatu. Eta oihuz dago, bere othoitzen eta nigarren erditik : Ilkhi zaizte bekhatutik, ilkhi bekhatuaren bidetarik ; ezen bertzela, zer probetchu izanen da ene odoletik? *Quæ utilitas in sanguine meo ?*

Gauza guziak beraz, garratz eta dorphe zaizko Jesusi : bere gain hartu dituen bekhatuen beltztasuna eta izigarritasuna ; bekhatoreen itsumendua ; ikhustea, hainitzentzat, haren odola eta heriotzea alfer eta debalde izanen direla. Eta horiek gu-

ziak hola direlarik, bai, oraino hil nahi du : *Fiat, fiat,* egina izan dadiela zuk nahi duzun bezala : *Non sicut ego volo, sed sicut tu.* Ikhusten baitu ere, hainitz galtzen badire bere faltaz, hainitzak izanen direla salbatuak haren pasioneaz eta heriotzeaz. Orhoituz hortako lurrerat ethorri dela, bere Aitaren nahia osoki onhartzen du : *Reminiscens propter quod missus est, clamat : non sicut ego volo, sed sicut tu.*

O Edeneko baratze berria! lurreko lehen parabizuko hutsa erreparatu duena! Zombat bertzelakoa lehen baratzetik! Lehen baratzean edo lurreko parabizuan, Adamek aurkhitzen zituen pausua, bozkarioa, atseginak, gozoak. Olibetako baratzean, Adame egiazkoak, lehen Adamen hutsa erreparatzen duenak, zer du aurkhitzen? Nigarrak, trichteziak, bihotzeko ilhumbeak. agonia doloragarriena. Lehen baratzean ziren ur fresko eta garbiak Adamen gorphutzaren atseginarentzat; hemen, Salbatzailearen gorphutzetik ilkhitzen diren odol ibayak. Oh! zeren orduan, oraino Adame inozenta eta saindua baitzen, eta hemen Adame berria, Jesu-Kristo, Adamen arrazaren bekhatuez kar-

gatua baita. Bainan ere, lehen baratzean izan zen desobedientzia, hemen obedientzia osoa; han Jainkoaren justizia laidostatua', hemen ohoratua; han bekhatua, hemen erreparazionea; han gizona galdua, hemen salbamenduko bidetan ezarria.

Giristino maiteak, zer izan zen Jesusen pasionea Olibetako baratzean, ez dugu sekulan ongi komprenituko. Behar ginduke hortarakotz jakin, zoin den handia bekhatuak kolpatu duen Jainkoaren justizia, eta ere, bekhatua bere gain hartu nahi izan duen Salbatzailearen saindutasuna. Horiek dire gauza batzu gure argi eta sentimenduez mila aldiz gorago direnak. Ez dezala uste izan, kreatura flako batek Jainkoaren justiziaren eta saindutasunaren jujatzaile izan daitekela.

Marguerite-Marie, Jesusen Bihotz Sakratuaren alderat, hain debota zen serora sainduaren bizian irakurtzen dugu gauza hau. Egun batez, artha, khar eta amodio handirekin, kontsideratu zuen, bere meditazionean, Jesusen trichtezia eta agonia, Olibetako baratzean. Nausi Dibinak erran zion : Jasan izan dut hemen, ene barnean eta bihotzean, pasione guzian baino gehiago, zeruaz eta lurraz bazterrerat utzia

eta gizon guzien bekhatuez kargatua. Horrela agertu naiz Jainkoaren saindutasunaren aintzinean ; ene inozentzian behatu gabe jo nau bere koleran... Edan-arazi daut, bere justiziaren kalitz khiretsa... Ez da nihor kompreni dezakenik, zer jasan nuen orduan gizonen fagoretan...

III

Zer da beraz-bekhatua, bekhatuaren iduria bezik ez duena, gisa hortan gaztigatua denaz geroz, nahiz bera osoki inozenta eta Saindua den? Bekhatua da errebolta bat; kreatura ez deus baten errebolta bere Jainko eta nausi soberanoaren kontra. Bekhatua da ere, bere segidez, gizonaren zorigaitz handiena. Olibetako baratzean sentitzen zituen Jesusek bere baithan, eta handizki sentitzen bekhatuaren hoben eta zorigaitz horiek. Ezen oraidino, ez du bertze etsayik baizen bekhatua. Judas traidorea ez da oraino baratzean agertu; jujeak ez dire oraino bilduak eta bere alkhietan jarriak, Jesus Justuaren kondenatzeko; ez ditut oraino ikhusten ez azoteak, ez arantzezko khoroa, ez Kurutzea. Agonian bada Jesus bekhatua gatik da.

Jainkoa, gure Aita, gure Nausia eta

Erregea da. Badu, horrela, zuzena eta bothere justuia guri bere Legeen emaitekoa, eta guk, obedientzia zor diogu. Ez daiteke izan hortan den gutieneko dudarik. Bainan zer egiten dugu bekhatuaz? Jainkoari berari, gure Egile eta nausi soberanoari, sorhayotzen gare, buru egiten diogu ; hitzez ez bada, bederen egintzez, erraiten diogu : Bai, ene Jainkoa, badakit, ene erregea, ene Nausia, eta Jaun Soberanoa zarela; badakit, ikhusten dut, zuk egin ditutzun kreatura guziek, zeruetako argi distiantek bezala, gure oinetan ikhusten ditugun landare ttipienek, zure legeeri obeditzen diotela ; bada, nik, zure kreatura hautatua, ez dut nahi zuk manatua egin, nahiz ezagutzen dudan zeronek eman dautazun adimenduaz. Kontsideratzen baditugu, alde batetik, Jainkoaren majestate eta handitasun mugarik gabekoak ; bertze aldetik, gizona deus ez dela bere baitharik ; Jainkoaren kontra altchatzeko ahala bera haren ganik, haren amodiotik izana duela, ikhusiko dugu errechki badela erreboltazko oihu hortan, ezin erranezko malezia bat. Ezen, zombatenaz baita, Jainko ofentsatua handiagoa, eta kreatura bekhatu egilea aphalagoa hari buruz, ham-

batenaz handituz doha bekhatuaren malezia. Bainan ez da choilki, bekhatuak laidostatzen duen Jainkoa gure Nausia, da ere gure Aita, eta Aita guzietan amultsuena, Aita baten bihotza kolpatzen dugu beraz bekhatuaz, haren dohainez berez zerbitzatzen garelarik, eta menturaz, o belztasun izigarria, haren amodio eta urrikalmendua bera aintzineko emaiten. Nork ez ditu, ordutik, asmuz bederen pochi bat komprenituko, Jesusen sofrikariak, bere burua ikhusten duenean, gure bekhatuez Jainkoaren kontra altchatua ; eta, bethiereko amodio batez maite duen, Aitaren kontra gerlan emana. Horra, horra zerk egiazki erran-arazten dion : Urrun dadiela ni ganik dolorezko kalitz hau : *Transeat à me calix iste.*

Ez da aski oraino. Ikhusten zituen Jesusek, bekhatuak gure arimentzat dituen segida deithoragarriak; eta bere amodioan hekietaz ere nigar egiten zuen. Zer diren bekhatuaren segidak gure arimentzat, badakigu. Jainkoaren grazian deno gure arima, neguko elhurra bezain churi da; iguzkia, zeru urdin eta garbi batean bezain eder eta distiant. Bekhatu mortala sartzen da bai arima batean, itsusten eta zikhin-

tzen du, eta, itchuraz mintzatzeko, khelderra bezain beltz egiten. Dembora berean, Jainkoaren adichkide zen arima hura, haren etsaigoan emaiten da; amodio ezti eta saindu batean, bere Aita zerukoaren bihotz amultsuan bizi zen; eta horra non orai, Jainkoak bere ganik urruntzen duen. Ikhusi dugu hori jasan zuela Jesusek Olibetako baratzean. Ezagutu zuen ongi bere Aitaren hoztasuna eta urruntasuna.

Bekhatuak badu bertze segida, Jesusek bere baithan jasan ez zezakena, bainan guretzat zuen amodioak dorpheki eta garraizki sentiarazi ziona. Bekhatu mortalean den arima, ez bada Jainkoa ganat itzultzen, bethikotz galdua, damnatua da, erran nahi da ifernurat kondenatua. Horra zer zuen oraino ikhusten Jesu-Kristok eta horrek zion erranarazten : Zer probetchu izanen du ene odolak, hambat arimentzat? *Quæ utilitas in sanguine meo?*

Bainan kontsiderazione horiek guziak baino gorago mintzo zaiku Jesu-Kristo bera, Olibetako baratzean. Bekhatuaren maleziaren erakusterat emaiteko, zer da, zer izan daiteke mintzo denik, oihu hau baino hobeki : Oi, ene Aita, ene Aita! ahal baditeke, urrun dadiela ni ganik do-

lorezko kalitz edari hau : *Transeat à me calix iste.*

Zatozte, zatozte, Bekhatoreak ! Ikhus zazue zuen Salbatzailea, zuentzat fiadoreman nahi izan dena, zombat aphaldua ! zombat umiliatua ! Inozenta, hobendun handi batentzat atchikia ; justua, gure bekhatuentzat nigar egiten ; Jainkoaren Seme maitea, bere Aitaz arbuyatua. Entzun zazue jausten zeru goratik, oihu hau : O ene Semea, urrun hadi bekhatore horietarik ; utz zatzik ; hire ganik urrun tzak hoikien bekhatuen karga ; gaztigatuak izanen dituk, merezi duten bezala ; eta hi, bethi ene Seme maitea izanen haiz, eta ene justiziaren kolpeek ez haute hunkituko. Bainan, entzun zazue ere Olibetako baratzetik altchatzen den errepostua. Jesusek, bere auhenez eta othoitzez du ihardesten : *Preces supplicationesque offerebat cum clamore et lacrymis (Hebr. V.).* Ez, ez, du erraiten, o justizia eternala, ez naiz baratuko nigar eta othoitz egitetik, non ez diren bekhatoreak barkhatuak izanen, eta zutaz benedikatuak ni baithan eta enekin : *Non dimittam te nisi benedixeris mihi.*

Oi zuek, ekharriak zaretenak, bekhatua-

ren maleziaren ttipitzerat, eta ifernuko penak handiegitzat dauzkatzuenak, Tertulianok dioen bezala : *Contemnit pœnam et exagerat pœnam*, baratze huntarat zaituztet deitzen ikhusteko zer izan daiteken bekhatua. Ez detzagun gure bihotzak gogor ; bekhatu egin badugu, sar gaitezen urrikitan. Ez dezagun merezi, Jainkoak gutaz erran dezan, bertze orduz erran zuena : Ene populuak, utzi nau : zer eskergabetasuna ! Galdu da bere faltaz : zer erhokeria ! *Duo mala fecit populus meus.* Hoikien guzien ondotik, erran diot hargatik : Itzul zaite ni ganat ; gogortu da bekhatuan eta ez da ni ganat itzuli : *Et dixi : revertere... et non est reversa.*

Gu, giristinoak, ez gaitezen izan populu itsu haren idurikoak. Gohazen guziak Jesusen ganat, Olibetako baratzerat ; justuak, haren kontsolatzeko gure amodioaz ; bekhatoreak, gure bekhatuez harekin nigar eginez, haren agoniaz baliatzeko !

JAUN LAPEYRE

Kalonje eta Kanteprazeko omonierak
egin bigarren predikua

JESUS JUDASEZ SALDUA

Qui autem tradiderat eum, dedit illis signum dicens : quemcumque osculatus fuero, ipse est, tenete eum. (Matth., ch. 26.)

Jesus saldu zuenak seinale hau eman zioten : Nori eta ere musu emanen baitiot, hura izanen da hartu behar duzuena.

Gauza min egiten duena eta nigar egingarria da, Jesus ikhustea Olibetako baratzean, agonian eroria, odolezko izerdi batez estalia; bainan hori da gauza bat komprenitzen ahal duguna, Jesusek gure bekhatuen karga bere gain hartu izan zuenaz geroz : Jainkoaren justiziak bere bidea segitzen zuen.

Bainan zer sentimendu izanen dugu, kontsideratuz Judasen traidorekeria, eta nola komprenituko dugu arima horren beltztasuna? Erran daiteke, Kaïn anaya hiltzalea izan dela Lege Zaharreko arima tzarrena eta beltzena ; gisa berean eta oraino gehiago, Judas Lege Berrian. Horra zertako, Kaïnen eta Judasen izenak, deskustu batekin bezala aiphatzen ditugun.

Lehenak, jelosiaz hil zuen bere anaya, Abel justua eta inozenta. Bigarrenak, musu batez eman zuen etsayen eskuetan, bere Nausia, saindutasuna bera zen Jainko-Gizona. Ongi komprenitzeko zoin izan zen handia Judasen krima, behar dugu lehenik erran, zer zen Judas Jesusi buruz. Ez zen nor nahi den; Jesusen dizipuluetarik zen, gehiago oraino apostoluetarik bat zen : *unus de duodecim;* erran nahi da, Eban-jelio saindua munduan predikatzeko berechi zituen hamabietarik bat. Hura da Jesus saltzen duena. Nori? Jesusen etsai krudelenen eta aspertueneri. Nola saltzen du? Musu baten medioz, erran nahi da, adichkidetasunaren seinalea emanez : Nor eta ere izanen baita, zioten erran, nik besarkatuko dudana, hura izanen da hartu behar duzuena : *Quemcumque osculatus fuero, ipse est tenete eum.* Zerentzat saltzen du? Zombait diru phezentzat. Ez da hau krima arrunt eta bertzeak bezalako bat, Giristinoak. Bada hemen malezia berezi bat, cheheki eta hurbildik ikhusi behar duguna. Ikhusiko dugu lehen lehenik, nola egina izan zen Judasen krima, eta agertuko zaizkigu Judasen arimaren gogortasuna, eta Jesusen amodioa; bigarrenekorik ikhusiko

dugu, zer izan ziren krima horren kausak; lurreko ontasunen amodio sobraniozkoa eta komunione sakrilejoa; hirugarrenekorik, azkenean, Judasen gaztigua desesperazionea.

O Jesus kontsideratu duguna, egun goizean, Olibetako baratzean, ahaumetan eta nigarretan, lagun gaitzatzu komprenitzen Judasen bekhatuaren eta, neurri batean, bekhatu bakhotcharen handitasuna, ezen bekhatore bakhotchean bada Judas bat, bada traidore bat. Berritz ere, o Kurutze adoragarria, izan zaite gure argia eta esperantza : *O Crux ave, spes unica,* etc.

I

Agonian zelarik Jesus Olibetako baratzean, berekin hartu zituen dizipulu maiteenak lo zagozin. Bainan saldu behar zuen dizipulua ez zagon lo, hura. Ikhus zazue eta segi bere urratsetan. Jesusen entsayen ondotik dabila ; zelatariak han hemenka ezarriak ditu, Jesus non dabilan jakiteko ; bilduak ditu hura hartu behar dutenak. Agertzen da orai, egiazki dena, ez ardi maltso baten ilearekin, bainan otso baten errabian : *Non ovinâ pelle ves-*

titùs, sed lupino furore manifestus. (Serm. 30 de Pass.) San Leon mintzo da hola.

Jesusen othoitzean dagoelarik, ikhus dezagun, baratzearen bertze burutik, haren ganat heldu den jende oste hori, ezpatak eta makhilak eskuetan : *Cum gladiis et fustibus* (Matth.); nola gau ilhuna baitzen, bazituzten ere eskuetan, lanternak eta argiak : *Cum lanternis et facibus* (Joan.) Aintzeneko dute Judas : *Judas antecedebat eos.* Bai aintzineko behar zen ; nahiz guziak han hobendun diren, hura zen hargatik hobendun handia : *Privilegio perfidiæ obtinuerat in facinore principatum* (S. Leon. serm. 7. de Pass.)

Altchatzen da Jesus ahuspez emana zagoen agoniako lurretik. Badaki zer dohan gerthatzerat. Guziak dakizkielarik, badoha bere etsayeri buruz : *Sciens Jesus omnia quæ ventura erant super eum, processit* (Joan.) Bere hirur dizipuluak ikhusten ditu oraino bere pausuan eta loan dagozila, eta erraiten diote : Altcha zaizte orai, eta gohaz hemendik ; huna non heldu den ni saldu behar nauena : *Surgite eamus hinc ; ecce appropinquavit qui me tradet* (Matt.) Altcha zaizte, eta gohaz ene saltzaileari buruz : *Surgite eamus hinc.* Zoin mires-

tekoa Jesus hemen! Gorde, itzal ziteken bere etsayeri. Jainkozko botherea bere baithan zuen. Bainan ez; Jesus ez da gordeko ez itzaliko etsayen begietarik; itzali zen egiazki egun batean, bainan populuak errege egin nahi izan zuelarik. Orai, guretzat pairatzeko duen gutizian. bera doha etsayeri buruz, bera doha sofrikariorat, Kurutzerat. Judasen ganat hurbiltzen da eta zombat amodio eta urrikalmenduekin! Amultsuki behatzen dio; eztitasuna da haren ezpainetan, barkhamenduarenagintza ikhus daiteke haren arpegian, haren begietan : *Misericors et patiens et clemens, et multæ miserationis.* Bainan ez zen Judasen bihotza hunkitua izan, Judas ez zen kombertitu. Hurbildu zen Jesusen ganat eta erran zion : Agur Nausia, eta musu eman zion : *Et confestim accedens ad Jesum, dixit: Ave Rabbi, et osculatus est eum.* (Matth.)

Zer eginen, zer erranen du Jesusek? Aski zayo, haren hartzerat ethorriak direrenen hitz hau choilki erraitea : Nor bilhatzen duzue? Jesus Nazarethekoa? baina ni naiz; eta guziak ikharatuak lurrerat erortzen dire. Judasentzat ez du horrela eginen; ikhusten du bada haren arimaren

belztasuna ; iduriz, gaztigua hemen justizia laiteke. Aski luke Jesusek bere Jainkozko nahi bat, hitz bat, behatze garratz bat eta lurraren errayetan Judas sar-araz lezake. Bainan ez ; begitarte eztiena dio erakusten eta amultsutasun handienarekin erraiten : Zer Judas, zu ene adichkidea, zu hemen ene etsayekin ? Ah ! zertarat bada ethorri zare? *Amice, ad quid venisti?* (Matth.) *Amice!* Adichkidea ; zombait diru phezentzat saldu duen munstro hori ! Adichkidea, musu batez bere traidorekeria estali nahi duena. O Salbatzaile adoragarria ! hain ona othe zare bada, non Judas zure adichkide oraino bilhaka baitzitaken ? Bai, bai ; izan balitz Judasen aldetik urrikizko sentimendu bat, eman balitz bere Nausiaren oinetan, hitz hau choilki erraiten ziolarik : Barkha, barkha, ene Nausia ; itsutua nintzen, bainan ikhusten dut orai ene hobena ! Jesusek idekiko ziozkan bere besoak, eta besarkatze traidore baten ondotik, izanen zen amodiozko eta barkhamenduzko besarkatze eztia. Ikhusten duenean ama batek bere haurra leze batetarat erortzerat dohala, laster egiten du eta hegian, hartzen du bere besoetan. Gisaberean, ikhusiz bethiereko lezerat

Judas lerratzerat zohala, nahiko zuen Jesusek here dizipulua begiratu, bere besoetan hartu eta erran zioen amodiozko hitz hau: *Amice, ad quid venisti?* O ene adichkidea, zertako ethorri zare hunat? Ezagutzen ditut zure chede tzar guziak; gaizkian pulumpatua zare, saltzen duzu zure Nausia; bainan oraino dembora da; urrikitan sar zaite, eta ene bihotza idekia izanen zaitzu, ezen ez dut oraino zu baithan adichkide bat baizen ikhusi nahi: *Amice, ad quid venisti?*

Ez du deusek hunkitzen Judasen bihotza. O traidorea! O Judas! dio san Agustinek, zoin den handia hire infamekeria, zoin handia hire sakrilejoa, bakezko seinaleaz zerbitzatzea, bakezko sakramenduaren hausteko, bakezko seinaleaz zerbitzatzea, heriotze kolpearen emaiteko: *Pacis argumento mortem immittis* (Serm. 15. de Tempore). Elizako Aitak hainitz mintzatu izan dire Judasen musu hortaz, dizipulu traidorearen krimaz. Ez da deus Jesusen hitza baino urrunago dohakenik: Zer, Judas, musu batez nauk saltzen? *Judas, osculo Filium hominis tradis?*

Jesusen amodioaren entseyu guziak debalde dire. Judas bekhatuan, kriman da;

joanen da lezearen zolaraino. Nola hortarat ethorri zen, hura Jesusen dizipulu eta apostolua, ikhusiko dugu bigarren phonduan.

II

Ez da dudarik ez zela kolpez eta betbetan Judas erori ahal izan gorago ikhusi dugun krima espantagarri hortan. Nihor guti da, bere lehen hutsaz, lezearen zolaraino joaiten denik. Judasen krimaren parekoak, gehienean bederen, pasione gaizki gidatu eta gobernatu batetik hasten dire. Lehenik, emaiten zayo amor gauza ttipietan; geroago handichagoetan; emeki, emeki, gure ariman lerratzen eta hedatzen da, pozoin bat gure zainetako odolean lerratzen eta berduratzen den bezala, gure odol eta gorphutz guzia pozoinatu arteraino. Ohartzen gare azkenean, berantegi, osoki beretu eta bentzutu gaituela, eta heriotzeko kolpea emaiten dauku. Erran daiteke, Bourdaloue, predikari handiak dioen bezala, pasione gaizki gidatu eta nausitzerat utzi duguna dela suge bat, gure golkhoan hazten duguna... Su phindar bat hauspean gordea bizi dagoena, eta, haren orena heldu denean, edo haize bat

ltchatzen denean, bazter guziak sutan emaiten dituena. Judasen etsempluak gauza hori, ungi erakusterat emanen lauku.

Bere Nausi Dibinoa saldu zuen eta eman etsayen eskuetan. Ikhusiz zer zen Jesus, eta zer zen Judas Jesusi buruz, ez dezakegu asma krima handiagorik.

Bainan nola bada, hoin behera erori izan da? Horra zer behar dugun artoski bilhatu. Judasek saldu othe du bere Nausia, arimaren kolerazko errebolta batez, mendekuzko sentimendu borthitz eta ezin bèntzutuzko batean, hala nola, laido handi zombaitez mendekatzeko? Ez da deus holakorik Judasek egin duenean eta haren sentimenduetan. Judasek saldu du Jesus odol hotzean eta herrarik gabe. Gauza izigarria da, bainan hola da. Eta hemen duguegiazki ikhusiko, zer segida deithoragarriak dakarzken, ongi gobernatua ez den pasione batek. Flakoa zen hastetik, eta errechki bentzu zitekena, gorago erran duguna; bainan uzten badugu hazkartzerat eta handitzerat, haren bazka bilhakatzen gare.

Diruaren, mundu huntako ontasunen amodio sobraniozkoa, horra zer izan ziren

Judasen krimaren ithurria eta hastapena, Ebanjelio sainduko asko hitzetan, aurkhitzen ditugu gauza horren frogak. Badakizu harek hartzen zuela, Jesus eta Apostoluak bizi-arazteko, jende onek emaiten zuten dirua. Errechki uste izan dezakegu, diru hartarik zerbait beretzat atchikitzen zuela. Dirua maite zuen. Eta huna, bertzalde, zer daukun erraiten Jaun Doni Joanes Ebanjelistak : *Fur erat et loculos habens* (S. Joan. 12.). Dirua harek zuen eta ohoina zen. Hau da lekhukotasun bat ezin ukhatuzkoa.

Ikhus dezagun oraino, Ebanjelio sainduan, Judasen amodioa diruarentzat.

Egun batez, Bethanian zelarik Jesus Simonen etchean, Maria-Magdalenak, Salbatzailearen oinetarat ichuri zuen, balio handiko usain onezko ur bat. Ez dezake jasan Judasek. Diru chahutze alfer zayo gauza hori, eta dio : *Ut quid perditio hæc?* Zertako diru galtze hori? Ez du, ez du aithortuko, abarizioa, diruaren amodioa dela, gisa hortan mintza-arazten duena. Kontrarat, pobreen alderateko karitatearen itchura emaiten diote bere hitzeri; sal zitekeen, dio, gauza balios hori, eta erromeseri eman hartarik atheratu dirua : *Po-*

tuit enim istud venumdari multo, et dari pauperibus (Matth. 26.). Arrazoia ederra iduriz, bainan aitzaki garbia. Judasen nahia izanen zen, usain onezko ur baiios haren prezioa, haren eskuetan emana izan zadien. Jesusen eta Apostoluen beharretako dirua harek zuen; harek zuen moltsa. Ez zen, pobreen beharrez hunkitua haren bihotza. Ez zen, naski hekietaz hainitz orhoitzen; eta ez zen hori haren kargua : *Non quia de egenis pertinebat ad eum;* bainan zen ohoina eta dirua harek atchikitzen zuen : *Sed quia fur erat et loculos habens* (Joan. 12.). Hitz horiek Joanes Ebanjelistarenak dire : ez zen jakin gabean mintzo. Ez zuen, han hargatik, Judasen abarizioak deus probetchurik izan.

Bainan heldu da laster bertze irabazi baten egiteko bidea eta esperantza. Ez du Judasek eskapatzerat utziko. Badaki Jesusek badituela etsayak ; etsai hek aspaldion aspertuak direla haren kontra, eta ez dutela haren galtzea bezik bilhatzen. Nahi badute pagatu, behar den prezioa, salduko du bere Nausia. Eta huna non, Jesusen apostolu maitea, haren ongi eginez, hirur urthez gainditua, badohan bere Apostolu lagunak utzirik. Nohat ? Jesusen etsayak

ziren Aphezen printzeen ganat eta erraiten diote : Zer emanen dautazue, eta nik emanen dut zuen eskuetan, hastiatzen eta bilhatzen duzuen Jesus hori ? *Quid vultis mihi dare, et ego eum vobis tradam* (Joan. 12.) Ah ! dizipulu infamoa ! Ah ! apostolu bihotz gabea ! diru pichka batentzat nahi duk hire nausia saldu ? *Quid vultis mihi dare?* Zer emanen dautazue ? Egin dezagun gure tratua : zuek, niri, dirua ; nik zueri, Jesus Nazarethekoa, ene Nausia, ene ongi ongilea ? *Quid vultis mihi dare, et ego eum vobis tradam.* Hogoi eta hamar diru pheza eskaintzen diozkate ; onhesten ditu ; tratua egina da. Jainkoaren Semea, Berbo Dibino gizon egin dena, dirutan saldua da. O ! Zeruetako suak ! sufrezko uriak ! ez zarete jautsi oren hartan, infamo horren enetzeko eta suntsitzeko. Lurraren errayak ! ez zarete ideki, zuen lezetan iresteko, hogoi eta hamar diru phezentzat bere Nausia saltzen duen dizipulu traidorea !

Harrituak eta espantituak gare, Giristinoak. Ez gaitezen hargatik choilki Judasi jazar eta asper. Ez othe dire giristinoen artean ere eta hainitzak, Judas bezala, diruaren eta lurreko ontasunen oinetan

emaiten direnak, oihuz dagozilarik, hura bezala : *Quid vultis mihi dare?* zer nahi dautazue eman? Enetzat, mundu huntako onak, enetzat dirua eta diruak emaiten dituen atseginak! *Quid vultis mihi dare, et ego eum vobis tradam?* Zer nahi dautazue eman? Eta nik emanen, salduko diruan truk, ene Jainkoa, ene Salbatzailea, Jesu-Kristoren Eliza, ene arima, ene eternitatea! *Quid vultis mihi dare, et ego eum vobis tradam.* Bai; badire horrelakoak, diru pichka batentzat, bere eginbide guzien sakrifikatzerat ekharriak direnak. Eta erranen dut, hainitzak balire nazione batean, hortarat dohazinak, nazione hura akhabo dela. Materiak eta lurreko gauzek kontzienziaren eta arimaren gaina hartu dutenean, ez daiteke izan ez bertuterik, ez jenerostasunik, ez gauza handien amodiorik. Ez othe da hor zauri bat, sobera ardura, gure Frantzia maitean, gutartean berean ikhusten duguna? Errechtasun handi bat, gauza on guzien, eginbide sakratuenen, eta bere arimaren beraren diru pichka batentzat sacrifikatzeko? Horrela egiten dutenek, bere kontzientzia, bere arima, merkhatu batean bezala emaiten dituzte, diotelarik, Judasek bezala :

Saltzeko naiz; emazue prezioa; zer nahi dautazue eman? *quid vultis mihi dare?*

Bertze batzuek, diruaren eta lurreko ontasunen amodio beraz, ichilik, itzalean, gorderik dute justizia kolpatzen. Ez dute bertze Jainkorik ezagutzen baizen dirua. Legearen eta legetako gizoneri, tribunalen aztaparreri eskapatzen ahal badire, bide guziak on zaizkote. Oi trichteak! gizonen justiziak zaituzte bakharrik orhoitzen. Menturaz, aski amarru izanen duzue harenenganatzeko eta errebelatzeko; bainan ahanzten duzue badela bertze justizia bat, ezin enganatuzkoa, Jainkoaren justizia, zuen urrats guziak ikhusten eta segitzen dituena, eta ethorriko dela egun bat, zoinetan beharko baitzarete justizia garratz, eta osoki zuzen haren aintzinean agertu. Zer itsumendua!

Itsumendu horrek, bertze gauza guziek bezala badu bere kausa; huna zoin den. Lurreko gauzen amodio sobraniozkoak bihotza gogortzen du Zeruko gauzentzat eta fedea loharkatzen. Gauza ageria: gorphutzeko gauzak sobera maite dituenak ez dezazke arimakoak eta izpiritualekoak maite izan. Lur huntako onetan eta atseginetan bere zoriona bilhatzen duenak, ez

ditu eternitate zorion garbi eta sainduak bilhatuko; begiak bethi lurrerat itzuliak eta aphalduak dagozkanak, ez detzazke Zeruko gauzetarat altcha. Haragia eta arima elgarrekin gerlan dire; horra zertako haragiak, erran nahi da gorphutzeko atseginen amodioak garaya eramaten duenean, dembora berean eta izari berean flakatzen diren arimako indarrak, gogortzen den bihotza, ilhuntzen izpirituko argia, ttipitzen Jainkoaren eta eternitateko gauzen baithako fedea.

Horra nola emeki emeki jautsi zen Judas eta azkenean erori bere krimaren lezearen zolaraino. Dudarik ez da; gauza ttipietarik hasi zen. Bainan diruaren amodioak bihotza gogortu zion, Zeruko gauzen estimua eta amodioa galarazi. Horra Judasen traidorekeriaren lehen kausa. Bada bertze bat oraino.

III

Badakizue, giriztinoak, zer egin zuen Jesusek hiltzeko bezperan. Nahi izan zituen azken aldikotzat, dizipuluak berekin izan, azken aphairua heyekin jateko eta berezi-ki Sakramendu adoragarria establitzeko. Ethorri zenean arratsa, Jesus mahainean

zen beraz eta harekin hamabi Apostoluak. Egina zuen ordukotz Judasek tratu infamoa, hogoi eta hamar diru phezetan bere Nausia saltzeko. Bere hitza emana zuen orenaren eta mementoaren bilha zabilan : *quærebat opportunitatem ut eum traderet* (Matth. 26).

Elgarrekin-zirelarik mahainaren inguruan erraiten diote Jesusek apostolueri : Egia erraiten dautzuet, zuetarik batek traidorekeriaz salduko nau. Deboilatuak hitz hortaz. — Nork bada Jauna? Ni othe naiz hura? — Zorigaitz, zorigaitz, zuen erran oraino Salbatzaileak, gizonaren semea salduko duenari ; hobeago izanen zen harentzat ez balitz sorthu! Eta Judasek, Judasek ere izan zuen ausartzia galdegiteko : *Numquid ego sum, Rabbi?* Jesusek ihardetsi zioen : Zeronek erran duzu : *ait illi : Tu dixisti.* Eta orduan, hartzen zituen Jesusek bere eskuetan ogia eta arnoa, establitu zuen Sakramendu adoragarria eta lehen aldikotz eman zioten apostolueri bere gorphutza jaterat eta odola edaterat. Judasek komuniatu zuen bertzek bezala; bainan arima bekhatuaz zikhindua, komunione sakrileyoa egin zuen, ezen jadan badakigu, Jesusen saltzeko chedetan zen.

Ordu berean, sarthu zen Satan haren baithan : *Intravit in eum Satanas.* Jesusek erran zion : Egin gogo duzuna, egin zazu laster : *Quid facis, fac citius* (Joan. XIII). Eta joan zen Judas, Jesus hartu behar zuten gizonen buruan jartzerat. Diruaren amodioak hasi zuen gaizkia osatu zuen komunione tzarrak. Bihotza osoki gogortu zion; ez gaitezen espanti, Jesusen hïtz ezti eta amultsuak ez baditu entzuten Olibetako baratzean.

Oi komunione tzarraren segida ikharagarriak! Zerk unkituko, zerk gurituko du krima hori egin duenaren bihotza? Deusek ere. Debrua da han nausi eta errege : *Intravit in eum Satanas.* Ordutik Satanen zerbitzari itsua izanen da. Olibetako baratzeko krima bertze krima handiago baten segida izan zen.

Ez othe dugu hemen gure arimetarat itzuli bat eginen, ez agian, komunione tzarraren gainean nigar egiteko beharra dugulakotz, bainan beldur eta herra handiago bat oraino harentzat kontzebitzeko. Ikhusi dugu lehen phonduan, musu batez, erran nahi da amodioaren seinaleaz, saldu zuela Judasek bere Nausia. Ez othe du gauza bera egiten komunione tzarra egi-

ten duenak? Judasek bezala, bere Nausia, bere Salbatzailea, bere Jainkoa, amodioaren seinaleaz saltzen du eta etsayaren oinetan emaiten, hartaz den bezimbatean. Ikhus zazue hurbiltzen mahain saindurat, errespetuaren eta amodioaren iduri ederrenekin. Erran liteke amodiozko eta inozentziazko bildots bat dela; eta haren arima gaichtakerïaz eta Jainkoaren etsaigoaz bethea da. Jesus bere amodiozko sakramenduan saltzen du. Eta nola? Amodioaren musua emanez, adichkide maite bat bezala, bere bihotzeko egoitzan errezebituz. O bekhatore traidorea! bai, zuk ere saltzen duzu zure Jainkoa; *osculo Filium hominis tradis* (Luc, XXII); saltzen duzu eta ez Judasek bezala, synagogari, Farisaueri; horiek guzien buruan, gizonak ziren nahiz gaichtoak. Zuk saltzen duzu debruari. Ezen bekhatu mortal batez choilki hobendun bazare, Satan da zure bihotzean nausi, Satan zure bihotzean, bekhatu mortalaz altchatu diozun tronuaren gainean jarria. Eta gisa hortan, zutaz den bezimbatean loria, handitasun, mayestate guziak bere baithan dituen Jainkoa, bortchatzen duzu bere kreatura eta etsayaren aintzinean aphaltzerat. Eta zerentzat?

Menturaz Judasek egin zuen bezala, diru pochi batentzat, haizeak berekin eramanen duen atsegin tzar pentsamendu lohi batentzat. Horra behintzat, komunione tzarraz, nola debrua errege eta nausi den bihotz batean, sar-arazten duzun. *Immolaverunt dæmoniis* (Deut., XXXII.) Zertako oraino? zeren ez baituzu aski lañotasun zure kofesiotan, aski konfientzia Jainkoaren eta haren minichtruen urrikalmendua baithan; ahalgeak beretzen zaitu; ahalge horrek hesten du zure arima, zure ezpainak josten, eta bazohaz orduan kofesio tzar bat egin ondoan, komunione tzar eta sakrileyo baten egiterat. Ah! Judasen izena, ahalgezko izen bat bilhakatua da; bainan, ez othe ditu bere baithan, Judasen seinale guziak, komunione tzarra egiten duenak?

IV

Zer izan zen Judasentzat, bere bekhatuaren eta krimaren segida? Urrikitu othe zen? Bai; ez bainan, iduriz bederen, barkhamendua merezi ahal zezaken urriki batez.

Urthe laburren barnean, ikhusten ditugu Testament zaharran, bi bekhatore, eta

hetan bi urriki molde osoki desbardinak. Dabid erregearen urrikia, ona eta salbagarria; lehentchago, Saülen urrikia edo bederen bekhatuaren aithorra. Dabid erregeak bekhatu eta handizki bekhatu egin zuen. Ethorri zitzayonean Jainkoaren oldez, Nathan Profeta bere bekhatuaz garrazki mintzatzerat, humiliatu zen Dabid bere bihotzeañ, urrikitan, eta erran zuen : *Peccavi;* bai, hala da bekhatu egin dut eta aithortzen dut. Huna zer ihardetsi zion Profetak : Zure bekhatua barkhatua zaitzu: *Dominus quoque transtulit peccatum tuum* (II. Reg.) Saülek ere hitz bera erran zuen Samuel Profetari : Bekhatu egin dut. *Peccavi,* bainan ez sentimendu berekin, eta Profetak erran zion : Jainkoak urrundu zaitu bere ganik, eta ez zare hemendik aintzinat Israëlgo errege : *Projecit te Dominus ne sis rex super Israël* (I. Reg.)

Batek, Dabidek, bazuen bihotzean, egiazki, bere bekhatuaren urrikia; Saülen urrikia, itchurazko, hitzezko urriki bat zen, eta ere, baten eta bertzearen gainean, Jainkoaren hitzak osoki bertzelakoak izan ziren.

Nolakoa izan zen Judasen urrikia? Berehala jakinen dugu. Eta lehenik, ikhusi

othe zuen bere krima, Jesus saldu zuenean? Edo debruak, diruaren amodioaz, eta oraino hobeki, komunione tzarraz, begiak illhundu eta hetsi othe ziozkan. Debruak baditu holako amarruak. Zer nahi den, Judasek ikhusi zuenean, Jesus heriotzerat kondenatua zela : *Videns Judas qui eum tradidit, quia damnatus esset* (Matth.). Haren begiak ideki ziren, dio san Krisostomok : *Post perfectum peccatum, vidit peccatum* (De Prodit. Jud.). Orhoitzen da betbetan zoin ona izan zen Jesus harentzat; ikhusten ditu Jesusen mirakuiluak eta saindutasun miragarria; gogoan ditu haren erakaspen eder, garbi eta Jainkozkoak. Mirail batean bezala agertzen zaizko bezperako azken aphairua, Olibetako baratzea, musu traidorea; oihu samin baten pare entzuten ditu bihotzaren zolan, Jesusen amodiozko hitzak. Hambat amodio alde batetik, hambat esker-gabetasun bertzetik. Agertzen zayo orduan bere krima, bere belztasun egiazkoan. Iduritzen zayo ifernuko su batek bezala, arima erretzen diola, eta bere hogoi eta hamar diru phezak eskuan, badoha Aphezen Printzeen ganat oihuz dagoelarik : Bekhatu egin dut, salduz Justuaren odola : *Peccavi tradens*

sanguinem justum (Matth.). Zer zaiku guri, diote Aphezen Printzeek; ikhus zazu hor zeronek : *At illi dixerunt; quid ad nos? tu videris* (Matth.). Zoin errechki eta zer mechprezioekin uzten ohi den, bekhatore laguna, hartaz baliatu ondoan, ez denean gehiago haren beharrik! Egun guziez ikhusten den gauza da : Antola hor, ez dugu gehiagō zure beharrik : *Quid ad tu nos? videris.*

Zer eginen du Judasek? O Judas, Judas! desleyala eta traidorea, hoa, itzul hadi oraino hire apostolu lagunetarat; hekien bihotzean oraino menturaz zerbait kontsolazione aurkhituren duk. Hoa, Maria Jesusen Ama ganat, barkhamenduaren ama duk, bekhatoreen ihes lekhua; egin tzak gehiago, dembora duk oraino; jarraik hadi Salbatzailearen urratseri, eror hadi haren oinetarat, laguntzak bere Kurutze dorphearen garrayatzen, barkhatuko dauk hire bekhatua, bai barkhatuko dauk!... Bainan ez, dio san Agustinek, itzuli zioten Judueri Jesusen saltzeko hartu zuen prezioa, eta ez da probetchatzen, haren Salbatzeko Jesusek emaiten duenaz. *Pretium projecit quo vendiderat Dominum, non agnovit pretium quo redemptus est à Domino* (Psalm. LXVIII.).

Ez du Judasek bihotza esperantzari idekitzen. Bertze orduz Kainek bezala : Ene bekhatua, dio, sobera da handia, barkhamenduaren izaiteko : *Major est iniquitas mea, quàm ut veniam merear.* (Genes. IV.) Ez du gehiago Jainkoaren justizia ikharagarria baizen ikhusten ; zerurat begiak itzuli nahi baditu, ifernuko lezeak ditu ikhusten bere oinen azpian idekitzen ; esperantzazko sentimendua bilhatzen badu bere bihotzean, ez du entzuten desesperazionearen oihua baizen eta oihu horri dio obeditzen. Bere krimaren gaztigatzaile bere burua egiten du : *Ipse sui sceleris reus et judex* (S. Marcus, *Sermo 2. de Pass.*) Ez dezake bere bizi hobenduna jasan ; hartze i du soka bat, arbola batetik dilindan emaiten, eta bere burua urkatzen du : *Et abiens laqueo se suspendit* (Matth.)

Judas hiltzen da bere eskuz, aintzineko krima guziak, krima hortaz trichteki koroatzen dituelarik. Zer heriotzea Jesu-Kristoren dizipulu et apostolu batentzat !

Bainan ere zer erakaspena guzientzat ! Nola ikhusten ahal dugun hemen, ez denean pasione bat dembora deino zedatzen, zertaraino era man dezaken ! Judasek dirua

zuen maite ; ez da errana. Liburu sainduetan bazuela bertze biziorik. Bainan, bat aski da, bentzutua ez denean, arima galtzeko. Ikhusi dugu zertarat emeki emeki ekharri zuen Judas diruarentzat zuen amodioak. Ebanjelistak erran dauku clarki, Jesusekin zelarik, jadanik ohointzak egiten zituela : *erat fur et loculos habens*. Maria Magdalenak, penitentziazko izpirituz, usain onezko ura Jesusen oinen gainerat ichuri zuenean, ez zuen Judasek gorde ahal izan bere abarizioa. Bizioak atchikitzen zuen, ez du utziko. Iduritu izan zayoenean, zerbait irabaz bide izan zaitekeela, hizkatu zen Jesusen etsayekin, bere Nausiaren saltzeko Badakiguzer gerthatu zen.

Ez zen Judas hortan baratu. Lehen bekhatu hoikien ondotik, bertze bat ethorri zen handiagoa. Judasek komunione tzarra egin zuen.

Ikhas dezagun beraz gure pasione eta jaidura tzarren hastetik zaphatzen. Ikhas dezagun behar dugula, bethi, Jainkoaren graziarekin, gure buruen nausi egon. Zueri bereziki mintzo naiz, hemen zareten haur eta gazte maiteak: Ez dezake oraino, zuen arimetan, gaizkiak desmasia handirik egin ahal izan. Jaidura tzar guzieri, haste has-

tetik gerla. Suge ttipieri burua lehertzen bazayote, ez dute gero ausikiko eta heriotzea emanen. Izan dezagun guzien gainetik komunione tzarraren beldurra. Orhoit gaitezen ere bethi, ez dela bekhatu hain handirik, zoinaren barkhamendua ez baititeke ardiets errechki. Zer ez zuen egin Jesusek Judasen kombertitzeko eta haren beretzeko? Bada, bizi da bethi Jesus bere amodio eta urrikalmendu guziarekin bere Elizan, eta bere aphezetan.

Bi hitzez akhabatzeko; izan dezagun Judasen bekhatuaren beldur eta herra handi bat, bainan ere Jainkoaren urrikalmenduan konfientzia oso bat. Jesus ofentsatu badugu, ez dezagun bertze ihes lekhurik bilha baizen haren Bihotz sakratua. Justuak eta bekhatoreak, guziak Bihotz sakratu hortan ezartzen eta uzten zaituztet: Batzuek, gero eta gehiago bere amodioaz bero eta susta detzan; bertzeak amodio hortaz beraz hunki, komberti eta garbi detzan. Halabiz.

JAUN ZANZINENA

Katedraleko bikarioak

EMAN LEHEN PREDIKUA

JESUS KAIFASEZ KONDENATUA

Posuit Dominus in eo iniquitatem omnium nostrum.

Jainkoak haren gain eman izan ditu guzien bekhatuak.

Girichtino Maiteak,

Jesu-Kristo gure Jaunaren pasionea liburu handi eta eder baten pare da. Liburu hortan guziek irakur dezakegu, eta liburu horrek emaiten derauzkun erakaspenak, bertze lur huntako jakitate guziak baino baliosagoak dire, salbagarriagoak direlakotz.

Liburu hori, bethi bere begien aintzinean zabaldua atchiki behar luke girichtino onak. Liburu hortan ikhus lezake zombatetaraino maite izan gaituen gure Salbatzaile onak, eta zer amodio zor diogun ordainez. Liburu hortan ikhas lezake zer laido eta torment garratzak jasan izan dituen, gure bekhatuentzat barkhamendu ardiesteko, eta zombat higuin da hastio izan behar dugun bekhatua, pairamen hek

guziak erreberri ditzazkenaz geroz. Liburu hartan ikhas lezake giristinoak zer exemplua eman izan deraukun Jesusek pasione latz eta bihotz-erdiragarri hura, hitz bat bakharra erran gabe, jasan izan duenean; liburu hartan, ikhas ginezake nola behar ditugun Jainkoaren ganik edo gizonen ganik heldu zauzkigun nahigabeak eta desgraziak hartu pazientziarekin.

Hitz batez, liburu hartan, ikhas ginezake, Jesu-Kristo eta haren lege saindua, mundu huntako ontasun eta atsegin guziak baino gehiago maitatzen; bekhatua, mundu huntako gaitz eta kalte guziak baino gehiago hastiatzen. Eta orduan, gure naturalezaren eta pasionen oldar guzien gatik jarraik gintazke fermuki giristinotasuneko eginbideri. Bederen egun hautan zabal dezagun pasioneko liburu ederra, eta sarraraz ditzagun barna gure bihotzetan pasioneko misterio hunkigarriak. Gaur ikhusiko dugu Jesus Juduen aphezez, eta bereciki Kaifasez kondenatua. Hasi baino lehen adora dezagun Kurutze saindua. Kurutzea da grazia guzien ithurria: galda dezagun Kurutze sainduaren oinetan, pasioneko erakaspenez ongi baliatzeko grazia: *O Crux, ave.*

Juduek atsegin handia izan zuten Jesu Kristo Jaunaz jabetu izan zirenean. Aspaldi hartan beren egin ahal guziak eginak zituzten Jesus bere solasetan galdu beharrez. Harrikatu ere izan zuten. Bainan Jesusek bethi ihardetsi izan zioten, deusik erraitekorik izan ez zezaketen moldean, eta bethi heyen maleziari ihes egin izan zuen, bere Aita Zerukoaren orena ethorri artino. Eta orduan berak bere burua eman zuen Juduen eskuetara.

Preso alchatu duteneko, baderamate Juduek Annas Juduen aphez handi zenaren aintzinera. Annasek asko galde egin izan ziozkan Jesusi bere erakaspenez eta bere dizipuluez. Uste izan zuen, bere solasetan lerraraziko zuela, eta zerbait aithor eginaraziko zioela. Bainan Jesusek ihardetsi zion : Bethi agerian mintzatu izan naiz ; ez da deus ene erakaspenetan gordetzeko denik, galda dezakezu aditu nuteneri. Zertako beraz galdatzen daitazu zer erran dudan? Jesusi ez zitzayon balio Annasi ihardestea. Bazakien mintzatuz ez zuela deusik ardietsiko eta bertzalde Annasek ez zuen eskurik deusen galdatzeko, ez zelakotz kargutan. Bainan Aphezaren zerbitzari batek kausitu zuen, ez

zuela Jesusek Annasentzat aski ikhustate, eta zartako bat eman izan zion, errraiten ziolarik, eya hala behar zuen aphez bati ihardetsi.

Jesusek, batere khechatu gabe, jasan izan zuen afrontu hori, eta eztiki erran izan zion : Gaizki mintzatu banaiz, erran diezadazu zertan, eta ongi mintzo banaiz, zertako jotzen nauzu ? Legeak garrazki punitzen zituen lagun proximoa jotzen edo gaizki ibiltzen zutenak. Bainan Jesusen kontra oro libro ziren, pasione guzian ageri den bezala.

Ikhusirik alferretan mintzo zela Jesusi, Annasek egorri zuen urthe hartan aphez handiaren kargua zaukanari. Kaifas zuen izena.

Gauba zen, gaubaz ez zitaken tribunalean bilkhurarik izan. Bertzalde norbait hiltzerat kondenatua izaiteko irriskutan zenean, ez zen afera egun batez juyatua izaiten ahal, gutiago azken sententzia ekharria. Bertzenaz ere Juduen artean gauza ongi ikhusia zen hobendunaren salbatzerat egitea, kondenatzerat baino lehen, eta, lekhuko guziak hitz berean izanik ere, bere abokata hauta zezaken akusatua zenak. Bainan hemen, saindutasuna

bera juyatu behar denean, justiziaren eta legearen phondu guziak zangopean emanak dire.

Akusatzaile guziak pasionez edo herraz mintzo dire. Ordukotz lekhukoak diruz irabaziak dituzte. Nihor ez ziteken alde para. Jakinarazia zuten Juduek, punituak izanen zirela, Jesus Messiasentzat ezagutu nahiko zuten guziak. Ageri zen beraz ez zirela Júduak argituak izan nahi. Juye guziek gauza bat bakharrik, chekatzen zuten. estakuru bat, aintzinetik elgarren artean egina bezala zaukaten kondenazione injustuari egiaren iduripen bat emaiteko.

Tribunalean agertu zeneko Jesus, Juduen aphezak, legetan jakintsun zirenak eta zaharrak beren lekhuetan jarriak ziren. Heyen erdian, bertzenak baino goragoko alkhi batean, Kaifas. Kaifasek bere aintzinean emanarazten du Jesus chutik eta haren bi aldetarik akusatzaileak eta kontrako lekhukoak (oro elgar adituak).

Lehenik behar ziren jakin lekhukotasunak. Nahiz legeak mehatchu handiak zituen, lekhuko falsuen kóntra, halere diruaren bortchaz, kausitu izan zituzten Pharisauek lekhukoak. Bainan guziak ez

ziren heyen gostura mintzo. Lekhukoak ez ziren hitz berean ; ez zuten beharbada aski dembora izan elgar aditzeko. Egia da bertzalde, handik edo hemendik gezurrak agertzerat uzten duela bere itzala. Azkenekotz huna non heldu diren bi lekhuko, diotenak aditu izan dutela Jesus erraiten : « Badut eskua eta botherea gizonen eskuz « egin templo hunen aurthikitzeko, eta « hirur egunik barnean, templo berri bat « altchatzeko, gizonen eskuz egina izanen « ez dena. » Solas hortan nahi zuten Pharisauek kausitu Jainkoaren kontra zohan solas bat. Temploaren aurthikitzea, ez othe zen bada Jainkoaren kontra jartzea, eta halako bothererik balin bazuen, ez zezaken izan zerutik, bainan bai ifernutik. — Bainan Jesus ez zen heyek zioten bezala mintzatu. Bere gorphutza erakhusten ziotelarik eskuaz erran izan zioten : « Aurthiki zazue templo hau eta hirur egunik barnean berriz chutik ezarriko dut. » Temploa Jesusen gorphutza zen, eta erran nahi zuen, hiltzerat kondenatua izanik ere, hirur egunik barnean phiztuko zela. Bainan lekhuko falsuen erranak plazer egin zioten Judueri; ez zuten bertzerik galdatzen.

G. M., urrunago joan gabe nahi dauzki-

zuet bi hitz erran lekhukotasun falsuaz, hobeki ezagutuko duzuenean zoin den lekhukotasun falsua bekhatu handia. agian Jainkoak baratuko zaituzte sekulan lekhukotasun falsurik egitetik.

Lekhukotasun falsua da, G. M., justiziazko aferetan, egiaren kontra egiten den lekhukotasuna hanitz kasutan, gizonek-ez detzazkete gauzak argi, lekhukotasunen laguntza gabe. Horra zertako Jainkoak berak erran izan duen liburu sainduetan, bi edo hirur lekhukoren erranerat erortzea justiziaren araberako gauza dela. Beraz tribunaletarat deithua bada norbait, lekhuko bezala, dazkienak erran behar ditu, emendatu eta ttipitu gabe, segura dena segurtzat emanez eta dudakoa dudakotzat.

Lekhukoak komuzki zinez edo juramentuz hitz emaiten du egiaren erraitea, egia osoki eta egia bakharrik erraitea. Jainkoaren edo kurutzearen aintzinean juramentu egin izana gatik, lekhuko falsuak gezurra erraiten du; eta bere gezurraren bermetzat Jainkoa bera hartzen du. Hortik ikhusten duzue zer afrontua egiten duen lekhuko falsuak Jainkoari. Zer diteke dorpheagorik, Jainkoa, egia bera dena, gezurtitzat pasaraztea baino? — Jainkoari afrontu egiten badio lekhuko falsuak.

Lagun protsimoari ere bide gabe handia egiten dio lekhuko falsuak. Bietarik bat : edo hobenik ez duenari kalte egiten dio, edo hobendun bat nahi du libratu. Bihotza herrakundez edo maleziaz bethea izan behar du, hobenik ez duenari kalte egiteko. Eta hobenduna libratu nahi badu, orduan ere gaizki dabila. Gehienetan hobendunak ez diteke libra bertzen gostuz baizik ; bertzalde justiziak bere bidea behar du eta zuzen da urhats gaichtoetan ibili izan denak izan dadien punitua. Bertzenaz gaizki ibili nahi denari bidea libro uzten da, eta bertzeak haren kolpe gaichtoen menean gelditzen dire.

Emazue, holako edo halako kasuan, kalte handirik ez duela egiten bertzeri lekhuko falsuak. Bederen bere buruari kalterik handiena egiten dio zeren eta bere arimari hil kolpea emaiten baitio, eta bere gainerat Zeruaren madarizione guziak jautsarazten baititu. « Sei gauza badire, dio Izpiritu Sainduak, Jaunak hastio dituenak, eta sei gauza hetan, bat oroz gainetik, gezurra juramentuz finkatzen duen lekhukoa. »

Ba, G. M., Jainkoak izitzeko mehatchuak egiten ditu lekhuko falsuari. Le-

khuko falsua, dio Jainkoak, ez da gaztigurik gabe geldituko. Lekhuko gezurtia heriotzeaz joa izanen da. *Testis mendax peribit* (PROV. XXI. 28). Hemen Jainkoa bertze munduko gastiguez da mintzo. Bainan, bertze munduko gaztiguez kampo, Jainkoak lege zaharrean manatzen zuen, lekhuko falsuak jasan zezan berak bertzeri jasanarazi zuen kaltea. Eta horra zertako Daniel profetak hiltzerat kondenarazi zituen bi gizon zahar, beren lekhukotasunaz, hobenik ez zuen emazte bat kondenarazi nahi izan zutelakotz.

Gizonek berek egin izan dituzten legetan ere, lekhuko falsua, ezagutua denean, garrazki punitua izaiten da.

Bainan gizona gizonari errechki gorde diteke, jakin beza hargatik lekhuko falsuak, Jainkoaren begiari ez duela ihes eginen ahalko, ez eta ere Jainkoaren mendekuari. Izanik ere luzakor, Jainkoa ez da ahanzkor.

Beraz, G. M., lekhuko bezala, deithuak bazarezte, mintza zaitezte bethi egiaz.

Bainan daut norbaitek erranen : Horra gizon bat sekulakotz galdua dena, familia bat sekulakotz desohoratua izaiterat dohana, eta nik hitz batez guziak salba ditzazket.

Gaizki ibili izan dena, ez da behar izan hainbertze urrikari; merezi du egin duen gaizkiaren punimendua izaitea eta nola izan diteke punitua, dazkitzunak ez badituzu erraiten, edo hala ez direnak erraiten badituzu. Ichilik egonez, edo hala direnak ukhatuz, gizon hura libratzen baduzu eta berriz urhats beretarat lerratzen bada, zure gain izanen dire egin ditzazkeen kalte guziak, zeren eta egia erranez beiratuko baitzinuen berriz hastetik.

Zombaitek behar bada erranen dautet: Ba, horiek guziak ongi erranak dire. Bainan akusatua dena ene ahaidea dut, ene auzoa, ene adiskidea; eta hitz eman diot haren alde lekhuko izaitea.

Hasteko zure ahaidea bada, aski da juyeari erraitea; ez zare lekhukotzat hartua izanen. Diozu auzoa edo ezaguna duzula. Hori ez da arrazoin bat, eta juyeari zor diozu egiaz mintzatzea. Zure arima auzoa baino auzoago duzu, eta adiskidea baino adiskideago behar duzu, eta gezurrez mintzatuz arima gal zinezake.

Diozu hitza emana duzula eta ez dezakezula hitza jan. Zure hitza eman baduzu, gaizki egin duzu, eta eman hitza atchikitzen baduzu, are gaizkiago eginen duzu.

Orhoit zure lehen adiskidea eta handiena, sekulan ofentsatu behar ez duzuna, dela Jainko Jauna. Jainko Jaunak makhur dabiltzanak bekhaizten ditu, eta bere erresuman ez ditu, egiaz eta beren kontzientziaren arabera mintzatuko direnak baizik onetsiko.

Diozu oraino : « Egiaz mintzo banaiz. Akusatua dena, mendekatuko zaut, eta haren beldur naiz. » Ez dakit zer gertha diteken. Hasteko Jainkoak nahi duena baizik ez da gerthatuko. Eta Jainkoak ez ditu bere adiskideak abandonatzen. Baińan, egiaz mintzo zirelakotz, kalte handienak zure gainerat erori behar balire ere, ez duzu den gutiena dudarik izaiteko eta egiaz mintzatu behar duzu.

Diozu oraino : « Nausiak lana khenduko daut edo kampoa emanen. » Hori ez da segura. Hala gertha baladi ere, etchetik kampo izaitea hobe duzu atherberik gabe izanik ere, zerutik kampo izaitea baino.

Mintza zaite beraz bethi, Jesu Kristo gure Jaunak errana den bezala : Hau hala da, *est, est.* Hori ez da hala, *non, non.*

Bainan zertako hoin luzeki mintzo othe naiz lekhukotasun faltsuaz ?

G. M., Eskual herriko jendea, bethi danik jende fina eta leyala izan da, eta Eskualdunaren hitza, kontratuzko errana bezain segura.

Diote bazterretan Eskualdunak bertzeak idurituak direla, eta azken dembora hautan Eskual herrian lekhukotasun falsuak komuntzen ari direla. Ba, diote : « Eskualdunak ere mehatchuen beldurrez eta usuago zerbait sari edo abantailen esperantzan bere kontzientzia eta arima gostuan saltzen dituela.

Agian ez da nihor zuen artean lekhuko falsu izan denik ; nihor ez ahal da lekhuko falsu izaiteko gai denik. Ah! G. M., Eskualdunak nahi gintuzkete bertzen idurirat eginak ikhusi. Eskualdunak gauden bethi Eskualdun eta Jainkotiar, biak batean.

Ez zazuetela beraz sekulan, mundu guzia irabazi behar izanik ere, gezurra finka juramentuz, bereziki tribunaletan. Orhoit zaitezte bertzalde bere lekhukotasunaz, jakinean zerbait kalte egiten duenak, kalte edo bidegabe guziak behar dituela erreparatu, edo ez dela izanen haren bekhatuarentzat barkhamendurik.

Juduek dirutan khausitu izan zituzten

lekhuko falsuak Salbatzailearen kontra. Heyen erranen gatik, Jesus ichil ichila zagon, deusere ihardetsi gabe. Kaifas gaitzitua zen, ez zuelakotz deusik erraiten. Chutitzen da eta erraiten dio : « Ez duzu bada deusik ihardesten zure kontra ekharri dituzten akusazioneri? » Eta Jesus bethi ichilik zagon. Hanitzetan ichilik egoitea hobe da, bereziki mintzatzea debaldetan litekenean.

Zertako mintza Judueri? Ez zuten egia jakin nahi, estakuru baten ondotik zabiltzan.

Oraino gehiago damutua Jesusen ichilik egoiteaz : ichiltasunaz, Kaifasek erraiten dio : « Bethi bizi den zeruko Jainkoaren izenean manatzen dautzut, erran diezadazu, hea Kristo Jainkoaren Semea zarenez. » Bazakien Jesusek, ihardetsiz bere burua galtzerat zoala, bainan juye bezala, galdetzen zioenaz geroz nor zen, egia ez zezaken gorde eta fermuki eta gora erran izan zion : « Ongi erran duzu, hala naiz. Ba goaita- « tzen duzuen Mesias hura naiz, Jainkoa- « ren Seme bakharra, eta zuek Juduen « aintzindariek, zuen Salbatzailearí bezala « ongi ethorri erran behar orduan, konde- « natzera nohazue. Bainan egun juyatzen

« banauzue, nik ere juyatuko zaituztet ene « aldian. Egun batez ikhusiko duzue Jain- « koaren Semea, Jainko guziz bothere- « tsuaren eskuinean jarria, ikhusiko du- « zue hedoyen gainean jausten zerutik, « bizien eta hilen juyatzeko. » Hitz horik aditzean, aphez handiak, urratzen du soi- neko arropa eta dio oihuz : « Blasfemioa « erran du. Jainkotzat dauka bere burua. « Zer behar dugu lekhukoetarik? Nik be- « zala aditu duzue guziek. Zer zaitzue? » Eta guziak batean chutitzen dire eta errai- ten dute : « Hiltzea merezi du. »

Jesusek ez zuen bakharrik erran Mesiaz zela. Frogatu ere zuen bere obra miragar- riez. Juduek behar zituzten beraz haren mirakuluak hurbil danik etsaminatu, jaki- teko hea jainko batek bakharrik egin zi- tzazkenetarik othe ziren. Bainan ez zuten halakorik gogoan. Bazakiten, arrazoin onik ez zuketela, eta orduan estakuru ba- tez baliatzen dire Jesusen kontra.

Jesus kondenatua dela aditu duteneko estekatua zaukaten soldadoek baderа- mate tribunaletik kamporat, eta laido eta eskarnio handienak egiten diozkate. Thu egiten diote begitarterat, irriz eta trufaz gaizki ibiltzen dute; begiak hetsirik pasoz

eta zartakoz joka dabilate diotelarik : « Kristo, phentsa zak, nork jo hauen ? » eta bertze asko blasfemio badeasate.

Ezin sinhetsiskoak dire, gau hartan, Salbatzaileak jasan behar izan zituen trufak eta itsuskeriak. Nola gizonak gizonaren kontra hainbertze gaichtakeria izan othe dezake ?

Bainan zertako juduentzat eta juduen azpiko diren soldadoentzat gaizki mintza. Beha dezagun gure burueri, eta menturaz erraiteko gutiago izanen dugu Jesusen etsayen kontra.

Kaifasek blasfemio bat erran zuelako estakuruan kondenatu zuen eta kondenarazi Jesus Jauna. Jesusek, egia bera zenak, saindutasuna bera zenak blasfemioa? Kaifasek du, mintzo den bezala mintzatuz, blasfemio ikharagarriena erraiten. — Ez zioten Pharisauek Jesu-Kristori bere erakaspena barkhatzen ahal. Ordu artean populua enganatua zaukaten. Itchuraz eta kampoz legea beiratzen zuten. Bainan barnez, legeaz achola guti zuten eta bere pasionen arabera bizi ziren. Jesusek, mundurat ethorri denean, heyen bizitzea ezagutarazten du. Jainko bezala ikhusten zituen heyen kontzientziak, eta

behin baino gehiagotan, merezi zuten bezala, agertuizan zituen heyen injustiziak eta lohikeriak. Geroztik Pharisauek herra handia zaukaten bihotzean, eta beren aintzindarieri sinhetsarazi zioten ez bazuten gizon hura ichilarazten, akhabo zela heyen erlisionea; jende guzia Jesusen erakaspenez choratua zagola. Eta orduan erran zuen Kaifasek populuaren onetan izanen zela gizon haren hilaraztea.

Juduek ez zezaketen beraz Jesusen erakaspena jasan. Ah! G. M., Jesusen erakaspena, mundutarrentzat erakaspen gogorra da, guriki bizi nahi direnentzat erakaspen idorra. Urgulua maite duteneri manatzen du humiltasuna, mendekatu nahi direneri manatzen du karitatea, lohikerian bizi nahi luketeneri manatzen du garbitasuna, bere jaidura gaichtoeri bidea libro utzi nahi duteneri, erraten diote: Pasioneak behar direla zapatu; hitz batez erakasten du Jinkoak eta Elizak eman manamenduak behar direla zaindu.

Pharisauek bezala bertze hainitzek ere Jesusen erakaspenak ezin jasan detzazkete. Jesu Kristo gure Jauna, mundua salbatu eta igan izan da zeruetarat. Bainan lur huntan utzi izan ditu bere Apostoluak

eta heyen ondotik bere aphezak. Erran izan diote : « Zoazte munduan barna ; ene erakaspenak heda zatzuete bazter guzietan : *Euntes docete omnes gentes.* »

Apostuluek, Nausiak erran bezala, predikatu izan dute; heyen ondokoek hemeretzi mendez, gauza berak erakatsi izan dituzte, eta oraiko aphezek ez dute bertzerik erakasten. Bainan Elizaren erakaspenak ez dire guzien gogorakoak. Elizaren erakaspenek asko gauza debekatzen dute, gizonek maite dituztenetarik, eta orduan gerthatzen da Jesusen demboran gerthatu zena.

Gure mendetan ere badire Pharisauak, Jesusen erakaspenen kontra alchatzen direnak. Girichtinoek, eta girichtino Eskualdunek, zombait aldiz, erlisione saindua sostengatu behar orduan, beren solasez eta obrez, mendratzen eta aphaltzen dute. Eta hori zertako? Zeren eta erlisioneak beren chede ezin aithortuzkoetan eta beren pasione tzarretan trabatzen baititu. G. M., ez bilha bertze arrazoinik : Hortan da guzia.

Ene aditzale maiteak (ez dautzuetet afronturik egin nahi). Hazparneko herri ederrak, Eskual herriari ohore egin izan

dio bethi, bere erlisionearen alderako jarraikitasunaz. Ez dut beraz sinhetsi nahi, zuen artean badela Eskualdunik erlisionearen kontra mintzatuko denik. Bainan erlisionearen kontrako solasik erraitea gaizki bada, erlisionearen kontra mintzo direnen sinestea ere gaizki da. Oraiko egunetan jendea irakurtzeari eman da; eta oraiko hedatuenak diren irakurtzetan, lerro guziez, blasfamioak eta Eliza ama sainduaren kontrako solasak khausitzen dire. Halako irakurtzeak egitea; irakurtze hetaz mintzatzea, hetaz mintzo direnen sinestea, Jainkoari afrontu handia egitea da. Nihor ez da zuen artean, G. M., bere amaz gaizki mintzatuko denik, seme ona balin bada, ez eta ere bere aintzinean bere amaz gaizki eta itsuski mintzatzerat utziko duenik. Guk girichtinoek, ama bat badugu ama guziak baino handiagoa, sakratuagoa, gure bihotz eta indar guziez ohoratu behar duguna. Hura da Eliza ama saindua, edo gure erlisione saindua. Eskualdun maiteak, errespeta, ohora dezagun gure erlisionea. Errespetaraz eta ohoraraz dezagun, gutaz den bezembatean, gure erlisione saindua. Beraz, G. M., ez sekulan mintza Erlisionearen kontra; ez

sekulan zuen aitzinean utz gaizki mintzatzerat. Jarraik gaiten, haurrak bere amari bezala, gure Erlisione sainduari. Elizaren erakaspena humilki segitzen duenak, Jainkoari obeditzen dio. *Qui vos audit, me audit;* eta Elizaren erranak, gaizkirat itzultzen dituenak Jainkoa bera mezpretzatzen du. *Qui vos spernit, me spernit.*

Soldadoek eta Juduen zerbitzariek Jesu Kristo gaizki zabilkaten demboran, Jondoni Petri tribunalaren inguruetan zabilan, jakin beharrez zer gerthatuko zen. Etsayak Judasekin hurbildu zirenean Jondoni Petri bertzeak bezala ihesari eman zen. Bainan lehenbiziko izialdura pasatu zitzayonean, Jesusentzat zuen amodioak gaina hartu zuen eta urrundik jarraiki izan zen nausiaren urhatseri. Gabaz hotz zelakotz, soldadoak eta bertze zerbitzariak su handi bat eginik, suaren inguruan zauden jarririk berotzen. Jondoni Petri ere hurbildu zen su ondorat. Beldurra nausitua zuen, eta ez da dudarik, haren herabetasunari ohartu bide zirela han ziren jendeak, eta athearen bortharen zain zagonak su ondoan ikhusi duenean gizon hura, erraiten du bere laguneri : « Gizon hau ere, harekin zen », eta gero berari buruz errai-

ten dio Jondoni Petriri : « Zu ere, Galilear harekin zinen ? » Harritu zen apostolua, galdua zela egin bide zuen bere baithan eta durduratua ihardetsi zion emaztekiari : « Ez dut ezagutzen zuk diozuna. Ez dakit zer diozun. »

Ikhusirik ez dela han lekhu segurian urruntzerat egiten du, eta atheari buruz zoalarik, oilarrak aldi bat kantu egin zuen. Bainan apostoluak bere beldurrarekin ez zuen aditu. Kampoko alderat elkhiltzerat zohan bertze zerbitzari batek erraiten duenean :

« Ba, hau ere Nazaretheko Jesus harekin zen. »

Gibelerat egiten du Jondoni Petrik eta badoha berriz su ondorat. Bainan huna non berriz ere erraiten dion han zirenetarik batek : « Hetarik zare beraz zu ere. » Eta bertzek ere galdetzen diote : « Erragukuzu egia : Ez zare zu ere Jesusen dizipuluetarik ? » Bainan Jondoni Petrik ukhatu zuen juramentu eginez, zioelarik : « Ez, ez dut gizon hura ezagutzen. »

Oren baten ingurua joan zen hola. Jondoni Petri soldadoen ondoan zagon berotzen. Berriz ere erraiten diote han direnek. « Zu ere hetarik zare, Galilearra zarela

ezagun duzu mintzotik. » Eta dembora berean zerbitzari batek dio : « Nola ukha dezakezu gizon haren dizipuluetarik zarela, nihonik ikhusi zaitut Olibetako baratzean.» Orduan, juramentuka eta arneguka ihardesten du apostoluak : « Erraiten dautzuet ez dudala gizon hura ezagutzen.» Oraino mintzo zelarik, oilarrak berriz ere kantu egin zuen. Memento hartan guziek burua aldaratu zuten Jesusi behatzeko. Soldadoek bazeramaten tribunaletik bertze barne batetarat, goiz alderartio han atchikitzeko, erran ditugun laido eta eskarnioen erdian. Pasatzean behatze bat egin zion Jesusek bere Apostoluari : Betbetan orhoitzen da Apostolua, Nausiak erran izan zion hitzaz ; baizik eta oilarrak bi aldiz kantu egin baino lehen, hiruetan ukhatuko zuela. Ordu berean, bihotza urriki minenaz erdiratua, joan zen kamporat nigarretan.

Jesus Jaunarentzat pena handia izan zen bere Apostolu maiteenak ukhatu izan zuela ikhustea. Bazakien bere etsayen partetik ez zuela zeren iguriki ikhustaterik. Bainan bere adiskideak ere urruntzen ikhusi izan ditu, eta bakharrik gelditu izan da soldadoen eskuetan. Jondoni Petri

jarraiki izan zayo, bainan urrundik, eta harek ere ez du bere nausitzat ezagutu nahi. Jondoni Petrik ez zuen holakorik uste, bere Nausiari erran izan zioenean : « Guziak ihesari emanen badire ere; ni ez naiz zure ganik urrunduko, heriotze dorpheena jasan behar izanik ere. »

Bere buruari fida delakotz, badoha okasionea den lekhurat, eta Juduen eskuko diren gizonekin balsan, hara non den su ondoan. Ichilik egoiteko orde, mintzo da, eta bere mintzoak ezagutarazten du : *Loquela tua manifestum te facit.* Kurios ere da; nahi du jakin nola itzuliko diren gauzak : *Ut videret finem.* Bainan beldur da ahalge da, Jesusen dizipulutzat hartua iz: iteaz, beldurrago oraino Nausiari jasanarazten diozkaten laidoen jasaiteaz.

G. M., Izpiritu Sainduac errana da : Lanjera maite duena, lanjerean galduko dela. Nahi bazarezte gaizkitik beiratu, egon okasionetarik urrun. Uste duzue behar bada, zuen fedea aski hazkarra dela, eta zer nahi gerthaturik ere, fermu egonen zareztela zuen sinhestetan. Jondoni Petrik ere hala uste zuen. Uste duzue zer nahi kompainietan kausiturik ere, ez dela zuentzat lanjerik, Jondoni Petrik ere hala uste

uen. Bertzeak aditzearekin zuek ere zom-
ait solas alfer erran detzazketzuete, zuek
re kurios zarezte holako edo holako gauza
akin beharrez, Jondoni Petri ere zuek
ezala zen. Eta ikhusi duzue zoin tristeki
rori izan den.

Uzkur eta ahalge zen. Jesusen dizipu-
utzat ez zuen ezagutua izan nahi. Gure
nendeko kalte handienetarik bat horra
ertan den, G. M. Girichtinoak uzkur eta
halge dire beren buruen erakusteko.
Askotan adituko dituzte gizon sinheste
gabekoak, gaizki mintzatzen, gauza sakra-
uenez trufatzen, bertzek bezala irri egi-
nen dute, ichilarazteko orde. Elizaren era-
kaspenak eta manamenduak ezagutzen
dituzte, eta heyen beiratzeko nahikaria
balukete. Bainan hartakotzat behar lituz-
kete beren buruak erakutsi, eta beren erra-
nez eta obrez frogatu Jesu Kristoren dizi-
puluak direla.

Uzkurtasunez eta beldurrez, meza huts
eginen dute; herriz kampo direlakotz, edo
etchean berean, mehe egunak hautsiko
dituzte, bertze asko phondutan beren sin-
heste guziak zangopean ezarriko dituzte,
bertzek zer erran beldurrez. Zer da hori,
ez bada Jesu Kristoren ukhatzea, arne-
gatzea ?

Eta diote erlisionea maite dutela. Jondoni Petrik ere erran zuen goraki, orok abandonatuko bazuten ere, harek ez zuela abandonatuko Nausi ona. Arrazoinak ere bazituen hala mintzatzeko. Grazia handienak, ardietsiak zituen ordukotz. Apostoluen buruzagitzat hautatua izan zen. Mendi gain batean, bere Jainkotasunaren seinale zombait agertzerat utzi izan zituenian Jesusek, Jondoni Petri han aurkitzen zen. Huna non zerbitzari batek hitz bat erraiten dion, eta bere Nausia ukhatzen du, ez aldi bat, ez bietan, bainan hiruetan. Hastean da guzia. Behin gaizkirat lerratuz geroz errech da zolaraino erortzea. Lehenik gezur bat erraiten du Jondoni Petrik, gezurraren ondotik juramentua, juramentuaren ondotik madarizioneak. *Tunc cœpit detestari, et anathematizare, et jurare.*

Oh! Jondoni Petrik gaizki egin zuen. G. M. Bainan gu hobeak othe gare Jesu Kristorentzat? Zombat grazia ez dugu guk ere ardietsi izan gure bathayoko egunetik eta egun huntaraino, bai arimako, bai gorphutzeko? Zer esker izan dugu Jainkoaren alderat? Behar bada behin baino gehiagotan okasione ttipi bat aski izan da gure chede on guzien lurrerat aurthikitzeko.

Guk ere Jainkoari hitz onak eman izan ditugu. Bereziki lehen komunioneko egunean, eskua bathayo harriaren gainerat hedaturik, erran izan ginuen, ukho egiten ginuela munduaren eta etsayaren obra guzieri, eta gure bihotzak bethikotz emaiten gintuela Jainkoari. Geroztik misione bat izan denean, edo pazkoak egin izan dituzuenean hitz berak erreberritu dituzue edo erreberritu behar zintuzten. Zer bilhakatu dire zuen hitzak? Ez othe zarete behinere ahalge izan zuen buruen girichtino bezala agertzeko, ez choilki solasetan bainan obretan eta mundu huntako harat hunat guzietan. Bethi ihes egin othe duzue hastetik tentazioneri eta okasioneri? Ezen hastetik behar zayote kontra egin. Hasiz geroz, gure jaidura gaichtoekin, laster da erorikoz eroriko lezearen zolaraino joaitea.

Jondoni Petri bezala erori bazarezte hura bezala behar zarezte ere altchatu. Oilarraren kantua aditu dueneko, Jesusen behatze eztia ikhusi dueneko, nigarrez emaiten da, gerorat utzi gabe urrikitan sartzea. Jondoni Petrik bere bizi guzian penitentzia egin zuen, hainbertzetaraino non, nigar eginaren bortchaz, bi mathele-

tan bi *unaku* bezale baitzituen. *Flevit amare.*

Berehala urrundu izan zen Jondoni Petri Kaifasen etchetik, konbertitu nahi delako seinalerik hobena da bekhatuaren okasionetik urruntzea. Bere bizitze guzian orhoitik izan da egin zuen bekhatuaz, eta penitentzia garratzenaz erreparatu izan du. Elizako-aita batek dio, gau guziez, goiz alderat oilarrak kantu egitean, altchatzen zela lurretik, ezen lur hutsa zuen ohetzat, eta bere bekhatuaz nigar egiten zuela. Badakizue Jondoni Petrik martirioa jasan izan duela eta bere Nausiak baino garrazkiago pairatzeko, buruz behera kurutzefikatua izan nahi izan duela.

G. M., aithortzen duzue naski Jesu Kristo Jondoni Petrik bezala ukhatu izan duzuela zuen uzkurtasunaz, zuen guriki bizi beharrezko gutiziaz. Okasioneak izan dituzue zuek ere bekhatuen deithoratzeko. Jainkoak zueri ere eman izan dauzkitzue graziak. Edo eritasun bat, edo ahaide hurbil baten galtzea, edo kofesoraren kontseiluak edo bertze zerbait okasione izan da zuentzat ere Jondoni Petrirentzat Jesusen behatzea bezala. Ez badituzue Jainkoari egin afrontuak erreparatu; huna okasione

on bat egun hautan, zuen baithan sartzeko, eta chede fermuen hartzeko. Balia zaitezte, Jainkoak egiten dautzueten graziaz, eta har zazue gaur danik bizitze girichtinoago bat, Jainkoa hobeki zerbitatzeko eta hura zerbitzatuz zerua irabazteko.

JAUN ZANZINENA

Katedraleko bikarioak

EMAN BIGARREN PREDIKUA

Tunc apprehendit Pilatus Jesum et flagellavit.

Pilatusek emana zuen manua, Jesus azota zezatela

Girichtino Maiteak,

Barda ikhusi izan dugu Jesus Kaifasen tribunalean, gaur ikhusiko dugu Pilatusen tribunalean.

Goiz alderat, bere kontseilua bildu izan zuen Kaifasek, eta Jesus ekharrarazi izan zuen bere aintzinerat.

Bigarren aldikotz erran izan zion : « Kristo balin bazare, aithor zazu. » Jesusek bazakien bere Juyen bihotzaren berri, eta aire ezti batekin, erran izan zioten : « Zertako egiten daitazue hainbertze galde? Bayetz erraiten badautzuet, ez nauzue sinetsiko ; deusik galdatu nahi baudautzuet, ez dautazue ihardetsiko. »

Juduek elgarri behatuz, erraiten diote : « Beraz, Jainkoaren Semea zare? » Eta Jesusek ihardetsi zioten : « Ongi erran duzue, hala naiz. » Guziak eman ziren betan oihuz : « Ez dugu bertze froga beharrik, beraren ahotik aditu dugu blasfemioa. » Eta orduan elgar aditu zuten, Erromano

Gobernadorearen baimena ardiesteko, ez baitziren libro nihoren hilaraztera Gobernadorearen baimena gabe.

Dembora hartan Ponzio Pilatus zen gobernadore. Goizeko sei orenak ziren. Bederatziak arte ez zen tribunalik idekitzen. Bainan Juduek ez zuten sesurik beren chedetarát heldu artio!

Jesus Jauna eremanarazten dute beraz Pilatusen aintzinerat. Pilatusek bide zakien nor zen Jesus, haren fama aski hedatua zen bazterretan. Bainan erlisionezko gauzetan ez zuen ikhustekorik, eta Pharisauek herra handia zaukaten haren kontra. Ez zuen beraz Judueri atsegin egiteko, itsura juyatzeko gutiziarik.

Begitarte fier batekin galdetzen diote Judueri : « Zer duzue gizon hunen kontra erraiteko? » Galde horrek ez zioten plazer egin Judueri. Uste izan zuten Gobernadorearen aintzinean humiliatu zenaz geroz, gehiagokorik gabe, heyek eginak ongi egintzat hartuko zituela. Ihardetsi zuten beraz murrizki : « Ez balu hobenik izan, ez ginuen zure aintzinerat ekharriko. Kondenatu badugu, arrazoinak bagintuen eta gure erraneri fidatzen ahal zitezke. »

Bainan Pilatusek uste zuen, ez zela afera

hartan guzian erlisionez bertzerik, eta erran zioten : « Nork gibela zetzazkete, gizon hortaz jabetzetik eta zuen legearen arabera kondenatzetik : afera hortan ez dut ikhustekorik. — Segurki zure egitekoa baita, diote Juduek. Ba ahal dakizu, ez zaikulu libro nihoren hilaraztea. Eta horra zertako ethorriak garen zure ganat. »

Ageri da Pilatusek ez zuela deusik ikhustekorik izan nahi afera hartan. Bainan Juduek ez diote barkhatzen, eta orduan sarrarazten du Jesus bere tribunalerat. Juduak kampotik zauden. Pilatus paganoa zen, Erromanoa zenaz geroz, eta Juduak beldur ziren bekhatu egin, pagano baten etchean sartuz, Bazko demboran. Horra Juduen erlisionea. Pagano baten etchean sartzeko beldur; eta dembora berean Jesusen hilarazteko ez beldur. Arrazoinekin zioten erran Salbatzaileak, kampoz churi zirela, eta barnez, hobi barne baten pare.

Juduek Jesus kondenatu izan zuten blasfemio bat erran zuelakotz. Bainan berek ikhusten zuten, halako akusazione batek ez zuela Pilatus hunkitzen ahal. Eta orduan akusatu izan zuten Jesus, gizon nahasi eta lanjeros bat izan balitz bezala : « Aditu dugu, diote Pilatusi, aditu dugu

han eta hemen mintzatzen, eta erresuma guzia bere erakaspenez nahasia dauka; gibelatu ere ditu jendeak, Erromanoeri zergak pagatzetik. »

Preseski hori erranarazi beharrez, dembora guti lehenago, Pharisauek atakatu izan zuten Salbatzailea, ustez behin bederen enganatuko zuten. Bainan Jesusek erran izan zioten : « Emazkotzue Zezarri, Zezarri zor zaizkonak, eta Jainkoari Jainkoari zor zaizkonak. » Erran nahi bezala zuten Juduek, Jesusek Erromanoen botherea mendratu nahi zuela, bera errege izaiteko. Eta egun batez, populuak bere baitharik errege egin nahi zuelarik, Jesus ihesari eman zen eta gorde zen. Pilatusek ezagutzen zituen Juduak; ez zen heyen gezurrez enganatua. Egiazki Erromanoen kontra jarri izan balitz Jesus, ez zuten Juduek akusatuko; ez eta ere haren aintzinerat agerraraziko. Aski dorphe zitzayoten Erromanoen azpiko izaitea. Bainan pasionez eta herraz mintzo direnentzat gezurra eta kalomnia zer dire?

Pilatus sartzen da tribunalean eta Jesusi galdetzen dio : « Juduen erregea zare? » Jesusek erraiten dio : « Zure baitharik diozu gauza hori; ala norbaitek errana

dautzu. — Ez naiz ni Judua, dio Pilatusek. Zer zaut niri; Salbatzaile bat, Mesias bat goaita dezazuen ala ez. Populuak eta populuaren aphezek eman zaituzte ene eskuetarat. Erranen daitazu, hea errege zarenetz. — Ba, dio Jesusek, hala naiz. Bainan ez zazula beldurrik izan. Erromanoak bakean daudezke. Ene erresuma ez da mundu huntakoa.

« Mundu huntako erresumak mundu huntako ontasunen ondotik dabiltza. Ene erresuma zerutik heldu dena da, eta zerurat du eremaiten. Ene erresuma mundu huntako erresumak bezalakoa balitz, nik ere banituzke ene zerbitzariak, beren erregearen aldea har lezaketenak, eta ez nindazke Juduen eskuko. Bainan ene erresuma ez da mundu huntakoa. »

Pilatusek ez zuen hitz hoitan guzietan gauza handirik comprenitu; bainan ikhusi bederen zuen Juduak gezurrez mintzo zirela; eta Erromanoek ez zutela Jesusen ganik deusen beldurrik izaiteko. Bertze munduko erresumaz ez zen khe hu. Irri aire batekin, erran izan zion Jesusi : « Beraz errege zare? » — « Ongi erran duzu, ba, errege naiz. Ez naiz mundu huntarat ethorria, egia ene lekhukotasunaz finkatzeko baizik. »

Bainan Pilatus ez zen egiaren ondotik dabiltzan gizonetarik, eta airera bezala erran izan zion : « Zer da egia ? » Eta gehiagoko kasurik egin gabe, athera zen juduen gana, eta erran izan zioten :

« Ez dut deus hobenik kausitzen gizon horren baithan. »

Pilatusek ez zuen intentzione gaichtorik, iduriz segurik. Ikhusten zuen Juduak zuzen kontra zabiltzala, eta heyen erranak sinhetsi gabe, nahi zituen gauzak argitu. Bainan ikhusi dueneko Jesus bertze munduko gauzez mintzo zayola, eta egia zer den irakasterat zohakola, burua itzultzen du, dioelarik : « Zer da egia? » Erraiten balu bezala : « Zertaz mintzo zaizkit ? Lur huntako gauzez bertzerik ez dut nik ezagutzen. Utz nezazu beraz geldirik. »

Zombat Pilatusen iduriko jende den bazterretan, G. M., lur huntako ontasuneri, ohoreri, atsegineri atchikitzen dutenak, eta bertze munduko gauzez achola guti dutenak. Jesusek mundu huntan zenean, irakasten zuen egia bera du irakasten Eliza katolikoak. Aita Sainduak, aphezpikuek eta aphezek Jesusen erakaspenak dituzte hedatzen munduan, eta erraiten dituzten guziak, Jesusen izenean, erraiten dituzte.

Bainan egiaren aditzeak ez du bethi atsegin egiten.

Eliza katolikoa ez diteke bada, mintzatu gabe egon. Etsayek erlisionea atakatzen dutenean, Elizak adiarazten du bere erakaspena, eta erraiten diote bere etsayeri. « Nahi dituzuenak eginen dituzue, bothere guziak eskuetan dituzue; bainan zuen indarrak eta bothereak ez naute izĭtzen. Jainkoak berak errana daut : « Zohaz munduan barna, guzieri errozute egia. » Huna beraz egia, Jainkoak berak irakatsi duen bezala. »

Elizaren kontra direnek ez dute aditu nahi egia, edo aditzen badute ere, ez adituarena egiten dute. Pilatusek bezala diote: « Zer da egia? » Ez dugu guk gauza hortan ikhustekorik, eta estakuru eder horren itzalean, Elizaren dretchoak zangopean emaiten dituzte, Eliza saindua injustizia batez ichilarazten ahal balute bezala. Ez, ez, G. M., Eliza katolikoa ez da ichilduko; mundua mundu deno Eliza katolikoak Jainkoaren erakaspena hedatuko du munduan, eta ez mehatchuek ez gaztiguek ez dute gibelatuko egiaren goraki erraitetik.

Zuek, G. M., Elizaren erakaspenak adi zaitzue konfientziarekin. Behar bada adi-

tuko duzue erraiten : « Aphezek nahi di-
« tuztenak erraiten dituzte, aditu ditu-
« zuenak ez dire ez ebanjelioko egiak;
« aphezek pentsatuak dire. » G. M., Aphezek ez dezakegu deusik irakats aphez bezala, Jesu-Kristok bere Elizari irakatsi izan dituenak baizik, eta zuen eginbidea da, aphezaren erranak, Jainkoak berak erranik bezala sinhestea, zuen buruak etsayen gezurrezko erakaspenez itzulikatzerat utzi gabe. Egun batez, G. M., gure kontrarioak eta gu jujatuko gaitu zeruko Jainkoak. Orduan ageriko da non zen egia. Gu ez gare beldur Jainkoaren jujamenduaz.

Pilatusek Judueri erran ziotenean ez zuela deusik hobenik kausitzen Jesusen baithan, aphezen aitzindariek ez zuten etsia hartu eta handizkiago akusatzen abiatu ziren, uste izan zuen Pilatusek Jesusek ihardetsiko zuela bere etsayeri. Bainan Jesus ichilik zagon.

Ichilik jasanez bere etsayen gaichtakeriak eta kalomniak, Jesusek nahi zuen girichtinoeri irakatsi, nola behar dituzten beren etsayen aldetik heldu zaizkoten nahigabeak eta afrontuak jasan pazientziarekin.

Pilatuz harritua zen Jesusen ichilik

egoiteaz. Erran ere bazion : « Ez dituzu aditzen zure kontra dabiltzaten akusazioneak? ez duzu bada deusik erraitekorik? » Bainan Jesusek ez zuen hitzik athera. Gobernadorea harritua zen.

Ikhusten zuen Jesusek hobenik ez zuela, bainan ez zuen aski fermutasun eta kuraye, Jesusen Juduen eskuetarik libratzeko. Duda-muda batean bezala zagon Pilatus.

Juduak ohartu direnean haren uzkurtasunari, oihuz emaiten dire gorago eta diote : « Populu guzia asaldatua dauka « bere predikuez, Galileatik hasirik, Jude-«ako esku-alde guzietan.» Pilatusek aditu duenean Galileaz mintzatzen, galdetzen diote hea Galilearra den. Galilearra denaz geroz ez du ikhustekorik ; Herodesen azpiko da Jesus. Igortzen du beraz Herodesen aintzinerat.

Jakin zuenean berria, Herodesek atsegin handia izan zuen. Aditua zen gizon harek obra miragarriak egiten zituela, eta bere baithan egiten zuen behin bederen obra hetarik zerbait ikhusiko zuela.

Herodesek egin ziozkan beraz zombait galde Jesusi. Bainan Jesusek ez zion deusik ihardetsi. Juduek bethi akusazione berak adiarazten zituzten, eta heyen oihuak gatik Jesus ichilik zagon.

Herodesek eta Herodesekilakoek zentzu gabe batentzat hartu zuten Jesus, ichilik zagolakotz eta hartaz trufatu izan ziren. *Spreverunt illum.*

Ez zen hargatik Herodes menturatu hilarazterat. Pilatusek ez zuenaz geroz hobendun kausitu, eta mendekatu bederen beharrez, soinean emanarazi zion erhoeri jauntzarazten zen arropa churi bat, eta igorri zuen berriz Pilatusen aintzinerat.

Herodes trufatu zen. Bainan Jainkoak ez zuen ahantzi Herodes. Handik hamar urthe gabe, bere erregetasun eta izaite guziak galdu zituen Herodesek eta miserian hil izan zen desterruan. Jainkoaz eta erlisioneaz irri egiten dutenak, orhoit beite Herodesen fin gaichtoaz.

Juduak jarraiki zitzaizkon Jesusi, Pilatusen palazioraino eta ikhusirik ez zirela bere chedetarat uste bezain laster heltzen, gorago oihu egiten zuten. Pilatus atheratu zen berriz kamporat eta erran izan zioten : « Gizon hau ekharri dautazue ; diozuete « populua asaldatua daukala. Bainan zuen « aintzinean interrogatu izan dut, eta ez « dut deusetan ere hobendun kausitu. « Herodesek ere ez dio deusik hobenik « kausitu. Bainan zueri plazer egiteko,

« azotaraziko dut, libratu baino lehen. »

Pilatus, zertako azotaraz, ez diozunaz geroztik hobenik kausitzen? Zer? Justizia beiratu behar ordean, ikhusten duzularik akusazioneak gezurrezkoak direla, hobenduneri amor emaiten diozute, eta hobenik ez duena jotzen duzu? Pilatus errana da gizon gisakoa zela, eta hastetik iduri ere zuen ez zuela intentzione gaichtorik. Bazakien Jesusek ez zezokela kalterik egin, onegia baitzen eta beldur zen Juduen partetik zerbait nahigabe izan, orduan Judueri plazer egin beharrez, azotarazten du Jesu-Kristo. Ez zuen Pilatusek eskurik Jesusen azotarazteko, eta ez balitz izan gizon uzkur eta beldurti bat, Judueri erran behar zioten: « Ez duzue arrazoinik « Jesusen kondenatzeko, erran dituen gu- « ziak erran zetzazkeen. Ez beraz ene ganik « galda, ekhar ez dezaketan juyamendu- « rik. »

G. M., Pilatus bere kontzientziaren kontra joan izan zen. Pilatusek gaizki egin zuen. Bainan ez othe da girichtinoen artean asko Pilatus iduri dutenak? Kontzientziak erraiten diote Jainkoaren lege saindua beiratzekotz, zer eskualde hartu behar duten. Bainan Jainkoa gora da; urrun da.

Jainkoa lur huntako jende prestuak baino prestuago da; ez du bethi berehala besoa hedatzen; eta hanitz jende, gizonen beldur gehiago dutelakotz, Jainkoaren etsayeri atsegin egiteko bere kontzientziaren kontra mintzatzen eta ibiltzen dire. Beldurrez, uzkurtasunez, beren baitharik sekulan eginen-ez zituzten obrak, egiten dituzte. Giristino onak ez du behar sekulan bere kontzientzia saldu, eta bere kontzientziari (argitua balinbadu segurik), ez bada jarraikitzen, ez du giristino deithua izaitea merezi.

Norbaitek behar bada deraut erranen : « Ez da bethi errech, mundu huntako ha-« rat hunat guzietan nahi den bezala itzul-« tzea. » — Erran nahi duzu naski, kontzientziari jarraikitzeko, behar dela zombait aldiz, mundu huntako intres edo abantail zerbait galdu. Segurki, ez duzu gizonen erranen gatik, ez agintzen gatik, ez mehatchuen gatik, itho behar zure kontzientzia. Gizonen beldur zare, eta Jainkoarentzat ez duzu beldurrik? Jainkoak, G. M., baditu bere lotbideak eta gizonenak baino handiagoak. Ez, ez, G. M., mundu guzia urhetan izan behar bazinute ere saritzat, ez zazuetela deusik

egin, kontzientziak laguntzen ez zaitueztenean, kontzientzia kontra duzuenean.

Pilatus Jesusen azotarazterat zagon, ustez Juduak ichilaraziko zituen. Bainan Juduentzat azotatzea ez zen aski. Ohartu zen laster Pilatus, ez zuela deusik ardietsiko. Betbetan gauza bat heldu zayo gogorat.

Bazko demboran gobernadoreak ohi zuen presundegietan zaudenetarik norbait libratzea, Juduek hautatzen zutena. Egun hetan bazen preso, fama gaichtoko gizon bat, Barabbas deitzen zena. Preso hartua izan zen, Jerusalemeko populua bere aitzindarien kontra altcharazi izan zuelakotz, eta gizon bat hil zuelakotz.

Bere baithan egiten zuen Pilatusek, Jesus libratuko zutela Juduek. Erran izan zioten beraz : « Nor nahi duzue libra de-
« zatan, Barrabas ala Jesu-Kristo deitzen
« duzuena? » Juduen aintzindariak kontra izanik ere, populua Jesusen alde izan ziteken, eta hala behar ere zen ; populuak ez zuen ongirik baizik izan Jesusen ganik. Bainan populuak ongi eginak laster ahanzten ditu, eta bertzalde populuak bethi kontseilu on emaileak kausitzen ditu. Ordukotzat populuari sinhetsarazia zioten

Jesus ez bazuten kondenatzen, desgrazia handienak gerthatzerat zohazila ; behar zutela beraz Barrabas hautatu.

Pilatusek galdatu ziotenean nor nahi zuten bada hautatu Barrabas ala Jesus, guziak batean oihuz eman ziren : « Ez « dugu Jesus nahi. Emagukuzu Barrabas. « — Bainan zer nahi duzue bada egin de- « zatan Jesusez, dio Pilatusek. Eta Juduek « saminkiago oihu egiten dute : « Kuru- « tzefikaraz zazu, kurutzefikaraz zazu. »

Pilatusek hirurgarren aldikotz erraiten diote : « Zer gaizki egin du bada ? Ez dut « deusik kausitzen heriotzea merezi deza- « kenik, Azotaraziko dut, eta gero libro « utziko. »

Juduek gehiago oihu egiten diote : « Kurutzefikaraz zezala. *Crucifigatur!* »

Aski flakoa izan zen Pilatus, Barrabas libratzeko eta Jesusen azotarazteko, jakin izan ez balu bezala, ezin ditakela makila bi buruetarik atchik, eta gizonak behar duela alde bat edo bertzea fermuki hautatu.

Kompreni dezagun, G. M., Pilatusek nola humiliatu izan duen Jesus Jauna. Alde batetik ikhusten dugu Jesus, Jainkoaren Semea, Jesus saindutasuna bera, mun-

duaren salbatzailea bekhatuaren kotsutik osoki beiratua, gorphutzeko eta arimako gaitz guzien sendatzea gatik, zerutik jautsi izan dena. Beha zazue haren aldean den gizonari. Bere begitarte gaichtotik ageri du zer den. Obrak itchuraren araberakoak ditu. Ohointzat ezagutua da; heriotzeak ere egin ditu; mundu guzia haren beldurrean dago. Hura da Barrabas. Pilatus, Jesusek hobenik ez duela aithortu ondoan, aski ahula da, Barrabasen eta Jesusen artean hauta emaiteko : *Quem vultis dimittam vobis?* Eta populuak, bere probetchuari edo abantailari kasurik egin gabe, oihuz dio, libra dezala Barrabas eta ez Jesus. *Non hunc sed Barabbam.* Populuak Jesus ezagutzen zuen. Pharisauek haren saindutasuna ez zuten hutsean kausitu ahal izan. Pilatusek eta Herodesek aithortzen zuten ez ziotela deus hobenik kausitzen. Zerbait eritasun edo nahigabe zuten guzieri kontsolazioneak eman izan zituen Jesusek ; agertzen zen lekhu guzietan, bere bihotz onaren hatzak eta frogak uzten zituen. Juduek beren begiez ikhusiak zituzten haren obra miragarriak. Eta halere diote : *Non hunc sed Barabbam.* Ez dugu Jesus nahi, bainan ba Barrabas.

Zertako bada kondenatzen othe dute Jesus. Batzuek gaichtakeriaz, jelosiaz, herraz; bertzek, mintzatzaile ederrek enganaturik; hanitzek uzkurtasunez, beldurrez; zombaitek, bertzek bezala egiteko.

Nola kompreni halako injustizia, G. M., Juduak gaizki ibili izan dire. Bainan ez dugu zeren oldar Judueri. Juduek egin izan zutena egiten dugu egun guziez.

Gizonak Jainkoari ez badio obeditzen, bere pasioneri obeditzen diote. Gizona bere baitharik gaizkirako alderat itzulia da. Bere naturalezaz, bere jaidurez, zerk ere atsegin egiten baitio eta haren eskuratzerat ekharria da. Edo ohore, edo ontasun, edo plazer gaichto gose da. Edo herrakundez, edo jelosiaz, edo bertze zerbait sentimendu gachtoz hartua du bihotza. Hitz batez erraiteko, gutizia egiten dioten gauzen eskuratzea lakhet luke.

Bainan kontzientziak Jainkoaren legea emaiten dio aintzinerat, eta erraiten dio: « Zertarat zohaz? Horra zure atsegina edo zure intresa alde batetik; eta huna Jainkoa bertze alditu. Zoinentzat zaude? ez zitazke bien alde izan. Bati edo bertzeari behar duzu ukho egin. *Quem vis tibi de duobus dimittam.* Pasioneak, bi-

hotzaz nausitua bada, gizonari erranarazten dio: « Atsegina nahiago dut. » Bainan berriz ere kontzientziak dio : «Zer egin behar dut bada Jesusez? Niri dago Jainkoaren aldea hartzea. *Quid igitur faciam de Jesu?*— Ene Jainkoaz izan bedi ahal dena, dio pasioneak. Utz nezazu ene gostuen egiterat, atseginez gozatzerat. »—Bainan kontzientziak oraino ere dio : « Orhoit zaite, atsegin hori hartuz, edo bekhatu hori eginez, zure Jainkoa kurutzefikatzen duzula. — Zer zaut Jainkoa kurutzefikaturik ere, ene gogora bizi banaiz; naturalezak galdetzen dituen plazerak hartzen baditut. *Crucifigatur,* kurutzefikatua izan bedi.—Bainan zer gaizki egin dautzu Jainkoak? Zer arrazoin duzu haren ganik urruntzeko?—Ene atsegina nahi dut eta Jainkoa atsegin haren kontra bada, kurutzefikatua izan bedi Jainkoa. »Horra zer pasatzen den egun guziez gizonen kontzientzietan, eta horra zer egin izan duzun arimari hil kolpea emaiteko bekhatuan erori zarezten guziez. Ezen dakizunaz geroz gauza bat debekatzen dautzula Jainkoak, badakizu gauza hura ez dezakezula egin, Jainkoa galdugabe. Beraz jakinean pasio-

neari amor emaiten eta Jainkoari ukho egiten duzu. Barrabas nahiago duzu Jesus baino.

Pilatusek eman zuen beraz manua, Jesu Kristoren azotaraztekoa. Soldadoek buluzten dute gerriraino eta azote ukhaldiz jotzen dute, hain garrazki non odola jauzten baitzayo alde guzietarik, eta gorphutz guzia zauri baten pare egina baitu.

Soldadoak orhoitzen dire, Juduen erregea zenetz galdatu ziotenean Jesusek ez zuela ezetzik erran. Beren artean egiten dute errege bezala behar dutela trufaz ohoratu. Jarririk ezartzen dute harri handi baten gainean; arrantzez eta elhorriz egiten diote korona bat eta sartzen buruan barna, sorbaldetan behera ezartzen diote kapa gorri bat, eskuan kanabera puska bat. Eta gero irriz belhaunikatzen dire haren aintzinean, diotelarik : « Agur, Juduen erregea ». Gero, beren errabian, zartakoz jotzen dute, begitarterat thu egiten diote, eta eskuetan duen kanabera hartaz joka, buruan barnago sarrarazten diote korona, eta planta ikhusgarri hartan, eremaiten dute Pilatusi.

Pilatuse agertzen da bere etche aitzinean, eta Jesus bere aldean ezarririk irri

aire batekin erraiten diote Judueri : «Huana gizona, *Ecce homo.* » Ustezuen Pilatusek urrikalduko zela populua. Bainan Juduen aintzindariak eta heyekin bertze guziak borthizkiago oihuz eman ziren : « Kurutzifikatua izan bedi, *Crucifigatur.* »

Pilatusek, phiztua, erraiten diote : « Kurutzefika zazue, nahi baduzue. Nik ez « diot hobenik kausitzen. »

Juduek, beldurrez Pilatusek libra dezan Jesus, oihuz erraiten diote : « Libratzen « baduzu, ez zare zure emperadorearen « adiskidea; ezen bere burua erregetzat « daukana, emperadorearen kontra da. »

Orduan beldurtzen da Pilatus. Juduak ordukotz arrangura ziren Pilatusez, eta emperadoreari zerbait jakinarazten bazioten bere kargua gal zezaken Pilatusek. — Berriz erakusten du beraz Jesus populuari, eta erraiten dio : « Huna zuen erregea. » Bainan Juduek ihardesten diote : « Khen zazu, khen, kurutzefikatua izan bedi. » — « Zer? dio berriz ere Pilatusek : « zuen erregea kurutzefikatu nahi duzue. » — Juduek ihardesten diote : « Ez dugu « bertze erregerik Zezarrez kampo. »

Pilatusek ikhusten du ez dezakela deusik

ardiets, eta ur zorta bat ekharrarazirik eskuak garbitzen ditu, dioelarik: « Ni garbi « izanen naiz gizon justu hunen odoletik, « zuen gain izanen da. » — Eta Juduek diote oihuz: « Gure gain izan bedi eta gure « haurren gain horren odola; *Sanguis « ejus supernos et super filios nostros.* »

Pilatusek eskuak garbitzen ditu; bainan kontzientzia ēz̄ du garbitzen. Eta Jesusen etsayetan gehienik hobendun izan dena, da Pilatus.

Kargutan zen; kargutan zelakotz, bothere guzia bazuen Jesusen libratzeko, eta haren eginbidea zen justiziaren alde jartzea eta Juduen herra ichilaraztea. Hastean zerbait egin du Jesusen libratzeko; bainan ikhusi duenean Juduak thematzen direla, eta bere kargua galarazteaz mehatchatzen dutela, azotarazten du Justutzat eta hobenik gabetzat daukana, eta kondenatzen du. Elizak munduaren akhabantzaraino ezagutaraziko du munduari Pilatusen ahultazuna eta injustizia, bere Kredoan erranez : *pairatu izan zuen Ponzio Pilatusen manuaren azpian.* G. M., kargutan direnek kondu handiak eman beharko dituzte Jainkoaren aintzinean. Kargudunek beren botherea Jainkoaren ganik daukate. Gizo-

nak gizona balio du eta gizonak ez dezake gizonaren gainean bothererik izan, non ez dion Jainkoak emaiten. Beraz kargudunek Jainkoaren aldea eta justiziaren aldea atchiki behar dute. Ba, kargudunek Jainkoa eta Jainkoak eman erlisionea sostengatu behar dute eta Jainkoari edo erlisioneari kalterik egin gabe ez baditezke egon beren karguetan, miletan behar dituzte ohoreak eta karguak bazterrerat utzi, Jainkoari fidel egoiteko.

Pilatus garrazki jo zuen Jainkoak. Herodes bezala bere kargutik aurthikia izan zen eta desterrurat igorria. Jainkoak garrazki gaztigatuko ditu haren ganik ardietsi bothereaz gaizkirakotzat baliatuko direnak.

Ez dezagun uste izan, G. M., Pilatusek bakharrik kondenatu izan duela Salbatzailea. Jesus mintzatu nahi izan balitz, behar bada Pilatusek defendatuko zuen Juduen kontra. Bainan Jesusek bekhatosak salbatu nahi ditu, eta gure bekhauen barkharazteko, ichil ichilik jasaiten ditu laidoak, eskarnioak, trufak, kolpeak, bairamen izigarrienak. Zer etsemplua gure arguluarentzat, gure minberatasunarentzat! Den gutieneko afrontuak ezin jasan

detzazkegu. kreatura ez deus batzu garelarik, eta Jainko batek, munduan egundaino izan afronturik handienak jasaiten ditu, hitz bat athera gabe. Pairamenen jasaitea ez da aski, Salbatzaileak bere odola azken chortaraino guzia ichurtzen du; bainan orhoit gaiten, gure bekhatuen gatik ichuri izan duela; gu garela beraz, Pilatusek baino hobeki, kondenatu izan dugunak.

G. M., ikhusirik eta kompreniturik Jesus Kristok zer pasionea jasan izan duen gure bekhatuen gatik, hastia dezagun bekhatua, eta mundu huntako gaitz guziez bainо beldurrago izan gaiten bekhatu bakhar baten egiteaz. Juduek zioten : « Haren odola eror bedi gure eta gure haurren gainerat. » Jainkoak aditu izan du Juduen oihua ; eta, mundu guzian barna barrayatuak, Juduek beren gainean daukate Jainkoaren madarizionea. Guk ere erran dezagun Juduek bezala, bainan urrikizko sentimendu bizienekin. *Sanguis ejus super nos.* Jesusen odola eror bedi gure gainerat; gure oraiartenoko bekhatu guzien ezeztatzeko ; eta hemendik harat bekhatuari ihes egiteko, atchik dezagun begien aintzinean Jesus gure Jauna, Pilatusen manuz azota-

tua, arrantzez koronatua, dena odol eta zauritan ezarria. Horra bekhatuaren obra! Horra zer egiten duen bekhatu pisuan erortzen denak. Nork izanen du gure artean kurayea edo bihotz aski gogorra, Jesusen tormenten erreberritzeko. *Ecce homo!* Beha dezagun Jesus gure gatik azotatuari, eta hitz eman dezogun, ez ditugula sekulan, gure bekhatuez, haren zauriak erreberrituko. Erran dezogun bihotzaren erditik, bekhatutik urrunduak, haren amodio sainduan bizi nahi garela bethi mundu huntan berthutean jarraikirik, bertzean dohatsu izaiteko. Halabiz.

MORDE CHORIBIT

Katedraleko Kalonje Jaunak

eman predikua

Tunc apprehendit Pilatus Jesum, et flagellavit. Et milites plectentes coronam de spinis, imposuerunt capiti ejus.

Orduan Pilatusek hartu zuen Jesus, eta azotatu. Soldadoek arrantzezko korona bat egin ondoan buruan barna sarthu zioten.

(Jondoni Joane, 19-1.)

Hirur etsai baditu bekhatuak: kontzientzia, Jainkoaren justizia, eta gizonak berak. Nor da, bekhatu egin ondoan, kontzientziako harra, sosegu eskasa senditu ez duenik? *Non est pax impiis.* Jainkoak bere justiziari zor dio bekhatuaren, non nahi aurkhi dezan, bere zigorraden azpian zehatzea. Ez da hori aski. gizonek berek, eta kreatura guziek elgar aditzen dute bekhatorosaren gaizki erabiltzeko eta berek uste ez dutela Jainkoaren mendekatzeko.

Bada Jesus gure bekhatuez berme jarri da, guziez ihardetsi nahi izan du: horra zertako ikhusi dugun Olibetako baratzean zehatua, erhautsia, arima ilhumbe eta lotsamenduz bethea: horra zergatik oraino ikhusten dugun kurutzearen bidean bere

Aita Zerukoaz gaitzetsia, debalde utzia; non azken hatsaren aurthikitzean baitio oihu samin batean : Oi ene Aita maitea, zertako bada ene etsayen artean debalde utzi nauzu? *Utquid dereliquisti me?* Ikhus dezagun gaur zer oinhazeak eta zer ahalgea Salbatzaileak zituen gizonen aldetik pairatu noiz eta baitzuten Juduek : 1° azote ukhaldiz jo, 2° arrantzez khoroatu.

LEHEN PHONDUA, *Jesus azotatua*

Jainkoari choilki dohako bere handitasunez, bai eta ere gure amodioz bere gain hartuizan dituen aphaltasunez mintzatzea. Harrek bakharrik dezake erakuts zer hitz edo zer elhe behar dugun ahoan erabili hekien ezagutarazteko. Bada huna zer dion erran bere profetari : *Et nos putavimus eum quasi leprosum* (Isaïe, 53. 4) : Iduritu zauku lepras hartu gizon bat zela, dena zauristatua eta ahalgez urthua. Ezen lepra zen eritasun izigarri bat berekin oinhaze eta ahalgez karkena. Hartaz hartua zenak bere haragia usteldurik pusketan erortzen senditzen zuen ; zer oinhazea ! Eta ere, eritu bazen, laster etchekoetarik urrun, hiritik kampo kasatzen zuten ; zer ahalgea !

Jesus gure bekhatuen gatik azotatuak
oi gaztigu horiek pairatu izan ditu : oin-
hazeak eta ahalgea. Pilatusek, egia da,
hahi izan zuen Juduen eskuetarik idoki,
bainan ikhusi ondoan haren entseguak
lferretan zirela altcharazi zuen eta azota-
razi, *apprehendit Jesum et flagellavit.* Nor
hahik, gaizki derabilatenean, ihes egin
dezake, boza altcha, edo bederen zombait
hatsbeherapenez bere adiskiden bihotzak
hunkiz, zerbait sokhorri ardiets ; bainan
Salbatzaileak bekhatuari zor zaizkon oin-
hazeak behar ditu pairatu : osoki bere
juyeri eta etsayeri debalde burua uzten du.
Tradebat se judicanti se injuste. Egin
dezatela hartaz nahi dutena, ahoa idokiko
ez du. *Non aperuit os suum.* Juduak gai-
nerat erortzen zaizko, soinekoak khentzen
daizkote, buluzten eta kolona bati sokaz
estekatzen eta soldadoak, azoteak eskuan,
beha daude noiz duten izanen manua Je-
susen joteko. Oi gibela zaitezte ene Jain-
koaren jotzaileak, ez hunki justua, ni naiz
hobenduna, Jesusen hoben bakharra da
ni sobera maitatzea! Bainan deusek hunki
ez detzazke, manua emana da, eta nola
ortzi egun batez, barazuza edo harri izi-
garri bat landa baterat erortzen baita,

gisa berean, azote kolpezko uhalde bat erortzen zaiko gainerat Jesusi : uzpelkatzen diote begitartea, putzketan ezartzen gorphutza, sarraskitan membro guziak. Kolpea kolpeari darraiko, zauria zauriari, odola badario alde guzietarik, halako moldez non ez baitu gehiago gizon itchurarik ere. *Ego vermis et non homo.* Giristino maiteak, asma dezagun Salbatzaileak zer oinhaze izigarria ahal zuen pairatu gisa hortan zauristatua, porroskatua izan zenean. Bizkitartean erran daite haren jotzaileak lasterrago zirela unhatu kolpe emaiten, ezenez eta Jesus hekien hartzen.

Oinhazeak aski ez ziren, oinhazeari darraiko ahalgea, hori da erran izan dugun azote kolpen bigarren alde samina. San Thomasek Jesusen humilizioneen hirur ithurburu seinalatzen daisku : *ignominiosum locum, ignominiosum supplicium, ignominiosum consortium.*

Girichtino maiteak, askotan edozoin ahalge gure herritarren artean pairatu baino nahiago ginuke zer nahi den herritik urrun eta ichilik sofritu : bada Jesus non da azotatua? Jerusalemen, non eta baita guziez ezagutua, non eta hainbertze obra miragarri populuaren onetan egin

izan baititu; ezen han dire guziz agertu haren podoriaren ondorioak; han ditu eriak sendotu, hilak phiztu, itsuak argitu, han hanbat arima ilhunbetarik idoki, eta kontsolatu: erran daite ez zela hiri hartan karrika chokho bat zerbait mirakuluren lekhuko izan ez zenik; ez zuen oraino zombait egun bakhar baizik yende oste handi batek oihuz eta trionfan zeraman. Bada hiri hartan berian Jesus bere soinekoetarik buluzia da, kolona bati sokaz estekatua, phorroskatua, ostikatua, lurreko har baten pare zehatua, *Ego vermis et non homo!*

Ignominiosum supplicium. Azotatua izaitea zen, dembora hetan guziz, ahalgerik handiena: edozoin gizon, nahiz hobendun ezagutua, azotez joa ez zen; gastigu hori esklabotasunari bakarrik zakarkon. Bada nork ezdaki esklaboak nola ziren leheneko demboretan behatuak? ez ziren kasik gizontzat ezagutuak, bainan gizonen eta zentzu gabeko alimalen artean, bere gisako herrunka batean zauzkaten, non Jondoni Paulo, preso altchatua, eta azotez mehatchatua, borthizki bihurtzen baita bere Juyen kontra, diolarik: *Civis Romanus sum.* Ez zauzue zilhegi

ene azotatzea, etche handiko seme naiz, ezen ene ethorkia Errumako populutik daukat. Nihork ez zuen aditu egundaino esklabo ez zen bat azotatua izan zela. Ahalge hori Jesusentzat zagon : Zeruko Semea Jainkoaren haur maitea, Jainkoa bera zena, esklabo baten pare azotatu zuten.

Ignominiosum consortium. Nor eta zer ziren memento hartan Salbatzailearen ingurukoak? Nor zaudezen haren ahalgearen lehuko? Haren etsai guziak; handiak, ttipiak, Jerusalemek zituzkeen gizon herrunka guziak; Pilatus bera, aphez aitzindariak, skriboak, publikanoak : bertzalde nork ez daki hiri batean, gerthakari ikhusgarri batek zombat eta zer gisetako yende alde guzietarik dituen deitzen.

Munduko printze eta erregek, dio Jondoni Paulok, elgar aditu zuten loriazko Jainkoaren laidostatzeko, eta heyen ondotik lurrak ekhartzen dituen presunarik aphalenak. Oi zer ezin erranezko ahalgea! Podore, handitasun eta loria baizik ez den Jainkoa halako yende ostearen artean azotatua, desohoratua!

Oi, arima bekhatorosa, behazozu Jesus azotatuari, ikhusazu zer ahalgea eta zer oin-

hazeak dituen zure bekhatu nombre gaben gatik pairatu ; bainan bekhatu hetan bat bada guzien gainetik Jesusek arbuyatzen duena, eta harek dio bereziki gorphutza sarraskitan ezarri, hura da lohikeria : lohikeria! bekhatu izigarria, ahalge egingarria. San Baziliok erraiten dauku bizio hori izurrite baten pare dela, eta bizio guzietan galgarriena. *Vermis quo nullus nocentiõr.* Bertute guzien erroak ditu idokiten, dio sa ı Bonabenturak. Urguluak ifernua bethe izan du aingeru gaichtoz, bekhatu horrek bethetzen du arimaz. Horren gatik Jainkoak mundurat igorri izan ditu hanbat zigorrada : uhalde, gerla, izurrite, eritasun; erran daite beraz bizio horren gatik guziz Jesus izan dela azotatua. Bai, girichtinoak, gure begiez usaya gaichtoa egin dugulakotz, Salbatzailearenak izan dire azotez sarraskitan emanak ; gure eskuez dugulakoan bekhatu ahalgegarrienak obratu, haren eskuak daudez kolona horri sokaz estekatuak ; gure zangoak direlakoan erabili aithor ez ditazkeen urhatsetan, haren zangoak, haren gorphutz guzia zehatua, odolstatua. Zer dut erranen, oi Jesus maitea, zure bihotzaz ? Zombat ahal zuen memento hartan pairatu gure bihotz

galdu hunen estekamenduentzat penitentzia egiteko ?

Oi, Salbatzailea, ene itsuskerien gatik azote kolpez zehatua, odolstatua, aski odol izanen othe duzu ene lohikerien garbitzeko eta sendotzeko ?

BIGARREN PHONDUA

Jesus arrantzez koratua

Beraz Jesu Kristok gure lizunkeriak, gure gorphutzeko atsegin lohiak azote kolpez pagatu izan ditu; nola ditu pagatuko gure urguluzko obrak ? Bere burua arrantzez koronatzerat utziz. Bada misterio huntan ere ikhusten ahal ditugu erran bi gauzak : oinhazeak eta ahalgea.

Nork ez daki burua dela gure membro guzietan minberena ? Buruak hartzen du bai demendren kolpea, gorphutz guzia eri eta oinhazetan da. Bada, dio Ebanjelioak, *Plectentes coronam de spinis, imposuerunt capiti ejus.* Soldadoek egin zuten arrantzezko koro bat eta buruan barna sarthu zioten : arrantze edo othe hek azkarrak eta guziz zorrotzak ziren ; soldadoek borthizki, indarrekin diozkate sartzen : odola badoha nasaiki burua behera ; begi-

tartea, jadanik dena zauristatua, alde bat desintzen dio; ez du gehiago gizonaren itchurarik ere, non profetaren hitza osoki baita komplitzen : Oinetarik bururaino ez da hura baithan aurkhitzen oinhaze gabeko tokirik (Isaïe). Jesusek gogo onez eta pazienki tormenta hori du pairatzen, Aita Zerukoari diola bihotz chahuz gure salbamenduko eskaintzen. Zer amodioa ! Ez othe da gizonaren indarrez goragokoa? Oi, Jesus, noiz izanen othe dugu zure ongi eginez aski ezagutza?

Misterio horrek erakusten derauku gure urguluak zer gastigu luen merezitzen. Ahuspez Salbatzailearen aintzinean. hura arrantzez koratua ikhusiz, erran behar dugu : horra zer den ene urguluaren obra, horra zer nakon gosta ene Jainko Jaunari. Gogoeta horrek behar ditu gure bihotzean urguluzko sentimendu guziak ezeztatu, eta gure begietarik nigarrik saminenak ichurarazi. Nondik ez arbuya bethikotzat eta higuin bekhatu hori?

Zerk dauku bereziki erakusten Jesus arrantzez koroatuan gure urguluzko bekhatuak dituela pagatzen? Misterio hartan sofritu izan duen umiliazioneak edo ahalgeak. Gizonak gutienik pairatu nahi lu-

keen gauza da burla, trufa eta eskarnioa. Bada Jesus, gaichtagin baten pare Juduez azotatua izan ondoan, erho bat bezala erabilia da. Erran zuen bere bizian : Errege niz; hartarakotz trufaz eta burlaz komedietako errege bat bezala derabilate. Errege da, diote, bada erregeak, beren besta egunetan edergailuzko soinezkoez bestitzen dituzte, aurthik dezogun beraz sorbalden gainerat edergailu gisa kapa gorri phuzka bat. Errege da : bainan erregek errege gisa dabiltzanean, eskuetan daukate erregatusana seinalatzen duen makhila urhezko bat, eman dezogun beraz eskurat kanabera tchar bat. Erregek beren buruan askotan daukate koro aberats eta balios bat; eta hor non egiten duten arrantzezko, othezko buruntze bere gisako bat, eta buruan barna kolpeka koro bat bezala sartzen!

Girichtino Maiteak, sar gaiten gu baithan, eta balia Jesusek misterio huntan emaiten daizkigun erakusmenez. Jesus aphalduak daukan arrantzezko koro horrek borthizki kondenatzen du, erran dudan bezala, gure urgulua eta amodio propia. Trufa, eskarnio, alegia ahalgegarri horiek bere gain hartuz, erakusten daizku zoin

giren hobendun bertze asmurik ez izaitean baizen bethi bertzez gorago izaiteko. Jesus lurraz beherago jausten da, eta guk ez dugu ikhertzen gero eta gorago altchatzea baizik. Jesusek bere handitasuna ezeztatzen du Pasioneko aphaltasunen azpian, eta guk zer artha hartzen ez dugu giren ez bezala agertzeko kampoz eder, barnez gaichto, eta flakeziaz betheak. nahi ginuke ez dugun asko berthute baditugula, egiten ez dugun franko obra egiten ditugula sinhetsarazi. Jainkoak kampozko obrak eta berthuteak saristatzen eta onhesten ez ditu: kontrarat zombat maitatzen, prezatzen dituen arima umilak, berthutea obratzen, ongia egiten dutenak, ez gizonez landatua izaiteko, bainan ichilik, kasik gordeka, Jainkoa bakharrik lekhuko!

Girichtino maiteak, aurthik dezagun azken begi kolpe bat Jesus arrantzez koroatuari: Pilatusek, ikhusi zuenean deusek ez zezakela populua hunki haren fagoretan, altcharazten du toki alto eta ageri baterat eta jende osteari erakusten, diolarik: « *Ecce homo!* huna gizona! » Egia diozu, Pilatuz, ordean komprenitu gabe zer dioten hitz horiek: *Ecce homo!* Girichtinoak idek ditzagun begiak gizon horren gaine-

rat : zer dute ikhusten ? gizonaren beraren itchura ez duen bat ; eskuak estekatuak ; kanabera bat eskuan, kapa tzar bat espalden gainean, arrantzezko koro bat buruaren inguruan ! Bai egiazki horra gizona, horra guzien izaitea ; handitasunaren itchura, eta mila flakezia ; gauza guziez nausi izanik ere, gizona ez da bere buruaren nausi : errege da, Jainkoak beraz mundu huntan establitua, bainan ondikotz, zer erregetasuna ! kanabera bozen ezdeusa ; askotan koro baten itchura buruan, erran nahi da, zorionaren itchuraz inguratua, bainan zombat arrantze, othe eta nahigabe !

Bizkitartean, girichtinoak, ikhusgarri hunen aintzinean gizonaz gorago behar gira altchatu. Profetak zion bertze orduz : ikhusi izan dugu, bainan ez ezagutu, *Vidimus et desideravimus eum.* Bainan guk ezagutzen dugu ; badakigu, fediak erranik, gure Jainkoa dela, zerutik gure Salbatzeko jautsia. Bertzalde Jainko ez denak nola hoinbertze oinhaze paira azken hatza aurthiki gabe !

Bai, Jesus, azotatua, sokhaz estekatua, arrantzez koronatua, osoki sinhesten dugu gu zu zarela gure Jainko eta erregea.

Adoratzen ditugu, eta besarkatzen zure zauri adoragarriak : odol sakratua, Salbatzailearen gorphutzeko kolpe guzietarik zohazina, biltzen zaitut amodiorekin ene bihotzean. Aditzen ditugu kurutzearen oinetan Juduek diotela : *Sanguis ejus super nos, et super filios nostros,* ichur bedi odol hori gure eta gure haurren gainerat ! Entzuna izanen duk hire othoitza, populu madarikatua, eta zeruko zigorradak hire gainean izanen dituk azken demboretaraino. Bada, oi Jesus urrikalmenduz bethea, zure odola ez dadila izan gure madarizionea, bainan bai salbamendua, sendi ditzala gure bihotzak urguluak egin izan daizkon kolpeak, eta garbi behin bethikotz lohikeriazko bekhatu guziak, amoreagatik eta zu bakharrik izan zaiten, bai lur huntan, bai menderen mendetan zeruan gure Errege eta Jainkoa, *Rex meus et Deus meus.* Halabiz.

JAUN BELZAGY

Doniane-Garaziko aphez-nausiak

emaŋ predikua

Et bajulans sibi crucem, exivit in eum qui dicitur Calvariæ locum. (Joan. XIX. 17.)

Jesus, kurutzeaz kargaturik, abiatu zen Kalbarioa erraiten zayon lekhura.

Girichtino Maiteak,

Jesus azotatu eta arantzez koroatu ondoan, ereman zuten berriz ere Pilatusen aintzinerat auhendagarrizko molde batean, eskarniozko kapa tzar bat bizkarretîk, gorphutz guzia sarraskitan eta zauri bat egina, hartaraino non ez baitzuen gehiago gizon itchurarik.

Pilatusek nahi zukeyen Jesus atheratu Juduen eskuetarik, bainan herstura handian zen eta gogo guzia nahasia, ez jakinez zer egin. Alde batetik, kontzientziak oihu egiten zion Jesusek ez zuela deusetan hobenik, bekhaizgoak eta gachtakeriak zabiltzkatela haren etsayak; bertzetik ordean beldur zen ez othe zuen, Jesus libro utziz, galduko bere kargua eta menturaz bizia bera ere.

Zer egiten du beraz? Populu guziaren aintzinerat atheratzen du Jesus, dioelarik:

« Huna gizona! » *Ecce homo!* (Joan. XIX. 5.) Uste zuen, Jesus hain planta lastimagarrian ikhustearekin, populu horri bihotza hautsiko zitzayola, eta ordutik ez zuela haren heriotzea galdeginen. Ala ordean bertzelakoak baitziren Jesusen etsayak! Guziek oihuz eta deihadarka ihardetsi zuten : « Khen, khen bichtatik, « kurutzefikatzazu ; *Tolle, tolle, crucifige « eum.* » (Ibid. 15.)— « Bainan nik ez diot « gizon huni hobenik ezagutzen ; *Ego non « invenio in eo causam.* (Ibid. 6.) » « Behar dut bada zuen erregea kurutze- « fikatu? *Regem vestrum crucifigam?* » (Ibid. 15.) — « Guk ez dugu Emperado- « reaz bertze erregerik ; *Non habemus « regem nisi Cæsarem.* » (Ibid.) Eta « zuk hori libratzen baduzu, ez zare Em- « peradorearen adichkide ; *Si hunc dimit- « tis, non es amicus Cæsaris.* » (Ibid. 12.) — Aski zen eta sobera. Hitz hauk aditzearekin, Pilatus harritzen da, lotsatzen, eta, beldurra alde bat nausiturik, uzten du Jesus Juduen eskuetarat kurutzefika dezaten.

Berehala soldaduak lotzen zaizko Jesusi eremaiteko kurutzefikatu behar zen tokirat, eta, harturik kurutzea bere sorbalden

gainean, Jesus badoha Kalbarioko mendiari buruz : *Et bajulans sibi crucem, exivit in eum qui dicitur Calvariæ locum.*

Huna beraz non deramaten Jainkoaren Semea, gure Jainko handi eta guziz saindua, gachtaginen pare bere heriotzeko tresnaz kargatua. Gu ere, G. M., goazen harekin ; gaiten Jesusen urhatseri gogoz eta bihotzez jarraik. Michterio hunen chehetasun hunkigarrietan ikhusiko dugu guziek behar dugula mundu huntan pairatu, eta zeren gatik ; — nola behar ditugun atsekabeak jasan ; — zer probetchu dukegun hetarik ; — azkenean, baldin eta dohatsu badire kurutzeak ongi hartzen dituztenak, zombat diren dohakabe heyeri bihurtzen direnak.

I

Guziek behar dugula pairatu, eta zergatik

Bere heriotzeko tresna hartzerakoan, Jesusek han lehenik ikhusi zituen, zur hari itzaturik, hirur orenez jasaiteko izanen zituen oinhaze izigarriak. Ez zen ordean hargatik lotsatu, ez goibeldu Salbatzailearen bihotza : bazakien ezen norat

eta zertarat zohan, eta zagon, ez choiki bere Aitaren nahirat osoki eroria, bainan oraino lehiarik borthitzenaz sustatua bere odola ichuri beharrez eta atsekabe guzien kalitza hustu azken chortaraino.

Bertzalde Jesusek ikhusi zituen ere kurutze hartan, mirail batean bezala, menderen-mende haren pairamenetan phartedun izanen ziren guziak : ala martir eta heyen odol-ibayak, ala apostolu eta heyen borroka gaitzak, ala birjina eta heyen bortchamen eta mortifikazioneak, ala bortuetako penitent eta heyen nigar eta gudu gogorrak; hitz batez, ikhusi zituen munduaren azken eguneraino ko girichtino guziak, jasan beharko zituzten nombre-gabeko atsekabekin. Eta gaitz-elemenia horien bichtan, haren bihotza hain minki zitzaikun urrikaldu non, ahal izan balu bere Aitaren manuari bihurtu gabe, nahi baitzuzken gaitz hek guziak bere gain hartu, gu hetarik begiratzea-gatik. Bainan ez ziteken; lege zen guziek paira ginezan.

Guziek dakitena da, G. M., eta bakhotchak bere gostuz ikhasia du lur huntan ez ditekela zorion osorik. Egiazki erran diteke mundu hau dela itsaso bat iduri, zointan atsekaben uhinek gizona baidabil-

kate harat-hunat sortzetik heriotzeraino. Sortzeak baditu bere nigar minak, are gehiago hiltzeak bere latzdura gaitzak; eta arte hortan, bizi buru batetik bertzerat, kasik egunik ez non ez dugun zerbait, edo izpirituko traba, edo bihotzeko herstura, edo gorphutzeko oinhaze, jasaiteko. Ah! pairatzeko bideak non ez dire? eta zombat gisetarat!

Zergatik othe hori? Zergatik da gizonaren bizi labur hau hambat atsekabe eta gaitz-motaz trebeskatua? Jainkoak egin zuenean gizona, ba othe zen hunen baithan, edo bere meneko zituen kreaturetan, den mendren gaitz edo griñaren itzalik ere? Nork ez daki gizonaren egoitza atseginezko parabisu bat zela? gizona bera zela, gorphutzean eta ariman, zeruko dohainez nasai eta dohatsu? Ez, Jainkoaren chedez, ez zen behar deus gaitzik mundu huntan gizonarentzat. Nondik beraz dire hainbertze gaitz eta pena? Ah! bekhatutik : gizonak pairatu behar badu, berak du hoben, bekhatu egin baitu, eta bekhatuari baidarrayo bethi zor zayon gaztigua. Oi gizona, dio Profetak, hire atsekabe, oinhaze, eritasun, gaitz guziak eta heriotzea bera hi ganik, eta hi ganik baizen ez;

Perditio tua ex te, Israël (OSÉE, XIII. 9).

Oi beraz gizonaren zorthe ondikozkoa! Bainan hala-hala, oi gure Jainkoaren ontasun ezin gehiagokoa gizonaren alderat Gizon bekhatorosak behar pairatu, eta zer egin du Jainkoak? Utzi du gizon dohakabea, deus salbatzeko ahalik ez esperantzarik eman gabe, dohala aintzina bere bidean sekulako zorigaitzerat? Zuzenez utz zezaken; ez du ordean utzi, nahi baitzuen salbatu. Utzi du, eternitatean ez bada, bederen lur huntan jasan detzala beŕak bakharrik eta soleimendurik batere gabe, bere hobenaren gaztigu minak? Ez du utzi. Ez zen bada hori fagore eta ongi handia izanen gizon bekhatorearentzat? Duda gabe; eta halere Jainkoari ez zayo aski zela iduritu. Zer egin du beraz? Mirets zazue, G. M., gure Jainkoaren ezin erranezko ontasuna. Gutaz hartaraino da urrikaldu non nahi izan baitu berak, Jainko handi harek, gurekin pairatu, gure lagun eta phartedun jarri gaitz guzietan, bai eta heriotzeraino. Eta horra non Jainkoaren Semea egin den gizon, eta, gure izaitea jaunztearekin, hartu dituen hari darraizkon gaitz eta atsekabe borthitzenak. Bai, G. M., lur huntan ikhusi izan

da gauza hau oroz gainetik espantagarria : Jainko bat pairamenetan, Jainko bat nigarretan, Jainko bat akusatua, burlatua, gachtaginen eta gathiboen heriotzerat kondenatua, Jainko bat oinhaze izigarrienen erdian, gu nahiz salbatu! Halako moldez non zuzenez baiterauku berak erraiten : « Ikhusak, gizona, zer dudan pairatu, « eta errak gero, bekhokiarik aski ba- « linbaduk, hire atsekabeak ene atsekaben « pare direla. » *O vos omnes qui transitis per viam, attendite et videte si est dolor sicut dolor meus.* (Thren. I. 12).

Zer diozue, G. M.? Ez zaitzue gure Jainkoak, bere etsemplu miretsgarri hortaz aski irakhasten daukula guk ere behar dugula pairatu? Hargatik dio Jondoni Petrik : « Kristok pairatu du guretzat eta « dautzue eman etsemplu. jarraik zaitez- « ten haren urhatseri ; *Christus passus est* « *pro nobis, vobis relinquens exemplum* « *ut sequamini vestigia ejus.* » (I. Petr. II. 21). Eta Salbatzaileak berak zer erraiten dauku? « Ez dakizue Kristok behar izan « duela pairatu eta bide hortaz sarthu ze- « ruko lorian? *Nonne oportuit pati Chri-* « *stum et ità intrare in gloriam?* » Luc. XXIV. 26.) Nolaz arren Jesu Kristoren-

tzat behar zena ez liteke behar eta beharrago guretzat? Zer! Jainko-gizon, saindutasuna bera denak behar izan hainbertze pairatu zerurat heltzeko, eta gu, bekhatorosak, deus guti gostarik salba gaitezkela; deskantsu biziz, gure aisia eta nahikaren arabera? Ez, ez da Salbatzailea ethorri gu bizi-huntako gaitz eta atsekabetarik atheratzeko, bainan bai jaidura gachtoen eta bekhatuaren gathibotasunetik. Hauk dire, l auk, G. M., gure gaitz eta kurutze handienak. Nahi dut bai kurutzeak diren, eta kurutze dorpheak ere, gorphutzeko eritasun eta oinhazeak, kurutzeak ontasun-gabea eta gauza beharrenen eskasia, kurutzeak egun guzietako lan eta nekhe-izerdiak, kurutzea mundu huntan gehienik maite ditugunez gabetuak izaitea; halere, zombat nahi kurutze diren eta karga naturalezarentzat, horiek oraino arinenak eta jasan-errechenak. Aldiz, dorpheenak badakizue zoin diren? Gaizkirako jaiduren zinki gudukatzea, atsegin eta josteta galkorreri ihes egitea, nahikara tzar horien bortchatzea, urgulu horren zaphatzea, sentsu galdu horien heztea. Bai, kurutzea eta kurutzerik phisuena, behar ditutzunean, G. M., aho-

paldi gachto horiek ichilik jasan; laido eta burla horiek barkhatu; sumindura eta hasarrego horri, mendekatzeko hirritsa horri bihurtu; intresaren bortcha, munduaren agintza edo mehatchuen bortcha, kontzientziari jarraiki eta, zer nahi izanen bada ere, hark errana egin. Oi, diozu, egun eta oren guzietako borroka gaitzak! Bai; ordean baitezpadakoak baitire eta ezin bertzeak salbatzekotz. Hortik Jesu Kristo gure Jaunak: « Nere ondotik ethor-
« ri nahi duenak ukho egin bezo bere bu-
« ruari, har beza bere kurutzea eta jarraik
« bekit niri; *Si quis vult post me venire*
« *abneget semetipsum et tollat crucem*
« *suam et sequatur me.* » Luc. IX, 23). Nori ari da Nausi dibinoa? Aphezeri bakharrik edo komentuetan bizi direneri? Ez; bainan dio, Ebanjelistak berak, « Guzieri « zen mintzo. » *Dicebàt ad omnes;* guzieri, beraz zueri niri bezala; guzieri, mende eta eskualde guzietako gizoneri, nihoren berechkunderik gabe. Bai, G. M., guziek behar dugu gogoari eman, eta finki, girichtino eginbidetan bat ez dela bortchamen eta kurutze gaberik, girichtino bizia dela gudu bat nihoiz epherik ez duena. Gudu hortaz kampo ez da salbatzerik, hori

ez bada, Jesu Kristok, zombat nahi maite gaituen eta egin duen gu zeruratzeko, ez gaitu ezagutzen eta galduko gaitu. Hitz batez, bietarik bat : edo behar dugu pairatu, edo galdu gure arima; lurrean kurutzerik ez, zeruan khororik ez.

Bizkitartean ez lotsa. Berak nahi izan du Jesu Kristok bururen-buru egin kurutzearen bidea, gurī irakhastekotzat nola behar ditugun mundu huntako gaitz eta guduak jasan. Har-agun beraz etsemplu model dibino horren baithan.

II

Nola behar dugun pairatu

Jesusek hartzen du kurutze dorphea, bere sorbaldetarat altchatzen du eta abiatzen da Kalbario alderat. Goren gorenaz hamabi ehun urhatsen heina ziteken; bainan bidea baitzen chuta eta gaitza, bertzalde Jesus hambat odol jadan galdua eta jendea multzoka bildua bere inguruan, ez zuen sobera oren bat behar zen tokirat heltzeko. Bazohan beraz bere bidean, alde orotarik, bai soldadoez eta Farisauez, bai jende andana handi batez hertsatua, eta

guziak zoin gehiagoka ari zitzaizkon, gero eta borthizkiago, trufaz, eskarnioz, zer nahi desafio eta ahopaldi gachto aurthikitzen ziotela.

Eta Jesusek zer zion? Jesus zagon ichilik. Bazohan bethi aintzina, bainan herrestan bezala, kasik bi plegutan jarria bere kargaren pean. Hala zuen nahi, hala ere behar zuen mende guzietako bekhatoren ordainak agertu eta ibili, gachtagin handienen gisa, ahalgez urthurik, bere heriotzeko tresnaren azpian ukhurtua eta lehertua. Ez da aski : bat batean ikhusten dut, indarrak arras joanik, badohala lurrerat, eta ez behin, bainan hirur alditaraino. Oi ikhusgarri doloragarria! gure Jainko handia lurrean, lurrean zabal-zabala, begitartea herrautsez, lohiz eta odolez baltsatua! gure Jainkoa, soldadu sorhayo batzuek joka nola nahi chutiarazten, burho eta blasfemio izigarrienekin. Horiek guziak norentzat? guretzat, guri irakhasteko nola guk ere behar dugun kurutzea kharreyatu eta haren urhatseri jarraiki. Adi zazue, G. M., eta balia zaitezte.

Jesusen baithan ez zen bekhaturik, ez eta bekhatuaren itzalik ere; dena saindua zen eta zeruko dohain guzien bilduma. —

Nahi dugu beraz gure pairamenez behar den bezala probetchatu? Gaiten gu ere saindu izan, erran nahi baita, graziazko estatuan bizi. Egia da bekhatorosek ere probetchu baduketela, bai eta probetchu handia atsekabetarik, bainan ez da gaitiago egia ez zaizkotela zerukotzat khondatuak izanen. Arima justuaren den mendren penak balio handia baduke eta bere saria Jainkoaren aintzinean; aitzitik, gaitzik den dorpheenak ere ez dio bekhatuan denari deus saririk ardietsiko zeruan.

Jesusek bazeraman bere kurutzea ezin gehiago nekhez; halere zagon bethi ezti, humil, osoki eroria bere Aitaren manu guzietarat. Gu ere, G. M., gure kurutzen pean, gauden Jainkoari, ez bortchaz bainan bihotzez, gure alderat nahi dituen guziak onhartuz. Oi zu, arima penatua, jasaiteko ditutzun atsekaben artetik, altcha Jainkoari zure bihotz zaurthua. Errozu : « Ene Jainkoa, bai sinhesten dut « pena hau zure aldetik dudala, eta zu « ganik denaz geroztik, egiazki dela zeru- « tikako grazia bat zuk ene onetan hautatu « eta egorri dautazuna. » — Errozu oraino: « Zu, Jauna, zuzena bera zare; nik aithor « dut ez dutala merezi dudana baizen. »

— Errozu, errozu bethi : « Oi ene Nausi « soberanoa, hartu baditut onak zure es- « kutik, zertako ez ditut hartuko gaitzak « ere? Egizu beraz zuhauri dohatzuna. « Nahi duzu haur maite hau, espos hau, « ama on hau? Zurea den bezala, har zazu. « Zuk emana zuhaurek dautazu khentzen : « bedi zure izen saindua benedikatua. » Horrela mintza zaizko Jainkoari, eta segur haren bihotza urrikalduren zaitzu. Egun ez bada, bihar; bihar ez bada, behar den demboran soleituko zaitu, eta ez badu ere sendotzen zure mina, bederen arinduko dautzu eta baliaraziko zure onetan.

Jesusek nahi izan du hirur aldiz erori lurrerat, eta ez da jaiki bertzek lagunduz baizen. — Ai gizonaren herbaila! ala den azkarrena ere deus ez baita, non ez den Jainkoaz lagundua! Kurutzearen pean chutik egoitekotz, bai behar gaitu baitezpada Jainkoaren graziak azkar eta sendo egin. Beraz, zure penetan, oi arima girichtinoa, loth othoitzari, othoitz egitetik ez bara. Erortzerat zohazi, edo zare jadan ondikoz eroria? are suharkiago egin oihu Jainkoa ganat, errekeri hel dakizun, azkar zaitzan, eta zerutikako laguntzarekin, jaiki laster, berriz bideari lotzeko behinere

baino fidantzia eta lehia gehiagorekin.

Hortik guretzat, G. M., edo zoin nahigabetan, probetchurik hoberenak. Probetchu horiek zoin diren eta zombat baliosak misterio hunek berak irakhatsiko dauku.

III.

Zer probetchu dukegun pairamenetarik.

Jesus, ja hirur eroriko egina hain zen indarrez ezindua non iduri baitzuen azken hatsa han berean eman behar zuela. Juduek ordean ez zuten Jesusentzat horrelako heriotzea nahi, bainan heriotzerik laidotsuena, mendiaren gainean, jende guziaren ikhusgarri eta irrigarri. Hargatik, nahiz eta bere gutizia izigarri hori ase, bilha zabiltzan nondik eta nola soleituko zuten Jesus.

Ordu berean, aintzinerat heldu zayote gizon bat, Simon deitzen zena; eta, gizon bat baitzen azkarra, soldaduek manatu zuten Jesusen kurutzea eremaiteaz. Nola ordean kurutze dorphe, odol eta lohi zarion harri, lotzeko herabe baitzen, desohore ere baitzitzayon gachtagin baten heriotzeko tresna guzien bichtan kharreya-

tzea, behartu zuten hartzerat eta bortchaz bizkarrerat eman zioten. (Luc xxiii. 26.)

Oi Simon, uste-gabeko dohatsua! Ez zakien, ez, zer ohore egiten zioen Jainkoak phartedun hartuz zeru-lurrek ezin aski mirets dezaketen misterio espantagarrian; ez zuen, ez, amesten ere kurutze hartarik zituzkela ongi nasayen eta baliosenak. Bainan hartu zuen bai kurutzèa, Jesus hain hurbiletik ikhustearekin, Jesusi laguntza emaitearekin, haren barneko asaldura emeki-emeki apazegatu zen, argi berri bat jaiki haren adimenduan eta haren bihotza amultsuki itzuli Jesusen ganat, hala non handik laster egin baitzen girichtino bere bi semekin. Eta horra nola lehenik bortchaz bada ere, gero ordean gogo onez Jesusi eman sokhorria izan zen Simonen eta haren familiarentzat bethiereko zorionaren berme guziz premiazkoa.

Jesusen ondotik, Simon ere etsemplu bat da guretzat hainitz baliosa. Behar dugunean kurutzea kharreyatu, ah! Simonen gisa, gu ere asaldatzen gare; ez dugu ikhusten hartarik dukegula gure probetchu eta zorion zinezkoa, eta, bihotza latzdura batek harturik, ari gare, gure egin ahalaz, haren urruntzerat, nahi ginioke ihes egin.

« Hala da, diozu menturaz; bizkitartean « iduritzen zait halako edo holako kuru- « tzea banu, har eta kharreya nezakela « aski aise; bainan ene hau, ai! sobera da « dorphea ene indar ttipientzat ». — Zer enganioa! Bertzen kurutzea arinago dau- kazu, ez baitakizu haren berri; dakizula hura ere litekela zure hori bezain phisu edo phisuago. Eta, balitz ere zuk uste du- zuna, zeren ondoan zabiltza? Jainkoak ez daki bada zer den gisa zuretzat? Hari fida zaite eta sinhets zure kurutze hori dela zuretzat hoberenik. Edo zoin nekhe, gaitz, atsekabe dezazun izan jasaiteko; edo gor- phutzean, edo ariman; dela tentazione, dela arbuyo eta afruntu, dela ontasun edo ohore galtze, har zazu Jainkoaren esku- tik, hura baita Jainkoak zuretzat derau- kana.

Bertzela ere, kurutzeari ihes egiteak, hari bihurtzeak zer balio du? Simonek behar izan zuen bezala bortchaz hartu Jesusen kurutzea, guk ere beharko dugu, nahi eta ez, amor egin. Jainkoa da ezen nausi, eta ez gu; eta Jainkoak egortzen dauzkigu kurutzeak, ez bakharrik justu- eta zuzena delakotz eta zeren merezi ditu- gun; bainan oraino delakotz guziz ona eta

maite gaituelakotz, nahi baigaitu, kurutzearen bidez, saindu egin eta salbatu.

« Zer! dioke hemen norbaitek, Jainkoak kurutzeak emaiten, gu maitez! » Bai, aditzaile maitea, eta deus ez da seguragorik. « Ni ene Aitak maitatu nauen beza-« la, dio Jesu-Kristok, nik ere zuek mai-« tatu zaituztet. » *Sicut dilexit me Pater, et ego dilexi vos.* (JOAN. XV. 9.) Nola beraz, zombat ere maite nauen ene Aitak, pairatzekotan egorri bainu mundurat, nik ere hala hala maite baitzaituztet, dakizuela zuen atsekabeak ene amodioaren seinaleak direla, eta zuek ere zatzue enekin eta nik bezala paira, izan zaitezten goretsiak enekin. Bai, G. M., egia bera da, Jainkoak edo zoin kurutze egor diezagun, Aita baten amodioa deraukula agertzen : kurutzearen pean nahi gaitu bere Seme maitearekin, harekin baigaitu nahi zeruan. Kompreni ongi egia hau.

Zu, girichtino dohakabea, bekhatuan bizi zare : zure gaizki eginen handitasuna ez duzu ezagutzen; ez zaizkitzu gogoratzen ere, edo duzu laster heyen orhoitzapen khiretsa gogotik urruntzen; behar bada, ahantzirik zure Jainkoa, zure arima, zure eternitatea, bizi zare mundu huntarik

landa bertze bizitzerik ez balitz bezala. Bainan, hola joanez, norat ari zare, baizen bekhatorosak dohazen lekhurat, suzko leze eternalerat? Ba ordean, Jainkoak ez zaitu harat nahi, eta huna non damu eta atsekabeak egortzen dauzkitzun, nahiz zure kontzientzia lokhartu hori nolazpait ere iratzartu. Joiten zaitu, zafratzen borthizki osasunean, ohorean, ontasunetan, zure jende maiteenetan. Eta orduan? Ah! orduan, ez balin bazare gaizkian osoki gogortua, orhoitzen zare, bai, ahantzirik zinaukan Jainko handi hartaz; orduan zure bekhatu hek heldu zaizkitzu begien aintzinerat, hein bat bederen ikhusten duzu heyen handitasuna, zoin diren ikharagarri Jainkoaren jujamenduak, zer gaztigu izigarrien hirriskuan aurkhitzen zaren, eta azkenean, beldurrak jorik, nihon sosegurik ezin izanez, itzultzen zare Jainkoaren ganat, urrikia bihotzean aithortzen ditutzu zure bihotza zaurthua eta nahasia daukaten bekhatu hek, eta Jainkoaren phartez barkhatuak dire. Errazu : ez da bada Jainkoa zure alderat ona izan eta urrikalmenduz bethea, noiz eta, atseka horien bidez, argitu baititu zure izpirituko ilhumbeak, hautsi zure bihotz gogor'asu-

na eta zure arima sendoturik, ifernuko bidetik athera baitu zeruko biderat?

Zu, aldiz, zare girichtino bat ona, Jainkotiarra, ustez bederen eta idurien arabera ere bai. Halere hain fida othe zare Jainkoaren grazia zu baithan duzula non ez baitukezu dudarik ez beldurrik den gutiena? Ez eiki, ezen, dio Izpiritu-Sainduak : « Gizonak ez daki duen ala ez merezi Jainkoaren amodioa. » *Nescit homo utrùm amore an odio dignus sit.* (ECCLE. IX. 1.) Jakin azu bada, Jainkozko Izpiritu berak erranik : « Nola urhea eta zilharra suan, « orobat phorogatzen dela berthutea atse- « kabetan. » (ECCL.. II. 5.) Ez balin baduzu orai arte pairatzeko biderik hambat izan, zer dakizu eta zer erran dezakezu? Ez dakizu zure buruaren berri, ez zaitezke zure berthuteari fida, ez duzu erraiten ahal Jainkoaren gogorako denetz. Huna beraz, zure berthutearen phorogatzeko, nahigabe bat handia, eritasun bat borthitza eta luzea, gachtakeria edo traidorekeria beltz bat : eyan nola hartuko duzun? Guziak gatik, azkar balin bazaude bide chuchenean eta leyal Jainkoaren alderat, zaude deskantsu, zure berthutea zinezkoa da eta atsekabe horietarik atherako da distiran-

tago eta sendoago. Zer ordean? sumintzen zare eta jauzten, lotserian eta etsimendutan erortzen? Zoñaz, zoñaz; zure Jainkoarentzateko amodioa deus ez zen itchurapen bat baizik; urhe iduri bat, iguzkian distiratzen duena bai, ez ordean suan irauten; zure burua zinduen maite, ez Jainkoa; horrelako berthũteari Jainkoak ez dio zor saririk zeruan.

Azkenaz goiti, G. M., nor da mundu huntan osoki justua? Nork ez ditu bere hobenak? Justuena da, ez bekhaturik batere gabe dena, bainan gutienik egin duena. Nor ere baita, harek ere zorrak baditu Jainkoaren alderat, eta zor hek behar ditu pagatu. Hortarakotz diozka Jainkoak den arima sainduenari ere atsekabeak egortzen; eta horrela zer du erakusten baizik eta Aitarik hoberenaren amodio eta urrikalmena? Ez da hobe miletan gure zorrak mundu huntan paga detzagun ezenez bertzean? Nork ez daki hain direla izigarri bertze munduan bekhatuaren gaztiguak non lurreko oinhazerik borthitzena ez baita hango den chumeenarekin paretzeko? Ah! beraz aithor dezagun bizi huntako gaitz eta nahigabe guziak direla miserikordiazko eta bakezko mandatari batzu, tresor batzu

urhe eta zilharrezko guziak baino baliosagoak, zoineri esker paga baitetzazkegu Jainkoaren justiziaren alderat ditugun zor ezin bertzela pagatuzkoak.

Erranetarik aski ageri da, G. M., zombat probetchos ditezken guretzat jasaiteko ditugun kurutzeak. Ez nuke ordean erranik aski, ez banautzue bi hitzez bederen erakusten badukegula kurutze hetarik, gure probetchuaz bertzalde, bertzeri ere ongi frangoren egiteko bidea. Eta nori uste duzue lehen-lehenik? Jesu-Kristo berari. Bai, aditzaile maiteak, hala nola Simonek, guk ere, kurutzea kharreyatuz, soleitzen dugu Jesus bere pairamenetan. Zer! Jesus bethi pairakor othe da bada? Bai, Jesusek oraino pairatzen du, ez bere gorphutz haragizkoan, bainan bere gorphutz misteriozkoan, zoina baita Eliza eta bere membro fededunetan. Nork erran Elizaren nahigabe eta hersturak bere iraupeneko mende guzietan? Eta bereziki egungo egunean, zombat arbuyo eta laido izigarri, zombat gezur eta egitate tzar alde guzietarik, hura nahiz beltztu, desohoratu eta galarazi! Ala Jesusek zuzenez baidioke orai, bertze orduz Elizaren etsai handi bati zioena : « Zertako persekutatzen nauzu?

« Ni naiz Jesus persekutatzen duzuna. » (Act. ix. 4, 5.) Bai Elizari jazartzen direnak, Jesu-Kristori jazartzen dire : Elizari gerla egiten diote, Jesu-Kristo dute gudukatzen; Elizaren ministroak, haren adichkiderik minenak joiten eta bilhuzten dituzte, Jesu-Kristo dute berriz ere joiten eta bilhuzten; Elizaren obrarik ederren eta hoberenen desegiterat ari dire, Jesu-Kristoren obra dute eta haren erresuma egin ahalaz desegiten ; Elizari ebasten diozkate bere haur gazte maiteak heyen altchatzeko federik ez Jainkorik ez balitz bezala; haur hek, bere ganat hain amultsuki deitzen dituenak, Jesu-Kristori khentzen diozkate; Elizaren buruzagia ahal guziaz trabatzen dute bere karguaren eginbide beharrenetan, Jesu-Kristo bera dute trabatzen erosi dituen arimen gobernioan eta heyen salbamenduko obra baitezpadakoan. Ah! badakigu, bai, zer nahi izanen bada ere, Jainkoak goiz edo berant bere Elizaren gatheak trenkatuko dituela eta haren etsayen indarrak phorroskatuko, bainan orhoit gaiten, Eliza gaitzetsia deno, Jesus kurutzearen pean dela; orhoit Jesusen pairamenez bere gorphutzean eta bere membroetan. Guri dago haren soleitzea;

guk solei dezakegu, eta nola? gure kurutzeak gogo onez kharreyatuz. Bide hortaz lagunduko dugu Eliza, indar emanen diogu, eta Elizari egina Jesu-Kristo berari egina izanen da. Bide hortaz aintzinatuko dugu zorionezko eguna zointan Jainkoa agertuko baita Elizaren alde eta suntsiaraziko baititu hari nahi diotenen chede eta ahal guziak.

IV

Nor dohatsu eta nor dohakabe

Detzagun orai ikhus misterio hunen azken irakaspenak.

Jesus zohalarik bere dolorezko bidean, emakume bat, jendetze guziaren eta soldaduen artetik, laido eta oihu-chistuen bortcha, hurbildu zitzayon, eta bere Salbatzaile maitea nahiz zerbait gisaz soleitu eta ohoratu, oihal churi batekin chukhatu zion begitartea. Eta ordainez, emakume bihotzdun eta urrikalmendutsu haren saristatzea-gatik, Jesusek nahi izan zuen bere Jainkozko begitartearen iduria, dena zen bezala, utzi oihal hartan moldaturik.

Ah! ochala ezar baleza gure arimetan ere bere iduri sakratua, bere bizitze dolo-

ratu, humil eta guziz sainduaren iduria! « Nahi badugu Jesu Kristoren bizi loriaz- « koan phartalier egin, dio Jondoni Pau- « lok, gaiten izan haren bizitze hilkorra- « ren iduriko. » (Rom. vi. 5.) Bada zer izan da lur huntan Jesusen bizia, baizen bizitze bat erromesa, aphala eta munduaz arbuyatua? Oi beraz zuek, erromes eta nekhatzale, munduaren begietan deus guti tzat atchikiak, dakizuela zuen kondizionea dela, fedearen eta Jainkoaren begietan, denetarik hoberena eta baliosena. Nola baitzarete, zuen bizi-moldeaz, Jesusen iduri, ez da salbatzeko bide hain segurik nola baita zuena. Har beraz eta jasan bihotz onez zuen pena eta eskasiak, izan zaitezten kampoz bezala barnez ere Jesusen iduriko, eta salbatuko zarete. — Zuek ordean, aberatsak, zuek, aisia gozo batean bizi zaretenak, munduaz ere ongi ikhusiak, zertan zarete? Nondik diteke zuen bizia Jesusen biziaren iduri? eta geroztik nola zaite salbaturen? Behar duzue bada ontasun eta aisia horieri osoki ukho egin? Badire, bai, frango alde bat uzten dituztenak, nahiz biderik chuchenenaz zerurat heldu; ez du ordean Jainkoak gehienetarik hainbertze galdegiten. Baita ere munduan

aberatsen beharra pobren sokhorritzeko, huna heyentzat zeruratzeko bertze bide bat, karitatea. Zuek beraz, ontasunez ongi zaretenak, nahi duzue salbatu? Jesusen iduri egin zaitezte karitateaz; urrikari izan zazue jende beharra, duzuenetik eman ausarki nekhez bizi direnen laguntzeko. Horrela izanen zarete zuek ere bere odol guzia zuentzat eman duenaren iduri, eta salbatuko zarete.

Azkenean, Jesusek ikhusirik emazteki andana bat jarraikitzen zitzaizkola nigarretan, urrikalmenduz harentzat, itzuli zen hekien alderat eta erran zioten : « Jerusa-
« lemeko alabak, ez nitaz nigar egin, bai-
« nan egizue nigar zuetaz eta zuen haur-
« rez; *Filiæ Jerusalem, nolite flere super*
« *me, sed super vos ipsas flete et super*
« *filios vestros.* » (Luc xxiii. 28).

« Ez nitaz nigar egin. » Oi hitz eta irakaspen adoragarriak! Jesus oinhazez ezindua, eskarnioz eta laidoz asea, lurreko har baten pare oinpetan ibilia, eta halere ez deusetaz errenkuratzen! Jesusek hobenik batere gabe hainbertzetaraino pairatzen, eta halarik ere nihori ez galdatzen den mendren soleimendurik, iduri ez duela nahi nihor urrikal dakion! Eta gu,

Jainkoaren zigor-kolpeak hambat merezi ditugun arren, bagabiltza soleimendu eske; eta nori? Ez Jainkoari, bainan kreatureri. Gu, bekhatorosak, noiz nahi errenkura gare.

Errenkura gare badugula sobera pairatzeko Detzagun bada ezar balentza batean, alde batetik egin ditugun bekhatuak eta bertzetik gure gaitz eta atsekabe guziak. Zer! hambat eta hambat bekhatu egin, menturaz hain bekhatu izigarriak, hambat aldiz merezitu sekulakotz dohakabe izaitea, eta gu oraino errenkuratzen! errenkuratzen, eta zertako bada? zeren Jainkoak nahi dauzkigun bethiereko gaztiguak khambiatu dembora batetako penetarat, eta, heyen bidez, zeruko zorionerat? Non dugu fedea? non dugu adimendua? — Errenkura gare baizik eta gauzak hein tcharrean direla, makhurrago dohazela egunetik egunerat, eta norat nahi detzagun begiak heda, ez dela nihon ageri dembora hobeagokoen abiadurarik. Hala da, bai; ondikoz, hala da; ez ordean nihori jazar guhauri baizen. Zer probetchu athera dugu oraidinoko ala gaitz, ala onetarik? Noiz dugu bekhatuari, gure aztura eta ohidura gachtoeri zinki ukho egin? Noiz gare

bide galkorretarik itzuli bide on eta zuzenerat? Noiz eta nola agertu gare, behar orduan Jainkoaren eta Elizaren alde, gure dretchuez baliatuz heyen etsayeri goraki buru egiteko? Ez othe da gutaz erraiten ahal Profetek Israeldarrez ziotena : « Po-« pulu hau Jainkoak jo du, eta halere ez « da Jainkoa ganat itzuli; *Populus non « reversus ad percutientem.* » (Is. IX. 13.) « Gaztigatua izan da, ez da ordean bere « baithan sarthu eta khambiatu; *Dissipati, « nec compuncti.* » (Ps. XXXIV. 19.) Zer diot, G. M.? Ez duzue ikhusten fedeeskasa eta harekin gachtakeria gero eta gehiago hedatzen ari direla? Ez da egia, urthetik urtherat, Jainkoa ganik bethi eta urrunago gohazela? bethi eta haren legearen alderat bihurriago, lurreko ontasun eta atseginentzat suharrago, barrayatuago eta herrebesago gure bici-moldean, gure eginbidetan nagiago eta lazoago, kontzientziaren bozari eta Elizaren irakhaspeneri baino intresari eta mundu galduaren gezurreri atchikiago eta jarraikiago? Zer achola dugu, ala Jainkoari egiten zaizkon laido izigarriez, ala Elizaren damurik minenez? Ah! beldur izaiteko baita Jainkoak egor dietzagun gaitz eta gaztigu

borthitzagoak, gure gogo arin eta makhurren chuchentzeko, gure bihotz-gogortasunaren hausteko!

« Jerusalemeko alabak, ez nitaz nigar « egin. » Erran balu bezala : Ez nezazuela idurien arabera juja. Ikhusten duzue nola naizen laido khiretsenetan hondatua; ordean lorios naiz ene izaitez eta bozkarioz gaindi. Ikhusten duzue nola gizonez kondenatua naizen; ordean nik ditut egun batez gizon guziak jujatuko. Ikhusten nauzue ezin gehiago aphaldua eta arbuiatua; ni naiz ordean guzien buruzagi eta errege bethierekoa.

Hemen Jesusek irakasten dauku zer izanen den kurutzea, hari jarraikiz, kharreyatzen dutenentzat. Daitezela nahi bezin bat munduaz gaitzetziak, jenden aho-mihitan nola nahi ibiliak, lurra baino aphalago ezarriak, halere ez hetaz nigar egin. Dohatsu hek! dio Jesu-Kristok. «Dohatsu « erromes direnak! *Beati pauperes!* » (Mat. v, 3.) « Dohatsu nigarretan dau- « denak! *Beati qui lugent!* » (Ibid. 5.) « Dohatsu persekuzione jasaiten dutenak! « *Beati qui persecutionem patiuntur!* » (Ibid. 10.) Dohatsu, zergatik bada? Zeren, bere atsekaberik minenetan ere, sosegu

ezti batek baitauka heyen barnea gozaturik? Bai, eta ez da guti; bainan deus ere ez oraino Jainkoak heyentzat deraukan dohatsutasunari paretzeko. « Dohatsu ni-« garretan daudenak, zeren, dio Jesu-« Kristok, heyentzat baitago gaindizkako « gozo bethierekoa. *Quoniam ipsi conso-« labuntur.* — Dohatsu erromesak, doha-« tsu persekuzione jasaiten dutenak, zeren « berea baitute zeruko erresuma. *Quo-« niam ipsorum est regnum cœlorum.* » Oi gozo! oi dohatsutasun ezin erranezkoa! Jainkoaren bizitze beraz bizitzea, Jainkoaren zorion bera gozatzea, Jainko, edertasun eta ontasun guzien itsaso mugarik gabekoa, ikhustea bekhoz bekho, maitatzea, eta bethi, bethi, Jainkoa Jainko izanen deno, zer atsegin, zer bozkario choragarria! Ez bide zauku sobera horrelako dohatsutasun nasaya zerbait lan eta nekeen gostuz irabastea? Behar baginu ere bizi guzia epherik gabe nekhe eta kurutze pean higatu, zer da azkenekotz bizitzerik luzena ere? Amets baten pare. Bai, luze iduri zayo atsekabetan denari, bainan zombat laburra, azken orenean, eternitatean sartzerat dohanari! Oi arima girichtinoa, penatzen zare zure kurutzea ezin kharreyatuz;

orhoit ordean ez dela lur huntan, ez zure egoitza, ez zure bake eta sosegua; altcha begiak, altcha bihotza behere huntaz gorago; orhoit zeruaz eta ikhus nola jadanik dagon Jesu-Kristo besoak zabaldurik zure alderat, nola den orai beretik abian zure saristatzerat bere bethiereko egoitza dohatsuan.

Aitzitik, zertarako dire nahi ez dutenak beren kurutzea Jesusekin kharreyatu? Adi zazue.

« Jerusalemeko alabak, nigar egizue zuetaz eta zuen haurrez. *Super vos ipsas flete*
« *et super filios vestros.* —Zuen populu es-
« kergabe hunek arbuyatu nau, kondenatu
« eta hiltzerat nerama. Ah! nigar egizue:
« hargatik izanen da zuen hiria buruen-
« buru desegina, jendaki guzia lurreko
« bazter guzietarat desterratua; zuen
« templo hortarik ez da geldituko harria
« harriaren gainean, eta halako deboila-
« mendua izanen da egun hetan non er-
« ranen baitute: Dohatsu haurrik izan
« ez duten emakumeak! *Tunc dicent:*
« *Beatæ steriles et ventres qui non ge-*
« *nuerunt!* (Luc. xxiii 29). — Eta ho-
« riek deus ez oraino azken egunean
« ene etsayek pairatu beharko dituzte-

« nen aldean. Orduan bere etsimendu eta « errabian, oihu-marraskaz ariko dire : « Mendiak, eror zaitezte gure gainerat, « leher gaitzatzue; *Cadite super nos, ope-* « *rite nos.* » (IBID. 30); bainan mendiak « ez zaizkote gainerat jinen, eta, nahi edo « ez, entzunen dute egun kurutzerat de- « ramatenaren ahotik azken arrasta hau : « Zoazte, madarikatuak, niganik urrun, « su eternalerat; *Discedite à me, male-* « *dicti in ignem æternum.* » (MAT. XXV. 41.) Arrasta ikharagarria, bainan osoki « zuzena, ezen horrela jazartzen badiote « arbola hezeari, zer izanen da arbola « eiharraz; *Quia si in viridi ligno hæc fa-* « *ciunt, in arido quid fiet?* (LUC XXIII. « 31.) Baldin eta ni, egur hezeak, saindu- « tasuna bera naizenak, behar badut hoin « gogorki pairatu, zer dute behar iguriki « egur eihar, ene kurutzea arbuyatu duten « bekhatorosek? »

Horrela izanen dire dohakabe, G. M., bizi huntako gaitz eta atsekabetan Jainkoaren nahiari arrimatzen ez direnak. Kurutzea arbuyatzen dute, eta zer dute probetchu? Oraidanik ere, bere murmurika eta bihurrikeriez, zer dute irabazten baizik bere nahigabe eta bihotz-minen gaiztea?

Bainan, oi ondiko guzien ondikoa! Kurutzea bera, Jainkozko grazia eta urrikalmen guzien ithurria, itzultzen baitute hasarrezko eta mendekuzko harma batetarat. Zoro baino zoroago, nondik ere baitzuketen sekulako zoriona, handik dute, beren faltaz, sekulako beren zorigaitza.

Horra azkenean non den heldua Jesus bere odol guzia ichuri behar duen mendi gaineraino. Han ikhusiko duzue, kurutzeari itzatua, gure Erospeneko azken egintza hunkigarri eta guziz miretsgarrietan.

Arte huntan ez ahantz Salbatzaile ona eta, bai hitzez, bai etsempluz, eman dauzkigun irakhaspen ezin gehiago baliosak. Orhoit, dio Jondoni Paulok, « bethiereko « zoriona gogoari emanik, jasan duela ku- « rutzea, oinhaze eta laido guziak zituela « ez deusentzat atchikitzen, eta orai jarria « dagola bere Aitaren eskuinean; *Propo- « sito sibi gaudio, sustinuit crucem, con- « fusione contemptâ, atque in dextera Dei « sedet.* » (HEBR. XII. 2.)

Gu ere, G. M., zeru eder hartarat deithuak gare; han da gure helburu eta egoitza iraupenezko bakharra. Beharrik ere

harat heldu bortchamen eta nahigaberik gaitzenen bidez, zer erran nahi du? Ez dakigu Jainkoak ez daukula behinere jasan ahala baino gehiago emanen? Ez dakigu bertzalde, zombatenaz ere gure atsekabeak lur huntan dorpheago, hambatenaz izanen dela gure khoroa distirantago zeruan? eta, Jondoni Paulok dioena, « ichtant baten « nahigabeari zor zayola loria bat izari- « gabekoa; *Momentaneum et leve tribu-* « *lationis nostræ æternum gloriæ pondus* « *operatur in nobis.* » (II. COR. IV. 17.)

Oi beraz bedi gure Jainko Jauna benedikatua gerthatzen zaizkigun laido eta arbuyo guzietan! benedikatua gure izpiritua hertsaturik, gure bihotza zaurthurik daukaten nahigabetan; benedikatua, hitz batez, jasaiteko dituzkegun ondiko eta gaitz guzietan! Bere Seme maiteari egin dioen bezala, egiten dauku guri ere; guk, gure aldetik, Jesusek bezala kharreya detzagun gure kurutzeak, ez bada alegerarik, bederen pazientzia eta jautspenekin.

Hortik behar da gure salbamendua. Ez baginu nahi Jesusekin pairatu, ez ginuke zeren pharterik iguriki haren zorionean; bainan nahi badugu haren kurutzeari jarraiki, zerurat gohazi biderik chuchene-

naz. Nola ez orai beretik gure hautua egin eta bethikotz? Bai guziek nahi dugu, bizitze labur hunek diraino, Jesusen urhats beretan ibili, haren loriaz gozatzeko bethi iraunen duen bizitze dohatsuan.

Halabiz!

MORDE ABBADIE

Larresoroko buruzagi jaunak

eman lehen predikua

Et ibi crucifixerunt eum.

Eta han kurutzeari itzatu zuten.

Ikhusi duzue, GIRISTINO MAITEAK, Jesus gure Salbazaile Jauna, Olibetako baratzean, lurrerat ahuspe eroria, gure bekhatuen azpian zapatua eta lehertua bezala, bere odolean igeri dagoela. Ikhusi duzue, han berean, aspaldian hartaz jabetu nahiz zabiltzan etsayeri bere apostoluetárik batek saldua.

Ikhusi duzue azote izigarri batzuez joa eta larrutua, hambatetaradino non, profetak aintzinetik erran zuenaren arabera, haren gorphutz guzian, oinetarik bururadino, ez baita ubeldura eta zauririk baizik, eta haragiak galdurik, hezurrak agerian baitagozko. *A planta pedis usque ad verticem capitis non est in eo sanitas. Dinumeraverunt omnia ossa.* Ikhusi duzue Salbazaile Jauna, behin ere nehor izan ez den bezala, elhorri edo arantze dorphe eta luze batzuez khoroatuá, begitharte eta buru guzia odoletan. Jarraiki zazkiote Jerusalemeko karriketan barna. Kalbarioko

mendiaren gaineradino, noiz nahi ikhusten zindutelarik lurrerat eroria, non nahi haren odolaren hatza, eta hobeki ezaguturik ikhusgarri horieri buruz zoin ziezten hobendun bilhakatu bekhatu egin duzuenean, galdatu duzue zinez egin gaizkiaz barkhamendu eta hartu gerokotzat bekhatutik begiratzeko chedea.

Bainan ez giten geldi gure Salbazaleari behatzetik, haren hatzeri jarraikitzetik, hura ez deno guretzat holako minen jasaitetik gelditzen. Eta hemen, Kalbarioaren gainean, orai artean jasan dituen minak berritzera doatzinaz geroz eta oraino handiagoak hastera, guk ere bil dezagun gure gogoa, eta behin bethikotz gure bihotzetan sar Jesusen pairamenen orhoitzapenarekin batean, bekhatuaren higuintza eta Jesusen alderako amodio handi bat. Andredena Maria, gure Ama Saindua, Jesus Kurutzearen oinetaradino lagundu duzuna, iguzu, othoi, Jesus Kurutzeari itzatuaren zauriak gutarik batbederaren bihotzean barna sar eta finka ditezen : *Sancta Mater istud agas, crucifixi fige plagas, cordi meo valide.*

Ala baita hau, girichtinoak, gauza bat guretzat guziz ahalgegarria, ezin sinhe-

tsia, bainan halere egia, eta zoín giren Jainkoaren alderat bihotz gutikoak ongi erakusterat emaiten duena. Gure Jainkoak, ditugun guziak eman eta eratchikitzen derauzkun Jainkoak, gure beharrik batere eta gutarik zer iguriki ez duen Jainkoak, gure gatik, gure onetan, gure amodioz jasan izan du, bertze anhitz min izenik gabekoen ondotik, heriotzerik lazgarriena; eta gu ezdeusak, hobendunak, hain gira bihotz gabeak, non sobera baitzauku Jainko harek guretzat jasan dituenez orhoitzea! Eta egia erran dezadan, beldur niz, giristinoak, orai Jesusek zer duen Kalbarioan gure onetan pairatu erraitera noauzuelarik, bai beldur niz gertha dadin norbait zuen artean ene solasak jasan gaitz hatzemanen dituenik, nahiz nik erran ditzazkedanak deusik ez diren, egiaren aldean. Ez dut uste baduela gizonak alderdi itsusiagorik nola baitu Jainkoaren alderako gogortasun hori.

Bagina behar bezalako, ez liteke behinere gure gogoetarik athera behar Jainkoak guretzat egin eta pairatu dituenen orhoitzapena, ez liteke gure artean bertze solasik aipha, eta ahal oroz Jainko horren, merezi duen bezala, maithatzera el-

garren sustatzen ar gintezke guziak. Eta bizkitartean nork derauzka orhoit Jainkoak guretzat jasan dituenak, nork ditu aiphu, eta norbait heldu bazauku heyetaz mintzatzera nola othe gitzazko behatzen! Egun batez, eta hura izanen da bizi hunen eta bertzearen arteko eguna, bata hetsiko eta bertzea zorionetan edo zorigaitzetan hasiko duen egun izigarria, egun hartan bada Jesusek berak erakutsiko derauzku bere zauriak, eta diren bezala ezagut araziko gure gatik jasan dituen minak, erraiten derauzkigularik hitz latzgarri hok bat bederari : Beha ezak eta ikhus nik zer egin dutan eta zer jasan hire arimaren onetan eta hik zer duk egin, ez enetzat, bainan hihauren onetan? Nola othe diotegu, giristinoak, ihardetsiko hitz horieri! Nahi badugu orduan gure Jujeari ukhan zer ihardetsi, ditzagun orai ardura gogoan erabil, ordu delarik, Jesusen pairamenak, ez dezagun gatik egun hartan dolutzeko ukhan berantegi, zeren ez giren heyetaz aski orhoitu. Eta errechkiago gogoan erabil ahal ditzagun gatik, dezagun ikhus orai nolakoak izan diren, Ebanjelioak dionaren eta Jesusek bere hautuzko saindu batzueri ezagut arazi diozkitzate-

nen argitara. Ez dugu zeren deusik emenda hemen, gauzak beren baitharik aski sarkor dira. Bainan ez dezagun ere deusik gorde dazkitzagunetarik, hobendun handi gintezke baldin gure Jainkoak guretzat pairatu minez orhoitzea dorphe balitzauku.

Horra bada Jesus kurutzearen bidearen gainera heldua, bainan ez ordean berè minen burura. Dorpheenak oraino jasaitekoak ditu. Indarrak gutitzearekin pairamenak handituz doazko, guri adi araztéko bezala guretzat duen amodioa bethi bera dela edo hobeki erran dezadan geroago eta azkarrago doala. Lehenik bada khentzen diote bere soinekoa, azotatu eta berriz jauntzi ziotena, ordukotz zaurieri lothua eta haren gorphutzarekin bat egina bezala. Zer urrakoak orduan haren haragi sainduan eta zer minak!

Zauri guziak batean berriz zabaltzen zaizko behinere baino barnagorik : badoako berriz odola alde orotarik. Min ezin erranezko horien gainera emazue ahalgea, arima eta gorphutza biak batean, bakhotcha bere izaitearen arabera, zehatuak eta phorroskatuak izan diten gatik. Oi Jesus ona, zer ez derautzuete orai jasan arazten

gure gorphutzari eman eta egun oroz emaiten diozkogun artha soberako eta atsegin tzarrek! Egizu, othoi, urriki giten bihotzaren zolatik guziez eta hemendik goiti deusik ez dezogun gorphutzari eman arimaren kaltetan ditekenik. Aithor dugu higuin eta ahalgegarri litekela gure atsegina bilha dezagun, zuri hain khiets zauzkitzun gauzetan!

Kurutzea lurrean etzana dago : kurutzearen gainean etzaten dute Jesus maitea. Eta hemen ere agertzen zauku haren etsayen herra, gure bekhatuek zorroztu dutena. Jesus, manua ukhanez geroz, bera eman ziteken kurutzearen gainean, ezen deusik ez zayo gerthatzen eta deusik ez du pairatzen, Jainko den bezala, berak nahi duena baizik, eta aspaldi du kurutzearen ondotik dabilala, kurutzean guretzat bere odolaren ichurtzea dela haren gutizia bakharra. Bainan etsayak hambat dira herraz betheak non indarka aurdikitzen bezala baitute Jesus khurutzearen gainera. Orduan hasten da Jesusentzat pairamen bat lazgarria. Gaichtaginik handieneri ez ohi zaizkitzaten eskuak itzatzen, bainan bai bakharrik bi besoak kurutzearen bi adarren gainetik eman

eta, han soka batez estekatzen, oro bat oinak kurutzearen zangoari. Bainan Jesus edozoin gaichtagin baino garrazkiago derabilate : eta zuzenez hori, gure gaichtakeria guziak bere gain hartuak dituenaz geroz, eta Jainkoa bera denaz geroz ez gizona, haren gaztigazalea.

Hartzen diote bada esku bat eta besoa kurutzearen adarretarik bataren gainèan luzaturik hari itze dorphe batez josten. Nork erran Jesusek pairatu zituen minak itze lodi harek bere bidean haragiak urratzearekin, zainak trenkatzearekin! Holako pairamenen orhoitzapenak berak izitzen du gogoa, zer othe diteke bada heyen jasaitea! Bainan huna bertze minik! Ainzinetik eginak zituzten kurutzean itzeen ziloak, hain baitziren itze horiek dorpheak non zur idor hartan ez baitzuketen berek egin beren bidea. Gerthatu zen bada, edo neurriak gaizki harturik, edo lehen eskuaren itzatzeak zainak bildu zituelakotz, ez baitzen bertze eskua itzearentzat egin zilora heltzen.

Orduan hartzen diote Jesusi bi gizonek beso hura, eta hobeki indar egiteko, bulharren gainean bermatzen diokitzatelarik beren zangoak, bortchaka hel arazten dute

eskua bere lekhura eta han hura ere itzatzen. Indarka hortan, dio Saindu batek, bertze eskuko zauria urratzen da, zainak trenkatzen dira eta hezurrak berak beren lekhuetarik atheratzen edo ere hausten. Zer ezin erranezko minak!

Epherik batere utzi gabetarik, eskuetarik lekhora, bata bertzearen gainean emanik, itze beraz josten diozkitzate kurutzeari bi oinak. Eta pairamen ikharagarri horien artean, ez du Jesusek hitz bat ez eta hasperen bat adiarazi. Profetak erranaren arabera, ilea mozten dioten bildotsaren pare, badago ichilik. *Sicut agnus coram tundente se obmutuit et non aperuit os suum.*

Bainan goazin aintzina : ez dira hortan geldi gure Salbazalearen minak; gogorrenak pairatzekoak ditu oraino eta guk ikhustekoak. Orai artean kurutzea etzana dago lurrean eta Jesus haren gainean. Behar dute orai kurutzea lurretik altchatu, chutik eman, sarthu harentzat aintzinetik egina duten ziloan, eta han finkatu. Zer charros aldiak Jesusen gorphutz zaurthuarentzat! eta higitzen duten aldi oroz zer min ezin jasanezkoak, oroz gainetik kurutzearen zangoa bere zilorat erortera jau-

zian uzten dutenean! Holako mineri buruz solasak indarrik gabe dira, bakhotchari lago mihiak ezin erran dezakenaren ahal bezainbatean gogoan hartzea!

Horra bada Jesus gure Salbazailea kurutzetik dilindan, zeruaren eta lurraren artean. Haren gorphutz guzia eskuetako eta zangoetako zaurien gainera dago, beritzen dituelarik eta neurririk gabe emendatzen, heyen itzatzean pairatu dituen minak. Eta hor behar da egon hirur oren luze, nihundik eztigailurik batere gabe: bezagutza oso batekin. Trenkatua bezala du gorphutz guzia, oro zaurien gainera dago, den gutieneko higitzeak emendatzen diozki bere minak, eta ezin dauke higitu gabetarik. Kurutzeari bermatzen badio burua, elhorriak barnago sartzen zaizko; uzten badu bulharren gainerat erortzera, eskuetako zauriak gehiago urratzen ditu. Emazue min horien ororen gainera ezin jasanezko egartsu bat, eta badukezue, ez Jesusek jasan dituenen neurria, bainar itzala.

Eta ez dituzkegu halere gorphutzeko minak baizik aiphatu : arimakoak bertze alde dira eta bertzelakoak. Ezen arimak dio gorphutzari emaiten zerbait jasan ahal

dezan : bainan arima bera denean joa eta minak hatzemana, orduan haren pairamenak gorphutzekoak baino anhitzez saminago eta jasan gaitzagoak izaiten ohi dira. Ez dut hemen aiphatuko Jesusi gure bekhatuek bai Jainkoaren eretzean bai guhauri buruz eratchikitzen zioten bihotz mina : min hori bethi danik alha zitzayon eta jadanik aiphatua izan zauzue. Huna bertze min batzu berriak eta ez gutiagokoak. Bi burutarik da guziz mimbera gizona; bihotzeko aldetik eta ohorearen aldetik. Dorphe zayo eta jasan gaitz norbait maite duenean ordainez maithaturik ez izaitea, dorphe zayo eta jasan gaitz gaizki erabil dezaten bere ohorean. Eta huna non Jesus joa den hemen bi buru horietarik batean, nehor behinere jorik izan ez den bezala. Jesusek maite ditu gizonak, haukien amodioz da jautsi zerutik, gizon egin, eta dazkitzatzuen min guzien azpian jarri. Gizonentzat duen amodioak du ekharri bertze min guziak jasan eta, kurutzeradino , heyentzat dario gorphutz guzitik odola; eta zer ezagutza, zer amodio du ordainez heyen ganik ukhaiten. Zoin da kurutzearen gainetik begien aitzinean duen ikhusgarria! Bere amaz, apostolu

bakhar batez eta zombait emazteki bakharrez kampo, non ditu Jesu-Kristok bere aldekoak, adiskideak!

Non dira bere irakaspen ederrez argitu eta mirakuluzko ogi batez hazi dituen jende osteak? non dira sendatu dituen eriak? non dira hiletarik phiztu dituenak? Zerbait ongi haren ganik ukhan dutenetarik nor zayo heldu bederen haren minen gainean nigar egitera? Nehor ez, giristinoak! Ala baitzayo Jesusi khirets hambat maitatu eta maite dituenez horrela ahantzirik, debalde utzirik izaitea : egin dituen ongi guzientzat hoztasun eta esker gaichtorik baizik ez ukhaitea ordainez! Bai zombat ere baikitu maite, zombat ere gehiago baitu egin gure onetan, hambat dorpheago, jasan gaitzago zayo gure ezacholkeria.

Bainan ez baliz bezala aski hain maite dituen gizonez ahantzirik izaitea, zor dioten amodioaren orde huna non anhitzek higuin duten eta bihurtzen dioten gaizkia. Egia da Jesusek pairatzen dituen guziak bere nahitara pairatzen dituela : Jainko den bezala nehork ez zuken hari, nahi ez zukenaren egiteko eskurik.

Halere gizonen gaichtakeriak du ikhus-

ten dugun heineratu, eta bereziki bere legearen eta izenaren begirale berak, hautatua zuen populuaren gaichtakeriak. Haimbertze mendez hambat mirakuluren gostuz beren etsayetarik zainduedo heyen eskuetarik athera ditu Juduak, eta bere lekhuko eman bertze populu guzien artean hautaturik. Eta huna non Juduak diren Jesusen hil arazleak, eta Juduen beren artean orotarik argituenak legeko nausiak, aphezak, bertzeen sustazale. Erradazue bada izan othe denez Jesusen amodioaren pareko amodiorik eta orobat hain gaizki ezagutua izan denik! Eta hortarik har ezazue haren barneko minaren hedadura eta neurria.

Bainan bada zerbait, ezacholkeria eta herra bera baino jasan gaitzago zaukunik, erran nahi dut trufa eta eskarnioa : ezen eskarnioak hatzemaiten gitu amodioan bezala ohorean. Eta huna non Jesusek kurutzearen gainetik ez duen trufa eta eskarniorik baizik ikhusten ez aditzen. Trufa eta eskarnioz dute kurutzean hil arazten : gaichtaginik handienentzat zaukan legeak heriotze hori. Trufa eta eskarnioz dute kurutzeari itzatu bi ohoinen artean, ohoin bat izan baliz bezala bera eta

orotarik handiena. Horrela eratchikitzen diote Jesusi jendearen begietan, gizonak nekezenik jasaiten ohi duen ahalgea : ohointzat ikhusirik izatea.

Bainan ditzagun guhaurek adi, Jesusi kurutzean dagoelarik begithartera alde orotarik egiten diozkiten trufa eta eskarnioak. Batzuek, dio Ebanjelioak, hari buruz lurrean jarririk, haren oinhazeez beren begiak ezin aseak balituzte bezala, egiten diote : Horra bada non hizan, hi temploa aurdiki eta hirur egunez berriz lurretik eraiki nahi huena; athera hadi bada hortik : Jainkoaren semea hizanaz geroz zeren ez hiz kurutze hortarik jausten; *Vah qui destruis, templum et in triduo redificas illud, salva temetipsum. Si filius Dei es, descende de cruce.* Aphezek eta legeko nausiek irri tzar batekin diote batzuek bertzeri, Jesusek aditzeko heinean : Bertzeri ongi egin ondoan beretzat ezin dezake deusik egin. Jauts dadila hortik eta zinhesten dugu gure erregea dela; *Alios salvos fecit et seipsum non potest salvum facere: descendat de cruce, et credimus ei.* Jainkoari zagon, ziolarik haren semea zela; hel bekio beraz orai bere aita duelakoa eta athera dezala hortik; *Confi-*

dat in Deo, liberet nunc si vult eum. Soldadoek orobat khedarrestatu edari bat eskainiz erraiten zioten : Juduen errege bahiz, haugi hunat beheiti, *Si tu es rex Judæorum, salvum te fac.*

Eta alde orotarik eskarnioak heldu zaizko Jesusi. Gizona Jainkoari trufaz ! eta Jainkoari trufaz hau gizonarentzat hiltzera doan ordu berean. Nork dezake holako egitatea jasan ! Errazu bada hitz bat, oi Jesus, eta zure etsayak behin bethikotz ichilduak ditezke : jauts zite kurutzetik eta utz ezazu gizon esker gabea, doala bere bekhatuek chuchen deramaten bethiereko zorigaitzerat. Zertan duzu haren beharrik ; eta geroan zer duzu harenganik igurikitzen, orai haimbertze amodioren ordainez trufa eta eskarnioa emaiten derauzkitzunaz geroz begithartera ! Bainan ez ; gure zorion handitan, badago Jesus kurutzean, eta bai gorphutzean bai ariman hambat jasan arazten dioten gizonentzat ichurtzen du azken chortaradino bere odola. Adi dezagun bera eta ikhus zer dabilan Jesusen baithan, alde orotarik trufa eta eskarnio horiek ari zaizkon demboran. Deusek ez derauku hobeki erakutsiko nolako amodioa duen gure alderat eta nola den zuzen

ordainez maita dezagun. Ezen hau da Jesusek gure gatik jasan dituen minen orhoitzapenetik bildu behar dugun irakaspena eta behin bethikotz begiratu behar dugun chedea.

Bi orenez gainetik baditu Jesus kurutzean dagoela, ichilik, bere minen hobeki gozatzeko bezala. Entzun ditu eta ikhusi haren etsayen solasak eta egitateak. Orai mintzatzera doha. Zer atherako othe da haren ahotik : manatuko othe dio zeruko ṣuari jauts dadin haren hil arazleen gainerat eta suntsi ditzan guziak? Beha giten : zabaltzen ditu begiak, baderabiltza lehenik bere inguruan duen jende ostearen gainean, eta gero zeruko alderat altchatzen dituelarik : Ene Aita, du egiten, *Pater,* barkha ezozute, ezen ez dakite zer ari diren, *Pater dimitte illis, nesciunt enim quid faciunt.* Solas miragarriak, amultsuak, Jesusen bihotzeko ontasuna agerian emaiten dutenak! Eta zer ontasuna! Egiazko neurririk gabea! Ez zako Jesusi aski bere hiltzaleri barkhatzea : heyentzat aita zerukoari barkhamendu eskatzea : ahal bezainbat itzaltzen eta mendratzen du heyen hobena diolarik ez dakitela zer ari diren. *Nesciunt enim quid faciunt.*

Zer bada, Jesus Jauna, ez othe zitu hemen zure amodioak itsutzen? Zure hiltzaleek ez dakitela zer ari diren? Bainan heyetarik anhitzeri zer ongiak ez othe diozkitzute egin, bai arimán, bai gorphutzean! Ez othe zituzte gutiz gehienek ikhusi eta aditu; ez othe dazkitzate orok zure Jainkotasunaren erakusteko egin dituzun obra espantagarriak? Nola bada diozu, gauza horiek hola direlarik, ez dakitela zu hil araziz zer ari diren? Mirets dezagun hemen Jesusen amultsutasun neurri gabea, eta ez giten sobera garratz izan Judu haren hiltzaleen alderat. Ez othe gira guhau heyek bezaimbat eta gehiago Jesusen ontasunaren beharretan!

Heyek baino hobeki ezagutzen ginduelarik, ez othe dugu heyek baino gaizkiago erabili? Errazkitzu othoi, oi Jesus ona, gure onetan kurutzetik Juduen onetan zeruko Aitari erran ohi zindiozkin hitzak: Aita barkha zozute, ez dakite zer egin duten. Bainan ere giristinoak, orai arte sobera arinki ditugulakotz gogoan erabili Jesusen ontasuna eta amodioa, gerthatu balinbazauku haren ofensatzea eta ez behar bezala maitatzea, hemendik goiti, gauzak zer diren hobeki gogoari emanez,

lehia giten bekhatutik urruntzera, eta merezi duen bezala, guretzat heriotzerik dorpheenaren jasaiteradino maitatu gituen Jainkoaren guk ere zinez eta bihotz oroz maitatzera.

Elizak Jesus haur sorthu berriaren aldean kanta arazten derauzku hitz hauk : Hola maite gituena nork dezake ez maita? *Sic nos amantem quis non redamaret?* Zombatenaz gehiago ez dugu zeren hitz horiek berak goraki aipha Jesus guretzat kurutzean itzatu dagoenari buruz! Ezen Jesusek gure alderat duen amodioa bethi bera balimbada, ohakoan eta kurutzean, ezin ukha diteke hargatik amodio hura kurutzeak hobeki erakusten deraukula ezenez eta ohakoak, nahiz hau ere lastoz den iraurria. Kurutzeari buruz zitzayon Jondoni Paulo apostoluari bihotzetik jauzten oihu samur hau : « Nork ere « ez baitu maite Jesu-Kristo gure Jauna, « zorigaitz hari : gal dadila haren izena « gizonen artean, eta ez dezala ł atzeman « lekhurik zorionezko egoitzan; *Si quis « non amat Dominum Jesum Christum, « sit anathema.* »

Gutarik nehoren gainera ez dadin gatik eror zorigaitz izigarri hori, giten has,

giristino maiteak, giten has guziak orai beretik Jesus gure Jainko Salbazailearen maitatzen. Eta hortakotz dezagun lehenik eta oroz gainetik higuin bekhatua, gure etsai handia, gure etsai eta gaitz bakharra, Jesusen etsaya eta gaitza, hura kurutzean hil arazi duen bekhatua eta gu bizi huntan dohakabe egin ondoan, bethikotz gal gitzazken bekhatua. Jainkoak hain higuin duen bekhatua non bere seme maiteari ez baitio barkhatu odolaren azken chorta ichur arazi artean, zeren bekhatu hura hartu zuen bere gain, nahiz gurea zen ez harena. Higuin beraz guk ere oroz gainetik bekhatua eta baldin heltzen bazauku oraino hartarat lerratzea, athera giten laster bethikotz gal gitzazken urhats hortarik : ezen galgarri bezain ahalgegarri da girichtino batentzat bere Jainkoaren etsaigoan bizitzea. Bainan amodioaren hastapena baizik ez da gaizkitik begiratzea; eta ardura hortan gelditu nahi dena ez ohi da hortara ere heltzen. Ar giten bada Jainkoak gu bat bederaren ganik galdatzen duenaren obratzera, zoin gure urhatseko eginbideak bethez, eta bethez Jainkoaren amodioz, harek guri erakutsi deraukun amodioaren ordainez. Orduan, girichtino

maiteak, amodio horri esker, errech bilhakatuko dira guretzat bai gaizkitik begiratzeko, bai ongirako gure buruari egin behar ditugun bortchuak. Ezen orok dakitena da ez dela deus maite duenari dorphe eta gaitz zayonik. Dezagun bada phitz eta haz gure bihotzetan Jainkoaren amodioa. Amodio garbi eta zerutikako horrek ematuko eta hilen ere ditu lurrari josiak gauzkaten amodio bethi galgarri eta ardura likhitsak. Amodio horren phiztera eta berritzera goazin egiazki edo bederen gogoz kurutzearen oinetara.

Han gure gatik eta gure amodioz oinetarik bururadino zaurthua eta kurutzeari itzatua dagon Jainkoaren baithan hatzemanen dugu bethi, gaizkitik begiratzeko, gure eginbideen bethetzeko, lur huntako minen jasaiteko indarra, han hatzemanen eta nahi dugun aldi oroz berrituko dugu, bekhatuaren higuintzarekin batean, hambat maite gituen Jesusen amodioa!

MORDE ABBADIE

Larresoroko buruzagi jaunak

eman bigarren predikua

Attendite et videte si est dolor sicut dolor meus :

Beha ezazue eta ikhus badenez ene minen pareko minik.

Horiek dira, GIRISTINO MAITEAK, Elizak Andredena Mariari Kurutzearen qinean erran arazten diozkitzan hitzak. Hain zaizko handiak Ama Saindu horrek jasaiten dituen minak non, nahiz den Izpiritu Sainduaz argitua, ez baitaki nola mintza heyetaz, edo non bilha heyen neurria. *Cui comparabo te, vel cui assimilabo, te filia Sion?* Ez zure minek ez dute nihon parerik, ez dute neurririk, itsasoa bezain zabal dira eta barna. *Magna est velut mare contritio tua.* Ez da deusik zure minak ezti edo senda ditzazkenik. *Quis medebitur tibi.* Eta berriz ere Andredena Maria bera mintza arazten duelarik, Elizak emaiten diozkitza ahoan hitz hauk : « Alde orotarik minak gaindika jin zauzkit gainera. *Oppressit me dolor;* Nigar egitearen bortchaz hantua dut begithartea, eta galdua begietako argia. *Facies mea intumuit à fletu et palpebræ meæ cali-*

gaverunt. Ene egunak hasperen eta oin hazeetan doatzi, *Defecit in dolore vita mea* : eta minaren handiak bulharretan urthu bezala daut bihotza, suak urtzen duen ezkoaren pare. *Factum est cor meum tanquam cera liquescens in medio ventris mei.*

Andredena Maria gure zeruko amaren pairamen ezin erranezko eta neurririk gabeko horiez mintzatzera goatzi gaur, giristino maiteak.

Badakigu aintzinetik ezin dezakegula erran nolakoak izan diren : gure ahalez eta gogoaz goragokoak baitira gauza horiek. Jesusen minez mintzatzean, nahiz diren izaririk gabe Andredena Mariak jasan dituenez gehiagokoak, gorphutzeko zauriek urrundik bederen erakusten zaukuten barnean zer ahal zabilan. Mariaren minak oro barnekoak dira, eta hain ditu azkarki ekhartzen non heyek ezagut araz detzauzkegunik deus ez baita kamporat ageri. Bainan ez bazauku haizu gauzak diren bezala erakustea, dezagun bederen ahal duguna erran.

Ama ona emadazu zurekin batean nigan egin dezadan Jesus zure Seme kurutzeari itzatuaren gainean eta bizi nizano ez diten

agor ene nigarrak: *Fac me pie tecum flere, crucifixo condolere donec ego vixero.*

Nahi badugu ezagutu, gure ahalari dohakonaren arabera, nolakoak diren izan Andredena Mariaren minak, orhoit giten nundik heldu diren, zoin den heyen ithurburua.

Lur huntan gizonak begiz ikhus eta hatzeman dezaken gauzarik ederrena eta gozoena da bere amaren amodioa. Erlisioneko gauzez kampo, Jainkoak deusik ez du egin amaren bihotzaren pareko denik. Nork gure amaren ezagutzeko zoriona ukhan dugun guziek badakigu, guhaurek gozaturik, zer den ama baten amodioa: zoin garbia, zoin beroa, zoin azkarra: nola amak bere burua ahanzten duen bere haurraren onaren bilhatzeko, nola bere haurraren minak bereak baino dorpheago eta jasan gaitzago zaizkon amari. Hau da bertze alde amodioaren legea: zombat ere baitugu norbait maite, hambat baitzauzku ere haren minak gaitz eta sarkor. Egia horiek behar gituzte lagundu, ahal duguna ren arabera, Andredena Mariaren minen ezagutzen. Andredena Maria ama da, eta erran dezaket nehori damurik egin gabe, dela ama guzietarik hoberena; Jain-

koak berak hautatua eta bere eskuz egina bezala zuenaz geroz bere Semearen ama izaiteko.

Ez da beraz izan bihotzik haren bihotza bezain maitazale denik. Bertze alde egia da, baldin amak beren baitharik ekharriak badira beren haurren maitatzera, hauk nola-nahikoak izana gatik, bizkitartean gehiago estekatzen direla bai gorphutzeko bai bihotzeko dohainez heyen amodioa gehienik merezi duten haurreri.

Eta hori zuzen baizik ez da. Bainan non izan da behinere Semerik Jesus bezain maitagarri eta maitazalerik! Beraz bai Andredena Mariaren bihotza bai Jesus haren semea, bata eta bertzea amodiorik azkarrenaren sor arazteko eginak ziren. Bizkitartean ez da oraino hortan Andredena Mariak Jesusen alderat duen amodioaren neurri osoa. Ezen Jesus ez da bakharrik seme orotarik maitagarriena, bai gorphutzeko bai arimako dohainez, da oraino gizon delarik Jainko. Andredena Mariak maite du beraz Jesus bere semea eta bere Jainkoa bezala : Bi amodio horiek bat egiten dute haren bihotzean.

Nahi nuke, giristinoak aski bagindu maite Jainkoa ikhusteko zoin den handia

Maria baithan, Jesus bere Jainkoaren alderako amodioak, Jesus bere semearen amodioari emaiten dion emendioa. Zorigaitzez hotzegi dira alde hortarik gure bihotzak; eta ezin dezaukute eman hemen galdatzen diotegun argia. Bainan ez badakigu guhaurek gozaturik, zer den Jainkoaren alderako amodioa, ikhusi dukegu bertzeen baithan nolakotsua diteken, eta zoin den azkarra. Ikhusi edo bederen aditu dukezue badirela jende gazteak, lur huntako amets eder eta atsegin guziak utzirik, doatzinak edo komentuetarat othoitzean eta baruretan bizitzera, edo bertzeen haurren giristinoki altchatzera, edo ospitaleetarat, ezagutzen ere ez dituzten eri batzuen arthatzera; edo misionest doatzinak urruneko eskualdeetarat. Zerk deramatzi heyek guziak, bertzeak dabiltzan bideetarik kampo, ezenez Jainkoaren amodioak!

Handia da beraz eta azkarra amodio hori, holako obrak egin arazten dituenaz geroz. Bainan nehor ez da lur huntan ez eta zeruko sainduen beren artean Jainkoa hala maite duenik, nola baitu Andredena Mariak maite Jesus bere Seme Jainkoa. Amodio hortan da, girichtinoak eta Jesu-

sek pairatu dituen minetan Andredena Mariaren bihotzminen ithurburua eta neurria; ezen, erran dugun bezala, zombat ere baitu nehork norbait maite, hambat ere da huni gerthatzen zaizkon on-gaitzen gainean mimbera. Eta nola jadanik aiphatu dugunaren arabera, Mariaren amodioa oroz gainekoa baitzen eta orobat neurririk gabekoak izan baitira Jesusek pairatu dituen minak, oroz gaineko eta neurririk gabeko herstura eta minak jasan ere ditu alde hortarik Andredena Mariak. Eta ez uste ukhan min eta herstura horiek hasi direla Mariarentzat bakharrik Pasioneko orenean, bainan bai Jesus sorthu eta, berrogoi egunen buruan, Mariak templorat Jainkoari eskaintzeko ereman zuen egunetik. Ezen nahi ukhan du Jainkoak eskaintza hori egin zezan Andredena Mariak, zakielarik ongi zertara zoan; eta temploan berean ezagut arazi diozki profeta saindu baten ahoz eta bere argiz cheheki Jesusek gizonen aldetik jasan behar zituen min izenik gabeak. Ordu beretik hasi da Mariarentzat kurutzearen oineradino iraun behar zuen auhenezko bizi bat.

Geroztik bere Jesus maitearen ikhusteak, aditzeak, edo hartaz orhoitzeak be-

rak erdiratzen dio bihotza. Ezen heldu zaizko berehala begien aitzinera, haren eskuak zilatu behar dituzten itzeak, haren burua eta begithartea urratu behar dituzten arrantzeak, haren gorphutz guzia larrutu behar duten azoteak. Ezin diteke Jesus begien aintzinean edo bederen gogoan gabe nehola ere bizi, hambat duelakotz maite, eta bertze alde batetik ezin dezake Jesus ikhus, ezin diteke hartaz orhoit, orhoitu gabetarik horrek jasan behar dituenez, eta orhoitzapen horrek zaurthurik ezartzen dio bihotza. Bai amodioak Jesusen ganat derama bethi haren gogoa, eta gogoeta maite hortan hatzemaiten du behinere agortzen ez den auhenezko ithurri bat. Iduri zitzaukun heldu bada Jesusen aldean, zorionez gaindi zoala bethi Andredena Mariaren bizia : eta egiazki zorion handia da Jesusekin bizitzea, haren ezagutzeak, maitatzeak, Jesusez ordainez maitaturik izaiteak atsegin handiak dakarzko Andredena Mariari. Bainan atseginen aldean zer atsekabeak, bozkarioaren aldean zer ilhundurak eta khirestasunak!

Bizkitartean, girichtino maiteak, egia bada Andredena Mariak Jainkoaren ama

bilhakatu zen ordutik, epherik batere gabe, ukhan duela bihotza Jesusek jasan behar zituen minen orhoitzapenaz zaurthua, ez diteke ukha haren bihotz minak, guk erran dezakegun baino gehiago emendatu zirela Pasioneko orenean. Ezen gogoak erakusten derauzkun gaitzek hambat hunkitzen bagituzte, heyen begiz ikhustera gerthatzen girenean, barnagorik hatzemaiten ohi deraukute bihotza. Demborak hurbiltzearekin bada non behar baitzen Jesus gaichtaginen eskuetarat erori, gure bekhatuek merezitu pairamenen jasaiteko, egunetik egunera Mariaren bihotz minak emendatuz zoatzin. Bainan gaindi egin zuten gerthatu zenean buruz buru bere Seme maitearekin Kalbarioko bidean. Eta egiazki, ama batentzat eta hura bezalako amarentzat zer ikhusgarria! Baderamate Jesus gaichtagin bat bezala estekaturik, kurutze dorphe bat soin gainean, elhorrizko khoro bat buruán, begithartea odolez, thuz, eta lohiz estalia, ukhan dituen mathelakoez eta egin dituen erorikoez uspeldua!

Ikhusgarri horrek han berean hil arazi zuken Andredena Maria, baldin Jainkoak ez balu mirakulu batez azkartu, gehiago-

koen pairatzeko. Nahi litzoke mintzatu bere semeari, nahi lezoke begithartea garbitu, nahi luke kurutze dorphe horren eremaiten lagundu, ezen erortera doala ikhusten du. Bainan soldadoek igortzen dute gibelerat, arrotz bat bezala, edo ere gaichtakeriaz, dakitelarik nor den. Eta ama guziz urrikalgarri horri ez zayo emana izanen bere bihotz min neurri gabeetan goza ahal dezaken eztigailu bakharra, bere semearen minen eztitzeko zerbaiten egitea. Zer diot! Jesusen minen eztitzeko orde, badaki Andredena Mariak min heyek emendatzen dituela. Ezen Jesusi min berri bat zayo, eta ez gutiena, bere amaren han ikhustea. Amak maite badu Semea, semeak ez du ordainez gutiago maite bere ama. Horrela Jesus eta Maria elgarrentzat duten amodioak bata bertzearen etsai bezala ditu egin. Bizkitartean Jesusek nahi du bere ama jarraik dakion, eta deusetan ere ez luke Mariak bere Semearen ganik urrundu nahi. Ezen bata eta bertzea pairamen gose dira, gutizia bera baitute, amak Semearen bihotzean harturik : Jainkoari gure bekhatuen ordainaren emaiteko eta gizon galduaren berriz zeruko bidean ezartzeko gutizia.

Jarraikitzen zayo bada Maria Jesusi : ikhusten du erortzen dela kurutzearen azpian, eta soldadoek altchatzen laguntzeko orde, joiten dutela batak bere lantzaz, bertzeak oinez ostikoka, bertze batek sokatik herrestan deramala. Noiz nahi, uste gabean, amak bere semearen odolean emaiten ditu oinak, ezen odolztatua dago bidea. Nahi luke orduan Mariak han berean lurrerat ahuspez erori, odol saindu hari merezi dituen ohoreen emaiteko; nahi luke ere odol hura bildu, bainan jende osteak baderama aintzina, gelditzeko epherik eman gabe. Oi luze iduritu baitzizayon Mariari Kalbarioko bidea! Bainan burura ondoan zer du irabazi! Han behar balira bederen haren minak gelditu! Bainan ez. Itsaso zabalean aitzinago joan eta urak barnago dioatzin bezala, Mariaren bihotzminak elgar gaindituz geroago eta handiago doatzi. Eta egia bada Jesusek Kalbarioan dituela bere minik handienak pairatu, han ere dute Mariaren minek hartu beren azken emendioa. Ezen Jesusen minak dira Mariaren minen ithurburua eta neurria.

Ez zauku iduri ikhus ditekela, ez eta ere izan, deus urrikargarriagorik nola ama

bat bere haur hiltzera dohanaren aldean. Ikhusten du emeki emeki gaitza nausitzen ari dela eta laster bethikotz herioak eremanen diola bere burua baino maiteago duena. Hatsa laburtua du, begiak zabalik bainan argirik gabe lanho batek hartuak, begithartea izerdi hotz batek estalia : ez du gehiago aditzen bere amaren botza. Nork erran hunen bihotz minak! Zer dira horiek bizkitartean Mariak Kalbarioan jasan dituen minen aldean! Ezen, noiz eta non, ikhusi duen heriotzearen pareko heriotzerik! Erran izan ditugu barda herioztze izigarri horren chehetasunak; badazkitzatzue guziek. Ez ditut berriz aipha tuko, nahiz, erran dugun bezala, heyetan den Andredena Mariaren minen neurria. Orhoit bedi bakhotcha, Andredena Mariak ikhusi duela Jesus bere Semea, buluzia eta haren gorphutza berriz zauri eta odoletan emana : ikhusi duela Jesus kurutzeari itzatua, gero kurutzean altchatua. Hirur orenez ez direla haren begiak eta gogoa Jesusen ganik baztertu. Ikhusi duela Jesusen odola zauri guzietarik lurerat zoala. Ikhusi eta aditu dituela Juduek egiten diozkiten trufak eta eskarnioak. Eta horiek oro ikhusi dituela eta

aditu deusik egin ahal ukhan gabetarik bere Semearen minen eztitzeko. Hemen da bai hemen lehen elizarekin erran ditugun hitz haukien berriz erraiteko lekhua. Zure minek, oi Ama maitea, gainditzen dituzte neurri guziak : itsaso zabalaren pare dira. *Magna est velut mare contritio tua.*

Bainan itsasoa bezain barna eta zabal izana gatik, ez zituzte gainditzen, oi ama miragarria! eta zure minak baino azkarrago hor zaude chutik zure Seme maitea Jainkoari eskaintzen diozula gure onetan, zuhauren bihotz zaurthuarekin batean.

Kurutzearen oinean chutik aditzen duzu Jesusen azken oihua, ikhusten haren burua erortzen dela bulharren gainera, azken hatsa emaitearekin. Lurra bere errayetan barna ikharatzen da, harrokak erdiratzen dira, odolezko lanho batek estaltzen du iguzkia, eta zu hor zaude chutik, zure semeari beha, bihotza erdiratua, begithartea iraungitua, bainan halere zure min neurri gabeen nausi, Jainkoaren eskutik eta gure onetan onhartzen dituzularik guziak! *Stabat juxta crucem Maria Mater Jesu!*

Jesusen etsayak urruntzen dira Kalba-

riotik, batzu izituak, bertze batzu bulharrak joz, aithortzen dutelarik horrela hil arazi dutena egiazki Jainkoaren Semea zela Maria han dago bethi begiak eta bihotza kurutzeari josiak, gogoan derabiltzala egun izigarri hartan ikhusi eta aditu dituen gauza izigarriak. Jesusen minak geldituak dira bethikotz, Mariari bethi bezain azkarki alha zaizko bereak.

Soldadoa jin denean Jesusen bihotzaren lantzaz aldean bertze zilatzera, zauria Jesusentzat izanen da, bainan mina Mariarentzat. Jesusek hirur orenen inguruan eman zuen azken hatsa, eta Maria oraino lekhu berean kurutzearen oinetan zagon arratsalde aphalean, noiz bi dizipulu jin baitziren Jesusen eraustera kurutzetik eta ehorztera.

Hemen hasten da Mariarentzat azken bihotzmin bat bertze guziak berritu eta gainditu behar zituena. Bi dizipuluak bada badoatzi kurutzearen oineradino eta zubi bat emanik hari, batak khentzen dio Jesusi elhorrizko khoroa, emaiten Jondoni Joane apostoluari, zoina Mariarekin han egona baitzen bethi, eta hunek baderamako Andredena Mariari, galdatua zuen bezala.

Belhauniko emaiten da Maria bere semearen burua zaurthu duten arantze horien bere eskuetarat hartzeko. Ikhusten ditu oraino oro odolstatuak : badira hautsiak, puska Jesusen buruan utzirik athera direnak, hain baitziren barna sarthuak : bainan batzu eta bertzeak aski zorrotzak dira oraino Mariaren bihotzaren zaurtzeko.

Orobat apostoluak ekhartzen diozki Mariari, bata bertzearen ondotik, Jesusen eskuak eta oinak kurutzeari josirik eman zituzten itzeak.

Nahi ditu oro hurbilik ikhusi eta hunki, nahiz heyen ikhusteak eta hunkitzeak jasan arazten diozkin bihotzean Jesusi gorphutzean jasan arazi ziozkiten minen pareko minak. Orai Jesusen gorphutza bera diote Apostoluak eta bi dizipuluek ekhartzen Mariari. Gorphutz saindu eta guziz maite horren bere besoetarat hartzeko, ordu arte belhauniko zagon lekhuan, lurrean jarri da Maria.

Ichildu behar gintezke hemen; ezen holako gauzak eta holako minak gizonaren gogoan ezin sar eta haren solasek ezin erran detzazkenetarik dira!

Bata bertzearen ondotik behatzen ditu

Mariak Jesusen zauriak, itzeek, azoteek eginak, eta oro begietan barna badoazko chuchen bihotzera. Dohatsuak dio Elizak, bere othoitz ederretarik batean, dohatsuak Mariaren begiak zeren kurutzearen oinean, heriotzea eman gabetarik, halako minak jasan arazi baitiozkitzate, non merezitu baitu martiren erregina deithurik izaitea.

Bai zuzenez da Maria martiren erregina deithua, dio san Bernatek, ezen martir guziek elgarretara bildurik beren gorphutzetan jasan dituzten baino gehiagoko minak jasan arazi baitiozki Mariari Jesusen minen eta zaurien ikhusteak. Horra zer dion Elizak, horra zer dioten sainduek, gauza horiek guk baino hobeki ezagutzen dituztenek.

Guk kampotik baizik ezin ditugu ikhusi Mariaren minak eta hauk osoki barnekoak dira. Bainan ikhusi ahal ukhan bagintu ere barnean, haren arima Sainduan, urrun gintezke oraino diren bezala ezagutzetik; gure hartzeaz goragokoak dira guziak. Ez giten bada gehiago ezin jakina jakin nahiz ibil, eta elgarrekin egin ditugun zombait gogoeta hautarik bil eta begira dezagun gatik zerbait ondorio on, dezagun bi hitzez

ihardets, zuetarik bat bederak bere buruari egin dioken galde bati, Andredena Mariaren min neurri gabeez mintzatzen aditzearekin. Zertako Jesusek hambat jasan arazi dio bere amari? Jainko zenaz geroz, bazuen nundik bere ama dohatsu egin, eta erran dugu bertze alde ez dela izan Semerik harek bezaimbat bere ama maite ukhan duenik. Nundik heldu da bada Mariaren bizia bethi minetan baitoa! Huna zertako hori bereziki, giristinoak. Jesusek zituen guziak, eta azkenekotz bere odola, eman ondoan gizonari, nahi zion oraino eman amatzat bere ama. Eta nola Jainkoak egiten dituen guziak zuhurtzia handirekin eginak ohi baitira, nahi zuen Jesusek Andredena Maria izan zadin gure ama, ez izenez bakharrik, bainan bai izaitez eta egiazki. Hortakotz bi gauza baitezpadako zitzaizkon: Amari dago bere haurrari biziaren emaitea, eta behin eman dion biziaren amodio handirekin begiratzea. Eta nola hemen aiphu dugun bizia arimako bizia baita, gure ama izaitekotz, Mariak behar zuen guretzat izan Jesusekin batean, arimako biziaren ithurburua, eta ukhan bizi haren begiratzeko bai nahia bai ahala. Bainan bekhatuaz galdu bizia Jain-

koak baizik ezin zezaukun berriz eman : Jainkoak bakharrik gintzazken etsayaren eskuetarik khen, eta berriz zeruko bidean ezar. Jesus da Jainko gizon egina, guri arimako bizi horren berriz emaiteko, eta nola atsegin debekatuen amodioak baitzaukun gal arazi bizi hura, Jesusek hautatu izan du, zuzen zen bezala, atsekabe eta sofrikarioen medioz gintuela behin galdu biziaren jabe eginen. Ezin zezaken bada bizi horren gainean Jesusek Andredena Mariari eskurik eman, ezin zezaken gure ama egin, berak guretzat jasaiten zituen minetarik zerbait hari ere jasaitera emanez baizik. Eta min horiek nasaikiago eman diozki jasaitera, zuzen gehiago ukhan zezan gatik gure gainean; gehiago eginik guri arimako biziaren emaiteko, bide hobez izan zadin gatik gure ama. Ez dago bada guri gaizki hatzemaitea zeren hainbertze eman baitio jasaiteko Jesusek bere amari, ezen jasan dituen min horieri diotegu zor zeren baita gure ama.

Bertze alde gure gatik jasan dituen min horiek oro Andredena Mariaren onetan izan dira; ezen eratchiki diote handitasun bat pare gabea : heyeri esker, kreatura bati emana izaiten ahal zayon neurrian,

pharte hartu du Jainkoak bakharrik egin zezaken obra batean, gizonaren erospeneko obra handian.

Orobat guretzat jasan dituen minek sor arazi dute Mariaren bihotzean gure alderat ama baten amodioa. Jesusek guretzat pairatu dituen minak hain hurbilik ikhusiz eta berak jastatuz, hobeki ezagutu du zombat gituen Jesusek maite; eta hori bera aski ziteken Mariaren ekhartzeko bihotz guziz gure maitatzera. Eta bertze alde, nork ez daki amaren bihotza hambat zayola haur bati hertsikiago estekatzen non gehiago baitu harentzat edo ere haren aldetik pairatu. Horra zertako Jesusek iguriki duen azken oreneradino bere amari erran gabe nola zen haren nahia, izan zadin gu guzien ama. Eratchiki diozkin minez merezi arazi diozki ama baten zuzenak, egin bezala dio ama baten bihotza, eta orduan bakharrik diozkitza eratchiki amaren izena eta eginbideak.

Zuhurtzia miragarria eta guziz Jainkozkoa! Kurutzeak berak bezain argi ederrean emaiten duena Jesusek guretzat duen amodioa! Ezen zer bilha eta zer hatzeman bere odola azken chortaradino guretzat eman eta, azken hatsarekin bere ama ama-

tzat emaiten deraukun Jainkoaren amodioaz goragokorik! Ama haren bihotza, erran baditeke, bere eskuz bere odolean orhatu ondoan, izan zadin gatik ahal bezainbatean haren bihotzaren iduriko!

Esker handiak darozkitzugu, oi Jesus, azken dohain hortaz. Uste ginduen, emanaren bortchaz, hustuak zintuela eskuak eta bihotza! Eta horra non bihotzaren zolan zindaukan ontasun orotarik hoberena, maiteena : ama bat. Eskerrak berriz ere Jesus ona. Eta zu, gure ama maitea, orhoit zite nork emana zitugun amatzat, non, noiz eta zertako. Bainan zer diot! Badakit ama ona, zuk ez dituzula ahantziko Jesusek kurutzearen gainetik eratchiki derauzkitzun ama eginbideak. Guri dago, guri, girichtinoak, noren haurrak giren ardura orhoitzea : zer minèn gostuz beretuak gituen zeruko amak, noren lekhuko haurtzat hartuak.

Jesusek bere ordainetan eman gitzaizkonaz geroz bere amari, maita dezagun Maria Jesusek berak maite zuen bezala. Mariaren ganako amodio horrek ekharriko gitu Jesusen beraren behar bezala maitatzera.

Hortan da gure lur huntako egitekoa-

rekin batean gozorik hobeena, eta hortan da ere izanen gure bethiereko zoriona.

Dezaukula ororí ardiets zeruko Amaonak Jesusen amodio hori!

AITA BASTRE

BENEDIKANOEN ABADE JAUNAK

Kalbario gainean eman predikua

Habebitis hunc diem in monumentum.
(EXODE, 12, 14).

Egungo eguna izanen da orhoitzapenezko eguna.

Zer da, ADITZAILE MAITEAK, ikhusgarri eder hau? eta zerk dakharke egun mendichka huntarat jende oste handi hau? Nondik heldu zaitzu, Arroltzemendi, ohore hau, diosesa guziko artzain nausia hunembertze jenderekin igan baita zure gainerat?

Ez bideduzu egundaino ikhusi zure bizkarrean eta zure hegaletan hulaku jendetzerik.

Ez dakit zertako deithua izan zaren Arroltzemendi. Menturaz inguruetako mendi handiak ikhusi eta, dela Urtsuya, dela Mundarrain, dela Larrun; eta hekiekin paretuz eta hekien aldean deithu zaituzte, eskarnioz bezala, Arroltzemendi, bainan orai arterainokoaz dena dela, Laphurdiko mendirik handieneri eta ederreneri ezdiozute bekhaizkuarik ekharriko.

Eta bertze orduz profetak erraten zuena Judeako herri ttiki batez, zuretzat ere erranen ahal izanen da : *Et tu Bethleem, terra*

Juda, nequaquam minima es, ex te enim exiet dux qui regat populum meum Israël (MATH. 2. 6.)

Halaber, Arroltzemendi, hemendik goiti ez zare Eskualherriko mendirik gutienik aiphatua, gutienik estimatua izanen. Ezen hemendik goiti izanen zare, ez bakharrik Arroltzemendī, bainan bai Kalbario mendi.

Izanen zare Jainkoaren mendia, *Mons Dei,* mendi joria, graziaz dohatua eta bethea, *Mons pinguis, mons coagulatus,* Jainkoak maite izanen duen mendia, *Mons in quo beneplacitum est Deo.*

Bertze mendi handi famatu horietarat igaiten dire jende lanik ez dutenak, dembora pasa, dembora gal.

Hunat iganen diren jendeak kurutzearen bidea egiten dutelarik, Jainkoaren amodioaz sustataturik eta geroago eta gehiago sustatzeko eta bere bekhatuen auhendatzeko eta borhatzeko iganen dire, zeruko aberasteko iganen dire.

Ezen ez da deus salbagarriagorik, prootchosagorik, san Agustin dotor handiaren arabera egun guziez Jainkoaren semeak guretzat zombat jasan duen gogoan ibiltzea baino: *Nihil tam salutiferum quam quo-*

tidie cogitare quid pro nobis pertulerit Filius Dei (S. AUG.)

Eta horra zer egiten den kurutzearen bidea egiten denean.

Gure arimako gaitz guzien kontra ez dut kausitu, dio S. Agustinek, erremedio hobeagorik, Jesu-Kristoren zauriak baino, Jesu-Kristoren zauriez orhoitzea baino: *In omnibus non inveni tam efficax remedium quam vulnera Christi.*

Erremedio bat da hainitz ona eta segura gaitzik handienarentzat, bekhatuarentzat. Ezen bekhatua da egiazko gaitza, bethiereko zoriona galarazten daukun gaitza, bethiereko zorigaitza merezitzen daukun gaitza, eta gainerako gaitz guziak ez dire gaitzak, eta, nahi badugu, zerurat heltzeko bideak dire.

Bekhatuak behar gaitu bakharrik lotsatu, bekhatuaren bakharrik behar gare izan beldur; eta bada hartarik beiratzeko ez da erremedio seguragorik Jesu-Kristoren oinhaziez orhoitzea baino.

Ezen, dio Elizako Aita batek, Origenak, gauza segura da bekhatuak eta Jesu-Kristoren oinhazien orhoitzapenak ez dezaketela iharduki elkharrekin: *Certum est quia, ubi mors Christi animo circumfertur, non potest regnare peccatum.*

Ikhusten denean bekhatua zer gosta zayon Jesu-Kristori, bekhatuak zer egin dion Jesu-Kristori, nola aski atrebitua edo ezacholatua izan diteke bekhatu egiteko edo bekhatuan egoteko?

Eta bertzealde nola gure bihotza ez da hunkitua izanen orhoitzen bagare guretzat amodioz Jesusek nahi izan duela haimbertze sofritu. Egia da gure salbatzeko hil izan dela, *propter nos nostramque salutem*. Ordean gure salbatzeko hainitz gutiago ere aski izanen zen, bainan gure salbamenduarentzat aski zena, haren amodioarentzat eskas zen, san Agustinek dioen arabera: *Quod sufficiebat redemptioni non sufficiebat amori.*

Guretzat amodioz beraz, amodioz bakharrik nahi izan du haimbertze sofritu, haren sofrikarioez bederen gure bihotz gogorrak izan zitezen hunkituak eta gurituak.

Jesu-Kristori egiten ahal diogun atseginik handiena haren amodioaz bederen orhoitzea da.

Ez ahal da sobra amodioa, amodioz guretzat hil nahi izan duenaz orhoitzea! O Jesusen zauri sakratuak, dio S. Bonaventurak, harria bezin gogor diren bihotzak

zaurtzen ditutzuenak, eta horma bezin hotz direnak urtzen eta sustatzen ditutzuenak! *O vulnera Christi corda saxea vulnerantia et mentes congelatas inflammantia!*

Jesu-Kristok erran izan du sainda handi bati, Kurutzefikari amodiorekin behatzen dioenari Jesu-Kristok ordainez behatzen dioela amodioekin.

Beha zazue beraz, Kristauak, Kurutzefika sainduari eta kurutzetik dilindan dagon gure salbamenduaren prezio adoragarriari. *Respice in faciem Christi tui.*

Kurutze saindua liburu baten pare da, eta guziek irakur dezakete liburu hortan.

San Frantses Asisekua eri zen eta heriotzerat hurbil. Erran zioten eyan nahi zuen irakur zezoten liburu on zombait. « Liburua! liburua! huna ene liburua, erran zioten, kurutzefika bat erakusten ziotelarik, ez dut bertze liburu beharrik. » Hurbil zaitezte beraz kurutze saindurat, jakintsunak, hurbil zaitezte halaber jakitaterik ez duzuenak. Huna liburu bat guziek irakur dezaketena, guziek irakurtu behar duguna. Eta zer irakurtzen dugu?

Irakurtzen dugu lehenik odolez ichkribatua gure arimen balioa, *O christiane,*

tanti vales! Ikhusten dugu bekhatua Jesusi zombat gosta zayon eta zombat aborritu behar dugun. Ikhusten dugu Jesusek zombat maitatu gaituen eta ordainez zombat maitatu behar dugun.

O kurutze saindua, gure salbamenduaren tresna adoragarria eta maitea, adoratzen zaitugu maite zaitugu.

Ofreitzen darozkitzugu gure bihotzak eta gure amodioa, ofreitzen darozkitzugu herri handi huntako eta inguru horietako jendeen sentimendu hoberenak, ofreitzen darozkitzugu Eskual-herri guziaren adorazionezko, esker onezko, amodiozko eta fedezko sentimenduak.

Zu baithan da, kurutze saindua, gure sinhestea, gure esperantza, gure amodioa; bertze hainitzek ukho egiten badautzute ere, Eskual-herria leyal egon nahi zaitzu. O Jesus! kurutze sainduaren gainetik lagun gaitzatzu, hazkar gaitzatzu, benedika gaitzatzu guziak. Emaguzu eta ardiets dezaguzu guzieri eta bakhotchari, zu eta zure kurutze saindua gure bizi guzian ohoratu eta maitatu ondoan, azken orena ethortzen zaikunean zutaz lagunduak, zutaz kontsolatuak izan gaitezen gure asken guduan eta hil gaitezen zure kurutze saindua eskuan eta zure amodioa bihotzean.

OSOGARRIA

—

Kalbarioko besta handiaren asko ikhuslek galdegin deraukutenaren araura, emaiten ditugu hemen bi Jaun Aphezek erdaraz eta ederki aiphatu dituzten chehetasunak.

Belle manifestation religieuse dimanche dernier (14 septembre 1890) à Hasparren. C'était la bénédiction solennelle des croix érigées en Calvaire par l'initiative toujours si intelligente et si féconde du Père Arbelbide, supérieur des Missionnaires du lieu. Durant une semaine entière, des prédications avaient été faites matin et soir comme préparation à la fête. La population toujours si religieuse de Hasparren a répondu au zèle de son pasteur et de ses prêtres avec un empressement qui l'honore et fait bien espérer d'elle. Il est beau à voir, ce peuple d'ouvriers et de cultivateurs, au soir d'une journée de travail, accouru souvent de loin, emplissant la vaste nef de l'église et les tribunes en triple étage, recueilli, attentif, et par son attitude rendant largement à l'orateur les impressions qu'il reçoit de lui. Ce qui vaut mieux encore que l'attention à écouter la parole de Dieu, c'est la docilité et le courage à la suivre jusqu'au bout. Cette joie n'a pas manqué aux organisateurs de cette retraite. La journée du samedi, dès avant l'aurore, jusqu'à la nuit tombée, clergé paroissial et missionnaires ont eu une ample besogne, plusieurs presque sans interruption.

Monseigneur l'Évêque, qui avait daigné accepter de faire lui-même l'inauguration du Calvaire, s'était annoncé pour quatre heures et demie. Une nombreuse cavalcade, ayant à sa tête le sympathique doyen avec ses vicaires, s'est portée à une grande distance au devant de Monseigneur. La municipalité, conduite par le maire ceint de l'écharpe, attendait Sa Grandeur à l'entrée du bourg. Nombre de maisons étaient pavoisées, et une foule respectueuse se tenait sur le pas des portes et le long des rues, souriant à l'entrain du cortège épiscopal et s'inclinant pieusement sous la bénédiction du pasteur.

Le lendemain, un ciel d'azur mettait la joie dans tous les cœurs en donnant l'assurance que de ce côté rien ne manquerait à la fête. A neuf heures et demie, M. le doyen, avec le clergé paroissial, venait prendre chez les Pères missionnaires Monseigneur qui, mitre en tête et répandant des bénédictions, descendit sous le dais vers la belle église. Là, M. le doyen, avec ce tact et cette mesure qui le distinguent, a souhaité la bienvenue au Père qui va à ses enfants le cœur ouvert et les mains pleines. C'est une fête pour les enfants que la présence du Père, et pourtant la joie est ici un peu voilée par le caractère grave de la circonstance. N'est-

ce pas l'image des joies de la terre ? Mais la tristesse religieuse assainit la joie toujours exposée à dégénérer et la rend féconde.

Monseigneur, après avoir remercié clergé, municipalité, population, du sympathique accueil de la veille, s'est emparé de cette dernière pensée émise par M. le doyen, et a dit comment la religion a trouvé le moyen de convertir la tristesse elle-même en joie, en faisant de la douleur une expiation et une source de mérites, et en nous donnant de cette tristesse féconde le parfait modèle dans le Dieu du Calvaire et sa très affligée Mère.

Puis a commencé la messe pontificale. Le Révérendissime Père Abbé de Belloc tenait chapelle en face du trône de l'Evêque. Il était beau, le chant liturgique renvoyé au chœur par les tribunes en sonores et larges ondes. Il est pourtant probable que si l'attention de plusieurs n'avait pas été distraite du chant par le spectacle de cérémonies insolites, l'effet d'ensemble aurait été plus imposant. Il ne faudrait pas que le peuple se déshabituât de chanter à l'église, car son chant n'est ni le moindre ornement ni le moindre attrait des cérémonies religieuses.

C'est à trois heures que la procession vers le Calvaire a commencé à s'organiser. La foule était considérable et envahissait la marche de

toutes parts. Il faut rendre cette justice aux hommes qu'ils ont saisi dès l'abord l'ordre du mouvement, et qu'ils l'ont suivi jusqu'au bout avec une gravité particulièrement frappante. Les femmes, plus nombreuses et peut-être moins bien conduites, ont eu plus de peine à s'organiser. Mais de ce côté encore, si l'ordre n'était pas parfait, la volonté était bonne et l'attitude de l'ensemble aussi recueillie que possible.

Monseigneur a procédé à la bénédiction de chaque croix. Cette bénédiction finie, un Père missionnaire exposait en termes serrés et vibrants le mystère attaché à cette croix, et la foule montait sous l'impression de cette parole ardente et communicative.

Vers les six heures, de quatre à cinq mille personnes se trouvaient réunies dans l'esplanade en ovale où sont plantées les trois croix du sommet, trois superbes croix en bois de chêne. Celle qui porte l'image du Christ ne mesure pas moins de douze mètres. Une description du Calvaire mènerait trop loin, et la peinture du magnifique panorama éclairé par le soleil couchant serait hors de propos.

La bénédiction de la dernière croix finie, le Révérendissime Père abbé de Bel-loc est monté sur une chaire improvisée, d'où, à ce peuple recueilli et avide de sa parole bien connue, il a

dit avec une grâce charmante. en termes exquis et familiers, comment cette montagne, que sa petitesse autant que sa forme a fait appeler *Arroltze Mendi*, la montagne Œuf, allait, par le fait qui venait de s'y accomplir, effacer toutes ses voisines au fier sommet, à la croupe puissante. Car elle a grandi de la croix, et il n'y a sur la terrre rien de si grand et de si haut que la croix. A la place d'oisifs touristes qui visiteront les autres, sur cette montagne et au pied de cette croix, des foules viendront s'agenouiller, et des bras ouverts de Jésus, des grâces de foi et de courage se répandront sur tous ces vastes horizons et par delà. L'impression de cette parole a été profonde, et lorsqu'en attendant que pour la bénédiction solennelle le Saint-Sacrement fût porté de la chapelle des missionnaires, on a chanté le cantique basque dont le refrain a été redit par le peuple : *Ai orhoit zaite odola guretzat eman duzula*, plus d'une larme de pieuse émotion a coulé. La foule alors est descendue librement. Mais pas de hâte dans ses mouvements, pas une bousculade, pas un cri : ce n'était plus la procession, et le recueillement durait encore.

Devant la maison des Pères missionnaires, Monseigneur a voulu adresser une dernière parole à la foule dont une partie s'était arrêtée

en cet endroit. Jamais il n'a tant regretté de ne savoir pas le basque. Il aurait voulu saluer ce beau peuple en sa langue. Merci à tous des joies qu'ils ont procurées en ce jour à son cœur de Père : félicitations pour le grand acte qu'ils ont posé et la manière vraiment pieuse et digne dont ils l'ont fait. Ils ont exalté la croix, ils se sont exaltés eux mêmes : car c'est se grandir qu'honorer Dieu. Qu'ils gardent fidèlement le culte des bonnes et saintes choses qu'en ce jour ils ont fait profession si éclatante d'aimer; ils resteront dignes de leurs pères et dignes de la religion qui grandit tout ce qu'elle touche. La foule s'est inclinée sous une dernière bénédiction. Deux heures plus tard, une belle illumination (1).

C'était le désir, plusieurs fois exprimé des âmes profondément chrétiennes de voir les stations d'un calvaire échelonnés le long de la belle et riante colline qui domine Hasparren et sa riche campagne.

Grâces soient rendues à la providence de Dieu, qui a permis au T. R. Père Arbelbide, supérieur

(1) *Semaine de Bayonne.*

des Missionnaires, de réaliser cette pensée, à la grande satisfaction de tous ; aujourd'hui le calvaire est un fait accompli. Les stations du chemin de croix brillent sur le flanc de la colline ; et, au sommet, sur un riant plateau, s'élève la grande croix du Sauveur flanquée des croix du bon et du mauvais larron ; au pied les belles statues de la Très Sainte Vierge et de Saint Jean. Un mur d'enceinte surmonté d'un riche grillage entoure les croix et les statues, vrais chefs-d'œuvre. Le Christ, en particulier, œuvre de Didier, couronnée à l'exposition de 1876 à Paris, mesurant environ 3 mètres, ravit le pèlerin. L'inauguration a eu lieu le dimanche 14 septembre 1890, fête de l'Exaltation de la Sainte Croix. La paroisse de Lasparren a été préparée par une retraite de huit jours à cette fête à jamais mémorable ; l'empressement qu'elle a mis à en suivre les exercices est au-dessus de tout éloge. Soir et matin, l'église était comble pour écouter les instructions données par les meilleurs prédicateurs du clergé basque, qui ont bien voulu prêter le concours de leur talent et de leur zèle. Ces instructions, imprimées en basque, seront un souvenir de ce calvaire et un recueil de méditations sur la Passion de Notre-Seigneur renfermant une doctrine complète, sûre et pratique.

Le Calvaire a été inauguré par Mgr l'Evêque, qui a voulu bénir lui-même les croix des 14 stations. Sa Grandeur, partie de Bayonne samedi à 2 heures, est arrivée vers 4 heures à la limite du territoire de Hasparren, où l'attendaient, heureux et fiers, plus de 30 cavaliers, ayant à leur tête le clergé paroissial et un jeune Père de la maison des Missionnaires.

Monseigneur, ainsi escorté, reçoit, à l'entrée de la ville, les hommages de M. le Maire et du conseil municipal. Il descend bientôt à la maison des Pères; mais avant d'entrer, en quelques paroles pleines de cœur, il remercie les cavaliers et bénit la foule qui se presse à ses pieds...

Le lendemain, vers 9 heures et demie, Mgr l'Evêque, entouré d'un nombreux clergé, se rend, en procession, à l'église paroissiale. Il monte au trône pontifical; et M. le Doyen est heureux de présenter à Sa Grandeur une paroisse d'élite, qui, avant tout, voit dans l'Evêque le Pasteur et le Père, et ne demande qu'à obéir et à aimer. Monseigneur, visiblement ému des sentiments qui lui sont exprimés, témoigne à tous une vive reconnaissance; et, abandonnant son âme à l'élan des pensées de la foi, il explique, en peu de mots, le mystère de la fête du jour et la cérémonie qu'il vient présider.

La mission de N.-S. J.-C. était de sauver les

hommes par les humiliations de la croix; mais après la Passion et la Mort, Jésus ressuscite et triomphe. L'Eglise souffre aussi sur la terre, continuant l'Œuvre de la Rédemption ; mais elle triomphe en même temps, au milieu des persécutions, puisqu'elle ne cesse de sauver les âmes par le mystère de la Croix.

Immédiatement commence la messe pontificale, avec toute la pompe des grandes solennités à la cathédrale de Bayonne. En face du trône de Mgr l'Evêque, on voit, modeste et recueilli, le R^m^ Abbé de N.-D. de Bel-loc, portant la crosse et la mitre, et disant les prières de la messe en même temps que Sa Grandeur.

L'inauguration du Calvaire commence à 3 heures.

Après des chants basques, composés pour la circonstance, la procession se met en marche. Impossible de décrire les flots de la multitude accourue des paroisses voisines. Le temps est superbe. Les hommes précèdent le nombreux clergé qui entoure Monseigneur, et paraissent déjà sur les flancs de la colline. Les femmes suivent, non plus en rang, mais à flots pressés et à peine contenus.

Monseigneur bénit les croix des stations; et après chaque bénédiction, trois Pères missionnaires donnent, alternativement, en quelques

mots, le sens vrai et pratique des diverses scènes de la Passion.

Le spectacle nouveau de cette multitude attentive anime les orateurs et soutient la puissance de leur voix, malgré l'émotion et la fatigue. Ainsi s'opère l'ascension de la montagne, dans un profond recueillement, au milieu du chant et de la prière.

Enfin, on arrive au sommet. Ici le spectacle devient indescriptible ; l'horizon est sans limites, surtout du côté de l'ouest, où le soleil plonge son disque en feu dans les vapeurs du golfe de Gascogne. On dirait qu'il envoie des larmes de sang sur la colline sainte, pour rendre encore plus touchante l'image du Dieu crucifié qui ferme doucement les yeux en jetant un dernier regard sur sa Mère pour lui confier le beau pays qui se déroule au nord et qu'arrose l'Adour, et cette France qu'il aime encore, qu'il aime toujours, malgré l'ingratitude de ses enfants.

Le bras droit du divin Crucifié s'étend avec effort à l'Est vers le cher pays basque et le fond du Béarn, dont les collines serpentent au loin, semblables à des vagues dans un océan d'azur.

La main gauche, s'élève à l'Ouest, sur la terre du Labourd et montre son cœur ouvert, à ce peuple chéri, et à cette mer immense où courent des vaisseaux sans nombre emportant des frères aimés vers de lointains rivages.

O doux Jésus! vous qui êtes mort pour tous, que votre croix soit une lumière qui nous guide dans les dangers de la vie; une force qui nous soutienne dans les épreuves; un signe de pardon et d'espérance à l'heure de la mort! c'est la prière du Pasteur du diocèse à genoux à vos pieds; c'est le cri de cette foule de plus de 6,000 personnes; c'est le dernier mot du Rme Abbé qui clôture cette fête en saluant la colline du nom de *Kalbario-mendi*. De loin, du fond des plaines, cette montagne paraît aux flancs des Pyrénées du Sud-Ouest, dominant les premiers sommets, mais bien au-dessous des autres montagnes qui conduisent par degrés à la cime des Pyrénées. La langue euskarienne donne à chaque pic un nom qui en explique le sens, le site et la nature. La verdoyante montagne de Hasparren portait le nom mystérieux d'Arroltzemendi.

Console-toi, petite Bethléem, tu ne seras pas la plus obscure de cet Israël pyrénéen! désormais, tu t'appelleras Kalbario-mendi, portant la Croix lumineuse et le Christ Jésus, œuvre de la Rédemption.

La cérémonie se termine par la bénédiction du T. S. Sacrement. Ensuite, la foule descend en silence toujours pieusement recueillie, ce qui a fait dire à Mgr l'évêque : « J'ai vu à N.-D. « de la Garde des manifestations de foi et de

« piété aussi grandes, mais aucune qui dépas-
« sât celle-ci, et qui témoignât autant de foi et
« de piété.» Avant d'entrer à la résidence des missionnaires, Sa Grandeur a béni une dernière fois ce peuple à genoux, lui disant : « Un
« grand jour, Mes Frères, c'est le triomphe de
« la Croix de Notre Seigneur, c'est aussi le jour
« de l'exaltation de la foi de Hasparren. »

Déjà on prépare partout une riche illumination. Une grande croix, dressée à cet effet au haut du Calvaire donne le signal. Elle paraît en feu, et jette au loin un brillant éclat. Aussitôt l'illumination éclaire les grandes rues et devient générale ; et pour que cette fête porte en tout le caractère religieux, on voit la croix de feu presque à toutes les fenêtres.

Honneur à cette population chrétienne, et gloire à Notre-Seigneur Jésus-Christ !!!

UN ASSISTANT (1).

(1) *Bulletin catholique* de Pau.

OTHOITZAK ETA KANTIKAK

MEZA SAINDUKO OTHOITZAK

Meza behar bezala entzuteko Preparazionea.

Zure aldare sainduaren oinetan ahuzpez emanik, adoratzen zaitut, Jainko bothere guziak ditutzuna, fermuki sinhesten dut, entzuterat nohan Meza dela Jesu-Kristo zure Seme-Jainkoaren Gorphutz eta Odolaren sakrifizioa ; Kalbariokomendian gizon guzientzat eskeini zuen sakrifizio hura bera. Eskeintzen darotzut, bat egiten naizelarik Jesu-Kristoren eta haren Elizaren chedeekin : 1° Zure Mayèstate dibinoari zor zayoen ohore soberanoa emaiteko ; 2° Egin darozkigutzun ongi guziez eskerrak bihurtzeko ; 3° Munduko bekhatu guzientzat eta bereziki eneentzat zuri satisfakzione egiteko ; finean arimako salbamenduarentzat eta gorphutzeko biziarentzat behar ditudan laguntzak zure ganik ardiesteko. Zure ganik grazia hauk guziak igurikitzen ditut, Jesu-Kristo zure Semearen merezimenduen bidez , nahi baitu berak izan Sakrifizio adoragarri hunen Apheza eta biktima.

Mezaren hastean, eta Confiteor *ondoan.*

Ene bekhatuen jakiteko eta ezagutzeko, ô ene Jainkoa ! behar ez duzun arren ene aithorrik eta kofesiorik, eta ene gaichtakeria guziak ene bihotzean irakurtzen dituzun arren, kofesatzen darozkitzut halere zeruaren eta lurraren aitzinean : aithortzen dut ofensatu zaitudala gogoz, hitzez eta obraz. Ene bekhatuak handiak dire, bainan zure misericordiek neurririk ez dute. Urrikal nakizu, ô ene Jainkoa ! Orhoit zaite zure haurra, zure eskuko obra, zure odolaren prezioa naizela.

Birjina saindua, Zeruko Aingueruak Parabizuko Saindu eta Saindak, guretzat othoitz egizue, eta nigarrezko eta miseriasko haran huntan dolhamenetan gaudezen orduetan, grazia eskazazue guretzat, eta ardiets diezaguzue bekhatuen barkhamendua.

Introït*ean.*

Jauna ! zuk Patriarkheri eta Profeteri eman zinioten, zure Seme bakhotcha lurrerat jausten ikhusteko, hain gutizia khartsua ; indazu heyen khar saindutik pharte bat ; eta egizu, bizitze hilkor hunen goiti-

beheitien erdian, ene baitan senti dezadan zurekin bat izateko lehia saindua.

Kyrie eleisonetan.

Dolhamen eta haspérenekin, ó ene Jainkoa, errekeritzen zaitut, egidazu misericordia. Memento guziez, bizi naizeno, erran baniezazu *Jauna! nauzun urrikari;* ez liteke oraino aski ene bekhatuen nombrearentzat eta handitasunarentzat.

Gloria in excelsisetan.

Gloria in excelsis Deo : et in terra pax hominibus bonæ voluntatis. Laudamus te ; benedicimus te ; adoramus te ; gratias agimus tibi propter magnam gloriam tuam ; Domine Deus, rex cœlestis, Deus, Pater omnipotens ; Domine Fili unigenite Jesu Christe ; Domine Deus, Agnus Dei, Filius patris, qui tollis peccata mundi, miserere nobis ; qui tollis peccata mundi, suscipe deprecationem nostram ; qui sedes ad dexteram Patris, miserere nobis ; quoniam tu solus Sanctus, tu solus Dominus, tu solus Altissimus, Jesu-Christe, cum Sancto Spiritu, in gloria Dei Patris. Amen.

Oremusetan edo Orazionetan.

Agrada bekizkitzu, Jauna, guretzat egiten zaizkitzun othoitzak; igutzu, Eliza zure esposak, Aphezaren ahoz, gure fagoretan galdegiten darozkitzun graziak eta berthuteak. Ez dugu merezi (hala da) entzunak izaitea; bainan kontsidera zazu grazia horiek eskatzen darozkitzugula, Jesu-Kristo, zure Semearen bibez, zurekin bizi baita, erreginatzen baitu mendeen mende guzietan. Halabiz.

Epistolan.

Epistola huni begiratzen diot, ô ene Jainkoa! zure nahien irakhasteko egortzen darotazun guthun bati bezala. Othoi, indazu manatzen darotazunaren komplitzeko indarra. Zuk zeronek, Jauna, profeteri eta apostolueri irakhatsi diotzatzute, izkrubuz utzi darozkiguten egiak: heyen argietarik pharte indazu, eta pitz zazu ene bihotzean, hek erretzen zituen su sakratu hura, maita zaitzadan eta zerbitza, hek bezala, ene bizi guzian.

Ebanjelioan chutiturik.

Chutitzen naiz, ô Legegile soberanoa, zuri erakhusteko Ebanjelio sainduan diren

egia handiak, ene odolaz zigilatzera tekharria naizela. Egia horiek ene bihotzean zeronek, othoi, Jauna, barneraino landa zaitzu. Horiek betzate molda ene gogoetak, ene hitzak eta ene obrak. Ez dut gehiago atchiki nahi zure legeaz bertzerik; mintza zaite, Jauna; huna non aditzen zaitudan, sehi baten jauspen osoarekin. Indazu zure erranen bethetzeko hambat indar nola baitut fermutasun heyen sinhesteko.

Credo*an*.

Credo in Deum, Patrem omnipotentem, factorem cœli et terræ, visibilium omnium et invisibilium. Et in unum Dominum Jesum-Christum, Filium Dei unigenitum: Et ex Patre natum ante omnia secula; Deum de Deo, lumen de lumine, Deum verum de Deo vero: genitum non factum, consubstantialem Patri, per quem omnia facta sunt, qui propter nos homines et propter nostram salutem descendit de cœlis; et incarnatus est de Spiritu Sancto ex Maria Virgine; ET HOMO FACTUS EST: crucifixus etiam pro nobis sub Pontio Pilato, passus et sepultus est: Et resurrexit tertiâ die secundum scripturas: Et

ascendit in cœlum; sedet ad dexteram Patris: Et iterum venturus est cum gloria judicare vivos et mortuos; cujus regni non erit finis. Et in Spiritum Sanctum Dominum, et vivificantem, qui ex Patre Filioque procedit. Qui cum Patre et Filio simul adoratur et conglorificatur: qui locutus est per Prophetas. Et unam, Sanctam, Catholicam et Apostolicam Ecclesiam. Confiteor unum Baptisma in remissionem peccatorum. Et expecto resurrectionem mortuorum, et vitam venturi seculi. Amen.

Ofertorioan.

Kreatura hilkor, eta bekhatuz kargatu bat baizen ez naizen arren; eskeintzen darozkitzut Aphezaren eskuz, ô egiazko Jainko bizi eta eternala, ogi hori eta arno hori, izan behar baitute gambiatuak zure Seme Jesu-Kristoren Gorphutzerat eta Odolerat. Onets zazu, Jauna, ezin erranezko Sakrifizio hau, amultsuki eta gozoki. Ofrenda saindu horrekin juntatzen dut, ene gorphutzaz, arimaz, ontasunez, biziaz eta ditudan guziez egiten darotzudan sakrifizioa. Egizu nitaz, ô ene Jainkoa! kreatura berri bat; ogi hori eta arno hori zure bothereaz gambiatzerat zohazin bezala.

Aphezak bere erhiak garbitzean.

Garbi nezazu, Jauna, zakrifikatua izaterat doatzan Bildotsaren odolean; notha guzietarik chahutua, eta zure graziaren espos-arropaz beztitua, zure ganat esku churi eta bekhatu-gabeak altcha detzadan; esparantzarekin egun batez errezebitua izateko, zure hautatueri Zeruan pharatu diozuten aphairu sakratuan.

Ichildurik Aphezak erraten dituen Othoitzetan.

Agrada bekizu, o ene Jainkoa, zure izen sainduaren ohoretan eta loriarentzat, gure probetchutan, eta zure Eliza sainduarenetan, eskeintzen zaitzun Sakrifizioa: haren chede beretan sarthurik, huna non galdetzen darozkitzudan, Elizak orai, aphezaren bidez, eskatzen darozkitzun grazia guziak. Eman dietzagutzun Jesu-Kristo gure Jaunaren bidez eta izenetan.

Prefazioan

Ordu da, o ene arima, igan gaitezen behere huntako gauza guziez gorago. Altcha zaitzu, Jauna, altcha zaitzu gure bihotzak zure ganat: zor zaizkitzun gores-

teak eta eskerrak zuri emaiteko juntatzen ditugu gure boz flakoak, Izpiritu dohatsuen alegrantziazko sentimenduekin: eta desterruko lekhu huntan erraiten derautzugu, hek loriaren egoitzan kantatzen darotzutena: *Saindua, Saindua, Saindua da armadetako Jainko Jauna, izan bedi lorifikatua zeruetako gorenean.*

PREFAZIO KOMUNA

Per omnia secula seculorum. ℟ Amen.

Dominus vobiscum. ℟ Et cum spiritu tuo.

Sursùm corda. ℟. Habemus ad Dominum.

Gratias agamus Domino Deo nostro. ℟ Dignum et justum est.

Vere dignum et justum est, æquum et salutare, nos tibi semper et ubiqüe gratias agere, Domine sancte, Pater omnipotens, æterne Deus, per Christum Dominum nostrum; per quem majestatem tuam laudant Angeli, adorant Dominationes, tremunt Potestates: cœli cœlorumque virtutes, ac beata Seraphim socia exultatione concelebrant. Cum quibus et nostras voces, ut admitti jubeas deprecamur, supplici confessione dicentes:

Sanctus, Sanctus. Sanctus, Dominus Deus Sabaoth. Pleni sunt cœli et terra gloriâ tuâ. Hosanna in excelsis. Benedictus qui venit in nomine Domini, Hosanna in excelsis.

Sanctus *erran-ondoan*

Aita bethierekoa, arzainetako arzain soberanoa! zure Eliza zaint eta ibilka zazu, finka zazu eta heda lurraren bazter guzietarat. Izpiritu bat eta bihotz bat emozute Kristau guzieri. Benedika zaitzu gure Aita saindua, gure aphezpikua, gure aitzindariak, gure erretora, eta zure Elizaren sinhestean bizi diren guziak.

Lehenbiziko Mementoan.

Jauna, orai zure erresuman zarena, orhoit zaite nitaz zure miserikordian, eta sakrifizio saindu hunen merezimenduz indatzu eskas ditudan berthute guziak. Eta batak bertzearentzat othoitz egitea manatu darokuzunaz geroz; Jauna, othoi, adi zatzu eta entzun, humilki eta konfidentziarekin egiten darozkitzudan othoitzak ene ahaideentzat, adiskideentzat, arimako eta gorphutzeko ongiegilentzat. Ene bihotz guziaz halaber gomendatzen

darozkitzut ene etsayak eta gaizki zombait egin ahal darotaten guziak : ahantz bekizkitzu heyen bekhatuak eta neure[illegible] ene bihotzetik khen zatzu khiestasun e[illegible] gaitzirizko guziak. Mundu guziak senti beza sakrifizio hunen ona. O ene Jainkoa, iguzu guzieri bake egiazko bat, elkharrekin batasunean atchikiren gaituena, bethikotz bakean izaiteko Birjina-Amarekin, zure apostoluekin, martirekin, Saindu eta Sainda guziekin, eta finean eternitate guzian zurekin.

Ostia saindua altchatzean.

O Jesus, ene Salbatzailea, egiazko Jainkoa eta egiazko gizona, sinhesten dut zinez eta fermuki Ostia sainduan errealki zarela, adoratzen zaitut hor, ene Jauna eta ene Jainkoa zarena. Iguzu, niri eta hemen garen guzieri, Misterio adoragarri huntan zor darotzugun debozionea, amodioa eta ezagutza.

Khalitza altchatzean.

Adoratzen dut khalitz hortan, o ene Jesus dibinoa, ene erospenaren prezioa, eta gizon guziena. Odol adoragarri hortarik chorta bat jausterat utzazu ene ari-

maren gainerat, izan dadintzat garbitua bekhatu guzietarik, eta sustatua zure amodioaren khar sakratuaz.

Jainkoa altchatu ondoan

Ez darotzugu gehiago ogia eta arnoa eskeintzen, bainan bai Jesu-Kristo zure semearen gorphutz adoragarria, o ene Jainkoa, haren pasionearen, pitztearen, zerurat igatearen orhoitzapenetan : gure eskutik, Jauna, har zatzu, eta bethe gaitzatzu zure graziez.

Bigarren Mementoan.

Orhoit zaite halaber, Jauna, Purgatorioan diren arima gaichoez, zureak dire, bai eta zure esposak. Bereziki gomendatzen darozkitzut ene ahaideenak, adiskideenak, arimako eta gorphutzeko ongi egileenak, eta gure othoitzen behar gehiena dutenenak.

Nobis quoque peccatoribus *erratean*.

Guzia bekhatorea naizelarik, ausartatzen naiz galdetzerat grazia bera enetzat, erran nahi da, o ene Salbatzailea! zure lorian pharte ttipi bat. Mila bekhatuz hango zuzena galdu dudala ikhusten dut

eta aithortzen zure aintzinean, o ene Jainkoa! Ene merezieri begiratzen badiozute, ez duket esparantzarik izateko erresuma hartan. Apostoluek, martirek, eta Birjina sainduek ezin ardietsi dute, sofrituz eta berthute guzieri baizen jarraikiz. Nola beraz ausarta-ere othe naiteke, Jauna, esparantza izaterat? Zure odolak egiten du ene fidantzia guzia. Barkha dietzakidatzu ene hutsak, penitentzia egiazko batez zerurat hel nadien.

Pater *erratean.*

Kreatura ez deus eta dohakabe bat baizen ez naizen arren; halere, Jainko handia! ausartatzen naiz zu ene Aita deitzerat, zeren hola nahi duzun; egidazu grazia, o ene Jainkoa, bethi zure egiazko haur egoiteko. Gure Aita, Zeruetan zarena, erabil bedi sainduki zure Izena; ethor bedi zure erresuma; egin bedi zure borondatea, Zeruan bezala lurrean ere; iguzu egun gure eguneko ogia; barkha zagutzu gure zorrak, guk gure-ganat zordun direneri barkhatzen dioztegun bezala; eta ez gaitzatzula utz tentamendutan erortzerat; bainan begira gaitzatzu gaitzetik. Halabiz.

Agnus Dei *erratean.*

Jainkoaren Bildotsa, munduko bekhatuez kargatu nahi izatu duzuna, garbi zaitzu ene bekhatu guziak zure odolean, hain khario erosi duzun bake hura izan dezadan zurekin, ene lagunarekin eta neure buruarekin.

Domine, non sum dignus *erratean.*

Ah Jauna! egia da ez dudala merezi zure errezebitzea ene bekhatuen gatik : guziez urriki dut zeren damustatu baitzaituzte, eta zure ganik urrundu bainaute. Zure hitz bakhar batek senda dezake ene arima : ez nezazula abandona, o ene Jainkoa!

Aphezaren komunionea, nork berak komuniatzen ez duenean errealki.

O ene Jesus maitagarria! egun zure haragi sainduaz hazia izateko zoriona ez badut; onets zazu errezebi zaitzadan bederen izpirituz eta bihotzez, eta zurekin bat egin nadin fedeaz, esparantzaz eta karitateaz. Sinhesten dut zure baitan; zure baitan dut ene esparantza; eta maite zaitut ene bihotz guziaz.

Ala dohatsu baininteke, ene Salbatzaile maitea, zure ganat hurbiltzeko, zure ma-

hain sainduan jartzeko, zure gorphutz sakratua jateko, eta zure odola edateko heinean banintz. Ah! zer indar, zer gozo eta zer grazia ez diozute ematen hetaz hazten ditutzuneri!

Nor berak komuniatzen duenean, harren orde egin behar diren komuniatzeko Aktak.

Ostia pichkak aphezak biltzean.

Jauna, ja erran dut : ez dut merezi zure mahainean zure haurren herrunkan jartzea : bainan onets diezadazu bil detzadan bederen erortzen diren papurrak, Kananearrak galdetzen zuen bezala. Egizu ezdezadan zure emaitzetarik deus ere gal.

Azkeneko orazionetan.

Nahi duzu, Jauna, arterik utzi gabe, gure othoitzak erantzun dietzatzugun : zeren dugun bethi zure grazien beharra : ichur zazu gure gainerat eta iguzu othoitzaren izpiritua, zoina baita humiltasunezko, konfidentziazko eta amodiozko izpiritu bat : hortaz errekeritzen zaitugu zure Jesu-Kristo Semeaz, zurekin erreginatzen baitu lorian.

Benedikzionearen aitzinean.

Trinitate guziz saindu eta adoragarria, Aita, Semea eta Izpiritu Saindua, Jainko choil eta bakhar bat zarena; zutaz sakrifizio hau hasi dugu, zutaz finitzen dugu, onets zazu, eta ez gaitzatzula igor zure benedikzionea gabe.

Azkeneko Ebanjelioa erratean.

Verbo eternala, gauza guzien egilea, demborak bethe zirenean gure gatik gizon eginik, sakrifizio miragarri hau eskablita duzuna; eskerrak humilki darozkitzugu zeren egin deraukuzun grazia, meza saindu hunen entzuteko. Barkha diezadazu, o ene Jainkoa, ene izpirituko barrayamendua eta ene bihotzeko hotztasuna; zu eta zure amodioa beizik ez nuelarik gogoan behar. Ahantz bekizkitzu, Jauna, ene bekhatuak, hekientzat Jesu-Kristo zure Semea, aldare hunen gainean imolatu baita eta ez dezazula permeti aski ondikozkoa izan nadin, zu hemendik harat ofensatzeko. Halabiz.

KURUTZEAREN BIDEA

EGITEKO MOLDEA

Hartarat preparatzeko Sakramendu Sainduaren aintzinean egiteko othoitza.

O Jesus, ene Salbatzaile dibinoa! huna non naizen ahuspez zure oinetan, enetzat eta zure grazian hil direnenzat miserikordia galdetzeko. Phartalier egin gizatzu, othoi, gogoan erabiltzera nohan zure pasionearen merezimendu neurrigabeez. Nigarrezko eta auhenezko bide huntan hain urriki minaz hunki zazu ene bihotza, non ekharria izan nadin bizi huntako nekhe guzien gogotik jasaiterat zu gatik.

Eta zuk, Kurutzearen bidea lehenik irakhatsi daukuzuna, Maria Saindua, egizu othoitz, Trinitate Sainduak munduan izaiten dituen laidoen erreparazionetan, onhets detzan hemen Izpiritu Sainduak igorriko deraiztan dolorezko eta amodiozko sentimenduak.

Estazionera joatearekin erraten da :

Sancta Mater istud agas
Crucifixi fige plagas
Cordi meo valide.

Estazionera heldu eta belhaunikaturik :

Adoramus te Christe et benedicimus tibi — Quia pĕr sanctam crucem tuam redemisti mundum.

Iʳᵉⁿ Estazionea

Jesus hiltzerat kondenatua

Kontsidera zazu hemen Jesusek zoin amultsuki hartzen duen arrasta bat hain zuzen kontrakoa, eta orhoit zaite ez duela Pilatusek choilki kondenatu Jesus, bainan zuk eta bekhatoros guziek galdetzen ginduela haren heriotzea. Errozu beraz bihotzminik minenarekin :

O Jesus adoragarria, ene bekhatuek hilarazi zaituztenaz geroz, egidazu, othoi grazia, hetaz damu gehiago izaiteko gaitz suerthe guziez baino, eta ekharria izaiteko lehenago hiltzerat ere bekhatu eginen dudan baino.

Errazu gero : Gure Aita, Agur Maria, Gloria — edo Pater, Ave, Gloria.

Miserere nostri, Domine.

Miserere nostri.

Fidelium animæ per misericordiam Dei requiescant in pace. Amen.

IIen Estazionea

Jesus kurutzeaz kargatua

Kontsidera zazu hemen, Jesusek zoin bihotz onez hartzen duen bere heriotzeko tresna latzgarria bere soin sarraskituaren gainean. Horrela irakhatsi nahi dauku nola hartu eta ekharri behar ditugun, nondik eta noren ganik nahi heldu zaizkigun gurutzeak.

O Jesus amultsua! ez zinduen zuk ekharri behar kurutze hori, bainan nik bekhatoros dohakabeak. Emadazu behar dudan animoa, zure etsemplura bizi huntako nekheak eta atsekabeak errenkuratu gabe jasaiteko : Aita on bezala zure Probidentzian nahi izan duzunaz geroz heyen bidez egin dezadan bekhatuen satisfakzionea, eta ardiets zure loria.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

IIIen Estazionea

Jesus eroria kurutzearen pean

Kontsidera zazu Jesus Kalbarioko bi-

dean. Azote eta arrantzezko khoro krudelek hambat odol galarazi zioten, non flakatua erori baitzen kurutze dorphearen pean; eta ez da altchatzen tratamendurik gogorrenak pazientziarik handienarekin jasanik baizen. Hola nahi du egin, eta guri irakhatsi gure erorikoen, eta guziz bathayoko grazia galarazi darokuten bekhatuen satisfakzionea egiten.

O Jesus ona! egizu, othoi, orhoit nadin bethi bihotzminik handienarekin ene gaztetasuneko lehen bekhatuez, eta disposizione sainduekin hurbil nadin heyen boratzeko ordenatu duzun penitentziazko sakramendurat : barkha dietzadatzu, othoi, iragan hutsak, eta egidazu grazia, hetan berriz ez erortzeko.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

IV^en^ Estazionea

Jesusek errekontratzen du bere Ama

Kontsidera zazu zoin doloros behar zen izan, bai Seme Jainko harentzat, bai Ama hain maitearentzat, elkhar errekontratzea, Seme maite hura gaichtagin batzuez hain itsuski herrestatua den demboran, populu handi baten bistan. Hura ikhustean zer dolore eta hersturetan ez zen aurkhitu

ama haren bihotza? Nahi zukeyen athera burreu heyen eskuetarik : ordean badaki hala behar dela egin gure Salbamendua. Guziak harekin sakrifikaturik, jarraikiko zayo beraz azken hatseraino.

O dolorezko Ama! ardiets diezaguzu mendi sainduraino Jesu-Kristo segitu zinduen amodio hura, eta kurutzearen oinetaraino erakhutsi zinduen animo hura; deusek ez nezan sekulan zeiharraraz Jaunaren legearen bidetik, eta apartaraz Jesu-Kristo ganik.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

Ven Estazionea

Simon laguntzen zayo kurutzearen kharreyatzen

Kontsidera zazu Jesu-Kristoren gu ganako ontasuna. Mundua jasaiten duenean, ez du eskas indarra kurutzearen jasaiteko ; bainan nahi dauku irakhatsi gure lagunetarik pairatzeko izanen ditugunen bat egiten haren sofrikariekin.

O Jesus, ene Jauna! zeronek jasanik kurutzerik dorpheena, arinena uzten darotazu niri, egidazu, othoi, grazia neure buruaren hain etsai ez izaiteko, non ez

baitut ekharri nahiko. Hitz dauzut, Jauna, zure amorea gatik eta zure miserikordiaz baliatzeko, jasanen ditudala errenkuratu gabe neure lagunaren ganikako eskasia eta laido guziak.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

VI^en^ Estazionea

Emakume debot batek chukatzen dio begithartea

Kontsidera zazu soldado soka hura zilhaturik, bere Nausi dibinoaren gana hurbiltzen den emakume horren animoa. Aurkhitzen du thuz, herrautsez, izerdiz eta odolez suntsitua. Unkitua nigarretaraino, amodioak emaiten du beldur guziez gorago; hurbiltzen da Jesusen ganat, eta chukatzen dio Aingeruek eta Sainduek ikhararekin baizen begira ez diozoketen begitharte desegin hura.

O Jesus, gure Nausi eta Erregea! emadazu, othoi, emakume saindu horren imitatzeko berthutea, munduko kontsiderazione guziak ostikaturik, goraki erakhuts dezadan nere fedea mundu guziaren bistan.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

VII^en ESTAZIONEA

Jesus erortzen da bigarren aldikotz

Kontsidera zazu Biktima saindu horren estatua, hedatua bere sakrifizioko egurraren pean, eta pharatua bere burreuen tratamendu krudeleri : bigarren eroriko hau Jesu-Kristok guretzat duen amodio handiaren froga berri bat da. Nahi dauku erakhutsi berriz bekhatuan erortzeak ez gaituela etsiarazi behar, bainan bai erneago atchikarazi.

O Jesus ene Salbatzailea! barkha dietzadazu, othoi, berriz ere ene bekhatuak; borthitz nezazu zure graziaz bekhatuzko okasioneen kontra; emadazu othoi, atzartasuna neure buruaren gainean, fermu izan nadin zure grazian.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

VIII^en ESTAZIONEA

Jesusek kontsolatzen ditu Israelgo presuna doloratu darraizkonak

Mirets zazu Jesu-Kristoren jenerostasuna. Bere doloreez kasurik egin gabe, guzia hartua da gure Salbamenduaz : erraiten badiote emazte hekieri ez dezaten nigarrik egin haren gainean, bainan bere

eta bere ondokoen gainean, ah! hortan erakhutsten dauku gure doloreak estimu guti lukeela, baldin gure bekhatuez nigar egiten ez badugu.

O Salbatzaile maitea! emozu, othoi, ene bihotzari ene Salbamenduaren nahi khartsu bat, aıhenetan eta penitentzian khartsuki emanaraz nezakena, merezi dezadan zure kontsolazionezko hitzen aditzea Kalbarioko emazte saınduek bezala.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

IX^en^ Estazionea

Jesus erortzen da hirurgarren aldikotz.

Kontsidera zazu Jesus heldua mendiaren gainera. Behatzen du bere etsayen errabiak sakrifikatu behar duen tokira. Bekhaturat berriz erortzek, sakramenduen profanazionek, eta haren graziak eta haren odola ainhitzentzat alfer izanen zirela ikhusteak hersten dute haren bihotza, jasan behar dituen tormentek baino borthizkiago.

Kontsiderazione horrek aurthikitzen du hain tristezia eta flakezia handian, non erortzen baita, bere agonian bezala, begitharteaz lurrerat.

O Jesus, amodioaren biktima! onhets

zazu, othoi, hemen ene bihotz doloratuak zure bihotza hola hersten duten gaizkiez eta profanazioneez egiten darotzun amanda honorablea : emadazu indarra izigarrikeria horien penitentziarik gogorrenez erreparatzeko; eta egidazu grażia, zure dohainez baliatzeko.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

X^en^ Estazionea

Jesus bilhuzten dute

Kontsidera zazu nolakoa zen Jesusen sofrikaria burreuek bilhuzi zutenean; arropak khentzearekin haren zauri guziak idekitzen eta sarrazkitan emaiten dire, eta erreberritzen dute azotezko suplizioa. Bainan dolore handiagoa zen harentzat, hambat ikhustiarren bistan estatu hartan agertzea!

O Jesus, saindutasunaren Jainkoa! gure guritasun tchar eta atsegin lizunez barkhamendu galdegiteko, uzten duzu zure burua hola bilhuzterat : ikhusgarri nigarrezko horren bistan ahalkatua nere gorphutzari egin ditudan maínez, zinki deliberatzen dut zure graziarekin batean, nere sentsuak mortifikatuz, egin detzakedan satisfakzione guzien egiterat.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

XI^en^ Estazionea

Jesus kurutzeari itzatua da.

Kontsidera zazu Jesu-Kristo bere burreueri zoin humilki pharatzen zayoten! uzten ditu bere esku eta oinen itzatzerat batere plainitu gabe; sentitzen ditu bere hezurrak bere lekhuetarik atheratzen, bere zainak ethentzen, bere odol guzia kurutzeari behera goaten, bere bihotza egarriak erretzen, bere indar guziak galtzen! Horrela gu gatik obedient izan nahi zen kurutzeraino, Jondoni Paulok dioen bezala.

O ene nausi dibinoa! ala goraki kondenatzen baiditutzu zure legue sainduaren alderako ene desobedientziak! Ala sarkorra baita hemen amodio propia eta naturalezaren kontrasta guziak bentzutzen dituen obedientzia osoaren gainean emaiten darotazun etsemplua? Egidazu, othoi, grazia hortaz baliatzeko, ez dezadan behinere bertze nahirik izan zurea baizen.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

XII^en^ Estazionea

Jesus hiltzen da kurutzean

Kontsidera zazu Jesus hiltzen bi ohoinen artean, eta bere Jainkotasuna era-

khusten mirakuilurik handienez. Azken hatsa eman duen pontuan, lurra ikharatzen da, harrokak erdiratzen, temploko beloa urratzen, iguzkia ilhuntzen, eta hilak hobietarik pitzturik ilkhitzen. Horiek ikhusirik, kapitaina obligatua da, bulharrak jotzen dituelarik, aithortzerat egiazki hura Jainkoaren Semea dela.

O ene Salbaitzaile maitea! ez dezazula, othoi, permeti, kreatura guziak zure heriotzeaz doloratzen diren demboran, sentimendu gabe izan nadin eta esker gabe. Argi zazu ene adimendua, phorroska zatzu ene pasioneen gatheak, atzarrazu, othoi, ene fede lokhartua, hil nadin sekulakotz bekhatuari, bizi nadin penitenzian eta zure amodioan.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

XIII^en^ Estazionea

Jausten dute Jesus kurutzetik, eta emaiten bere Amaren eskuetan.

Kontsidera zazu Ama samur haren dolorea bere Semea hila ikhustean. Bere besoetan hartzen du depot sakratu hori, begira dagoko begitharte desegin eta odolstatu horri; begi iraungi, esku eta oin zilhatu hekieri. Jainkoak baizen ez

dezake kompreni ikhusgarri hori zer martirio zen harentzat.

O Maria! ni naiz zure bihotzminaren kausa; ene bekhatuek zilhatu dute zure bihotza Jesus kurutzean emaitearekin : bainen orhoit zaite, o Maria! ene Ama eta ene bitartekoa zarela Jainkoaren aintzinean; damurik minena dut izanarazi daitzudan doloreez : arnegatzen dut bekhatuari, hitz dautzut zure berthuteri jarraikiko naizela; zu baithan dut ene fidantzia : lagun nezazu, othoi, orai eta ene heriotzean.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

XIV^en^ Estazionea

Jesus emaiten dute hobian

Kontsidera zazu Jesusen gorphutza hobi hortan, eta orhoit zaite zurea orobat hil daitekela laster, eta zure arima joanen dela Jainkoaren aintzinerat bere sekulako zorion edo zorigaitzeko arrastaren aditzerat.

O ene Salbatzaile Dibinoa! heriotze on bat niri irabazteko, eta hartarat preparatzen irakhasteko hil zarenaz geroz, ez dezazula, othoi, permeti zure graziak alfer izan diten enetzat; ehortzkitzu hobi hor-

tan ene gaichtakeria guziak eta ni baithan den kreaturen ganako jaidura guzia : ene bizia penitentzian eramanik eta berthutean fermu izanik, merezi dezadan bethiko zure loriaz gozatzea.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria, etc.

—

Solanelki egiten denean kurutzearen bidea, edo Estazioneak, Sakramendu Sainduaren aintzinean kantatzen da :

O Crux, ave, spes unica !
Mundi salus et gloria !
Piis adauge gratiam
Reisque dele crimina.

Eta gero aphezak irakurtzen du othoitza *O Jesus,* etc.

Estazionera joaite guzietan kantatzen da zeremonia huni dagokon kantika phertsu bat, eta :

Sancta Mater, istud agas ;
Crucifixi fige plagas,
Cordi meo validè.

Estazione bakhotcharen hastean kantatzen du aphezak :

℣. Adoramus te, Christe, et benedicimus tibi ;

℟. Quia per sanctam Crucem tuam redemisti mundum.

Gero belhaunikaturik erraten ditu *Othoitzak*. Ondoan kantatzen du :

℣. Miserere nostri, Domine.

℟. Miserere nostri.

℣. Fidelium ãñimæ, per misericordiam Dei, requiescant in pace.

℟. Amen.

Estazioneen ondoan bihurtzen da kantatzen direlarik zombait kantika phertsu, eta santuarioan kantatzen dire segidako phertsuak :

℣. Adoramus te, Christe, et benedicimus tibi.

℟. Quia per sanctam Crucem tuam redemisti mundum.

℣. Ora pro nobis, Virgo dolorosissima;

℟. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

℣. Signasti, Domine, tuum servum N...

℟. Signis redemptionis nostræ.

℣. Oremus pro Pontifice nostro N.....

℣. Dominus conservet eum et vivificet eum, et beatum faciat eum in terrâ, et non tradat eum in animam inimicorum ejus.

℣. Oremus pro fidelibus defunctis ;

℟. Requiem æternam dona eis, Domine, et lux perpetua luceat eis.

OREMUS

Respice, quæsumus, Domine, super hanc familiam tuam pro qua Dominus noster Jesus Christus non dubitavit manibus tradi nocentium et Crucis subire tormentum.

Domine Jesu Christe, Fili Dei vivi, qui hora sexta, pro Redemptione mundi, Crucis patibulum ascendisti, et sanguinem tuum pretiosum, in remissionem peccatorum nostrorum fudisti, te humiliter deprecamur, ut post obitum nostrum, januam paradisi nos gaudentes introire concedas.

Interveniat pro nobis, quæsumus, Domine Jesu-Christe nunc et in hora mortis nostræ, apud tuam clementiam, beata Virgo Maria mater tua, cujus sacratissimam animam in hora tuæ passionis doloris gladius pertransivit.

Domine Jesu-Christe, qui refrigescente mundo, ad inflammandum corda nostra tui amoris igne in carne beatissimi Francisci passionis tuæ sacra stigmata renovasti, concede, propitius, ut, ejus meritis

et precibus crucem jugiter feramus, et dignos fructus penitentiæ faciamus.

Omnipotens sempiterne Deus, miserere famulo tuo Pontifici nostro N...., et dirige eum secundum tuam clementiam in vitam salutis æternæ, ut, te donante, tibi placita cupiat, et tota virtute perficiat.

Deus, veniæ largitor et humanæ salutis amator, quæsumus clementiam tuam ut nostræ congregationis fratres, propinquos et benefactores; qui ex hoc sæculo transierunt, beata Maria semper Virgine intercedente, cum omnibus Sanctis tuis, ad perpetuæ beatitudinis consortium pervenire concedas. Per Christum Dominum nostrum, etc.

Aphezak kantatzen du hirur aldiz : Parce, Domine, parce populo tuo.

Populuak ihardesten du orobat : Ne in æternum irascaris nobis.

Kantariek : Pie Jesu Domine, dona eis requiem.

Populuak : Sempiternam.

Lehen kantariak : Jube, Domne, benedicere.

Aphezak : Benedicat nos Dominus Noster Jesus-Christus, qui pro nobis flagellatus est, crucem portavit et fuit crucifixus. ℟. Amen.

OTHOITZAK

Jesus kurutzefikatuari San Iñaziok egin othoitza

Jesu-Kristoren arima, saindu nezazu.
Jesu-Kristoren gorphutza, salba nezazu.
Jesu-Kristoren odola, sasia nezazu.
Jesu-Kristoren saihetsetik athera ura, garbi nezazu.
Jesu-Kristoren Pasionea, hazkar nezazu.
O Jesus ona, entzun nezazu,
Zure zaurietan gorde nezazu,
Ez nezazula utz zu ganik urruntzera,
Etsai gaichtotik begira nezazu,
Ene heriotzeko orduan deith nezazu,
Zure ganat ethor nadin mana nezazu.
Zure sainduekin gorets zaitzadan.
Mendeen mendetan. Halabiz.

Jesusen zauri sakratueri aldareko sakramendu sainduan

1. Adoratzen zaitut ahuspez, o ene Jesus, aldareko Sakramendu sainduan; ai-

thortzen dut egiazki Jainko zarela eta egiazki gizon : adorazionezko akta hau eskeintzen darotzut on har dezazun hainbertze giristinoen hotztasunaren ordain. Helas! ez zaituzte choilki salutatzen zure templo sainduen ondoan pasatzen direnean ere ; ez eta zure Tabernakle sainduan ere, han zaudelarik ordu guzietan, hainbertze ontasunekin, eta nahikunde bero batekin zure giristino leyalekin bat egiteko. Bere ez-acholatasunean, zure aintzinean agertzen dire, Judutarrak eremuan bezala, nardaduraz betheak zeruko mana horrentzat. Eskeintzen derautzut zure zango ezkerreko zauritik ichuri duzun odol preziatua ; eskeintzen darotzut amanda ohoragarri bezala, zuri barkhamendu galdegiteko epheltasun hoin nardagarriaz; eta kukuturik zauri sakratu hartan, diot mila eta mila aldiz :

Goretsia eta onhetsia dadila muga oroz aldareko Sakramendu saindu-saindua eta Jainkozkoa.

Pater noster... Ave Maria... Gloria Patri...

II. Adoratzen zaitut aphaltasun handirekin, o ene Jesus, aithortzen dut egiazki

hor zarela aldareko Sakramendu saindu-sainduan; adorazionezko akta huntan nahi dautzut barkhamendu galdegin hainbertze giristinoen eskergabetasunarentzat. Helas! ikhusten zaituzte joaiten eri gaichoetarat, izaitekotzat hekien laguntza eternitateko bidaya handian; eta uzten zaituzte bakharrik joaitera. Doidoya emaiten badautzute adorazione kampotikako seinaletto zombait! Holako hotztasunaren amanda ohoragarritzat eta barkhamenduaren galdegiteko, eskeintzen darotzut zure oin eskuineko zauritik ichuri duzun odol preziatua; eta han gorderik, erraiten dautzut mila eta mila aldiz :

Goretsia... Pater, Ave, Gloria...

III. Adoratzen zaitut ahuspez jarririk, o ene Jesus, egiazko bizitze eternaleko ogia; adorazione huntan nahi zaintuzket aski ohoratu zuri ahantz-arazteko zure bihotza egun oroz zaurtzen duten gaichtakeriak. Helas! kampo lekhutan bezala daude hainitzak gure eliza sainduetan, eta haukietan halere zaudelarik Sakramendu-Sainduaren itchuren azpian, izaitekotzat adoratua eta maitatua giristino fidelez. Amanda ohoragarri bezala, eskeintzen

darotzut esku ezkerreko zauritik ichuri duzun odol preziatua; eta estalia zauri sakratu hartan, erraiten derautzut muga oroz :

Goretsia... Pater, Ave, Gloria...

IV. Aphaldurik zure aintzinean, adoratzen zaitut, o ene Jesus, egiazko ogia zerutik jautsia. Adorazionezko akta huntan, nahi ditut ahalaz garbitu zure giristino fidelek egiten dituzten itsuskeriak. Badohazi, helas ! debozionerik gabe Meza saindurat : eta halarik ere meza hartan berean. amodio neurri-gabeko batez, berritzen duzu, odola berriz ez ichuria-gatik ere, Kalbarioko mendian lehenago, gure salbatzeko, eskeini duzun sakrifizio bera. Amanda ohoragarritzat hainbertze beltztasunentzat, eskeintzen derautzut zure esku eskuineko zauritik ichuri duzun odola; eta zauri sakratu hartan gordea juntatzen dut ene boza Aingeruen bozarekin, heyekin eginez khoro bat bezala zure handiesteko; erraiten dut heyekin batean.

Goretsia... Pater, Ave, Gloria...

V. Ahuspez emanik, adoratzen zaitut, o ene Jesus, egiaz barkhamenduzko sakrifizioa gure bekhatuentzat; eskeintzen de-

rautzut adorazionezko akta hau bihotz esker gabezko giristinoek zure kontra egiten dituzten sakrileyo eta laidoentzat, zu ganat hurbiltzera ausartatzen direnean, Komunione sainduan, bekhatu mortalaz kontzienzia zikhindua dutelarik. Amanda ohoragarritan sakrileyio hoin harrigarriendako, eskeintzen darozkitzut zure sahetseko zauritik ichuri ditutzun zure odol sakratuaren azken chortak; eta zauri hartan kukuturik, adoratzen zaitut, goresten eta maithatzen, diodalarik, Aldareko Sakramendu sainduari emanak diren arima debot guziekin :

Goretsia... Pater... Ave... Gloria... Tantum ergo, ℣. Panem de cœlo, or. *Deus qui nobis.*

Komunione saindua eginik othoitz hau egiten duenak khurutzefika baten aintzinean, eta betan othoitz manatuak Elizarentzat, irabaz dezake aldi oroz barkhamen osoa.

Huna non naizen, o Jesus ona eta guziz amultsua! zure aintzinean ahuspezemana : othoizten zaitut ene ahal guziaz, ene arimako khar guziaz, ene bihotzean iskiriba

ditzatzun fedezko, esperantzazko eta karitatezko sentimendurik bizienak, ene bekhatu eta hoben guzien egiazko urrikia, eta hetan ez gehiago erortzeko nahikunderik hazkarrena : izpirituz behatzen eta gogoan erabiltzen ditudalarik, ene bihotzeko amodio bizi eta damu handirekin, zure bortz zauri sakratuak; begien aintzinean ditudala, o Jesus ona, Dabid profetak ordudanik zutaz zioena : « Zilhatu dituzte ene eskuak eta ene oinak; khondatu dituzte ene hezur guziak. »

Erran ditazke hemen bortz aldiz Pater noster *eta* Ave Maria *Elizarentzat.*

Jesus kurutzefikatuaren bortz zauri sakratueri

Nere Ama doloretakoa! zure Semeak nigatik hartu zituen bortz zauri adoragarriak, zure aintzinean nahi ditut adoratu; eta horiek adoratzean, zu argitzen eta berotzen zintuzten izpiritua eta amodioa, bethi phorogatu nahi nituzke.

EZKERREKO OINEKO ZAURIARI. O nere Jesusen zauri dibinoa! Bihotz guziaz ado-

ratzen zaitut : eta horren gatik eskatzen dautzut, Jauna, ene urhats eta ibiltze gaichtoekin egin daizkitzudan damu guzien barkhamendua.

Pater noster, Ave Maria, Gloria Patri.

ESKUINEKO OINEKO ZAURIARI. O nere Jesusen zauri dibinoa! Bihotz guziaz adoratzen zaitut : eta horren gatik eskatzen dautzut, Jauna, ene hitz eta obra gaichtoekin egin daitzkitzudan damu guzien barkhamendua.

Pater noster, Ave Maria, Gloria Patri.

EZKERREKO ESKUKO ZAURIARI. O nere Jesusen zauri dibinoa! Bihotz guziaz adoratzen zaitut : eta horren gatik eskatzen dautzut, Jauna, ene begiez eta bertze sentsuez egin daizkitzudan damu guzien barkhamendua.

Pater noster, Ave Maria, Gloria Patri.

ESKUINEKO ESKUKO ZAURIARI. O ene Jesusen zauri dibinoa! Bihotz guziaz adoratzen zaitut : eta horren gatik eskatzen dautzut, Jauna, ene memorioaz, adimenduaz eta borondateaz egin daizkitzudan damu guzien barkhamendua.

Pater noster, Ave Maria, Gloria Patri.

BIHOTZ SAKRATUKO ZAURIARI. O nere Jesusen zauri dibinoa! Bihotz guziaz adoratzen zaitut : eta horren gatik eskatzen dautzut, Jauna, zure bihotza lantza gogorraz zilhatu zuten bezala, eta zure Ama saindua ezpata zorrotzaz, hala nere arima zure amodioaz bethiko̧tz bethe dezazula : bada, hil nahiago dut zu damustatu baino. Amen.

Pater noster, Ave Maria, Gloria Patri.

BORTZ ZAURI SAKRATUERI

San Frantses Zabierekoaren othoitza

Nere bihotzeko Jaun eta Jainkoa, Jesu-Kristo, bortz zauri khurutzean eta bertze ezin khondatu ahalak zure Pasionean gure amodioak har-arazi zaizkitzunen gatik, eskatzen dautzut, zure Odol sakratuaz erosi gaituzunak, othoi zure onthasunaz begira eta zure loriarat eraman gaitzazun. Amen.

Ni *N*... ezagutzaz bethea, eta nahiz chuchendu ene sinhets-gaitz eta gaichtakeria guziak, emaiten darotzut ene bihotza; konsekratzen nitzauzu oso-osoa zuri, o ene

Jesus maitagarria; eta zure laguntzarekin ez dut gehiago bekhaturik egin gogo.

Jesus kurutzefikatuari, agonian direnentzat

O Jesus guziz amultsua, arimen maitatzailea, othoi zure Bihotz saindu-sainduaren agoniaz, eta zure Ama guziz garbiaren oinhazeak gatik, garbi zatzu zure odolean orai hil-antsietan diren mundu guziko bekhatorosak, eta egun hilen direnak. Halabiz.

Jesusen Bihotza, hil-hersturak hartua, urrikal zakizkitzun hiltzera dohazenak.

JESU-KRISTO GURE JAUNAREN

BEGITHARTE SAINDUAREN LETHANIAK

Jauna, urrikal zakizkigu.
Jesu-Kristo, urrikal zakizkigu.
Jauna, urrikal zakizkigu.
Jesu-Kristo, adi gaitzatzu.
Jesu-Kristo, entzun gaitzatzu.
O Begitharte adoragarria, Mariak eta

Josepek lehen aldikotz ikusi zintuztenean, errespetu handienarekin adoratu zintuztena, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, Bethelemeko heyan, Aingeruak, Artzainak eta Magoak loriatu zintuena, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, Temploan Simeon zahar-sainduari, eta Ana profetesari zure amodioz bihotza zaurthu ziniotena, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, haurrean nigarrez mainhatua izan zarena, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, hamabi urthetan templorat agertu zinenean, legearen irakasleak espantitu zintuena, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, garbitasunez churi eta karitatez gorrituazarena, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, iguzkia baino ederragoa, ilhargia baino eztiagoa, izarrak baino distirantagoa, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, primaderako arrosak baino freskoagoa, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, urhe, zilhar,

diamant guziak baino preziatuagoa, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, edertasun eta maitagarritasunez hain bihotz-gozagarri zarena, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, itchuraz eta egitez osoki handi eta noblea, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, Aingeruentzat berentzat ikhusgarri loriagarria, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, sainduen gozagarria, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, Izpiritu Sainduaren egintzeder nausia, Aita Eternalak hain bihotz gozotasunekin behatzen dautzuna, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, Mariaren eta Josepen atsegin gaindizkakoa, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, Jainkozko perfetzione guzien mirail ezin erranezkoa, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, edertasun bethi zahar eta bethi berria, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, Jainkoaren hasarrea eztiarazten duzuna, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, debruak ikharatzen ditutzuna, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, graziazko eta benedizionezko tresora, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, desertuan aire eta dembora gaitz guzieri pharatua egon zinena, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, bidean zinabilalarik, hainbertze aldi izertua eta iguzkiak errea, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, Jainkotasuna hain ongi zutan ageri zinuena, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, zure modestiak eta eztitasunak justuak eta bekhatorosak zure ganatzen zarozkitzutena, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, haur ttikieri, benedikatzen zintuelarik hain musu saindua ematen ziniotena, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, Lazaroren hobiaren aitzinean, bihotz-inharrosmendutan, eta nigarrez egon zinena, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, Thaborreko mendian, iguzkia bezain distiranta, eta zure loriaz hain dirdiragarri agertu zinena, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, Jerusalemeri tristerik eta nigarrez behatzen ziniona, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria. Olibetako baratzean, gure bekhatuen ahalkean, lurreraino aphaldua egon zinena, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, odolezko izerdi batez estalia, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, Judas traidoreak musu eman zerautzuna, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, zure saindutasunaz eta mayestateaz soldadoak harriturik lurrerat erorrarazi zintuena, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, sehi tzar batek joa, ahalkezko oihal batez estalia, eta eskurik zikhinenez sakrileyoki zaflakatua, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, hainbertze thuz eta beharrondokoz desegina, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, zure behatze bakhar batez Jondoni Petriren bihotza urrikiz eta amodioz zaurthu zinuena, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, Jerusalemeko

tribunaletan guretzat umiliatua, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, Pilatusek kondenatu zintuenean hain ezti egon zinena, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, izerdiz eta odolez estalia, Kurutze dorphearen azpian lohirat eroria, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, gure errespetu, goreste eta adorazione guziak zor zaizkitzuna, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, Kalbarioko bidean, emazte debot batek, oihal batez chukhatu zintuena, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, ahalkezko habe baten gainerat altchatua, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, arantzez khoroatua, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, begiak odolezko nigarrez betherik izan ditutzuna, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, kheldarrez eta binagrez ahoa mindu zarotzutena, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, ileak eta bizarra burregoek errotik atheratu zauzkitzutena, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, legentsu bat iduri bilhakatua, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, munduko bekhatuen lanho izigarriak, zure edertasun paregabea goilbeldu zautzuna, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, herioaren itzal beltzaz ilhundua, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, Mariak eta emakume sainduek, garbitu, usainonztatu, eta hil oihalaz estali zituztena, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, hobian ehortzia, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, phitzteko egunean hain lorios, distirant eta eder zinena, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, zerurat igaitean, hala argitzen eta dirdiratzen zinuena, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, Aldareko Sakramendu Sainduan gorderik zaudena, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, munduaren akhabantzan bothere eta mayestaterik handienean zerutik jausten ikhusiko zaituguna, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, bekhatoreak

ikharetan ezarriko ditutzuna, urrikal zakizkigu.

O Begitharte adoragarria, eternitatean justuak bozkarioz betheko ditutzuna, urrikal zakizkigu.

Jainkoaren Bildotsa, munduko bekhatuak khentzen ditutzuna, barkha diezaguzu Jauna.

Jainkoaren Bildotsa, munduko bekhatuak khentzen dituzuna, entzun gaitzatzu, Jauna.

Jainkoaren Bildotsa, munduko bekhatuak khentzen dituzuna, urrikal zakizkigu, Jauna.

Othoitza

Agur darotzut, eta adorazione eta amodio, o Jesus ene Salbatzailea, blasfematzaileek berriz ere laidostatzen zaituztena. Maria dibinoaren bihotzean ofreitzen darozkitzut, isentsu usain on bat bezala Aingeru eta Saindu guzien goresteak, ahuspez othoizten zaitudalarik, zure Begitharte Sainduaren berthutez ene baithan eta gizon guzien baithan berregin eta finka dezazun, bekhatuak deseginikako zure iduri sakratua. Halabiz.

Bertze othoitz bat

Agur darotzut, eta adoratzen zaitut, eta maite zaitut, ô Jesusen Begitharte adoragarria, zu nere guziz maitea, zu, Jainkotasunaren zigilu ohorezkoa. Osoki zuri nagozu, ene arimaren ahal guziz, eta umilki othoizten zaitut, gu baithan imprima detzatzun zure egitearen iduri guziak. Halabiz.

Aita Saindu Pio IXgarrenak, 1853ko urtharrilaren 27ko iskribu batez, emanak badire ehun egunen indulientziak, Purgatorioko arimeri eratckik eta baliaraz ditezkenak, letania eta othoitz hauk errairen diren aldi bakhotcheko, emendatzen delarik berset bakhotcha, Gloria Patri *batez eta bertzalde* Pater, Ave, Gloria, *erraten direlarik akhabantzan.*

ASKO BARKHAMEN EDO INDULIENTZIEN

irabazteko othoitz labur batzu

Laudorioak eta eskerrak bethi eta bethi Sakramendu guziz saindu eta Jainkozkoari.

(*Ehun egunen indulientzia,* Pio VI, *Mayatzaren* 24an 1776.)

Aita bethierekoa, ofritzen dautzut Jesu-Kristoren odol guziz preziatua, ene bekhatuen erreparazionetan eta Elizaren beharrentzat.

(*Ehun egun. ind.* Pio VII, *Martch.* 29an 1817.)

Jesus bihotzez ezti eta umila, egizu ene bihotza zurea bezalakoa.

(*300 egun. ind.* Pio IX, *Urthar.* 25an 1868.)

O ene Jesus, miserikordia !

(*Ehun egun. ind. aldi bakhotch.* Pio IX, *Buruil.* 23an 1848.)

Jesusen bihotz eztia, izan zaite ene amodioa.

(*300 egun. ind.* Pio IX, *Maiatz.* 13an 1875.)

Orotan bedi maitatua Jesusen bihotz sakratua.

(*Ehun egun. ind. aldi bakhotch.* Pio IX, *Buruil.* 20an 1860.)

Jesus, Maria, Josepe, emaiten dautzuet ene bihotza, ene adimendua eta ene bizia.

Jesus, Maria, Josepe, lagun nezazue ene azken agonian.

Jesus, Maria, Josepe, hil nadila eztiki zuen kompainia sainduan.

(*300 egun. ind.* Pio VII, *Aphir.* 28an 1807.)

Bihotz sakratuaren Andredena Maria, othoitz egizu guretzat.

(*Ehun egun.* Pio IX, *Ekhain.* 26an 1867.)

Benedikatua izan bedi Birjina Maria Jainkoaren Ama dohatsuaren Konzebizione saindu eta notha gabea.

300 egun ind. Leon XIII, *Buruil.* 10an 1878.)

Mariaren bihotz eztia, izan zaite ene salbamendua.

(*300 egun. ind. aldi bakotch.* Pio IX, *Buruil.* 10an 1878.)

Ene Jainkoa, sinhesten dut zu baithan zeren egia bera baitzare.

Ene Jainkoa, esperantza dut zu baithan, zeren guziz ona baitzare.

Ene Jainkoa, maite zaitut, zeren bait-

zare osoki maitagarria, eta maite dut ene laguna neure burua bezala zure amoreagatik.

(*Zazpi urthe eta zazpi berrogoyeko, Benedit XIV, Urtharr.* 18an 1796.)

Jainkoaren borondatea osoki zuzena, guzien gainekoa eta osoki maitagarria izan bedi egina, laudatua eta goretsia bethi eta bethi gauza guzietan.

(*Ehun egun. ind. egunian behin,* Pio VII, *Maiatz.* 19an 1818.)

Saindua, saindua, saindua da armadetako Jainkoa, lur guzia bethea da zure loriaz. Loria Aitari, loria Semeari, loria Izpiritu-Sainduari.

(*Ehun egun. ind. egun. behin: 300 egun. igandetan eta Trinitateko zortzi egunetan, Klément XIV, Ekhain.* 26an 1770.)

Jainkoaren Aingerua, nere begirazailea, zuri bainau gomendatu Jainkoaren ontasunak, argi, gida eta goberna nezazu. Hala-biz.

(*Ehun egun. ind.* Pio VI, *Urriaren* 3an 1765.)

O ene Jesus, ez zaitela izan ene jujea bainan ene Salbatzailea.

(50 egun. ind. Pio IX, *Agorril.* 11an 1851.)

Jesus eta Jainkoa, maite zaitut guzien gainetik.

(50 egun. ind. Pio IX, *Maiatz.* 7an 1854.)

Orotan eta bethi, ezagutuak, laudatuak, benedikatuak, maitatuak, zerbitzatuak eta lorifikatuak izan ditela Jesusen bihotz guziz saindua eta Mariaren bihotz nota gabea. Hala-biz.

(60 egun. ind. Pio VII, *Agorril.* 18an 1807.)

Benedikatua izan bedi Jainkoa.

Benedikatua izan bedi haren izen saindua.

Benedikatua izan bedi Jesu-Kristo, egiazko Jainko eta egiazko Gizona.

Benedikatua izan bedi Jesusen izena.

Benedikatua izan bedi Jesus aldareko sakramendu guziz sainduan.

Benedikatua izan bedi Jainkoaren Ama pare gabea, Birjina Maria guziz saindua.

Benedikatua izan bedi haren konzebizione saindu eta nota gabea.

Benedikatua izan bedi ama Birjina Mariaren izena.

Benedikatua izan bedi Jainkoa bere aingeru eta sainduetan.

(Urthe baten ind. aldi bakh. Pio VII, *Uztail.* 23an 1801.)

Birjina nota gabea, Maria, Jainkoaren ama eta gure ama, Jesusi othoitz egiozu guretzat.

(300 egun. ind. Pio IX, *Urtaril.* 22an 1860.)

AMA BIRJINARI eta SANTA ANARI

OTHOITZA

Agur graziaz bethea, Jauna da zurekin, zure grazia izan bedi nerekin, benedikatua zare emazte guzien artean, eta benedikatua izan bedi santa Ana zure ama, zoinaren ganik bekhatu eta nota gabe sorthua baitzare zu, o Birjina Maria, zuk diozu eman sortzea Jesus-Kristo, Jainko biziaren Semeari. Halabiz.

(Ehun egun. ind. aldi bakh. Pio VII, *Betharr.* 10an 1815.)

KANTIKAK

KANTIKAK KURUTZEAREN

OHORETAN (*)

ALEGRANTZIETAN

Allegretto.



(*) Kantika hauk kantatuak izan dira Hazparneko Kalbarioa benedikatua izan den egunean.





- - 2ᵉⁿ Bersua

Kurutzeak du mundua libratu
Satanen gathibotasunetik ;
Kurutzeak gaitu oro salbatu
Iferruko su lamen erditik.

3ᵉⁿ Bersua.

Kurutzearen etsaia mundua
Da dembora orotan izatu,
Jesusez hortik madarikatua
Izaitea hark du merezitu.

4ᵉⁿ Bersua

Kurutzea maithatzen ez duenak
Ez du egiazko berthutea ;
Bere gorphutza guriki daukanak
Nekez duke barneko bakea.

5ᵉⁿ Bersua

Zeruko saindu guziek bezala,
Dugun beraz maitha Kurutzea ;
Ez da salbamendurik baizik hala :
Hori da segur gure zorthea.

6ᵉⁿ Bersua

Eman dadila penitentziari
Bat bedera bere estatuan ;
Gogotik ditzala Yainko Yaunari
Bere penak ofrei lurrean.

7ᵉⁿ Bersua

Zeruko hautatuen seinalea,
Bethi danik, ongi orhoit gaiten,
Dela Kurutzearen ekhartzea :
Jesusek hori du erakasten.

8ᵉⁿ Bersua

Kurutzeak santifikatu gaitu
Mundu huntara yin gineneko ;
Bai, Kristauak harrek markatzen ditu
Gai eta on direnak zeruko.

9ᵉⁿ Bersua

Kalbario mendi saindu huntara
Guziek dugu igan nahiko.
Bai, indulgentzien irabaztera
Guziak gare lehiatuko.

10ᵉⁿ Bersua

Kristau onak, antsia handirekin,
Begiratuz Yaunaren legea,
Kharsuki eta maiz dezagun egin
Orok Kurutzearen bidea.

JESUS ONAREN BIHOTZ

—



Jesu-Kristoren odolak zaitu
Kalbarioan gorritu :
Deusek geroztik munduan ez du
Zuk bezembat dirdiratu. *bis.*

Oi Kurutzea! oi Kurutzea!
Kurutze saindu maitea. *bis.*

Bertzorduz hemen exai gaichtoa
Zutaz izan zen ehoa.
Zure indarra da Jainkozkoa,
Deusek ezin hauxizkoa. *bis.*

Oi Kurutzea! oi Kurutzea!
Kurutze saindu maitea! *bis.*

Exaiarekin bethi guduan
Hemen gabiltza munduan :
Pharátzen bazaizkigu buruan,
Oi gu nork bentzu orduan! *bis.*

Oi Kurutzea! oi Kurutzea!
Kurutze saindu maitea! *bis.*

Jesu-Kristori zurekin baizen
Ez da nihor jarraikitzen.
Zure bidetik da bethi chuchen
Kristaua zerurat heltzen. *bis.*

Oi Kurutzea! oi Kurutzea!
Kurutze saindu maitea!
Oi Kurutzea! oi Kurutzea!
Kurutze saindu maitea.

JESUS KURUTZERA

—

Andante.



O Jesus Kurutzera ni ga-tik i-gan-za-re-



na! E-ne gazti - gat-zera maiz behartzen

zai-tu-da-na! O-rai zure aldera bi-

Er.



hurtzen naiz Jain-ko o-na! ah! orhoit zaite

odola e - netzat e-man du - zu-la!

BIGARREN AIREA



O Jesus Kuru-tze - ra ni ga - tik igan



zare - na! E-ne gazti-gatze - ra maiz



Zure amodioak
Ez banau, Yauna, salbatzen,
Ene bihotz gaichtoak
Sutara nau kondenatzen :
Zure yuiamenduak
Borthitzki nau ikharatzen.
Ah ! orhoit zaite odola
Enetzat, etc.

Behar nuen bizia
Eman Kreatzaileari ;
Eman diot guzia
Gaichtoki kreaturari.
Ixumendu handia !
Ifernua dut merezi.
Ah ! orhoit zaite odola
Enetzat, etc.

Deithu nauzu eztiki
Zure grazia sainduaz ;
Egotu naiz lazoki,
Enganatua munduaz,
Orai, dolu dut finki
Ene zoramenduaz.
Ah ! orhoit zaite odola
Enetzãt, etc.

Sobera tut maithatu
Munduko erhokeriak ;
Berant tut ezagutu
Haren traidorekeriak.
Nahi naiz konbertitu.
Indatzu zure graziak.
Ah ! orhoit zaite odola
Enetzat, etc.

Hambat duzu pairatu
Ene gatik kurutzean !
Nola tuzket maithatu
Axeginak mundu pean.
Nahi naiz kambiatu ;
Urriki dut bihotzean.
Ah ! orhoit zaite odola
Enetzat eman duzula.

KURUTZEAREN BIDEA

—

Andantino.



Ku-rut - ze-aren bi-de - a Dugun e-gin,



Kristau maiteak. Salbamenduko bide - a I-

Ei.



de - ki dauku Kurut - zeak. Kurutze - a be-



raz be - thi deza-gun lauda gora - ki Kurut-



ze - a beraz bethi. Deza-gun lauda gora - ki.

Beitz' izan laudorioak
Bethi Kurutzeak gu ganik.
Baikaitu Yainko-Semeak
Erosi, guretzat han hilik.
Kurutzea beraz...

Aldare haren gainean
Ofreitu da gure biktima
Bai, Yesusen odolean
Han garbitu gure arima.
Kurutzea beraz...

Kurutzeari itzatua
Yesus maiteak gure gatik
Garhaitu du ifernua,
Bizia emanik gogotik.
Kurutzea beraz...

Arbola baten fruituaz
Helas ! guziak ginen galdu.
Hunek ekharri daukunaz
Oro, nor bagare, salbatu.
Kurutzea beraz...

Zeruko zuzen guziak
Galduak ginituen, helas !
Harako bide guziak
Ideki zaizku Kurutzeaz.
Kurutzea beraz...

Ilhumberik lodienak
Orotarik gintuen hartu ;
Iguskirik ederrenak
Oro gurutzetik argitu.
Kurutzea beraz...

Khelderra bezala belztu
Ginituen gu bekhatuak ;
Bainan osoki churitu
Kurutzean ichuri odolak.
Kurutzea beraz...

Zor ezin pagatuzkoa,
Yainkoari ginioena
Kurutzean pagatua
Izan da zutaz, Yesus ona.
Kurutzea beraz...

Zor hura ezin pagatuz,
Behar nintzen erre ondikoïz ;
Yesusek han satisfatuz,
Egin nau dohaxu bethikotz.
Kurutzea beraz...

Kurutze salbagarria !
Nere esperantza da zutan,
Zutaz bai naiz erosia
Izan zerukotz mundu huntan.
Kurutzea beraz...

Oi Yesusen Bihotz kharxu,
Kuretzat dena idekia,
Kurutzean guziz dugu
Ikhusten, oi ! zure gaindia.
Kurutzea beraz...

Zer daiteke beraz, Yauna,
Ah! zuk odolstatu ondoan,
Kurutzea bad' emana
Gure gogotarik kampoan!
Kurutzea beraz...

Kurutzea laudatzean,
Ez gare mintzo haren zuraz;
Bainan Jesusek habean
Zuen amodio seguraz.
Kurutzea beraz...

O bandera sakratua,
Zu zaituguno aitzinean,
Non baiditake gudua,
Bethi gaitezke bitorian.
Kurutzea beraz bethi
Dezagun lauda goraki.

STABAT (*)

—

Jesus ona kurutzean
Itzaturik ikhustean
Ama zagon nigarrez.

Oinhazerik gaitzenean,
Lantzaz joa bihotzean,
Ethendu zen auhenez.

Zembat ahal zen samina
Ama saindu haren mina
Atsekabez bethea!

Han zagoen auhenetan,
Nigar eta hesturetan
Ikhustean Semea.

Hambateko oinhazean
Ama haren ikhustean,
Nork ez duke nigarrik?

Ama semei begiratuz
Nor ez egon minez doluz
Nigarretan urthurik?

Ikhusi du azotatzen,
Gure gatik estiratzen
Bere Seme eztia.

(*) *Sta'at* hau Duvoisin kapitainak itz.ka M. Haristoy aphezak eman izan dauku.

Ikhusi du hagorantzen,
Herioak akhabatzen.
Zeru lurrez utzia.

Amodio ithurria,
Emadazut min bizia
Pairatzeko zurekin

Jaiñkoaren gogokotzat,
Amodioz Jesusentzat
Egizu erre nadin.

Sar dizazut bihotzean
Jesus onak gurutzean
Hartu duen zauria.

Zure seme zaurtuaren.
Ene gatik hartu penen
Emadazut erdia.

Hil artino haren minez
Deithoratzen nigar zinez
Nagon bethi zurekin.

Nahi nuke, oh! zurekin
Habearen itzalean
Nere egoitza egin.

Birjinarik ederrena,
Onhetsazu nere pena
Zurearekin baltsan.

Jaun onaren gurutzea,
Harek jasan oinhazea
Iduk bezat gogotan.

Egidazut gurutzeaz,
Semearen pairamenaz
Hazkartzeko grazia.

Hiltzen naizen oreneko
Emadazut arimako
Jainkoaren gloria.

Juyamendu gogorretik
Ifernuko su garretik
Othoi beira nezazu.

Kristo, zure Ama onaz
Eta zure pairamenaz
Bitoria indazu.

MISIONETAKO KANTIKAK

MISIONEN ETHORZEAZ

—



2

Bozkarioetan sartu
Behar gare, Kristauak;
Zeruak zabaltzen ditu
Onthasun nasaienak. Kristau.

3

Egun hautan, salbatzeko,
Egin ahal guziak.
Bizitzez khambiatzeko
Galda orok graziak. Kristau.

4

Adi zak, bekhatorea,
Yainkoa zauk mintzatzen.
Bekhatuen dolorea
Phizteaz hau hertchatzen. Kristau.

5

Bekhatu guzietarik
Behar haiz, bai, urrundu ;
Hekietan hagolarik.
Ez bahaiz nahi galdu. Kristau.

6

Bekhatuaren uztea
Ez duk oraino aski,
Bihurtzen nori berea
Non ez dukan zuzenki. Kristau.

7

Balin baduk norbaitekin
Etsaigorik, herrarik,
Baketurik elgarrekin
Maitha zak bihozetik. Kristau.

8

Salbatu nahi bagira
Iz da bertze biderik.
Urrundu beharko gira
Urhats galkorretarik. Kristau.

9

Ai hi ! bekhatu gaichtoa
Hiretu nauk ondikotz.
Galtzaile ifernuzkoa
Habilkit sekulakotz. Kristau.

ZATO, IZPIRITUA

Kanta daitezke segidako bi kantika hauk hemen ezarriak diren bi airetan.

—



ZATO, IZPIRITUA

—

Andantino.
Errepika.



2

Bethe zatzu graziez,
Zerutik egorriez,
Gure adimenduak
Zeronek formatuak.

3

Konxolatzaile ona
Izendatzen zarena,
Dohain baliosena
Yaun zerukoarena.

4

Ithurburu bizia,
Amodio garbia,
Karitate kharxua,
Gantzukari saindua.

5

Zuk fidelen bihotzak
Berotu tutzu hotzak,
Hek argitu dohainez,
Izpirituarenez.

6

Egor azu saindua,
Othoi, Izpiritua,
Hola mundu guzia
Egin azu berria.

1

Zato, Izpiritua,
Zato gu laguntzera ;
Othoi, zato, yauxzaite
Gure bihotzetara.

2

Yauna, bethe gaitzatzu
Egun zure dohainez,
Eta gaitzatzu susta
Zure khar bizienez.

3

Konxolatzaile gozo,
Deskanxu emailea,
Zu zaitugu penetan
Gure laguntzailea.

4

Zu zare, bethidanik,
Amodioa bera,
Osoki ekharria
Gu guzien aldera.

5

O ! zembat flakezia
Diren gure barnetan
Bizi gare, ondikoz,
Bekhatuzko gathetan.

6

Egor diezaguzu
Zure argietarik
Eta gare ilkhiko
Gure ilhumbetarik.

7

Urrun zazu giganik
Gure exai gaichtoa,
Bethi gure arimen
Osoki kontrakoa.

8

Bai, Yauna, urrun zazu
Satan, exai dorphea ;
Emaguzu bakea,
Ontasun hain maitea,

9

Aitarekin Semea
Dela bethi laudatu,
Izpiritu Saindua
Biekin ohoratu.

Andante.



2

Orai arte laidostatu zaitut !
Bainan biziz khanbiatu nahi dut.
Bekhatuak hastiatzen ditut
Jauna, zutaz *(bis)* gozatu nahi baitut.

IZPIRITU AMULTSUA

—

Moderato.

Er.

Iz-pi-ri - tu amul - xu - a, gra-zi-en



ithur-bu - ru - a, za - to hel zaizki - gu,

bero sus-ta erre gaitzat -zu, za - to hel zaiz-

ki - gu, be-ro susta er-re gaitzat - zu

Solo.



Gu-re a - hal, nahi guzi - ak, Jauna, zu ga-

be zer di - re? az-kar zat - zu gu-re a - ri-



mak, azkar zatzu gure a - ri- mak, ar - gi



izpi-ri-tu-ak; ilhun-be-tan gare, ar-gi

iz-pi-ritu-ak, ilhum-be-tan ga-re. *Izpiritu.*

2en Solo.



I-fernu-ko suge amar-ru-tsuak mundu

gaichto enganatzaile-ak herresta-tzen gai-

tuzte bere ga-nat, zato, za-to, gure lagun-

tze-rat, za-to, za-to, gu-re la-guntze-



rat. *Izpiritu.*

ZATO, BEKHATOREA

Moderato.

Errepika.



2

Bekhatua ariman, lokhartzen bazare,
Menturaz ifernuan atzarriko zare.
Urtherik aski Jaunak zuri eman daitzu,
Eta denak bekhatuz zuk bethe ditutzu.

3

Misione saindu huntan ontzen ez bazare
Ifernuko su gaitzian geldituko zare.
Hau daiteke jaunaren azkeneko deia;
Eta agertzen dautzu zu salbatu nahia.

4

Athera bada, orai beretik khontuak
Ez dezan izaria bethe bekhatuak.
Misioneko demboraz baliatu gabez,
Daude ja ifernuan hanitzak nigarrez!

5

Misione saindu huntaz ez baliatzera,
Menturaz heien lagun zu izanen zera!
Ay! bekhatore itsu, lazota galdua,
Zoin den urrikaria zure estatua!

6

Ezbazira zu orai funtski kombertitzen
Laster zar' ifernuan bethiko erretzen!
Holakorik zurekin, gerthatu ez dadin,
Oraitik behar duzu kofesio ona egin.

HAU DA GURE IXUMENDUA

Andantino.



2

Lurreko kargu, ohoreak
Dire ephe gutitako ;
Hango izaite, fagoreak
Zaizkit khearen pareko.

3

Arrosa, arantze gaberik
Ez ahal da nihon sorthu ;
Ez eta munduko plazerik
Khirexik gabe gerthatu.

4

Ontasun galkor batzuentzat
Ez gaitu Yaunak kreatu ;
Sainduki bizi direnentzat
Bertzerik du aldaratu.

5

Zerûa da dohaxutasun
Yustuari agindua,
Oi ! zer zorion, zer ontasun
Izaitea salbatua !

6

Bethi libro doloretarik
Daude Zeruan yustuak :
Bethi bazter guzietarik
Loriaz inguratuak.

7

Nonbeit ongi maitagarria
Bide zare, ô Zerua !
Zu zare, saindueu herria,
Plazeren ithurburua.

8

O ! egoitza zorionezko,
Guziz gozo, berezia ;
Ala zure ganat heltzeko
Ongi baidut gutizia !

MUNDU ZORO

Andante.

Er.



Mun-du zoro, en - ganioz bet - he-a, i - du-

ki nauk ondi-kotz gathe-tan; lau - senga - ri,

en-gana kor trichte-a, a - tzeman nauk, e - ta

Solo.

zembate-tan! Lore pe - an a-ran-tzeak

gorderik sarara - zi nauk hi-re sare-tan, hi-



re baithan so - bera fida - turik orori nauk



asko bekhatu-tan, e-rori nauk asko bekha-



tu-tan.

3

Non zen bada neure adimendua,
Bizitzean plazer galkorretan ?
'khusten dut ene zoramendua,
Eta nago auhen minenetan.

4

Ixumendu ezin ahantzizkoa !
Salbatzeko izan naiz kreatu ;
Egiteko guzien gainekoa
Nola bada nik zaitut baztertu !

5

Zeru lurren, guzien Erregea
Salbatzeko behar dut bilhatu ;
Gidaritzat hartu harren leguea,
Bekhatua urrikiz borratu.

AH ! GIZONA

—





Azken fi- nak, us - te-kotz beka - tu - a,



galdu be - har ez di - tuk gogo - tik.

2

Hil behar haiz ; zer duk seguragorik ?
Hori diok zor herioari ;
Ethorriko zaik, hik ustekaberik ;
Emok hori hire buruari.

3

Izanen haiz, hil eta, yuiatua
Yainko Yaunaz ; ordean yustuki.
Zer zorigaitz, ez baduk bekhatua
Higindurik urrundu osoki !

4

Berehala yuie mendekariak
Zabalduren dik suzko lezea :
Han beharko tuk tormenta guziak
Bethi yasan, ô zorte dorphea !

5

Bere besoak derauzkik zabaltzen :
Aita bat duk, nork erran zein ona ?
Has hadi bihotzez haren maitatzen ;
Hori duk hark galdetzen duena.

GIZONA

—



2

Mundutar, plazer zoratutàn
Hondatua,
Gauza bat bedi hire baithan
Finkatua ;
Orhoit hadi hil behar dela
Azkenean ;
Bihar beretik haitekela
Lur barnean.

3

Aberaxa, hire diruak
Hauk ixutzeu,
Agintza falxoez munduak
Hau zoratzen.
Ah! has hadi enganioaz
Ahalkatzen,
Bai eta funxki herioaz
Beldur hartzen.

4

Tratulari, intres gosea,
Deusek ere
Mundu huntan ezin asea
Behinere,
Sarri phutzu bat zaik emanen
Egoitzatzat;
Bi braza lur dituk izanen
Ontasuntzat.

5

Laboraria, alferretan
Haiz nekhatzen;
Maiz herioa duk bet betan
Gu ganatzen.
Hazilhan egiteko lanak
Tuk hiretzat,
Eta fruitu heldu direnak
Premuentzat.

6

Mariñel, hambat hersturetan
Habilana,
Laster haiteke uhinetan
Atzemana ;
Ur pean edo leihorrean
Haiz galduko ;
Bizia zaik, muga denean,
Eskastuko.

7

Bat ez zaio herioari
Itzuliko ;
Zorrozki zaio bakhotchari
Yazarriko ;
Badaramatza Erregeak
Tronutarik,
Hain errechki nola pobreak
Zokhotarik.

ZER DIRE GURE EGUNAK

Moderato.



2

Hobira gare hurbiltzen, sortzen garen ordutik ;
Herioak, gure bortcha, garamatza mundutik ;
Baratzetako loreak histen diren bezala,
Hola da gure bizia sunxiten berehala.

3

Oi ! ez dugu zeren erran gazte, sendo garela,
Herioa gure ganik oraino urrun dela.
Sarri lur barnean daite bizi uste duena ;
Nork daki noiz izanen den gure azken orena ?

4

Herioak nihork ez du munduan urrikari ;
Bakhotchari nahi dio, bere mugan, yazarri ;
Chumeak eta handiak ditu bere-ganatzen,
Guziak, arte laburrez, herrauxetan ezartzen.

5

Zerentzat gintuzke beraz munduko fagoreak ?
Lazter utzi behar diren ontasun, ohoreak ?
Arbuia dezagun lurra, eta bilha zerua ; [sua.
Han du bakharrik aurkhitzen bihotzak deskan-

6

Zer zorte erdiragarri bekhatuan hiltzea !
Zer zorigaitz ! zer kalte min arimaren galtzea!
Begira gaitzatzu, Yauna, heriotze gaichtotik,
Eternitate guzian erretzen egoitetik.

7

Yainko adoragarria, Aitarik hoberena,
Entzun zazu zure Seme, gure gatik hil dena ;
Grazia eske dagotzu guretzat gurutzean :
Arren, fagora gaitzatzu gure heriotzean.

8

Ondikoz ! merezi tugu gaztigu garratzenak.
Othoi, ahantz bekizkitzu, Yauna, gure hobenak.
Hel zakizkigu, Biryina, gure behar ordutan,
Guziz, ô ! Ama maitea, hiltzeko orenetan.

ZUEN HERIOTZEAZ



2

Plazerak, ontasunak tutzue maitatzen,
Zuen gogo guzia hetan da baratzen ;
Hek utzirik bertzentzat, gutien ustean,
Aurkhituren zarete lurraren barnean.

3

Ethorri bezain sarri hiltzeko orena,
Oren sainduak berak lazten dituena,
Yuie ikharagarri, ordean yustuak
Nahiko tu punitu zuen bekhatuak.

4

Ez da zeren orduan laguntza bilhatu,
Hauzo, ahaidetarat oihuz abiatu ;
Ez du nihork izanen urrikalmendurik,
Ez zaitzue emanen konxolamendurik.

5

Exitu beharko da zeruko graziez,
Baita mundu huntako fagore guziez ;
Zuen barkhamendua, nigar marrasketan,
Galdeginen duzue, bainan alferretan.

6

Dezagun beraz maita sainduen Saindua,
Eta higuin bihotzez bethikotz mundua.
Oi ! ez bekigu ahantz hil behar garela,
Zeruko erresuma yustuentzat dela.

ADITZEN DA TROMPETA

—

Marzial.

Errepika.





2

Ihurtzuri eta chimista pean
Lehenago Yauna mintzatu zen ;
Bainan egun bere mayestatean
Handiago guziei agertzen.

3

Aspaldi lur bihurtu haragiak,
Erhauxtuak ziren hezurretan
Osaturik, istant batez guziak
Phizten dire, chutituz batean.

4

Aingeru onek ematen dituzte,
Merezitu duten arabera,
Gaichtaginak eta onak bi parte
Yesu-Kristoren bi aldetara.

5

Hobendunak ezkerreko aldetik
Ikhusten du Yuie hasarrea ;
Eta onak Yaunaren eskuinetik
Bake osoaren Beithartea.

6

Errabian, ahalkez estaliak,
Gaichtaginak marrasketan daude :
Non zarete, lurrak eta mendiak ?
Othoi, hemen sunxi gaitzatzue.

7

Ifernuak, erraiak idekirik,
Diotzote, irex baginitza !
Bainan egun Yaunaren begitarik
Ez diteke ah ! nihor geriza.

8

Orduraino gordeak egon diren
Krima beltzak eta ixusiak
Agertzen tu guzien bistan hemen,
O Yesus ! zure argi biziak.

9

Ihumbetan, bakharrik sekretuan
Egin krimak han agertzen dire ;
Bihotzean eta izpirituan
Egin izatu direnak ere.

10

Zohazkidate, ah madarikatuak !
Zohazkidate urrun ene ganik !
Sekulako surat kondenatuak,
Zohazte erretzerat orai danik.

11

Itzultzen da eskuineko alderat,
Arraiturik, Yaunaren Bisaia,
Ichurtzen du yustuen bihotzerat
Oi ! zer bozkariożko hibaia.

12

O ! zer gozo aditzean : zatozte,
Ene aitaz benedikatuak,
Har zazue ene lorian pharte :
Han dire zuen khoro, tronuak.

13

Istantean zerua da zabaltzen,
Ta yustuak, arim' eta gorphutz,
Bozkarioz gaindi dire alchatzen,
Izaiteko han bethikotz urus.

14

Oi ! egun segur bezain latzgarria !
Zein aldetan ikhusi behar nauk ?
Bekhatoros hain lastimagarria !
Ikhusgarri hortaz bai hiri zauk !

NIGAR MARRASKETAN

—



BIGARREN AIREA





tuak daude; aditzagun heien botz sarkor-



rak on-gi har ditzagun heien errenku-



rak.

2

Yaunaren kolerak
Azpian gaitu hartu;
Lurreko demborak
Gintuen emplegatu
Bide galduetan;
Orai gare hemen
Ah! zori gaitzetan
Biktima su lamen.

3

Bai hemen kharpean,
Zerurat gintezkenak,
Ah! tormenta pean,
Dohakabe garenak,
Gaude; eta hola
Menderen mendetan
Egonen garela
Yakin nigar hautan!

4

Zer ondore duten
Gure banitateek!
Zertarat gaituzten
Gure libertateek!
Axegin zikhinak
Lakhet zitzaizkigun;
Su lama saminak
Orai irextzagun.

5

Oihuz zagozkigun
Zure predikariak;
Ah! zeren ditugun
Tapatu beharriak,
Zure yustiziak,
Yauna leze huntan,
Gauzka ezarriak,
Bethiko penetan.

6

Zure kontra ginen
Mundutar lagunekin
Tropaka altchatzen,
Oi ! zer furiarekin !
Hox, mendeka zaite ;
Bai yustu da, Yauna ;
Guretzat ez daite
Hemen sobra pena.

7

Hunela galtzekotz,
Oi zuek, aita amak,
Hunat egortzekotz
Helas ! gure arimak,
Zertako han harat
Bathaio saindutik
Ez egor thombarat
Bizien artetik.

8

Hik ni galdu nauk, hik,
Mundutar bolatua
Yaunak beharko dik
Doblatu ifernua,
Hire punitzeko
Eman eskandalez,
Hiri yazartzeko
Bere ahal doblez.

9

Hox bada Kristauak,
Hemen ikhusazue ;
Egunekin gauak,
Han nahi ditutzue
Urtheak mendekin,
Deithora min hautan,
Han damnatuekín
Eraman lezetan ?

10

Zuri dauzkitzugu
Behar eskerrak eman
Zuri zor dautzugu,
Yauna, ez baikare han
Ifernukoekin
Nigar marrasketan,
Balxatuak hekin
Hekien penetan.

11

Orai hemen, Yauna,
Miserikordioski,
Ah ! gorphutz hau unha
Nahi bezain garratzki
Azurriatuak,
Munduan gareno,
Toleya gaitzatzu
Heriotzeraino.

KREATURA DAMNATUA



GALDEA.

Ez badezakek esplika
Zembat dukan pairatzen,

Sentitzen dukan bezala
Erdizkache bederen
Erraguk, erraguk;
Argitu nahi gaituk.

IHARDEXTEA.

Ene zorigaitzak ez du
Hélas ! bertze neurririk
Yainko guziz botherexu
Baten kolera baizik ;
Bethikotz dohaxu
Izan nintekelarik.

GALDEA.

Hire pena zertan datza,
Zerk darozkik zilhatzen
Arima eta gorphutza ?
Has hadi bad' agertzen
Erraguk, erraguk ;
Argitu nahi gaituk.

IHARDEXTEA.

Gorphutzak eta arimak
Ditu bethi erretzen
Su mirakuilluzkoenak,
Bainan ez konxumitzen ;
Sua dugu hemen
Yaten eta edaten.

GALDEA.

Su latzgarri horren kharrak
Zembat iraun behar du?
Element horren indarrak
Noiz behardu yabaldu?
Erraguk, erraguk;
Argitu nahi gaituk.

IHARDEXTEA.

Ez diro deusek iraungi
Behin phiztu denean;
Iraun beharko du bethi,
Bethi indar berean,
Yaunaren kolerak
Buhatzen duen suak.

GALDEA.

Zer lekhu den ifernua,
Zer dukan hor ikhusten,
Nortaz haizen lagundua,
Nork duen hor manatzen
Erraguk, erraguk;
Argitu nahi gaituk.

IHARDEXTEA.

Ifernua da leze bat,
Satanen erresuma;
Yaunak aurthiki du hunat
Gaiz guzien bilduma;
Mustro beltzik baizen
Ez da hemen ikhusten.

GALDEA.

Hire pena guzietan
Zein da latzgarriena,
Gehienik hire baithan
Erdiratzen hauena ?
Erraguk, erraguk;
Argitu nahi gaituk.

IHARDEXTEA.

Orhoitzean ene faltaz
Gabetua naizela
Bethikotz ene Yainkoaz,
Erhotu bat bezala
Dolorez, chagrinez
Yartzen naiz, haren minez.

GALDEA.

Zertako haiz hi orhoitzen
Galdu dukan Yainkoaz ?
Zergatik ez duk exitzen
Haren amodioaz ?
Erraguk, erraguk ;
Argitu nahi gaituk.

IHARDEXTEA.

Higuintzera bortchatua
Naizen Yainkoa gana
Ez dakit zerk, hertchatua,
Instant oroz narama,
Bethi bereganik
Khasatzen nauelarik.

GALDEA.

Nola dukan merezitu
Yainkoaren kolera,
Zeren gatik kondenatu
Hauen supliziora
Erraguk, erraguk ;
Argitu nahi gaituk.

IHARDEXTEA.

Dela madarikatua
Sorthu nintzen eguna,
Eta lehen bekhatua
Egin izan nuena :
Krima hark ondikoz
Galdu nau sekulakotz.

GALDEA.

Bekhatu mortal bakhar bat
Aski bada galtzeko,
Milak' egin tuztenentzat
Zer pena othe dago ?
Erraguk, erraguk ;
Argitu nahi gaituk.

IHARDEXTEA.

Gaztiguen hedadura
Gaichtoek, leze huntan,
Beren krimen arabera
Behar dituzte yasan
Fin gabeko penak,
Ez ordean bardinak.

OI! ZOIN DEN ZORTHE TRISTEA

—



2

Yaun goikoaz gaitzexia,
Haren exaia,
Yaun goikoaz gaitzexia,
Erreboltan,
Deramak hire bizia
Tristeki mundu huntan.
Tristeki mundu huntan.

3

Soseguaz gabetua,
Asaldatua,

Soseguaz gabetua
Haiz aurkhitzen ;
Gathibo bilhakatua,
Zer estatutan haizen !
Zer estatutan haizen!

4

Hire gozokerietan,
Axeginetan,
Hire gozokerietan
Bihotzerat
Heldu zaik bethi betbetan.
Zerbait asaldatzerat.
Zerbait asaldatzerat.

5

Herioaz orhoitzean,
Guti ustean,
Herioaz orhoitzean
Zer laztura
Ez da hire bihotzean,
Hobenen eredura !
Hobenen eredura.

6

Ez balitz deus beldurtzeko
Bertze munduko,
Ez balitz deus beldurtzeko :
Bainan Yaunak

Surat ditik aurthikiko
Kriman hiltzen direnak.
Kriman hiltzen direnak.

7

Phenxazak, dohakabea,
Hire ephea
Phenxazak, dohakabea,
Hurbil dela :
Luzaro bizi ustea
Egūn hil ditekela.
Egun hil ditekela.

8

Bethi gerorat utztea
Kombertitzea,
Bethi gerorat utztea
Duk ondikotz
Norbait salbatu gogoa
Galtzea sekulakotz.
Galtzea sekulakotz.

9

Ez duk ez biharamunik
Seguraturik ;
Has hadi has egun danik
Khanbiatzen,
Bekhatua kitaturik,
Barkhamendu galdatzen.
Barkhamendu galdatzen.

10

Salbatzaile amulxuak,
Hire Yainkoak,
Salbatzaile amulxuak
Hau bilhatzen;
Egun darozkik besoak
Hain maiteki hedatzen.
Hain maiteki hedatzen,

11

Haren ontasun handiaz,
Haren graziaz
Ez bahaiz egun lehiaz
Baliatzen,
Laster bere yustiziaz
Hasiko duk obratzen.
Hasiko duk obratzen.

12

Bihotz humiliatuak,
Doluz zaurthuak
Salbatzaile amulxuak
Onhextentik;
Eta heien bekhatuak
Ahanzten, barkhaturik.
Ahanzten, barkhaturik.

ITZUL HADI, ITZUL BEKHATOREA

—

Andante.



2

Bethiere, hire hux guzietan,
Egin daiat pietatez oihu ;
Ene gana deithu haut hambatetan ;
Bainan hago gogor eta mutu.
Bainan hago gogor eta mutu.

3

Zer da, errak, nik egin ezdudanik
Hi gaizkitik gibelarazteko ?
Hambat argi izan duk ene ganik :
Hauk guziak, hi zeruratzeko.
Hauk guziak, hi zeruratzeko.

4

Zeren gatik nauk bada ofentsatzen ?
Naski, guziz ona naizelakotz.
Hain gogorki zergatik nauk tratatzen ?
Ez nauk, maite, maite haudalakotz.
Ez nauk maite, maite haudalakotz.

5

Bizitze hau ez duk amets bat baizik :
Hil behar haiz eta noiz ez dakik.
Ez daroat nik agindu gerorik,
Ez asterik, ez eta orenik.
Ez asterik, ez eta orenik.

6

Izanen haiz egun batez zeruan,
Edo dukek bethiko zorthea
Tormentetan, supean, ifernuan ;
Eta ez duk gogoan hiltzea !
Eta ez duk gogoan hiltzea !

OTHE DA DEUS NESESARIO DENIK



2

Mintza zaite; Yaun ona, hemen nago
Ekharria zure entzutera :
Zure nahiak tut komplitu gogo,
Othoi, zato ene azkartzera !

3

Urrun beraz ene ganik mundua ;
Ez, ez natzaik nihoiz yarraikiko ;
Egin diat orai ene hautua.
Yainko Yauna bethi maitatzeko.

4

Ikhusten dut zerua zabaldua ;
Han behar naiz, egun batez, sarthu.
Arbuyatzen dut zinez ifernua,
Baitezpada nahi naiz salbatu.

ZURE KONTRA NAIZ ALTCHATU

—

Maestoso.



BIGARREN AIREA



Er.



atrebentzi - a? Oi! nola, oi! nola mun-



du huntan kontso-la!

HIRUGARREN AIREA

Zure kontra naiz altchatu, zeru lurren



Nausi - a; zure kontra naiz harmatu; hau da

Er.



atrebentzi - a? Oi! no-la, oi! no - la



mundu huntan kontso - la!

2

Bathaioak Jainkoari
Ninduen konxekratu!
Bainan laster exaiari
Bekhatuak libratu.
Oi! nola, etc.

3

Aldarearen oinetan
Egin tudan botuak
Ene hobenez, miletan,
Dire ostikatuak.
Oi! nola, etc.

4

Zer ez duzu, zuk, ene-
[tzat
Egin, Jesus maitea!
Noiz izanen naiz zure-
[tzat
Ezagutzaz bethea?
Oi! nola, etc.

5

Damuz, urrikizzaurtua,
Heldu naiz zure gana :
Izan bedi borratua
Bizitze iragana.
Jaun ona, Jaun ona,
Ah! ez ni abandona.

6

Ene arima gaichoaz
Izan urrikalmendu :
Ene bizitze gaichtoaz
Oi! othoi, barkhamen-
Jaun ona, etc. [du.

7

Zin zinez naiz gambia-
[tzen,
Bai, memento beretik :
Zuretzat naiz deklara-
[tzen
Bihotzaren erditik.
Jaun ona, etc.

NOLA KHAUSI DESKANSURIK





2

Hire gaztetasun ederra
Erraiten zarotan munduak,
Zoroki penetan daramak
Gozatu gabe plazeraz,
Munduak, helas! arrantzeak
Zituen arrosa pean,
Jauna! arrantzen azpian,
Zuk ditutzu eman loreak *(bis)*.

3

Mundu zoro gaichtoarentzat,
Oi dohakabea naizena!
Egin ditudanak, o Jauna!
Egin banitu zuretzat!

Bethi griñaz tormentatua
Plazer galkorren ondotik
Ibili naiz gazte danik!
Orai ongi naiz punitua! *(bis)*.

4

Berthute maithagarria!
Uztarri hain gozoa dena
Plazera berekin duena
Nork daut niri itzuliko!
Urrundu gabe krimetarik
Uste nuen ongi izan!
Ez dela ahantzirikan
Impioarentzat bakerik *(bis)*.

5

Ene krimen leze zolatik
Oi! Jauna, oihuz hari nautzu!
Ene auhenak entzun zatzu,
Ume bat urrikaldurik!
Haur esker gabe bat naizela
Aithor dautzut Aita ona!
Ahantziz ene hobena,
Orhoit zaite, aita zarela! *(bis)*.

6

Zu ezagutu mementotik
Egin dautzut laido bat beltza!
Chahutu dut ene primantza,
Zure ganik urrundurik!

Seme bezala barkhamendu
Nola galda, zuri, Aita!
Ah! zerbitzari, bezala
Othoi errezebi nezazu *(bis)*.

7

Bet-betan, hitz hauk tut aditu :
Alegera bedi zerua!
Ene haurra nuen galdua!
Huna non dudan khausitu!
Amodioaz sustaturik,
Huna, heldu Aita ona!
Lehiatzen da niganat
Bere besoak zabaldurik *(bis)*.

ALA NI BAINAIZ DOHAKABEA

—





2

Ez dut ez galdu choiki zerua,
Eta Ifernua merezitu ;
Neure Yainkoa dut galdu,
Neure salbatzaile amulxua.
Neure Jainkoa dut galdu.
Haren kontra naizenean altchatu.

3

Orai dut, orai, ezagutzen
Ene gaizkien malezia ;
O ! Jainko maitagarria,
Guziak orai tut higuintzen ;
O ! Jainko maitagarria,
Bihotzetik indazu urrikia.

4

Orai, Jauna, nork emanen daizko
Ene adimenduari indarrak,
Ene begier nigarrak,
Ene bihotzari khar asko,
Ene begier nigarrak ?
Hor litezke, hor, ene plazerak.

5

Ez zaitut berriz ofenxatuko
Sekulan, ô ! Jainko maitea ;
Miletan lehen hiltzea,
Bethi zu zaitut maitatuko ;
Miletan lehen hiltzea,
Ezenez zu berriz galtzea.

AH! MUNDU ENGANAGARRIA

Maestoso.



2

Hire lausengu ederrez,
Hire axegin galkhorrez,
Oi hau da bada lastima !
Zertara dudan arima !
Huna non dudan galdua,
Bekhatutan hondatua.

3

Nor darotzudan hautatu !
Nor dudan nausitzat hartu !
Ukho eginikan zuri,
Oi, Jauna, zer ikhusgarri !
Ene zorigaitz handitan,
Nago Satanen gathetan.

4

Hain churi nola elhurra,
Hain eder nola izarra
Nuen arima gaichoa.
Helas ! hau da gambioa !
Kheldarra baino beltzago
Bakhatuz egina nago.

5

Zeruan gehiagorik
Enetzat ez da zuzenik,
Non ez ditudan higuintzen
Hoben guziak borratzen,
Penitentzia eginez
Heiagoretan, nigarrez.

6

Alki sainduko oihuez,
Predikarien erranez
Zu ganat. Yauna, deithua,
Amulxuki hertchatua ;
Heda besoa zerutik,
Heldu natzaitzu gogotik.

7

Ni naizen bezalakorik
Nork ikhusi prodigorik ?
Hark primantza lurrekoa,
Nik primantza zerukoa
Biek ditugu chahutu ;
Ni gaichtoago izatu.

8

Haur prodigoa beharrez,
Hurbil hila zen gosetez :
Ordu onean etcherat,
Aitaren besoetarat
Itzuli baitzen suharki,
Aitak hartu hur' arraiki !

9

Nork egundaino bestarik
Ikhusi hunelakorik !
Besoz beso besarketan,
Egonikan nigarretan,
Aitak Semea aldean
Emana mahain onean.

10

Animo, bekhatoreak,
Zeruko Aita gureak,
Osoki kombertiturik,
Bekhatuak barkhaturik,
Gaitu haur maiten baltsarat
Hartuko bere alderat.

EZ DA MUNDU HUNTAN

—



2

Lore eta liliak
Nola tu iguzkiak
Goiz-aldean zabaltzen,
Arrax berean ihartzen ;
Hala da gizona
Gambiatzen,
Haren adina
Da sunxitzen :
Sorthu deneko
Han da arrasta hiltzeko.

3

Mundutar arinek,
Ez gazte libertinek
Ez darotet agintzen
Axegin gozorik baizen ;
Bainan pulumpatu
Banaiz hetan,
Ez dut aurkhitu
Guzietan,
Deus funxezkorik,
Deus, axekabez bertzerik.

4

Hil behar gizonak
Alfer tu ontasunak,
Diru nekhez bilduak,
Urrhe eta zilhar multzoak;

Balitz nihoren
Behar gabe,
Mundu beraren
Balitz yabe,
Hil eta zaio
Khutcha choil bat geldituko!

5

Gizon aiphatuak,
Handi ohoratuak,
Zuen titulu gorek,
Ez eta zuen ohorek,
Ez dute hiltzetik
Begiratzen,
Nihor hobitik
Gibelatzen;
Hari itzultzeko,
Handi sortzea ez da asko.

6

Gaur dohaxu dena,
Urhea dariona,
Inguratua pobrez,
Haren amoina beharrez.
Biharkotz daiteke
Eroria,
Baieta eske
Ethorria
Bertzen atherat,
Amoinaren galdetzerat.

7

Atzo gaichtagina
Ikhusi dut igana
Zedro berez gorago
Hurren hedoïetaraino;
Ordean iragan
Naizeneko,
Nihor ez zen han
Gehiago;
Izan zen ere
Ez zen seinale batere.

8

Zembat Alexandrek
Zembat bertze Zezarek
Bere harmen indarrez,
Bere garhaiti ederrez,
Ez dute leihorra
Mintzarazi,
Ixasoa bera
Emarazi?
Eta azkeneko
Harrak dituzte ondoko.

9

Gizon yakinxunak,
Eta eskolatuenak
Zer du bada probetchu,
Duelakotz izpiritu?

Ez badu yustuen
Sinhextea,
Eta sainduen
Berthutea,
Deusiz ez zaio
Zerukotz baliatuko.

10

Gizonen zorthea
Eta heien ephea
Jaunak bakharrik ditu
Bere eskutan gelditu :
Berak du ozpina
Phitz-arazten,
Eta gizona
Du herrauxten
Har bat bezala,
Guti gogoan duela.

11

Ez du ez pobrerik,
Ez aitoren-semerik
Herioak berechten.
Urrikariz guphidexten :
Laster da lurrera
Jauxi behar ;
Harren balxara
Gaurtik bihar
Dire guziak,
Chumeak eta handiak.

12

Ez du beraz zeren
Gazteak gorphutzaren
Ari mainaz ekhartzen,
Eta ederki aphaintzen :
Noiz ere baithoa
Ilkhitzera,
Axegin bilha
Mundu-pera,
Duke-bethea
Bere egunen ephea.

13

Gure funx-gabea,
Gure dohakabea!
Uste badugu izan
Dohaxu behere huntan :
Zeruan da batzen
Zoriona
Deusek gutitzen
Ez duena;
Jainkoa deno,
Bethi izanen dena oso.

ZEREN BILHA ZABILTZA





BIGARREN AIREA





HIRUGARREN AIREA



2

Jauna galduz geroztik
Ez dut plazerikan;
Gauza guziak ditut
Higuin mundu huntan.

3

Zer iduriko da
Zuk diozun Jauna?
Indazu zerbeit marka,
Ene Andre ona.

4

Hura da Jesus ona,
Zeru lurren Jauna,
Jainko-Gizon egina,
Eta ene bihotza.

5

Kurutzefikaturik,
Ez duzu aditu?
Juduek nola zuten
Sepulturan sarthu?

6

Neronek ikhusi dut
Amaren aldean,
Ene gatikan hila
Kurutze batean.

7

Zer esperantza duzu
Beraz haren ganik,
Infame baten gisa
Hil denaz geroztik?

8

Oi! ene Jaungoikoa;
Zeru lurren Jna,
Mundutik beira nazu,
Ez nazan engana.

9

Oi! Andre Madalena,
Ez zaitela trompa;
Oraino har ezazu
Leheneco pompa.

10

Hire pompa lizunak
Sobra segiturik,
Ongi niagok orai
Urrikiz betherik.

11

Gurutzeko penetan
Gambiatzen nauzu;
Ene plazerak hola
Mesprezatzen tutzu?

12

Gurutzean tut orai
Ene axeginak,
Jaunak hartuz geroztik
Han ni gatik penak.

13

Utzazu kurutzea,
Zato enekien;
Desertuan ez duzu
Jauna kausituren.

14

Nigar eginen diat
Hik eragin faltaz;
Menturaz kausituren
Jauna bide huntaz.

15

Zeruetara juan zen,
Ez zare orhoitzen?
Aitaren eskuinetik
Ez dela urruntzen.

16

Zein haizen guezurtia
Hor duk erakusten;
Orai huen infame
Bat zela erraiten.

17

Nigarrak behar dire,
Badakit, horrentzat;
Ordean askiko da
Hiltzean ihintz bat.

18

Dembora sobra diat
Hirekien galtzen;
Banioak bortura;
Ez duk mintza zeren.

19

Oi! Andre Madalena,
Ilitz bat adizazu;
Bakharrik ez, ez zohaz,
Ni galduko nauzu.

20

Adios sekulakotz,
Mundu gezurtia
Nitan agertuko duk
Ilire tromperia.

21

Non zarete, Bortuko
Ihize tristeak?
Othoi emadatzue
Zuen hasperenak.

22

Nahi duk orai berian
Has diten nigarrak,
Garbi detzadan ongi
Egin tudan hutsak.

23

O Jesus orai danik,
Hau da azken hitza,
Zu ikhus arteraino,
Hemen dut egoitza.

HUNA JAUNA ARDI BAT



Errepika.



2

Mundu pean, ondikoz! nintzen galtzen.
Eta bizi nintzen alegera;
Bainan non da, oi! Jauna, zutan baizen
Egiazko bihotzen plazera?

3

Ikhusten tut ene erhokeriak;
Hainitz aldiz zaitut ofenxatu.
Barkha zatzu ene hoben guziak;
Urrikiaz nahi tut borratu.

4

Hirritatu dut maiz zure kolera,
Zure kontra altchatzen nintzela.
Nola atrebi zu ene Aita deitzera,
Erraitera zure ume naizela?

5

Helas! Jainko guziz ona zarena,
Berant zaitut, berant ezagutu;
Berant zaitut, gauza guzien Jauna,
Mundu huntan egiaz maitatu.

6

Zure ganik ez penek, ez plazerek
Ni ez naute nihoiz urrunduren;
Ez hiltzeko herstura handienek
Zu laudatzetik gibelaturen.

UTZIZ GEROZ BEKHATUA

—





2

Soseguaz gabetua,
Nahasi bat bezala
Bizi nintzen zoratua,
Neronek dakit nola.
Zembatenaz plazeretan
Bainintzen phulumpatzen,
Hambatenaz arantzetan
Barnago nintzen sartzen.

3

Maiz ene barneko penez
Nintzen tormentatua,
Halaber ene hobenez
Arras ahalkatua.
Zer bihotzmin! zer borroka!
Zer ez nuen pairatzen,
Nahi guziez ithoka
Nintzenean gozatzen!

4

Phoroskatu bezain sarri
Exaiaren gatheak,
Zoriona daut ekharri
Berekin berthuteak,

Deskanxuz-gaindi egina,
Bizi naiz lorietan;
Oi! nolako axegina
Den orai ene baithan!

6

Izan bedi kantatua
Jaunaren ontasuna,
Guzietan laudatua
Haren zuzentasuna.
Aski da kõnbertitzea,
Harekin baketzeko,
Haren gana bihurtzea,
Dohaxu bizitzeko.

BEKHATOROSAREN CHEDE ONAK

Hau da gure itsumendu airearen gainean.

1

Choriak, zuen ohantzetan,
Lauda ezazue Jauna;
Aipha haren ontasuna
Inguru guzietan.

2

Ez bedi entzun bazterretan
Zuen, musikarik baizik;
Jaun onaren ohoretan
Ez bara kantatzetik.

3

Arditchoak, bazka zaitezte ;
Ez dut zuen zoriona :
Goiz arrax, hari zarete
Laudatzen Artzain ona.

4

Zuek, haize maitagarriak,
Harraboxik eztienez,
Munduan egin ahalez,
Emotzue graziak.

5

Phausurik gabe, ixasoa
Orroaz borthizki dago ;
Bainan ez du gutiago
Ohoratzen Jainkoa.

6

Ni baino leialago zare,
Urzo tortoila gaichoa ;
Laudatzen duzu Jainkoa
Egun oroz, zuk ere.

7

Nik behar nuen gehienik
Jainko Jauna ohoratu ;
Eta ni naiz gutienik,
Hartarat lehiatu.

8

Ez naiz oraino abiatu
Jaun goikoaren maitatzen,
Eta haren ofensatzen
Urtheak tut pasatu.

9

Ordu dut, ordu ilkhitzeko
Exaiaren gathetarik,
Bide onean sartzeko,
Bekhatuak utzirik.

10

Huna beraz non heldu naizen.
Jauna, urrikiz betherik ;
Sekulan ez dut zu baizen
Maitaturen bertzerik,

11

Badakit hobendun naizela :
Merechi dut hainitz pena ;
Orhoit zaite zu zarela
Aitarik hoberena.

4

Zer ez duzu, zuk, ene-
[tzat
Egin, Jesus maitea!
Noiz izanen naiz zure-
[tzat
Ezagutzaz bethea?
Oi! nola, etc.

5

Damuz, urrikizzaurtua,
Heldu naiz zure gana:
Izan bedi borratua
Bizitze iragana.
Jaun ona, Jaun ona,
Ah! ez ni abandona.

6

Ene arima gaichoaz
Izan urrikalmendu:
Ene bizitze gaichtoaz
Oi! othoi, barkhamen-
Jaun ona, etc. [du.

7

Zin zinez naiz gambia-
[tzen,
Bai, memento beretik:
Zuretzat naiz deklara-
[tzen
Bihotzaren erditik.
Jaun ona, etc.

NOLA KHAUSI DESKANSURIK





2

Hire gaztetasun ederra
Erraiten zarotan munduak,
Zoroki penetan daramak
Gozatu gabe plazeraz,
Munduak, helas! arrantzeak
Zituen arrosa pean,
Jauna! arrantzen azpian,
Zuk ditutzu eman loreak *(bis)*.

3

Mundu zoro gaichtoarentzat,
Oi dohakabea naizena!
Egin ditudanak, o Jauna!
Egin banitu zuretzat!



2

Ez dut ez galdu choiki zerua,
Eta Ifernua merezitu ;
Neure Yainkoa dut galdu,
Neure salbatzaile amulxua.
Neure Jainkoa dut galdu,
Haren kontra naizenean altchatu.

3

Orai dut, orai, ezagutzen
Ene gaizkien malezia ;
O ! Jainko maitagarria,
Guziak orai tut higuintzen ;
O ! Jainko maitagarria,
Bihotzetik indazu urrikia.

4

Orai, Jauna, nork emanen daizko
Ene adimenduari indarrak,
Ene begier nigarrak,
Ene bihotzari khar asko,
Ene begier nigarrak ?
Hor litezke, hor, ene plazerak.

5

Ez zaitut berriz ofenxatuko
Sekulan, ô ! Jainko maitea ;
Miletan lehen hiltzea,
Bethi zu zaitut maitatuko ;
Miletan lehen hiltzea,
Izenez zu berriz galtzea.

AH! MUNDU ENGANAGARRIA

—



Balitz nihoren
Behar gabe,
Mundu beraren
Balitz yabe,
Hil eta zaio
Khutcha choil bat geldituko!

5

Gizon aiphatuak,
Handi ohoratuak,
Zuen titulu gorek,
Ez eta zuen ohorek,
Ez dute hiltzetik
Begiratzen,
Nihor hobitik
Gibelatzen;
Hari itzultzeko,
Handi sortzea ez da asko.

6

Gaur dohaxu dena,
Urhea dariona,
Inguratua pobrez,
Haren amoina beharrez.
Biharkotz daiteke
Eroria,
Baieta eske
Ithorria
Bertzen atherat,
Amoinaren galdetzerat.

7

Atzo gaichtagina
Ikhusi dut igana
Zedro berez gorago
Hurren hedoïetaraino;
Ordean iragan
Naizeneko,
Nihor ez zen han
Gehiago;
Izan zen ere
Ez zen seinale batere.

8

Zembat Alexandrek
Zembat bertze Zezarek
Bere harmen indarrez,
Bere garhaiti ederrez,
Ez dute leihorra
Mintzarazi,
Ixasoa bera
Emarazi?
Eta azkeneko
Harrak dituzte ondoko.

9

Gizon yakinxunak,
Eta eskolatuenak
Zer du bada probetchu,
Duelakotz izpiritu?

Ez badu yustuen
Sinhextea,
Eta sainduen
Berthutea,
Deusiz ez zaio
Zerukotz baliatuko.

10

Gizonen zorthea
Eta heien ephea
Jaunak bakharrik ditu
Bere eskutan gelditu :
Berak du ozpina
Phitz-arazten,
Eta gizona
Du herrauxten
Har bat bezala,
Guti gogoan duela.

11

Ez du ez pobrerik,
Ez aitoren-semerik
Herioak berechten.
Urrikariz gupbidexten :
Laster da lurrera
Jauxi behar ;
Harren balxara
Gaurtik bihar
Dire guziak,
Chumeak eta handiak.

12

Ez du beraz zeren
Gazteak gorphutzaren
Ari mainaz ekhartzen,
i ta ederki aphaintzen :
Noiz ere baithoa
Ilkhitzera,
Axegin bilha
Mundu-pera,
Duke bethea
Bere egunen ephea.

13

Gure funx-gabea,
Gure dohakabea!
Ste badugu izan
Dohaxu behere huntan :
Zeruan da batzen
Zoriona
Deusek gutitzen
Ez duena ;
Jainkoa deno,
Bethi izanen dena oso.

Errepika.



2

Muudu pean, ondikoz! nintzen galtzen.
Eta bizi nintzen alegera;
Bainan non da, oi! Jauna, zutan baizen
Egiazko bihotzen plazera?

3

Ikhusten tut ene erhokeriak;
Hainitz aldiz zaitut ofenxatu.
Barkha zatzu ene hoben guziak;
Urrikiaz nahi tut borratu.

4

Hirritatu dut maiz zure kolera,
Zure kontra altchatzen nintzela.
Nola atrebi zu ene Aita deitzera,
Erraitera zure ume naizela?

5

Helas ! Jainko guziz ona zarena,
Berant zaitut, berant ezagutu ;
Berant zaitut, gauza guzien Jauna,
Mundu huntan egiaz maitatu.

6

Zure ganik ez penek, ez plazerek
Ni ez naute nihoiz urrunduren ;
Ez hiltzeko herstura handienek
Zu laudatzētik gibelaturen.

UTZIZ GEROZ BEKHATUA

—

3

Arditchoak, bazka zaitezte ;
Ez dut zuen zoriona :
Goiz arrax, hari zarete
Laudatzen Artzain ona.

4

Zuek, haize maitagarriak,
Harraboxik eztienez,
Munduan egin ahalez,
Emotzue graziak.

5

Phausurik gabe, ixasoa
Orroaz borthizki dago ;
Bainan ez du gutiago
Ohoratzen Jainkoa.

6

Ni baino leialago zare,
Urzo tortoila gaichoa ;
Laudatzen duzu Jainkoa
Egun oroz, zuk ere.

7

Nik behar nuen gehienik
Jainko Jauna ohoratu ;
Eta ni naiz gutienik,
Hartarat lehiatu.

8

Ez naiz oraino abiatu
Jaun goikoaren maitatzen,
Eta haren ofensatzen
Urtheak tut pasatu.

9

Ordu dut, ordu ilkhitzeko
Exaiaren gathetarik,
Bide onean sartzeko,
Bekhatuak utzirik.

10

Huna beraz non heldu naizen.
Jauna, urrikiz betherik ;
Sekulan ez dut zu baizen
Maitaturen bertzerik,

11

Badakit hobendun naizela :
Merechi dut hainitz pena ;
Orhoit zaite zu zarela
Aitarik hoberena.

6

Othoi Jauna, othoi, urrikalmendu
Purgatoriotan daudezenez :
Darotzugu galdetzen barkhamendu
Heien mundu huntako hobenez.

7

Bara zaite, hekier jazartzetik ;
Gehiago ez utz hek erretzen :
Ah ! has beitez, atherarik su-petik,
Zutaz, Jauna, zeruan gozatzen.

JESUS ONA NOIZBEIT

—

Largo.



2

Aita ona,
Othoi, hel zaizkigu :
Dugu, helas ! merezi gaztigu ;
Bainan zure bihotz ona
Ah ! urrikal bekigu,
Aita ona.

3

Sekulakotz,
Zinki hitz dautzugu,
Bekhatuak gaur uzten ditugu !
Zure lege saindurakotz
Dire gure botuak
Sekulakotz.

BARKHA

—

Largo.





2

Erraiten zinautan
Bekhatutan nintzen demboran :
Ene haurra, haugi!
Deitzen haut eztiki!
Hil et'ifernuan nahuka egon sutan!
Barkha, etc.

3

Zure haurra, Jauna,
Hun'emana zure oinetan!
Oi! Beha zadazu,
Nahi dut barhamendu!
Barkha beraz, barkha!
Heldu naiz nigarretan! Barkha, etc.

BARKHA, JAUNA!

—



Barkha, Jauna! bai, dolu dugu zu ham-

bat ofen-tsa-turik! Othoi, ur-rikal zakiz-

kigu osti-a saindu horta-rik! Aithortzen



dugu zaitu gu-la hainitz e-ta hainitz



laidosta-tu! Zure on-gi-ak di-tu-gu-la



mila mi-la bekhatuz paga-tu!

2

Zeru ederra dugu hetsi
Zure kontra egin bekhatuez!
Ifernua dugu merezi
Gure krima ikharagarriez!

3

Salbatzaile guziz saindua!
Zure kontra gira gu altchatu!
Hastio duzu bekhatua!
Eta guk bekhatua maithatu!

4

Zu hain on, hain maithagarria,
Oh! zombat zaitugun ofentsatu!
Dolu dugu, Jesus eztia!
Nahi gira zinez konbertitu!

5

Kurutzean hil izan zira
Oinhazetan, o Jesus, gu maitez!
Zu maithatzen ariko gira
Gu ere bethi, Jauna, ordainez!

AMA BIRJINARI KONTSEKRAZIONEA

—





2

Har nezazu beraz Ama eztia
Bethikotzat zure gerizean,
Ikhus zazu Satanen malezia.
Hel zakizkit lanjeren artean!

3

Lekhukotzat harturik Jaun handia
Zinez zaitut egun hitzemaiten
Mundu huntan zaitu dala
Ahal oroz maithaturen.

4

Behar banu nere hitzak hautsirik
Egun batez maithatu mundua
Ukhan daazut seme maiteaganik
Orai berian hiltzeko grazia.

AIRE BEREAN

MARIARI OTHOITZA

1

O Birjina onthasunez bethea,
Behadaazu zeru gorenetik
Badakizu nere behar handia,
Zeren ez naiz flakezia baizik.

Errepika.

Ama maitea,
Beha daazu
Othoi, Maria,
Salba nezazu.

2

Ifernua baita mundu galdua
Ene kontra alchaturik ere
Zu bazaitut alde, Ama maitea,
Ez dut heien beldurrik batere.

3

Bainan, helas! halere ni Maria
Lotsaz nago, bai lotsaz ikhara,
Jarrik faltan zuri behar bezala
Gal dezadan Jaunaren grazia.

4

Bai, Maria, desterru triste huntan
Niagozu bethi hasperapenez
Zeren naizen galtzeko lanjeretan
Edireiten memento guziez.

5

Ah ! noiz zaitut, idorturik nigarrak
Ikhusiren ene Ama sna
Iraganik ene lanjer guziak
Ah ! noiz naiz bilduren zu ganat.

6

Ah ! Maria zuk, ontsa badakizu
Desir heiek zoinen kharsu diren
Othoi, Ama, zu ganat deit nezazu
Bainan,-othoi, lehen baino lehen.

ZERUA SARITZAT





tzat.

2

Zerua saritzat,
Salba beraz arimak
Utzi mundutarrentzat
Atsegin galkorrak.

3

Zerua saritzat,
Hots bada, o gaztea,
Dezazu bethikotzat
Maita berthutea.

4

Zerua saritzat,
Hots bada aita, amak,
Egin zuen haurrentzat
Othoitz karsuenak.

5

Zerua saritzat,
Ikhus zuen adinak
Iragan demborentzat
Egin nigar minak.

6

Zerua saritzat,
Nola ez bozkaria,
Dukegu guretzat
Bethiko gloria.

JAINKOAREN AMA

—



2

Zure berthuteak errepikatzen
Ez zeru lurrak ez dira baratzen
Gu ganik eskerrak dituzu segurak
Bethi, bethi.

3

Gure flakeziek zure bihotza
Dute erdiratzen, samurra baita,
Gutaz izan zazu oi! urrikalmendu
Bethi, bethi.

O MARIA AMA MAITEA!

—

Marziale. *Er.*





tu-ren er-dian be-thi gauden gu Eskualdun

Solo.



be - thi. Salutatzen zai-tut, Mari-a, o Ama



guziz ezti-a! maite dut zure - kilan Jesus



gure Errege handi-a!

2

Zu Erregina Ama zira,
Errege duzu Semea.
Jainko Gizon Erregearen,
Agur, Ama maitea!

3

Zu zaitu, zu, Jainko handiak
Guzietarik hautatu
Zu emazte guziak baino
Gehiago ohoratu.

4

Zure ganik sorthu izan da
Gizon Jainkoa munduan
Jainko Aita ganik sortzen den
Seme Jainkoa zeruan.

5

Birjina, Jainkoaren Ama,
Aingeruen ohorea,
Gizonen ere zare Ama.
Satanen bentzutzailea.

6

Ez dut oraino behin ere
Mundu huntan nik aditu
Zure haurretarik duela
Jainkoak abandonatu.

7

Gu bekhatore trichteentzat
Othoitz egizu zeruan;
Baitira lanyer handietan
Bizi direnak munduan.

8

Hiltzerakoan berezìki
Lagun gaitzatzu, Maria!
Zure bidez ardiesteko
Zeruetako loria!

JESU KRISTO DUT

—

Errepika.



Je-su Kri-sto dut nik nausitzat, harentzat



e-ne bi-zi-a, gi-risti-no naiz bethi-



kotzat, hori da e-ne glo-ri-a.

Solo.



Gi-risti-no naiz bathai-o-az be-khatu-tik



gar-bi-tu-a Jau-na-ren gra-zi-a go-



zo-az i-zan naiz a-be-rastu-a.

2

Giristino naiz; erran beraz
Goraki mundu guzian,
Aita, Seme, Izpirituaz,
Naizela hartua izan.

3

Giristino naiz; zure haurra,
O Eliza! naiz egina;
Hautsiko dut etsaien herra,
Hartuz zure irakaspena.

4

Giristino naiz, desterruan
Bizi naiz hits eta triste
Bainan gero zure zeruan,
O Jesus, menderen mende!

LEHEN KOMUNIONEKO EGUNEAN

—



2

Ahuzpez suspiretan eta nigarretan
Gaude hemen guziak Jesusen oinetan.

3

Huna non ethorri den Jaunaren eguna;
Zuen ganat heldu da Salbatzaile ona,

4

Oi! egun dohatsua ethorri zaukuna!
Nork dezake kompreni gure zoriona!

5

Othoitz zaitzue, haurrak, egun handi huntan
Zeruko dohatsuak zuen fagoretan.

6

O Birjina Maria, gure Ama ona,
Guretzat othoitz zazu zure Seme Jauna!

7

Ofentsatu tutzue zuen burhasoak!
Umilia zaitezte egun, haur maiteak.

8

Ah! othoi barkhamendu, aita eta ama!
Baketurik gohazen Jainkoaren gana!

KOMUNIONE AITZINEAN

1

Urrun zaitezte, haurrak, bekhatu gaichtotik,
Begiak apartatuz haren charmetarik.

2

Adio, bekhatua, adio bethikotz!
Jesus gana gohazik orai sekulakotz!

3

Huna Jesus maitea mahain saindu huntan
Non tutzun haur gazte hauk kharra bihotzetan.

4

Zato, Jesus maitea, zato, zato, zato!
Ez gure zoriona luza gehiago!

5

Jesusen Gorphutz eta Odol sakratuak
Begira zaitzatela, gure haur maiteak!

KOMUNIONE ONDOAN

1

Haurrak, zuen bihotzek zer othe diote?
Guzien aitzinean erran gaitzatzue.

2

Bozkario handitan orai gare sarthu,
Zeren Jaunak gaituen egun bisitatu.

3

Zer grazia handia zuen arimetan
Ukhan duzuen, haurrak, orai mement huntan!

4

Nola edo zer gisaz gare mintzatuko
Jesusi esker onen ongi bihurtzeko.

5

Hor da orai zuekin, altcha orok bozak,
Eta Jesusi eman bethikotz bihotzak.

6

Jesus dugu gurekin, gu ere harekin
Kontsekratzen gitzaizko oro elgarrekin.

ALTCHA GOAZIN BATHAIOKO

—





thi-kotz ukha-tzen, ze-ru - a lur-ra lekhu-



ko har-tzen zen.

BIGARREN AIREA



Altcha, goazin bathai - orat ithur - ri



sakratu-rat, Kris-tau egin gine - neko bo-



tu - en berritze - ra. Arne - gatzen dut



bi - hotzez dut Sa-ta - ni behin be - thikotz



u-khatzen ze-ru - a lurra lekhu-ko hatzen ze-



ru - a lurra lekhuko hartzen.

2

Sortzeak ekharri zautan
Arrastaren hauxteko,
Jaunaren legea eman
Zitzaitan bethetzeko.
Arnegatzen dut...

3

Ardiexteko bizia,
Bermez nautzun hitz-
[eman
Nuela lege guziā
Idukiko demboran
Arnegatzen dut...

4

Botu haukien ondoan,
Apheza cen alchatu,
Ene ganik laster zohan
Satan zuen manatu.
Arnegatzen dut...

5

Kurutzearen seinalez
Zautaten irakhaxi
Behar nuela kurutzez
Zerua ardiexi.
Arnegatzen dut...

6

Gatzak zautan seinalatu
Berthuteko jaidura;
Nik ordean besarkatu
Jainkoaren bandera.
Arnegatzen dut...

7

Templo sainduan sar-
[tzera
Ninduten gero utzi,
Ozarren zori-gaitz bera
Nuen arren merezi.
Arnegatzen dut...

8

Eliza bethean nintzen
Exai egin Satanen;
Ordean ene agintzen
Bethi hari naiz hauxten.
Arnegatzen dut...

9

Ez behin, bai hiruretan
Zaitanean galdetu
Arnegatzen baita dudan,
Bai-etz dut egin oihu.
Arnegatzen dut...

10

Trinitatea goraki
Nuen guziz aithortu;
Zembat moldez ageriki
Ez dut gero ukhatu?
Arnegatzen dut...

11

Bathaiatu aitzinean
Satan zen ene nausi;
Ura ikhusi zuenean,
Laster zen goan ihesi.
Arnegatzen dut...

12

Ur saindu hark khendu
[zautan
Aita-Adamen hobena;
Krismak berehala eman
Giristino izena.
Arnegatzen dut...

13

Soin churia nuen jauntzi,
Zeren nuen exaia
Bere armazoinaz bilhu-
[zi,
Eremanik garhaia.
Arnegatzen dut...

14

Ezko bistuak zarotan
Fedea seinalatu,
Zeinak gure obra onetan
Bizia behar baitu.
Arnegatzen dut...

15

Trinitate saindua zen
Nitaz guziz hartua,
Ene arima hain baitzen
Eder, berregindua.
Arnegatzen dut...

16

Aitak bere haur maite-
[tzat
Bertzetarik hautatu;
Semeak primu laguntzat
Ninduen aldaratu.
Arnegatzen dut...

17

Bere egoitza zuen hartu
Nitan Izpirituak;
Halaber ziren bekhaiztu
Ordutik ifernuak.
Arnegatzen dut...

18

Alfer Satan errabian,
Bere arte galkorrez,
Dabila ene inguruan,
Ni atzeman beharrez.
Arnegatzen dut...

19

Bekhaitz ene ongi iza-
[naz,
Galdu nahi ninduke:
Bainan Jesusen izenaz,
Garhai izan naiteke.
Arnegatzen dut...

20

Munduak bere pompekin
Ez nau lilluratuko,
Haragiak plazerekin
Ez nau, ez beretuko.
Arnegatzen dut...

ZER ZORION

Allegretto.



Zer zori-on, oi hau da fago-re-a, horra, hor-



ra, zeruko Jainko-a jautsi-a da gure alda-



re-ta-ra gure ga-tik sakrifikatze-rat.

Er.



Zato, za-to, ene Jesus mai-te-a, zu za-re,



zu ene ontasu-na! oi zer dohain e-zin pre-



2

Sinhesten dut, ene Salbatzailea,
Zu zarela ostian emana,
Zeru gorenean zaren bezala
Majestatez guzia bethea.

3

Jesus ona saindutasuna bera
Nola izan ni zure egoitza,
Nola beraz bekhatore tristea,
Errezibi ene Jaun handia.

4

Zutan, Jesus, dut ene esperantza,
Ah! zuk hazten dautazu bihotza,
Hazkartua zure gorphutz sainduaz,
Eta zure odol sakratuaz.

5

Zure oinetan emaiten naiz ahuspez,
Urrikitan ene bekhatuez
Aithortzen dut errebel bat naizela
Orhoit zaite ene Aita zarela.

6

Sinhesten dut, amodiozko Jauna
Zu zarela aita hoberena
Deusik hemen, zu baino maiteago
Duena da urrikalzeko.

7

Jesus ona noiz zaitut pagatuko,
Ez dut deuzik, zuri bihurtzeko
Nitan balitz zure gogorakorik
Ah! zuretzat litazke gogotik.

8

Bekhaturik sekulan gehiago
Ez sekulan, hil, hil lehenago
Jauna, zure graziaren laguntzak
Hazkartuko tu ene agintzak.

9

Lauda, lauda zeruko Aingeruak,
Zuek ere dohatzu guziak
Lauda guziz zuk, oi! ama Birjina ona
Zure semearen ontasuna.

10

Hasi nahi naiz zuretzat bizitzen
Bethikotzat natzaitzu emaiten
Erre zazu beraz, ene arima
Amodioz, zuretzat Jaun ona.

HUNA BILDOTZ EZTIA

—



2

Ostian zarela
Dugu sinhesten;
Zeruan bezala
Hor zu khausitzen.

3

Adoratzen zaitut
Jesus eztia.
Othoi emadazut
Fede bizia!

4

O Bihotz maitea,
Deitzen gaitutzu;
Gutan egoitea
Bilhatzen duzu.

5

Eskaintzen derautzut
Ene bihotza.
θthoi bero zazu,
Ezen da hotza!

6

Ene desira da
Zu maithatzea,
Maithatzean baita
Choilki bethea.

7

Bethe, zazu, Jauna,
Ene desira!
Nik nahi dudana,
Jesus, zu zira!

8

Zaitut maithatuko
Orai lurrean,
Gero maithatzeko
Zure gorthean!

9

Zoin naizen fiakoa
Ikhusten duzu!
Mana zerukoa
Azkar nezazu!

10

Horra non heldu den
Gaitezen ichil!
Prest egon gaitezen!
Hemen da hurbil!

ZERU GORENETARIK

Andante.



2

Zeruko aingeruak lurrerat jauts zaitezte
Hegalez estaliak adora zazue,
Jesus, Jesus.

3

Grazia dibinoak gutarat hedatzazu,
Bekhatore guziak, gomberti gaitzazu,
Jesus, Jesus.

4

Zeruko Erregea ogiaren itchuran,
Guretzat estalia, dago aldarean
Jesus, Jesus.

NAHI DUZUE JAKIN

—





2

Hura dut bethikotzat ene hihotzean ;
Hartaz landa ez duket phausurik lurrean.
Haren gana noha lasterrez,
Harentzat da osoki ene gogoa !
Ezin bertzela biziz, ah ! etc.

3

Haize alde untzi bat ez doha porturat
Hain laster, ez chori bat bere ohatzerat,
Nola ni janhari hartarat,
Harentzat dudan amodioz, bainoha.
Ezin bertzela biziz, etc.

BIZIRIK NAIZ BAINAN EZ

—



bizi - a; orai, hark haziri-kan, hartan na-



tza guzi - a. Hura ze - ruan behar-rez hil-



tzen naiz ezin hilez, hiltzen naiz ezin hi-lez.

2

Amodio phuru bat sarthu zait bihotzean,
Ene Jainkoarekin bat egin naizenean ;
Ahitua haren minez,
Hiltzen naiz, etc.

3

O arrasta maitea, hil nadintzat emana,
Bethiko zoriona berekin dakharkena!
Ukhitua hareu kolpez,
Hiltzen naiz, etc.

4

Akhaba zazu, Jaun ona, agonia luze hau;
Ezen, zu gabe biziz, bihotzak ezin dirau ;
Azkenekotz, zure minez,
Hiltzen naiz, etc.

HUNA JESUS BILDOTZ

—

Moderato.





da; er - ra - zu, ra - zu.

2

Erran duzu janhari zarela;
Zure gana Jesus ona, naiz heldu;
Badakizu menturatzen naizela,
Zeren nauzun zeronek gombidatu.

3

Aldarean dago Jesus ona,
Ogiaren iduriz goibeldurik;
Begiz ikhus ez dezakedana
Maitatzen dut, hor dela sinhetsirik.

4

Orai Jesus ene bihotzerat
Ethorri zait; hau da besta handia!
Jaunak bere gorphutza jaterat
Emandio gizonari guzia.

5

Ah! zer esker bihurturen dautzut?
Zembat maite nauzun hemen da ageri,
Ordainez nik maitaturen zaitut,
Mundu huntan bizi naizeno, bethi.

6

Jesus ona, zer galdetzen duzu?
Hemen naiz prest zure obeditzera;
Bihotza zuk ikhusten dautazu;
Bortchazazu zure zerbitzatzera.

7

Ez naiz, Jauna, zu gabe deus ere;
Haragiak bethi nau bentzutuko;
Ene baithan beraz bethiere
Egon zaite, ene sustengatzeko.

LAUDA ZAGUN





gu - re Erre-ge - a.

2

Jainko gizon, gure Salbatzailea,
Mundu, zeru, guzien egilea,
Jaux zaite zerutik gure laguntzerat,
Gure amulxuki benedikatzerat, ben... etc.

3

Amodio, loria imortala
Trinitate sainduak dituela :
Ohore hirurei batasun berean,
Orai eta bethi eternitatean, eter... etc.

OI! MIRAKUILU GUZIZ

—



Oi! mi-rakuilu guziz es-pan-tagarri-



a! o - gi-aren i - du-riz Je - sus esta-li-



a! Hu - ra dut a - do - ratzen al - da-re



2

Ene begiek Jesus han ez duke ikhusten,
Gorphutzeko senxuek ez dute sentitzen;
Bainan, duda gabe dut han dela sinhexten;
Fedeak argiturik, han dute ezagutzen.

3

Jesusek egin zuen azken afaria,
Janharizat emanik bere haragia;
Haragi saindu hura jaten dut nik ere;
Hura janik uste dut bizi bethiere.

4

Kurutzefikaturik, enetzat hil dena,
Lorioski phizturik, zerurat igana;
Hura da sakramendu hortan ezarria;
Hura bera lurrean ene janharia.

4

Biziaren arbola guziz aiphatua,
Baratze dohaxuan jaunak landatua,
Aurkhitzen da neuretzat komunionea;
Nik han dut ereiten ene bizitzea.

5

Israelek jan zuen desertuan mana,
Gostu guziak bere baithan zituena;
Jesusen gorphutza da neure janharia,
Desertu huntan ene kontsolagarria.

6

Jainkoaren mendirat izan zen Eliaz,
Sainduki borthizturik jan zuen ogiaz;
Jaten dut aldareko ogi sakratua;
Hartaz nik ardiexi uste dut zerua.

7

Urerat du lehia orkhaitz nekhatuak,
Beroz eta ihistariz betan penatuak;
Hala dut desiratzen, Jauna, zure ogia :
Othoi, sasia zazu ene gutizia.

8

Choriek badituzte beren ohantzeak,
Urzo tortoilek ere non eman umeak;
Zure aldareten da ene iheslekhua;
Nik han dut edireiten ene sosegua.

OI! ZER OGI DUT IKHUSTEN

—



2

Jaunaren amodioa
Hemen da seinalatzen,
Oi! hau da misterioa!
Gizona Jainkoztatzen!
Bihotz khartsua, etc.

3

Enekin bat egitea
Duzu bada bilhatzen!
Zer duzu, Jesus maitea,
Ene bai han aurk itzen?
Bihotz khartsua, etc.

4

Hau da neure zoriona!
Zembat ontasun betan!
Salbatzaile guziz ona,
Zer! nik, zu ene baithan!
Bihotz khartsua, etc.

5

Aitetan den hoberena
Aithortzen dut zarela,
Zu maite ez zaituena
Bizirik hila dela,
Bihotz khartsua, etc.

6

Jaun ona, zure egoitza
Zeronek zazu garbi;
Bertzela zure emaitza
Oi! nola errezibi?
Bihotz khartsua, etc.

7

Amodio sakratua.
Egizu gau, egunez,
Izan nadin sustatua
Zure khar bizienez.
Bihotz khartsua.

ZERUTIK JAUTSI ZARE





2

Ogia da itzultzen zure gorphutzera,
Arnoa kambiatzen zure odolera :
Contsekrazionea han duzu obratzen ;
Zure botherea da guziz han agertzen.

3

Manatu izan duzu azken afarian,
Kurutzean guretzat hiltzeko bezperan,
Zure gorphutz garbia eta sakratua
Izan zadin aphezez bethi ofritua.

4

Menderen fineraino, zutaz orhoiturik,
Hori eginen dute, kharrez sustaturik ;
Fede bizi batekin gaizkitzu hurbiltzen,
Zurekin izaitea dugula galdetzen.

5

O ! Jesus, aldarean enetzat emana,
Ene janhari gozo, ostia zarena,
Eman duzu bizia arimen onetan ;
Oi ! noiz naiz gozatuko zutaz zeruetan !

SINHESTEN DUT

Largo.



Sinhesten dut, sakramen-du sain-du-an,



Jesus o - na zu za-re-la os - ti-an, sinhe-

Solo.



sten dut, sin-hesten dut. Je - sus lau-na,



oi e-ne Nausi - a, a-modioak zai-tu



ho - la ez-ezta - tu ni e - re ordai - nez



zu - re-a naiz gu - zi - a na - hi zai - tut



be - thi e-re mai-ta - tu.

2

Jainko guziz puchant eta handia,
Ene bekhatuek naute ahalgetzen,
Errezebi zazu nik dudan urrikia,
Bihotzetik ditut oro hastiatzen.

3

Jauna, zure hitz bakhar bat aski da,
Bekhatutik arras gu garbitzeko,
Errazu hitz hura, mediku dibinoa,
Aski izanen da gure sendatzeko.

OHORE AMODIO





he-men ikhus-ten mai-thatzen zai-tut e-



ta a-do-ratzen al-da-re hortan Jaun amul-



tsu-a.

2

Zerutikako ogi saindua,
Zu zare flakoen indar handia,
Senda nezazu azkar nezazu
Ereman dezadan bitoria.

3

Orai lurrean molde gordean
Gurekin zare, ostia maitean,
O Jesus noiz zaitut ikhusiko
Bekhos bekho, zeru ederrean?

O JESUSEN BIHOTZ SAMUR

Andante.

1º Solo 2º Tutti



O Je-susen Bihotz samur, e-netzat i-



deki - a, othoi, e - mazu neu - re-an zu



ga - na-ko le-hi - a i-khu - siz zure



bu - rua arran - tze-ez bethe - a niho - le-

re ez dut nahi lo-re pe-an neure - a.

BIGARREN AIREA

O Je - susen Bi-hotz sa-mur e - netzat i-



deki - a, othoi, ema-zu neu-re - an zu ga-



nako le-hi - a i - khusiz zure bu - ru-an a-



rantzez bethe-a, ni-ho - lare ez dut na-



hi lo-re pe-an neu-re - a.

2

Gurutzea dakharkezu
Zure bihotz garbian;
Nik ere dut ekharriren
Neurearen erdian.

3

Jasanen dut gurutzea
Gogotik, zuk bezala;
Sekulan salbamendurik
Ezin duket bertzela.

4

Egizu onhets dezadau
Zuk onhesten duzuna;
Dezadan higuin osoki
Higuingarri zaitzuna.

5

Irakhatsten darotazu
Humil, ezti izaiten,
Ene jaidura gaichtoak
Artharekin zehatzen.

KANTIKA ZURE BESOTAN AIREAREN GAINEAN

JESUS ONAREN BIHOTZ MAITEA

1

Jesus onaren bihotz maitea,
Zu zare neure guzia;
Bethi da zure-ganat izanen. } *bis.*
Bakharrik ene lehia.

2

Nork du erranen ez dakiela
Bihotz hartarat bidea?
Soldaduaren lantzak daroku } *bis.*
Ideki hango athea.

3

Lore suerte guziak baino
Ederrago zarelarik,
Zer gatik, bihotz maitagarria, } *bis.*
Arrantzez zare betherik?

4

Amodioaz amodioa
Pagatzen bada munduan,
Arrazoinekin duzu merezi
Neurea sakramenduan.

5

Orai artean ibili banaiz
Ihesi gurutzetarik,
Orai naiz zure besoetan :
Bizi bethikotz josirik.

6

Ene bihotza munduarentzat
Egon bada idekia;
Zu hartuz orai, atchikiren dut
Kreaturentzat hetsia.

BIHOTZ JESUS MAITEARENA

—





BIGARREN AIREA





2

Bihotz enetzat sustatua,
Berant zaitut ezagutu ;
Bihotz ezti, preziatua,
Helas ! ez zaitut maitatu.
Alferretan nauzu bilhatu,
Bihotz bethi zabaldua,
Zure ganik naiz apartatu,
O ! hau da zoramendua !

3

O bihotz nahikarazkoa,
Munduak nau enganatu ;
Tresor, guzien gainekoa,
Ez zaitut aski prezatu.
Ala baitzait erhokeria
Zuri ez jarraikitzea !
Bihotz bethi maitagarria,
Zu ez funxki maitatzea !

4

Bihotz, iheslekhu segura
Kreatura guzientzat :
Amodiozko gaindidura,
Zer egiten dut zuretzat ?
Bihotz, guziz ona zarena,
Hasten naiz zure maitatzen ;
Zu gabe bizi daitekena
Osoki zait urrikaltzen.

JESUSEN BIHOTZ MAITE

—





2

Bihotz ezti, umila, lantzaz kolpatua!
Diozu zutan dela gure deskantsua,
Zutan izan dadila gur' ihes lekhua!

AMA TRICHTEZIAZ BETHEA





tan gu - zi-a he - men naiz e-ma - na.

2

Oi penaren lehergarria
Amak ikhustea,
Hiltzen odolez estalia
Bere seme maitea.

3

Nork ez du penatu nahiko,
Ama ikhustean,
Nork ez du ere hil nahiko
Jesusekin batean.

4

Ikhusi zuen azotatzen,
Seme dibinoa,
Harren buruan sarrarazten
Elhorrizko khoroa.

5

Semearen azken auhenak
Haren azken hatsa,
Ikhusten du ama samurrak
Arraildua bihotza.

6

Ikhusten du lanza krudelak
Bihotza zilhatzen,
Hibayaka ur eta odola
Sahetsetik atheratzen.

7

Zuzenez zaituzte deithuko
Dolorezko Ama,
Zu zare, helas! egiazko
Martiren Erregina.

8

Egizu nik ere zurekin,
Oi! ama eztia,
Dezadan zinez nigar egin
Fdo eman bizia.

9

Ah! emazu ene ariman,
Semearen pena,
Eta phitz ene bihotzean
Amodiozko su kharra.

10

Jaunaren hasarreduratik
Nezazu begira,
Ihes lekhu zerbitzaturik
Othoi gida zerurat.

JOSEP FAGORA GAITZATZU

—

Moderato. *Er.*



2

Zu zinen Mariaren
Espos hautatua,
Baita ere Jesusen
Aita lekhukoa.

3

Zure garbitasuna
Gizonek balute,
Berthutetan maitena
Preza lezakete.

4

Zure humiltasuna
Zen miragarria,
Zure ichiltasuna
Hain laudagarria!

5

Jainkoak eman daitzu
Grazia handiak,
Baita izan ditutzu
Berthute guziak.

6

Zure urhatser bethi
Gare jarraikiko,
Ongia zoin den ezti
Dugu frogatuko.

7

Othoi, Saindu handia,
Lagun zakizkigu,
Zu ganik sokorria
Ah! ethor bekigu!

8

Guziz gaitzazu lagun
Azken orenean,
Etsaiak zaitzu urrun
Gu ganik orduan.

9

Ah! othoizten zaitugu
Elizarendako,
Oihuz ere gaude gu
Frantziarendako.

SAN JOSEPERI BERTZE BAT



Err.



2

Etzirea, errazu,
Zu dohatsuena?
Besoetan daukazu
Zure Jainko Jauna.

3

Josep buruzagiak
Zioten manatzen ;
Ama Semeak, biak
Harri jarraikitzen.

4

Familia saindua
Hek zuten egiten.
Lur-gainean zerua
Zen hantchet ikhusten.

5

San Josepe nekhatuz
Lanetik zen bizi;
Guri du ber' etsempluz
Lana maitharazi.

6

Zu zineu umil, ezti,
Obedient, justu ;
Nahi zaitugu bethi
Guk zu imitatu.

7

Gazteak du zu baithan
Ikhusten modela,
Gogoz, hitzez, ohoretan
Garbi behar dela.

8

Zu zare aita-amen
Mirail sakratua,
Bai eta familien
Zare sustengua.

9

Zaharrak du zu baithan
Bere esperantza;
Nahi du zur' eskutan
Eman asken hatsa.

10

Adin guzietako
Zare etsenplua,
Gure salbarazteko
Jaunak hautatua.

11

Oi! ikhusten gaitutzu
Lanjeren artean!
Othoi! lagun gaitzatzu
Bizian, hilean!

12

Ostikatzen mundua
Erakuts zaguzu;
Gure salbamendua
Zuk ardietsazu!

13

Heriotze onaren
Patroin indartsua,
Dugun azken hatsaren
Ondotik zerua!

SAN FRANTSEZ AZIZAKOA





Frantsez, zu-re haur-rak zuri dau-de oi-huz



guzi - ak zuri daude, oihuz gu-zi - ak.

2

Saindu handia, lurrean
Gure modela izan zare;
Zu imitatuz agian,
Gu ere salbatuko gare.

3

Guretzat humiltasuna
Galde zazu Jainko Jaunari,
Bai eta pobretasuna,
Gaiten gu izan zu iduri.

4

Zin zinez penitentzia
Bethi dugu besarkatuko.
Hola dukegu grazia
Etsai guzien bentzutzeko.

5

Gure azken orenetan
Jin zaizkigu sokhorritzera,
Bai, orduko hersturetan
Sainduki hiltzen laguntzera.

6

Beha zazu Elizari
Gure dembora triste hautan,
Eta Aita Sainduari
Zoina baitaukete gathetan.

7

Bai, munduan gaichtaginak
Aspaldian nagusi dire
Baita Satanen gizonak
Erromaren beraren ere.

SAN INAZIORI

Errepika.



Solo.



2

Ohoren goseak zuen soldadotu,
Bainan Iruñen zen guduan kolpatu,
Jainkoaren graziaz laster ezagutu
Nola zen munduan galdu.

3

Sainduen bizitzea zuen irakhurri
Eta zer dagokon geroak ikhusi;
Geroztik du hartzen zeruko bidea,
Hartan emaiten chedea.

4

Jesus agerturik dago sendatua,
Gabaz du bakharrik uzten gaztelua;
Montserrat mendian da beila handia,
Han dauka gogo guzia.

5

Iragan bizia han du arbuyatzen,
Bere bekhatuez han nigar egiten;
Oin huts zakhu bat du hartzen soinekotzat,
Khorda latz bat lokharritzat.

6

Manrezen agertuz, tu denak harritzen :
Haurrak eskolatzen, eriak arthatzen,
Han tu eskribatzen etserzizioak,
Mariak irakutsiak.

7

Geroztik mundua konbertitu nahiz,
Umilki eskolak ditu hasten berriz.
Dute hartzen preso, latzki azotatzen.
Hur' aldiz bozkariatzen.

8

Pariserat doha han tu lagun batzu;
Heiek behar ditu guziz konbertitu.
Elhe kharsuenez ditu etsortatzen,
Eta kharretan emaiten.

9

Frantsez herritarra fama gose zena,
Jesusen hitz hautaz saindutzen du dena :

« Frantsez, zer zaizkitzu oro baliatzen
« Arima baduzu galtzen. »

10

Jesusen bandera zuten han alchatu
Luther apostata beharrez lehertu
Geroztik munduan harrek du argitzen
Harrek etsaia izitzen.

11

Ordutik saindua zen zen bizi Eroman,
Semeak zituen hedatu orotan,
Berthute guziez bera aphaindua
Zen hegaldatu zerura.

12

Qrai Inazio, zerutikan zaude
Othoitz kharsuenez Heskualdunen alde,
Dizaguzu beira guzier fedea,
Hel gaiten chede berera.

SAN FRANTSES XAVIEREKOARI





2

Aita ganik zen Jatsukoa,
Aitoren semetan handi;
Amaz zen Xavierekoa,
Horrela heskualdun garbi.

3

Parisen laster eskoletan
Zuten orok ezagutu,
Ezen hogoi ta bi urthetan
Zuten buruzagi hartu.

4

Bihotza urguluz bethea,
Munduaz lilluratua,
Amak irakatsu bidea
Zuen ordukotz galdua.

5

Jainkoak zioen igorri
Bere lagun Inazio
« Deusek, zuten erran elgarri,
Ez dik zerua balio? »

6

Jainkoaz Frantsesek ordutik
Du bihotza sustatua;
Nahi du hasi, aphesturik,
Debruarekin gudua.

7

Jakinik harren khar saindua,
Indioetarat joaiteko
Aita sainduak dio manua,
Zerk du orai baratuko?

8

Jesu-Kristo Jaunaz gerostik,
Ez dute ikhusi nihor
Haren botherea zuenik;
Hain zen Satanenzat gogor!

9

Hilak hobitik ditu phizten,
Zeru lur ta ifernuak
Hari dute obeditzen;
Hambat dauzka harrituak.

10

Milaka ditu Paganoak
Egun oroz bathaiatzen,

Gutieguz, dio, zaizkola,
Denak tu gutiziatzen.

11

Bainan huna jina orena;
Berrogoi ta bortz urthetan
Du hartzen zeruko korona,
Jesusentzat suspiretan.

12

Heskualdun maiteak zuerri
Zerutik dago San Frantses
« Zuen arimez naiz egarri :
« Orhoit zuen aitzinekoez. »

13

Fede beraz aberastuak
Gaiten erabil sainduki
Gaiten izan leial suharrak
Zeruratzeko segurki.

ZURI GAUDE AMA ONA

—





tzera, e-tsai-e-ta-rik bei-ra-tze-ra.

Errepika.



A-ve, A-ve, A-ve Mari-a, A-



ve, A-ve, A-ve Mari-a.

2

Zuk galdatzen ditutzunak
Ditu on hartzen Seme Jaunak,
Zure haurrak hegal pean
Zatzu eman denak batean.

3

Zutan dugu esperantza,
Zurea da gure bihotza,
Zu zare gure izarra,
Zu baithan da gure indarra.

4

Ditzazu senda eriak,
Konsola bihotz penatuak,
Bekhatorek duten senti
Zu maithatzea zoin den ezti

5

Emazu dener bakea,
Azkar arimetan fedea,
Beir' Eliza hersatua,
Ehortz etsai hain nausitua.

6

Hiltzeko oren beltzean,
Har gaitzatzu gu bihotzean;
Bedi izan azken hitza
Eta azken gure othoitza. Ave, ave.

UKHO BEKHATUARI





2

Orhoitu salbatzeaz;
Zer da presagorik?
Bai eternitateaz.
Zer beharragorik?

3

Zure salbamendua
Nahuzu obratu?
Jainko-lege saindua
Behar da komplitu.

4

Jainkoa behar duzu
Maithatu osoki
Hura adora zazu
Othoitzaz debotki.

5

Haren Izen saindua
Dugun errespeta;
Burhoa, zin faltsua
Haren kontra baita.

6

Jainkoaren iduriko
Egina denari
Ekhar zuk amodio,
Nola zeroneri.

7

Igand' egun guziak
Emoitzu Jaunari;
Entzun meza bezperak
Jarraik Elizari.

8

Phest' igandetan zaite
Urrun ostatutik;
Zuretzat han ez daite
Gasturikan baizik.

9

Tenorez bil etcherat;
Zer da hain ederrik!
Ez luzatu gerorat!
Gabak ez du onik!

10

Maitha zure ait' amak,
Maitha bihotzetik.
Onhets heiek erranak,
Obedi gogotik.

11

Beren behar ordutan
Zaitzu hek sokhorri;
Zahartze-egunetan
Egin ongi ethorri.

12

Obraz, ez nahikundez
Ez jazar nehori,
Bainan bai bihotz onez
Barkha etsaiari.

13

Gogo, hitz, et' obretan
Beira modestia;
Zure menekoetan
Atchik larderia.

14

Ez ebats bertzerena,
Ez hartaz zu jabe.
Hartua dukezuna
Itzul luza gabe.

15

Beira zaite arthoski
Medisentziatik,
Et' oraino hobeki
Kalomniatzetik.

16

Zurea ez daitena
Ez zuk gutizia;
Arthatuz dukezuna
Ereman bizia.

17

Hurbil kofesatzera
Ahalik maizena,
Bai komuniatzera,
Hor da gure ona.

18

Egin aitzu barurak
Ahala baduzu.
Bekhatuen makhurrak
Hola chuchen zaitzu.

19

Meheko egunetan
Ez jan haragirik.
Ez eman ingurutan
Etsemplu gaichtorik.

20

Hol' eginez, bizia
Duzu saindutuko
Zeruetan Maria
Hola khausituko.

ARROSARIOKO
HAMABORTZ MISTERIOAK

BORTZ ATSEGINEZKOAK

I. Inkarnazionea

Adoratzen zaitut, Berbo dibinoa,
Zeren egin zaren guizan ene gatik;
Eta zuri dautzut ohore osoa,
Amatu zarena, Birjina egonik.

Misterioaren fruitua : Humilitatea

II. Birjinaren anontziazionea

Birjina Saindua, zeinaren bisitak
Joanes bethe bait du bethikotz graziez;
Zu beraz zaitzala, zu ene bihotzak,
Leialki zerbitza, maita ahal guziez.

Misterioaren fruitua : Karitatea

III. Jesusen sortzea

Pobre sorthu zare, Jesus establian;
Adoratzen zaitut egun lasto-pean;
Probetchaturen naiz, bizitze guzian,
Zure etsempluaz humilitatean.

Misterioaren fruitua : Pobreziaren amodioa

IV JESUS TEMPLUAN AGERTZEA, EDO BIRJINAREN PURIFIKAZIONEA

Birjina, Templuan purifikatua,
Eta sustatua Simeon bezala;
Noiz aurkhituren naiz haxaz gabetua,
Kristo hiltzeraino gogoan dudala?

Misterioaren fruitua : Obedientzia

V. JESUS TEMPLUAN AURKHITUA

Amak, nigarretan, Semea galdurik,
Bozik aurkhitzen du Doktoren erdian;
Jesus, ene hutsez nigarrak eginik,
Aurkhituren zaitut nik ere agian.

Misterioaren fruitua : Kontrizionea

BORTZ MISTERIO DOLOREZKOAK

I. JESUS OLIBETAKO BARATZEAN OTHOITZEAN

Egorri khalitza, Jesus, duzu hartzen;
Sumetitzen zaizko manu dorpheari;
Ni ere natzaio zinez sumetitzen,
Zer nahi penetan, zure nahiari.

Misterioaren fruitua : Sentimendua

II. JESUS AZOTATUA

Jesus, harroinari larru-has lothua,
Azotez zaituzte zaurthzen barbaroki;

Egizu ni ere, noiz nahi hertstua,
Gaitzentzat ez nadin izan minberegi.

Misterioaren fruitua : Pazientzia

III. Jesus arantzez khoroatua

Monarken Nausia, helas! odoletan
Burreuek zaituzte errabiaz eman;
Eta nik, ezdeusak, plazer guzietan
Bizitze labur hau dezadan eraman!

Misterioaren fruitua : Mortifikazionea

IV. Jesus gurutzeaz kargatua

Isaak berria, Jesus, ene gatik
Hartu izan duzu gurutze dorphea;
Gogotik yasanen dut zure ondotik,
Animoz betherik, nik ere neurea.

Misterioaren fruitua : Urrikalmendua

V. Jesus kurutzefikatua

Zuk osatu duzu, Jesus gurutzean
Obra guzizkoa, gure erospena;
Erakhutsten duzu, horrela hiltzean,
Gure salbatzeko kharrik biziena.

Misterioaren fruitua : Iraupena

BORTZ MISTERIO LORIOSAK

I. Jesus phistua edo Erresurrekzionea

Jesus hilik phiztu, ô zer bozkario.
Ni ere berekin phiztu nau grazian.
O zer ezagutza, ô zer amodio
Bihurturen diot, bizitze berrian!

Misterioaren fruitua : Conbertsionea

II. Jesus zerurat igaitea

Zohaz loriara, Jesus Jauna, zohaz
Enetzat lekhu bat han aldaratzerat;
Etsaien artetik, grazien laguntzaz,
Hel araz nazazu loria bererat.

Misterioaren fruitua : Mundako gauzen alderako ezantsiatasuna

III. Izpiritu Sainduaren jauxtea

Izpiritu Saindu, lurrera jautsia,
Bethea zarena zeruko indarrez;
Susta diezadazu bihotz guzia;
Erre bekit, Jauna, zu ganako kharrez.

Misterioaren fruitua : Erretiramendua

IV. Ama Birjinaren heriotzea

Amodioz zare biziaz gabetzen;
Birjina Saindua, zohaz loriarat;
Nik ere neurea dudanean galtzen,
Zaite bitarteko hel nadin hartarat.

Misterioaren fruitua . Jainkoarekin batasuna

V. Ama Birjinaren zeruan errezibitzea

Ama dohatsua, zeru gorenean
Zure haur maiteak zaitu khoroatu;
Errespetatz-n dut, ahuspez lurrean,
Zure botherea : sokhorri nazazu.

Misterioaren fruitua : Fidantzia

NOELAK

Ien NOELA

1

O! Fguberri gaua,
Bozkariozko gaua,
Alegeratzen duzu
Bihotzean Kristaua.

2

Mundu guzia duzu
Zorionez bethetzen.
Zeren zuk baidiozu
Mesiaz dela sortzen.

3

Gau ilhunean ez da
Ikhusten iguzkirik;
Huntan agertzen zaiku
Mirakuiluz ilkhirik.

4

O! gau desiratua,
Argia duzu phiztu,
Zeinak mundu guzia
Behar baitu berritu.

5

Argizagiak dire
Bozkarioz dantzatzen,
Dutela ohi baino
Gehiago argitzen.

6

Aingeru onak berriz
Hasi dire kantatzen.
Bozterat dituztela
Tristeak gonbidatzen.

7

Errepikatzen dute
Maniuretez artzainek,
Hekieri diote
Ihardesten larrainek.

8

Arrainak hari dire
Jauzika ur barnean,
Abreak mendietan,
Hegaztinak airean.

9

Gauza guziak dire
Orai alegeratzen;
Orobat egiterat
Gaituzte erakhartzen.

10

Ifernuko ostea [tzen,
Gau huntan da trista-
Haren zenzatzailea
Zeren den orai sortzen.

11

Idolak aldaretan
Betan dire muthutu;
Aztiek arrazoina
Laster dute galdetu.

12

Bertzerik ez dirote
Deusere ihardetsi,
Haur batek dituela
Baizik ichil-arazi.

13

Ichildu behar zuten,
Guk ordainez kantatu
Zorionean dela
Jainko Semea sorthu.

II^en NOELA

1

Oi! gau dohatsua,
Jainkoaz hautatua,
Zaukuna hurbiltzen;
Mesiaz maitea,
Graziaz bethea
Da munduratzen.

2

Hots, Aingeruekin,
Arcanjeluekin,
Gaur kantatzera,
Gure Erregearen
Jainko eternalaren
Adoratzera.

3

Ez izotza gatik,
Ez ilhuna gatik,
Ez egon herabez;
Har fedea gida,
Jesus baithan fida;
Goazen lasterrez.

4

Hemen dut sinhesten
Begiez ikhusten
Banu bezala,
Mariak umea,
Ume hain maitea,
Jainko duela.

5

Harentzat lekhurik,
Hain guti oherik
Ez zen aurkhitu;
Tresoren jabea,
Guzien printzea
Zen arbuiatu.

6

Erregek etcheak
Dituzte betheak
Gauza ederrez;
Jesus, zu lurrean
Eta lasto-pean
Zaude nigarrez.

III^en NOELA

1

Oi! Bethleem!
Ala egun zure loriak,
Oi! Bethleem!
Ongi baitu distiratzen!
Zu ganik heldu den argiak
Bethetzen tu bazter guziak
Oi! Bethleem! *(Bis.)*

2

Zer ohore!
Ala baitzare goratua!
Zer ohore!

Zer grazia! zer fagore!
Zeruaz zare hautatua,
Jesusen zare sor lekhua;
Zer ohore! *(Bis.)*

3

Azkeneko
Hor heldu da Jesus justua,
Azkeneko
Gu dohatsu egiteko;
Hetsi nahi du ifernua,
Guretzat zabaldu zerua,
Azkeneko *(Bis.)*

4

Gure gatik
Jainko bat botherez bethea,
Gure gatik
Jausten da zeru goratik;
Bai, sortzen da Jesus maitea,
Liktima notharik gabea,
Gure gatik. *(Bis.)*

5

Maniateran
Datza haurrik aberatsena,
Maniateran!
Nork zuken sekulan erran
Zeru, lurren Jabea dena
Ikhusiren zela etzana
Maniateran? *(Bis.)*

6

Artzainekin
Heldu naiz zu gana lehiaz.
Artzainekin,
Hek bezala nahiz egin.
Adoratzen zaitut, Mesiaz,
Eta maite bihotz guziaz,
Artzainekin. *(Bis.)*

7

Ez dut deusik
O Jesus! zuri eskaintzeko,
Ez dut deusik,
Bihotz hobendun bat baizik :
Eskerren zuri bihurtzeko,
Hambat emaitzen pagatzeko
Ez dut deusik. *(Bis.)*

IV^en^ NOELAK

Errepika.

Atzar gaiten, atzar lotarik,
Gau huntan da Jesus sortzen;
Amodioak garaiturik,
Gure gatik da ethortzen..... *Berriz.*

1

Zu zerurat nahiz altchatu
Jesus jausten da lurrerat;

Heldu da, gu nahiz salbatu,
Gorphutz hilkhor bat hartzerat.
Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.

2

Ala haren laudorioak
Behar baitugu kantatu!
Ala gure bozkarioak
Behar baitu seinalatu!
Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.

3

Bekhatua, munstro tristea,
Hoa hire leze beltzerat;
Ethorri duk Jesus maitea
Hire obren urratzerat.
Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.

4

Zerk gaitu bada gibelatzen
Hel gaiten, hel Jesus gana;
Bekhatoren gatik da sortzen
Saindutasun bera dena.
Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.

5

Ikhusgarri mirestekoa!
Oi! hau da humiltasuna!
Zeru beraz goragokoa
Maniateran da emana.
Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.

6

Erregen Errege delarik,
Ez du nahi distiatu;
Ez du nahi palaziorik,
Heia tchar bat du hautatu.

Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.

7

Hotzaz ere da penatua
Sasoinen Manatzailea;
Guziez datza gabetua
Guzien Kreatzailea.

Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.

8

Bi bestia ditu laguntzat;
Horra Jesusen gorthea;
Lasto guti bat ezantzatzat,
Oi! hau gauzaren dorphea!

Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.

9

Etsemplu miragarrienaz
Jesusek gaitu argitzen,
Amodiorik khartsuenaz
Bere gana gonbidatzen.

Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.

10

Amodioak du sustatzen
Haren bihotza guretzat :
Has gaiten, has haren maitatzen.
Guduka gaiten harentzat.
Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.

Ven NOELAK

Kristo guziez dezagun egun adora... *Berriz.*

1

Hauche da izarra agertzen dena!
Berri bat dakharke den handiena,
Jesus maitearen sortzearena.
Kristo guziek, etc.

2

Hirur erregeak ditu gidatzen
Jesus haurra gana dire hedatzen
Presentekin dute han adoratzen.
Kristo guziek, etc.

3

Myrra, intsentsua eta urhea
Ekhartzen dautzute Salbatzailea,
Zuri eskaintzeko present bedera,
Kristo, etc.

4

Gaspar Erregeak. Jainko handia,
Adi arazten du myrraz egia,
Gizona zarela larruz beztia.
Kristo, etc.

5

Baltazarrek, emaitean urhea,
Bai, dio zarela, Jesus maitea,
Errege guzien lehen printzea.
Kristo, etc.

6

Melkhiorrek ere du sinhestea,
Dauku itsentsuaz eman fedea
Egiaz zarela Jainko Semea.
Kristo, etc.

7

Hitz batez hirurek fede osoa
Badute zarela Jaun zerukoa,
Gizona, Monarka eta Jainkoa.
Kristo, etc.

8

Izar distirant bat heier egorririk,
Atheratzen tutzu ilhumbetarik,
Zure gana deitzen tronuetarik.
Kristo, etc.

9

Ni ere argitzen nauzu fedeaz;
Eguizu oraino heien chedeaz
Adora zaitzadan aldi neureaz.
Kristo, etc.

10

Egun egor giuzu izar zurea,
Aurkhi dezaguntzat chuchen bidea
Zu ganat heltzeko, gure jabea,
Kristo güziek dezagun egun adora.

OTHOITZAK

Parce, Domine, parce populo tuo; ne in æternum irascaris nobis.

℣. Pie, Jesu, Domine, dona eis requiem.

℟. Sempiternam.

—

Miserere mei, Deus, * secundum magnam misericordiam tuam :

Et secundum multitudinem miserationum tuarum dele iniquitatem meam.

Amplius lava me ab iniquitate mea, * et a peccato meo munda me :

Quoniam iniquitatem meam ego cognosco, * et peccatum meum contra me est semper.

—

Kyrie, eleison.
Christe, eleison.
Kyrie, eleison.
Christe, audi nos.
Christe, exaudi nos.
Pater de cœlis Deus, miserere nobis.
Fili Redemptor mundi Deus, miserere nobis.
Spiritus Sancte Deus, miserere nobis.
Sancta Trinitas unus Deus, miserere nobis.
Sancta Maria, ora pro nobis.
Sancta Dei Genitrix, ora pro nobis.

Sancta Virgo Virginum, ora pro nobis.
Mater Christi, ora pro nobis.
Mater divinæ gratiæ,
Mater purissima,
Mater castissima,
Mater inviolata,
Mater intemerata,
Mater amabilis,
Mater admirabilis,
Mater Creatoris,
Mater Salvatoris,
Virgo prudentissima,
Virgo veneranda,
Virgo prædicanda,
Virgo potens,
Virgo clemens,
Virgo fidelis,
Speculum justitiæ,
Sedes sapientiæ,
Causa nostræ lætitiæ,
Vas spirituale,
Vas honorabile,
Vas insigne devotionis,
Rosa mystica,
Turris Davidica,
Turris eburnea,
Domus aurea,
Fœderis arca,

Ora pro nobis.
Ora pro nobis.
Ora pro nobis.

Janua cœli,
Stella matutina,
Salus infirmorum,
Refugium peccatorum,
Consolatrix afflictorum,
Auxilium Christianorum,
Regina Angelorum,
Regina Patriarcharum,
Regina Prophetarum,
Regina Apostolorum,
Regina Martyrum,
Regina Confessorum,
Regina Virginum,
Regina Sanctorum omnium.
Regina sine labe originali concepta,
Regina sacratissimi Rosarii,

Ora pro nobis.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, parce nobis, Domine.
Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, exaudi nos, Domine.
Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, miserere nobis.
Christe, audi nos.
Christe, exaudi nos.

Oremus.

Concede nos famulos tuos, quæsumus, Domine Deus, perpetuâ mentis et corporis sanitate gaudere; et gloriosâ beatæ Mariæ semper Virgi-

nis intercessione, à præsenti liberari tristitiâ et æternâ perfrui lætitiâ; per Christum Dominum nostrum. Amen.

—

Magnificat * anima mea Dominum,

Et exultavit spiritus meus * in Deo salutari meo.

Quia respexit humilitatem ancillæ suæ : * ecce enim ex hoc beatam me dicent omnes generationes.

Quia fecit mihi magna qui potens est, * et sanctum nomen ejus.

Et misericordia ejus a progenie in progenies * timentibus eum.

Fecit potentiam in brachio suo : * dispersit superbos mente cordis sui.

Deposuit potentes de sede, * et exaltavit humiles.

Esurientes implevit bonis, * et divites dimisit inanes.

Suscepit Israel puerum suum, * recordatus misericordiæ suæ,

Sicut locutus est ad patres nostros, * Abraham et semini ejus in sæcula.

Gloria Patri, etc.

—

¶ O salutaris Hostia,
Quæ cœli pandis ostium ;
Bella premunt hostilia,
Da robur, fer auxilium.

Uni, trinoque Domino
Sit sempiterna gloria ;
Qui vitam sine termino
Nobis donet in patria. Amen.

—

¶ Tantum ergo Sacramentum
Veneremur cernui ;
Et antiquum documentum
Novo cedat ritui :
Præstet fides supplementum
Sensuum defectui.

Genitori, Genitoque
Laus et jubilatio,
Salus, honor, virtus quoque
Sit et benedictio :
Procedenti ab utroque
Compar sit laudatio. Amen.

℣. Panem de cœlo præstitisti eis, ℟. Omne delectamentum in se habentem.

AURKHIBIDEA

I. ZATHIA.

Plaman

I. — Bi hitz. III

II. — AITA ARBELBIDE : *Kalbarioa*. 1

Jesu-Kristok nola eta zertako pairatu duen. — Zombat-nahi aphalduagatik, Jesus bethi Jainko eta nagusi soberano.

III. — JAUN LAPEYRE : *Jesus Olibetako baratzean*..... 17

Beldurra, ilhundura, atsekabea, odolezko izerdia.— Nondik heldu zayo Jesusi horrelako agonia? — Zer da bekhatua?

IV. — JAUN LAPEYRE : *Jesus Judasek saldua*. 45

Jesusen ontasuna, Judasen gogortasuna. — Judas nola zen hortaratu. —Komunione sakrileyoak are osokiago galtzen du Judas.

V. — Jaun Zanzinena : *Jesus Kaifasek kondenatzen du*... 73

Lekhuko faltsuez baliatzen da Kaifas. — Lekhukotasun faltsua, zer krima handia.— Juduen orduko atrebentzia, Erlisionearen kontra mintzo direnen atrebentzia bera. — Jaudone Petriren bekhatua eta konbertsionea.

VI. — Jaun Zanzinena : *Jesus Pilatusen tribunalean*..... 10

Pilatusek aithortzen du ez duela Jesusen kondenatzeko arrazoinik. — Halarik ere, Juduen beldurrez, kondenatzen du. — Orai ere hainitzek, Pilatus iduri, Erlisioneari ukho egiten.

VII. — Jaun Choribit : *Jesus azotatua eta arrantzez khoroatua*..... 12

Azotatze ikharagarri hartan zer oinazeak eta ahalgea Jesusentzat! — Gure bekhatuek eta guziz lohikeriek dute Jesus hortaratu.— Jesusen buru eta begitharte adoragarriak oro zaurthuak. — Zertako? gure urgulu eta hampadura guzien borratzeko.

VIII. — Jaun Beltzagy : *Pasione sainduko dolore neurrigabeak*... 14

Guziek behar dugula pairatu, eta

zergatik. — Nola behar dugun pairatu. — Zer probetchu dukegun pairamenetarik. — Nor dohatsu eta nor dohakabe.

IX. — Jaun Abbadie : *Jesus kurutzeari itzatua* 181

Zer sarraskiak eta minak! Zeruaren eta lurraren artean, kurutzetik dilindan, zer doloreak!— Nola ez maita, hoinbertzetaraino maite gaituen Jainkoa?

X. — Jaun Abbadie : *Ama-Birjinaren doloreak* 203

Hobeago semea, amodiotsuago haren Ama. — Eta hortik, zer bihotzminak, Kalbarioan, Mariaren bihotzminak! — Bere Seme Jainkoa ikhusten du hiltzen. — Hil ondoan, besoetara emaiten deraukote.

XI. — Aita Bastre : *Kalbario gaineko predikua* 225

Arroltzemendi, mendi dohatsua. — Oraidanik bertze izen hau behar du : *Kalbariomendi.* — Probetchu handia estazioneak Kalbarioan egitea.

XII. — Osogarria 231

XIII. — Mezako othoitzak. 247

Plaman

XIV. — Kurutzearen bidea 263

XV. — Othoitz bereziak 279

Kurutzefikari. — Zauri sakratueri. — Komunione ondoan kurutzefikari. Jesusen bortz zaurieri. — Bertze bat oraino zauri sakratueri. — Agonian direnentzat.

XVI. — Jesusen Begitharte Sainduaren Lethaniak 287

XVII.—Asko indulientzia 295

XVIII.— KANTIKAK. 301

Kurutzearen ohoretan :

1. Alegrantzietan 303
2. Jesus onaren Bihotz 306
3. Jesus Kurutzera 308
4. Kurutzearen bidea.. 311
5. Stabat eskuaraz 315

Misionetako :

6. Misionen ethortzeaz..... 319
7. Zato, Izpiritua..... 321
8. Heldu nauzu 324
9. Izpiritu amultsua..... 325
10. Zato, bekhatorea 327

Plaman

11. Hau da gure itsumendua..... 329
12. Mundu zoro. 331
13. Ah! gizona 332
14. Gizona 334
15. Zer dire gure egunak 337
16. Zuen heriotzeaz. 339
17. Aditzen da trompeta..... 340
18. Nigar marrasketan 344
19. Kreatura damnatua..... 347
20. Oi! zoin den zorthe tristea..... 352
21. Itzul hadi, itzul bekhatorea 356
22. Othe da deus nesesario denik 358
23. Zure kontra naiz altchatu... 359
24. Nola khausi deskantsurik..... 361
25. Ala ni bainaiz dohakabea 364
26. Ah! mundu enganagarria..... 366
27. Ez da mundu huntan..... 369
28. Zeren bilha zabiltza 375
29. Huna Jauna ardi bat..... 378
30. Utziz geroz bekhatua.. 380
31. Bekhatorosaren chede onak..... 382
32. Azkenekotz 385
33. Bizio medisentziaz..... 388
34. Oi! zoin diren dohatsuak 390
35. Kristau gazte maiteak..... 391
36. Purgatorioaz..... 395

Plama.i

37. Jesus ona noizbeit..... 397
38. Barkha..... 398
39. Barkha, Jauna!..... 400
40. Zerua saritzat..... 401

Lehen komunioneko :

41. Jesu-Kristo dut..... 410
42. Lehen komunioneko egunean..... 411
43. Komunione aitzinean..... 412
44. Komūnione ondoan..... 413
45. Altcha goazin Bathaioko..... 414

Sakramendu Sainduarentzat :

46. Zer zorion..... 418
47. Huna bildotz eztia..... 421
48. Zeru gorenetarik..... 423
49. Nahi duzue jakin..... 424
50. Bizirik naiz bainan ez..... 425
51. Huna Jesus bildotz..... 427
52. Lauda zagun..... 429
53. Oi! mirakuilu guziz..... 431
54. Oi! zer ogi dut ikhusten..... 433
55. Zerutik jautsi zare..... 434
56. Sinhesten dut..... 437
57. Ohore amodio..... 437

Plaman

Bihotz-Sakratuaren ohoretan :

58. O Jesusen Bihotz samur 438
59 Jesus onaren Bihotz maitea 441
60. Bihotz Jesus maitearena 442
61. Jesusen Bihotz maite..... 445

Ama-Birjinari ohoretan :

62. Kontsekrazionea..... 401
63. Mariari othoitza 403
64. Jainkoaren Ama..... 406
65. O Maria, Ama maitea!..... 407
66. Ama tristeziaz bethea 446
67. Zuri gaude, Ama ona..... 460

Besta berezi batzuentzat :

69. Josep fagora gaitzatzu..... 449
70. San Joseperi bertze bat..... 450
71. San Frantzez Azizakoa..... 452
72. San Inaziori 454
73. San Frantses Xavierekoari..... 457
74. Ukho bekhatuari 462

Arrosarioko hamabortz Misterioak

Bortz atzeginezkoak..... 465
Bortz misterio dolorezkoak 466

Plaman

Bortz misterio loriosak 468

Noelak

1. Oi! Eguberri gaua 469
2. Oi! gau dohatsua 470
3. Oi! Bethleem 471
4. Atzar gaiten 473
5. Hauche da 476

Othoitz ardurako batzu

Parce, Domine. 479
Miserere mei 479
A. M. B. Lethaniak 479
Magnificat 482
O Salutaris 483
Tantum ergo 483

ERRATA

Page 306 (3e ligne, 4e note, sur *a*) : lisez *ré* au lieu de *do*.

— 308 : il faut supprimer le *bémol* à la clef.

— 319 (3e ligne) : supprimez la 3e note sur la syllabe *tu*.

— 325 (5e ligne) : supprimez le *dièze* qui est devant la dixième note.

— 331 (4e ligne) : la dixième note est un *losange* sur la syllabe *a*.

— 352 (2e ligne) : la neuvième note est un *sol* losange et non un *la* sur *ste*.

— 356 : les quatre premières notes sont : *fa, sol, fa, sol,* et non : *sol, la, sol, sol*.

— 359 (3e ligne) : entre la onzième et la douzième notes, une barre.

A la 4e ligne : après la sixième note, mettre un *soupir* et le retrancher dans la mesure suivante.

— 360 (1re ligne) : la septième note est un *petit losange*, et la dixième aussi; celle-ci est séparée de la note suivante par une *barre*.

A la 2e ligne, la première note est un *petit losange*.

— 362 (2e ligne) : la treizième note est un *la*.

— 366 (2e ligne) : supprimez le premier soupir.

— 379 (2e ligne) : la première barre doit être après *sol*, la seconde entre la huitième et la neuvième notes.

Page 379 (3e ligne) : la cinquième note est un *la*.

4e ligne : la sixième note est un *petit losange;* la septième doit être supprimée et remplacée par un *si* losange.

— 386 (3e ligne) : après la cinquième note, il faut un autre *fa*.

4e ligne : supprimez la première note ; la onzième est un *la* et non un *si*.

5e ligne : la troisième note est un *do*.

— 396 : la première note est un *sol*.

— 414 (3e ligne) : la dernière note est un *do* losange.

— 415 (2e ligne) : la troisième note est un *la*.

— 427 (1re ligne) : la sixième note est un *sol*, la septième un *la*, la dixième un *fa*.

— 437 (3e ligne) : une *barre* entre les notes 9 et 10.

— 442 : la neuvième note est un *fa;* supprimez le *la* suivant.

— 449 (4e ligne) : la quatrième note est un *sol*.

Bayonne, imprimerie L. Lasserre.